



Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKADI IRRATIKO (EITB) ETA RADIO NAN GÀIDHEAL-GO (BBC ALBA)
KAZETARIEN PROFIL ETA JARREREN ALDERAKETA

Doktoreduna: Irati Agirreazkuenaga Onaindia

Zuzendariak: José Larrañaga Zubizarreta eta Javier Díaz Noci

Eusko Jaurlaritzaren Zientzia Politikarako Zuzendaritzak diruz lagundutako ikerketa. 2009-2012 urte bitarterako jasotako "Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko beka" eta hiru hilabetetako egonaldia egiteko Glasgow-ko Unibertsitatean, Philip Schlesinger irakaslearen babespean.

*If you talk to a man in a language
he understands,
that goes to his head.
If you talk to him in his language,
that goes to his heart.*
Nelson Mandela, 1995.

Hizkuntza batek ez daki
egiaren ala gezurraren berri.
Hori gizakion kontua da.
Hizkuntza batek
ez du hormarik eraikitzen,
kolorez pintatzen ditu.
Hizkuntza batek
ez du inor hiltzen,
batu egiten gaitu.

Baina hori bai, hizkuntza bat,
hizkuntza bat hil egiten da.
Kirmen Uribe, 2004.

ESKER ONEZ

Ikerketa lan honek behar izan duen prozesu luzea ezin liteke bakarkako proiektutzat hartu. Izan ere, tesi honetan hizpide ditugun gaien aurreko ikerketek, batetik, eta aukeratutako edukiak egoki garatu ahal izateko hainbat pertsonen laguntzak, bestetik, bere biziko garrantzia izan dute. Horregatik, aurrean dugun tesia abiatu aurretik lan honetara hurbildu eta bertan murgildu nindutenen borondatea, baita lanaz gozatu eta azkenean emaitza aproposa azaleratzen lagundu nautenena ere gogora ekarri nahi nuke. Ezin izango nituzke prozesuan lagundu didaten guztien izenak ekarri eta, beharbada, ezustean norbaitena aipatu ez badut ere, aldeztu aurretik eskerrak eman nahi dizkiot bide sasitsua, arantzaz baino arrosaz beteago egiten lagundu duen orori.

Lehenengo, tesi honen zuzendaritzaz arduratu diren Jotxo Larrañaga eta Javier Díaz Noci eskertuko nahi ditut, tesiaren prozesu nekezean eskainitako laguntza akademiko eta bestelakoarengatik; bai landa-lanean, bai atzerriko egonaldian, baita idazketa prozesuan gogotsu jarduteko eta indarrez eusteko emandako kemen eta hitz zorrotz zein adoretuengatik. Era berean, Nazioarteko Tesia aurkezteko aukera Philip Schlesinger eta Raymond Boyle Glasgow-ko Unibertsitateko katedradunei zor diet. Schlesinger-ek aparteko babes eskaini dit niri tesiaren edukia izugarri aberastu duen ikerketa egiteko Centre for Cultura Policy Research sailean egonaldia egiteko aukera eskainiz. Boyle-k, ezezaguna zitzaidan espazio eta pertsonekin ikerketa bideratu behar izateak berez dakartzan segurtasun eza eta zalantzak argitzen lagundu ninduen, bere agenda estuan nire galdera eta proposamenei adeitasunez erantzuteko denbora hartuz.

Tesi honen sorrera lana ezin da ulertu ikertzaileak denbora honetan zehar parte hartzeko aukera izan duen kongresu eta mintegietan eskuratutako esperientzia eta ezagutzatik aparte. Luze joko luke egitasmo horietan ezagututako ikertzaile bikain guztiak aipatzea, baina batzuk azpimarratzearen, ECREA-k (European Communication Research and Education Association) Hamburgo-n eta Braga-n antolatutako kongresuetan ezagututako Guy Starkey, Mercator Institute for Media-ren eskutik Aberystwyth-en lekututako sinposioa antolatu zuen Elin Haf Gruffydd

Jones, eta Glasgow-ko unibertsitateko egonaldia interesgarriagoa egitea lortu zuen Jose Mari Zendoari, eskerrik beroenak; entzuten jakitearren eta proiektuan konfiantza izatearren. Ildo beretik, eskertzekoa dut EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko eta Kazetaritza II Saileko hainbat irakaslek eskainitako prestutasuna; besteak beste, Manuel Martínez Monje Soziologia Saileko irakasleari, ikerketa kuantitatiboan barneratzeko grina piztearren.

Eskerrak bereziki, izen eta abizenez aipatu gabe utzi ezin ditudan Ainara Larrondo eta Estitxu Garai-ri. Biak ala biak lagun eta profesional apartak. Lan serio eta esperientzia sendotik abiatutako Ainara Larrondoren gomendio eta iradokizunek, tesiari aupada ematen lagundu didate.

Estitxu Garai-ri berriz, eskerrik asko pasillo estuan, bulego hutsalean zein telefonoaren beste aldean nire alamera entzun, eta edozein unetan aholkuak partekatu eta zalantzak eztabaidatzeko prest egotearren, beti ere ideia eta gomendio burutsuak eskainiz.

Tesi honetan bere biziko garrantzia izan dute behaketa zuzenek eta sakoneko elkarrizketek, eta hasiera batean lagina osatzek zailtasunak izan arren, zenbaiten laguntzari esker horiek ere erosotasunez gainditu ahal izan dira. Honenbestez, eskainitako adeitasuna eskertu nahi diet ikerketa honetan parte hartzeko prest agertu diren Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go kazetari eta langile guztiei. Horien artean, elkarrizketak eta behaketak bideratu baita informazio erraztu diguten Norrie MacLennan, Arantza Kaltzada eta Margaret Mary Murray-ri.

Era berean, nazioarteko tesi honetan aurkezten diren ingelesezko testuek agertutako ingeles maila duina Iñaki Mendiguren eta Sarah-ri zor diet. Mila esker testu astunak ulertu eta bikain egokitzearren, umorea eta irribarrea galdu barik.

Horrez gain, inginiari edo arkitekto izan gabe ere etxe honen eraikuntzan beharrezkoak izan diren esku eta ahotsak aipatu nahi nituzke. Julen Idigoras, tesiaren portadako irudia egiteko konpromisoa hartu eta betetzearren. Nire hurbileko lagun Amaia, Maitane, Amaia E., Leire eta Naia-ri, nire “ezetzak” ulertu eta hala ere irribarrea ez galtzera gidatzearren. Eskerrik asko Unairi, gau eta egun ene kirioak eta amaierarik gabeko berbaldiak agoantatu dituen horri.

Azkenengoz, *last but not least*, mila esker sarritan lan honetan nik neuk baino gehiago sinistu dutenei, gurasoak eta ahizpa Leireri.

AURKIBIDEA

0. HITZAURREA.....	11
I. SARRERA: Hizkuntza gutxituak eta kazetaritza	13
1. IKERKETA OBJEKTUAK ETA BEREN AUKERAKETAREN GARRANTZIA	32
1.1. Konbergentziaren eragina kazetarien egunerokoan.....	35
2. HELBURUAK ETA IKERGALDERAK	39
3. AURREKARIAK: Euskal irratigintzaren sorrera eta lehen esperientziak (1925-1976)	42
3.1. Euskarazko irratigintzaren sorrera, garapena eta finkatzea (1925-1937)	42
3.2. Espainiako Gerra Zibila eta Francoren erregimeneko irratigintza (1937-1960).....	44
3.3. Frankismo garaiko euskarazko irratigintza (1960-1976).....	47
II. GAUR EGUNGO KAZETARIEN EGINKIZUNEN INGURUKO EZTABAIDA TEORIKOAK	49
4. KAZETARIEN ZEREGINAK ETA LAN-OHITURAK.....	50
4.1. “Kazetari” kontzeptuaren atzetik.....	50
4.2. Goi-mailako ikasketen beharrezkotasunaren auzia	52
4.3. Kazetarien rolak hainbat testuingurutan	55
4.4. Albistegietatik kanpoko kazetariak.....	57
5. KAZETARIEN PROFESIONALITASUNAREN INGURUKO EZTABAIDAK.....	58
5.1. Profesionaltasunaren afera eta kazetarien profilen eraikuntza	58
5.2. Profesionaltasuna zehazteko proposatutako aldagaiak	60
5.3. Kazetari taldeen arteko alderaketak	67
III. METODOLOGIA: Kazetarien profila eta portaerak ezagutzeko bideak	74
6. UNIBERTSOA ETA TESTUINGURUA.....	78
6.1. Euskadi Irratia (EITB)	78
6.2. BBC Radio nan Gàidheal (BBC Alba)	82
7. IKERKETA ALDIAK ETA LAGINKETA: ASKOTARIKO METODOLOGIEN APLIKAZIOA EUSKADI IRRATIA ETA RADIO NAN GÀIDHEAL-EN, 2011-2012 EPEALDIA	86
7.1. Triangelaketa metodologikoaren erabilera.....	88
7.1.1. Lagina: Sakoneko elkarrizketatuak eta inkestetarako aktoreak ezartzen	89

7.1.2. <i>A priori</i> . Tresna metodologikoak diseinatzea	96
7.1.3. <i>In situ</i> . Ikerketa objektuekin kontaktuan landa-lana zuzenduz.....	109
7.1.4. <i>A Posteriori</i> . Landa-lanaren ostekoa.....	121
7.2. Beste jatorrizko sorburuak.....	124
IV. EMAITZAK ETA EZTABAIDA: EZAGUTZA BERRIETAN SAKONDUZ.....	128
8. EUSKADI IRRATIA: KAZETARIEN PROFILAK ETA	
JARRERA-JOKAMOLDEAK.....	131
8.1. Albistegien eta programen sorketa zikloa.....	136
8.1.1. Bilerak, gai-ordena eta erreferentzia informatiboak	138
<i>8.1.1.1. Magazin eta albistegietako profesionalen ezaugarri dibergenteak</i>	<i>156</i>
8.1.2. Gaien aukeraketa albistegietan: bereizgarritasunak mantenduz,	
informatibo ulergaitzetik ihesi	159
8.1.3. Konbergentzia motak	167
<i>8.1.3.1. Kazetari taldeak</i>	<i>168</i>
<i>8.1.3.2. Eduki trukaketa ez-sistematikoak kazetarien artean</i>	<i>170</i>
<i>8.1.3.3. EITBko edukien erabileraren amortizazioa</i>	<i>172</i>
8.1.4. Kazetarien arazo, erantzun eta erronkak: kultura eta	
portaera komunak	173
<i>8.1.4.1. Edukien produkzioarako denbora: orotariko gaiak lantzen</i>	
<i>dituen nonahiko kazetariaren muga</i>	<i>175</i>
<i>8.1.4.2. Hizkuntza baldintzatzaile denean: komunikazioa lehenetsiz erabaki</i>	<i>178</i>
<i>a) Erdarazko soinu-zatien erabilera: zilegitasuna eztabaidagai</i>	<i>181</i>
<i>b) Euskararen kalitatea irratian = kazetarien komunikatzeko gaitasuna.....</i>	<i>192</i>
b.1) Euskadi Irratirako euskara kontseiluko arduraduna:	
2009tik indarrean	196
<i>8.1.4.3. Abagune politiko berriak sortutako ezinegonak: 2009-2012.....</i>	<i>198</i>
<i>8.1.4.4. Berrikuntzen beharra: tokian-tokiko informazioa,</i>	
<i>zabalkunde geografikoa, gidoigintza.....</i>	<i>201</i>
8.1.5. Kalitatezko edukiak: zer eta nola	220
8.1.6. Irratiaren webgunea elikatzea	228
<i>8.1.6.1. Webgunearen antolaketa eta espazio berrien sorrera.....</i>	<i>231</i>
<i>8.1.6.2. Kazetarien jarrera interneteko edukiekiko: Konbergentziarik eza</i>	<i>233</i>
8.1.7. Produkzioaren kontrola: istorio arazotsuak eta presio taldeak	234

8.2. Entzuleak eta munduaren ikuskera kazetarien irudipenean.....	238
8.2.1. Lan-ingurunearekiko pertzepzioa: irratia eta lanbidea	244
9. BBC RADIO NAN GÀIDHEAL-GO KAZETARIEN PROFIL, ZEREGIN ETA JARRERAK	248
9.1. Albistegi eta programen sorrera.....	252
9.1.1. Askotariko hedabideetarako ekoizpena.....	254
9.1.2. Erreferentziatzko informazio iturriak kazetari gaelikoentzat	256
9.2. Ingelesezko aipuen erabilera eta hizkuntza mailaren bilakaera.....	260
9.2.1. Kazetarien ikuskerak gaelikoaren erabileraz irrati eta telebistan	262
10. KAZETARI EUSKALDUN ETA GAELIKOEN PERTZEPZIOAK: LAN-AUTONOMIA, ERAGITEKO AHALMENA, BESTE KAZETARIEN BALIOZTAPENA, GOGOETARAKO DENBORA, BALIABIDE TEKNIKOAK ETA ASETASUN MAILA.....	262
V. ONDORIOAK.....	273
11. PROFIL SOZIALA ETA IBILBIDE PROFESIONALA	274
12. KAZETARIEN LAN-FUNTZIONAMENDUA ALBISTEGIETAN ETA PROGRAMETAN	275
13. HAUTEMANDAKO OZTOPOAK ETA EMANDAKO ERANTZUNAK	280
14. PROFESIONALITASUNAREN ADIERAZLEAK.....	281
15. ENTZULEAK ETA IRUDIKATUTAKO UNIBERTSOA	284
16. ASEBETETZE PROFESIONALA ETA NORBERE BURUAREN IRUDIPENA	285
17. AZKEN GOGOETA PERTSONALAK ETA ETORKIZUNARI BEGIRAKO IKERKETA LERROAK	287
VI. ERREFERENTZIAK	291
VII. ERANSKINAK	323
Eranskina 1: Sakoneko elkarrizketen galdetegia	324
Eranskina 2: Behaketetarako finkatutako irizpideak	327
Eranskina 3: Kazetarietarako inkesta	333

Hitzaurrea

Esku artean duzun idazkia 2013. urtean Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV-EHU) Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatean defendatutako nazioarteko tesia dugu. Tesiaren izenburu osoa *Euskadi Irratia (EITB) eta Radio nan Gàidheal-go (BBC ALBA) kazetarien profil eta jarrearen alderaketa/ Comparing profiles and attitudes of Euskadi Irratia (EITB) and Radio nan Gàidheal (BBC ALBA) journalists* da. Beraz, euskaraz eta ingeleraz idatzitako tesia dugu bere osotasunean, eta bi hizkuntza horietan defendatua izan zen ondorengo kideek osatutako nazioarteko epaimahaiaren aurrean: Philip Schlesinger Doktore eta katedraduna (University of Glasgow) mahaiburu legez; Ainara Larrondo Ureta Doktorea (Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco) idazkari bezala; Carmelo Garitaonandia Garnacho Doktore eta katedraduna (Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco), Jean-Jacques Cheval Doktore eta katedraduna (Université Bordeaux-Montaigne) eta Guy Starkey Doktore eta katedraduna (University of Sunderland) mahaikide gisara. Doktorego-tesia epaitu zuten bost epaimahaikideek Gai *Cum Laude* kalifikazioa igorri zioten idatzi eta defendatutako lanari.

Ikerketa lan hau EHUko Kazetaritza Sailean sortutako ikerketa taldearen baitan kokatzen da, lehenago Javier Díaz Noci Doktore katedradunak eta ondoren José Larrañaga Zubizarreta Doktoreak gidatua –biak hala biak doktore-tesiaren zuzendari izan ditudanak. Aipatu taldearen ikerketa lerroak kazetarien egiteko, lan-errutina eta ohitura, tresna, profila, konbergentziaren eragina irrati eta telebista publiko eta pribatuetan, erabilera multimedia, hainbat komunikabideren artean sortutako sinergia edo bateraketa, eta kazetarien profesionaltasunaren inguruan kokatzen dira. Horrela, behin tesina Loiolako Herri Irratiak demokrazia garaiko euskarazko irratigintzari eta oro har euskarazko irrati publikoari egindako ekarpenari buruz idatzi eta gero, nire zuzendarien ikerketa lerroak jarraitu eta azterketa konparatiboan garatu dut aurrean dugun azterlana.

Hala, doktore-tesia burutzeko aztergaia bi naziotan burutu dugu: Euskal Herrian – Bilbon eta Donostian nagusiki– eta Erresuma Batuaren baitan kokatzen den Eskozian

–Glasgow, Edinburgo eta Inverness hirietan– garatuta dago. Euskal Herriaren kasuan EiTbko *Euskadi Irratia* izan genuenez ikerketa kasu nagusi, Eskozian BBC Scotland-en baitan kokatutako *Radio nan Gàidheal* irratia –eta saio konkretu batzuetan *BBC Alba* telebista katea baita– izan dugu aztergai. Azken irrati hori eskoziar gaelikoz ari da, eta Glasgow-eko unibertsitatean egindako egonaldian (*University of Glasgow, Centre for Cultural Policy Research*) ohartu ginenez nazio honetan ez dira asko aipatu hizkuntza gutxitua erabiltzen dituzten hedabideak aztertzen dituzten ikerlanak. Horrela, une horretan erabaki zen tesia ikuspegi konparatiboan oinarrituko genuela, euskarazkotik hasita eta bertako hizkuntza den eskoziar gaelikoz emititzen zuten hedabide publikoak erreferentziatzat harturik.

Argitalpen honetarako ordea, euskara hutsean izanik, ingelesezko atala laburtua ageri da irakurleari arinagoa gerta dakion beti ere bere jatorrizko egitura osotua mantenduz eta hasieran eta bukaeran adierazitako helburuei baita ondorioei ere men eginez edo erantzunez. Horrela bada, Glasgow-eko unibertsitatean egindako egonaldian eskuratutako landa-laneko datuak gehi Euskal Herrian egindakoa ere, ingelesez zabaldu ditu egile honek azken urtean parte hartutako kongresu eta mintegietan (besteak beste, “Public Service Media in the Basque Country”, Expert Workshop on Minorities, Media and Intercultural Dialogue (Flensburg), *European Centre for Minority Issues* (ECMI); “Resilient journalists at European media: perceptions of Basque and Scottish Gaelic broadcasters”, Europe of Regions-The Role of the Media (Oxford), *European Studies Centre*; “The strengths of radio journalists working in lesser-used European languages”, Radio-the Resilient Medium (Londres), *European Communication Research and Education Association*, izen bereko liburuan argitaratua. Modu honetan esku artean duzun dokumentuan ingelesezko atala ez da ageri (soilik era laburtuan euskaratuta) baina eskuragai daude datu berak era garatuagoan bestelako ingeles hutsezko argitalpenetan. Ikuspegi teoriko eta metodologikotik zenbait erronka planteatzen ditu tesi honek aintzat hartuta bi hizkuntzatan garatu dela, bi errealitatearen alderaketa proposatuz, baina ingelesez garatutako atala euskarazkoaren batera (ingelesera itzulita) aldizkari berezituetan argitaratzeko hautua egin da. Honela euskal kasua eta Euskal Herriko esperientzia nazioarteko aldizkarietan ere aztergai bihurtzen da.

I. SARRERA:
hizkuntza gutxiak eta kazetaritza

I. SARRERA: hizkuntza gutxituak eta kazetaritza

Marshall McLuhan-ek (1959) zera zioen: "Hedabidea, mezua bera da. Soilik ustekabez da, nolabait esateko, hedabide bat esanahidun bitarteko berezi edo erreferentziazkoa" (McLuhan, 1959: 340). Beraz, edukiak berak soilik ez du mezua osotzen, baita mezua edo esanahia osotzeko forma konkretu bat erabiltzearen ekintza kontzienteak. Hizkuntzaren gaira mugatuz, McLuhan-en aburuz jendeak hizkuntza bat zelan erabiltzen duen eragin gutxi du hizkuntzan bertan. Aldiz, garrantzitsuagoa da hizkuntza horretan adierazten dena eta hizkuntza erabiltzen dutenek, sentitzen dutena, hizkuntza batek ia erabat determinatzen duelako "hizkuntza horren erabiltzaileek pentsatu, sentitu edo esaten dutena. Eta guztiz aldatua izan daiteke beste hizkuntza bat sartzen denean, idazketak solasa aldatu zuen bezalaxe edota telebistak irratia" (*ibidem*).

Gehiegi xigortu dut ogia gaurkoan; erretako ogi apurrek eta arabisagar garratzegiak mingots antzera laga dit mihia gosaritan... *Goizeko zortziak dira, Euskadi Irratian, albisteak. Jaun-andreok egun on deizuela. Atzo arratsean hil zen euskal politikari eta idazle...* Eta orain sekulako auto-ilara atrapatu behar! Baina zertan dabil nire atzeko gizon hori klaxona jo eta jo, ez al duzu ikusten oraindik ez dudala kotxe hegalaria erosteko bezain beste kobratzen?! ... *jakina Juan Luis, hala ere, azalduko al diezu gure entzuleei nondik abiatzen zaren horrelako obra baten sortze prozesuan...* Hau duk hau tipo xelebrea, ez nekien ba nik...¹

Guk ere ez genukeen horren berririk izango uhinetatik hitz egin ez baligute, irudiek harrapatu ez bagintuzte, berba idatziak gure buruan ahoskatu izan ez bagenitu; informazio hori gure burmuinetan txertatua izan ez balitz, ahulagoak ginateke gure sistemaren barnean. Dena dela, eskerrak baden jazoera, xehetasun, deskribapen, kuriositate hori jendartean zabaltzera ekin dionik, gertaera puntual bat izan zitekeena masen erdigunera jasotzera arduratu denik; hainbat gizabanakoren begien aurrean existitzen ez dena, berauen irudipenean jazoera erreal modura zizelkatzeari ekin dionik. Eta ikusi edo ukitu ez baina sentitu edo sinistu dezakegun errealitate hori

¹ Argitaratu gabeko nire fikziozko gidoi batetik hartutako pasartea.

desberdina izango da jasotzen dugun kanalaren arabera, baina baita erabiltzen dituen hitzen, esamoldeen, hiztegiaren, hots, lengoaiaren arabera. Hizkuntza da hitzen bitarteko komunikazio prozesuen oinarria, eta eduki jakin batzuk milaka izan daitezkeen biztanleren artean hedatzeaz arduratzen denak ondo menperatu behar du hizkuntza horren erabilera, adiera, izaera. Gizabanako hitzun bakoitzaren esku dago, unean-uneko eta ondorengo belaunaldiek hizkuntza horri emango dioten balioa edo zelako erabilera hartuko duen erabakitzea, edo, kasurik okerreanean, erabilera emango dioten edo ez. Alabaina, zer gertatzen da hizkuntza bat baino gehiago bizikidetzan dauden gizarteetan? Kontuan izan behar dugu, hizkuntza ugaritasun edo aniztasuna gizartearen berezko ezaugarri arrunta dela. Are gehiago, gaur egungo Estatu-nazio gehienak ez dira inoiz ere elebakarrak izan ezta izango ere, eta UNESCO-k argitaratu berri duen bezala, azpimarratu beharra dago eleaniztasuna salbuespena barik, araua dugula; "Gizakiaren gizartearentzat hizkuntza-aniztasuna naturarentzat biologia-aniztasuna dena da, elkarrekiko aberastasunerako, hurbilketarako eta kultura arteko elkarriketarako eragilea dugu" (UNESCO, 2011 *apud* Idiazabal, 2011: 7). Horrez gain, hizkuntza baten erabilerak eragin handia du gizabanakoen identitatearen taxutze eta garapenean, hizkuntzaren bitartez partekatu eta negoziatzen baitugu gure identitatea beste gizabanako batzuekin (Clément, Baker, Josephson, Noels, 2005: 399-422).

Komunikabideek norberaren hizkuntza erabiltzeak, asmo handiko arazoa izaten jarraitzen du hizkuntza gutxituetako komunitateen artean (Gorter, 2008: 169-175, 2012: 89-102; Jones, 2007: 188-211; Hourigan, 2007: 248-265). "Hizkuntza gutxitu" terminoari dagokionez, definizio bat baino gehiago jaso ditu hainbat jakintza-arlotan. Soziologiaren esparrura begiratu, Manterola eta Berasategi-ren (2011) hizkuntza gutxituen erronken inguruko lanean ondorengo definizioa topa dezakegu: "Hainbat irizpideren arabera (kulturalak, erlijiosoak, politikoak edota etnikoak) gehiengo taldetik bereizitako azpitaldea, talde menderatzailearekin askotariko erlazioak dauzkana, neutraltasunetik gatazkarainokoak" (Boudon, Bourricaud, 1994: 374). Soziologia eta antropologiaren esparruan ere definitu izan da gutxiengo kontzeptua (ikus Poche, 2000; Ferréol, Jucquois, 2003), baita ere zientzia politikoetan eta zuzenbidean eta arlo horietako autoreek hizkuntza gutxituak edo gutxiengoak definitzeko oraindik irizpide falta dagoela aitortzen dute: "gutxiengoak bezalako kontzeptuen definizioa gizarte-zientzietan eta legedian korapilatsuena izan den auzia

da (...) ez dago (...) oraindik gutxiengo baten definizio onarturik” (Phillipson, Rannut, Skutnabb-Kangas, 1995: 12). Mackey-ren ustetan (1976) gutxiengo terminoak esanahi numeriko hutsa (hiztunen kopurua) gainditzen duen konnotazioa gehitu zaio, eta Heller-en (1999) aburuz “gutxiengo linguistikoak baztertu egiten dituzten nazionalismoek sortuak dira” (1999: 7).

Ethnologue: Languages of the World 16. edizioaren arabera (Lewis, 2009), 6.909 dira munduan bizirik irauten duten hizkuntzak; Skutnabb-Kangas-en (2000) aburuz, zenbateko hori hamaika milara heltzen da, keinu-hizkuntzak ere barne hartuz. Kontinenteka, hizkuntza kopuru gehien Asia-n dugu, 2.322 hizkuntza erabiltzen dira eta. Afrika dugu ia parean, 2.110 hizkuntzarekin, Pazifikoa ere ez dabil urrun 1.250ekin; Amerikan 993 daude eta Europa da hizkuntza kopuru gutxien hartzen dituen, 234 (<http://www.ethnologue.com>). 2004ean UNESCO-k argitaratutako txostenean, une honetan munduko hizkuntzen %50ak desagertzeko arriskua du, eta WorldWatch Institute-ren arabera, milurteko honen bukaerarako hizkuntzen %50 eta %90 artean gal daitezke. Eta hizkuntzarekin batera, jakina, mundu ikuskera desberdin bat, talde identitate bat, gizateriaren ondare biziaren funtsezko zati bat galtzen dugu. Kontua da, aipatutako hizkuntza horietatik %95a gutxituak direla (Manterola; Berasategi, 2011: 7), hau da, hizkuntza horiek erabiltzen diren komunitateetan badago beste hizkuntza menperatzaile bat, hedapen handiagoa duena eta gizarteko hainbat alorretan itzal egiten diona. Hala ere, gutxitu esaten dugunean kontuz ibili behar gara, hizkuntza gutxitu guztiek ez baitute egoera bera jasaten.

Dena dela, lan honetan geografikoki Europa izan dugu mugarri, aztergai diren kazetariak Europa barneko hizkuntza gutxituak dituztela lanabes kontuan hartuz. Honenbestez, Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Gutunak² (*European Charter for Regional or Minority Languages*) ezartzen duen definizioa izan dugu ardatz:

² Eskualdeko Hizkuntza edo Hizkuntza Gutxituen Gutun Europarra 1992an Estrasburgon Europako Kontseiluaren babespean Europako hizkuntzen babes eta sustapenerako berretsitako hitzarmena dugu, edo nahiz eta sinatzaileen herrialdeetako batean ofiziala izan beste batean ez denean edo nahiz eta sinatzaileen artean ofiziala izan ageriko ahuldura duenean. Gutuna, Kongresuaren iradokizunak oinarritzat harturik idatzia izan zen Asanblada Parlamentarioan. Hizkuntza horien artean, tradizionalki estatuko biztanleek erabilitako hizkuntzak (kanpoan utziz beraz beste estatu batzuetako etorkinen hizkuntzak), nabarmen desberdintzen direnak estatuko hizkuntza nagusi edo ofizialetik (kanpoan utziz hizkuntza nagusi horren dialektoak), baino ez dira barne hartzen.

hizkuntza gutxituak Estatu bateko lurraldeko pertsonen tradizioz erabilitako hizkuntzak dira, eta pertsona horiek estatuko gainontzeko populazioarekin alderatuta talde txikiagoa osatzen dute; estatuko hizkuntza ofizialetatik desberdinak dira, eta beraz ez dira barnehartzen estatuko hizkuntza ofizialen dialektoak zein etorkinen hizkuntzak” (ECRML, 1992: 1 artikulua).

Europako testuingurua harturik, izaera desberdineko hizkuntza gutxituak desberdindu behar ditugu. Era honetan, *Mercator* izeneko Hizkuntzen Ikasketarako eta Eleaniztasunerako Ikerketa Zentro Europarrak (*European Research Centre on Multilingualism and Language Learning*), kontinente zaharreko hizkuntza gutxituak desberdintzeko ondorengo sailkapena egin zuen (<http://www.mercator-research.eu>):

- 1- Estatu bakarrera mugatzen diren hizkuntzak. Esaterako, galesa Erresuma Batuan, galiziera Espainian eta mendebaldeko frisiera Herbeeretan.
- 2- Estatu bakarrera baino gehiagotara zabaltzen diren hizkuntzak. Esaterako, euskara Espainia eta Frantzia, eta katalana Espainia, Frantzia eta Italian.
- 3- Estatuaren arabera, gutxitu zein nagusi izan daitezkeen mugaz bestaldeko hizkuntzak. Esaterako, hungariarra Eslovakian eta alemana Danimarka, Italia, Belgika eta Frantzia.
- 4- Estatu mailan hizkuntza nazionalak direnak baina Europar Batasuneko lanetarako ofizialak ez direnak. Esaterako, luxenburgera Luxenburgon eta irlandera Irlandan.
- 5- Lurraldetasunik gabeko hizkuntzak. Esaterako, erromania eta yiddisha.


Mendebaldeko Europan 50 eta milioi bat arteko hiztunak dituzten 30 hizkuntza gutxitu daude. Hauen artean beren nazioan baita estatu-nazioan gutxituak direnak kokatzen dira; izan ere beste batzuetan, hizkuntza gutxitua estatu mailan baina bere nazioan biztanleen gehiengoak hitz egiten du; badaude izaera ofiziala dutenak eta ez dutenak; eta jakina, hiztun kopuru desberdinak dituzten hizkuntzak. Kontuan izan behar dugu munduko hizkuntzen ia %82k 100.000 hiztun baino gutxiago dauzkala eta %56ak 10.000 hiztun edo gutxiago (Manterola, Berasategi, 2011: 17). Ezaguna da baita gehien hitz egiten diren hizkuntzak txinera, gaztelania eta ingelesa direla. Ikerketa honek, batez ere azken bi hizkuntza erraldoi horiekin batera bizi diren hizkuntzak eta euren komunitateak ditu ardatz nagusi. Batetik Euskal Herrian

gaztelania eta frantsesarekin bizi den euskara, eta bestetik, Eskoziako nazioan, Erresuma Batua, ingelesarekin bizi den eskoziar gaelikoa.

Eusko Jaurlaritzak Siadeco enpresaren bitartez 2011an gidatutako inkesta soziolinguistikoak, egungo euskararen egoera adierazten digu -inkestak lau ikerketa eremu jasotzen ditu: euskal herritarren hizkuntza-gaitasuna, hizkuntzaren transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, lanean eta eremu formaletan) eta euskararekiko jarrera-. Horrela, Euskal Herri osoan 714.136 euskaldun elebidun -euskara eta gaztelania edo euskara eta frantsesa hitz egiten dutenak- daudela baieztatu daiteke (V. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritza, 2012: 8); alegia, Euskal Autonomia Erkidegoa (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba probintziak), Nafarroa eta Iparraldea batuz. Horrez gain, aipatu gune geografikoan 388.255 elebidun hartzaile daude, hau da, euskaraz mintzatu ez baina euskaraz ulertu eta, besteak beste, euskarazko hedabideak kontsumitzen dituztenak (ibidem). Euskal Herrian guztira 2.648.998 pertsona bizi dira 2011ko datu horien arabera, 20.924km²-tan. Ondorengo taula eta mapan argiago ikusi dezakegu lurralde eremu bakoitzeko biztanleriaren hizkuntza-gaitasuna (irudiak 1 eta 2):


	Euskal Herria	EAE	Nafarroa	Iparraldea
Guztira	2.648.998	1.873.498	537.139	238.360
Elebidunak	714.136	600.058	62.977	51.100
Elebidun hartzaileak	388.255	325.967	40.546	21.742
Erdaldunak	1.546.607	947.473	433.616	165.518

Irudia 1: Euskal Herriko lurralde geografikoen biztanleria, hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta. Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritza, 2012: 8.




Irudia 2: Euskal Herriko lurralde geografikoen biztanleria portzentajeetan, hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta. Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritza, 2012: 8.

Beraz, Euskal Herriaren batasun kulturala, alegia, euskal hizkuntza hitz egiten den eremua, Espainiako iparraldean eta Frantziako hegoaldean kokaturik dago. Atzera begiratuz gero, zehazki XIX. mendera, euskarak hedapen zabalagoa zuela baieztatu daiteke (irudia 3):




Irudia 3: Louis Lucien Bonaparte-k sortutako euskalkien mapa. Londresen inprimatua 1863an. Euskalkien inguruko azken mapa gaurkotua Koldo Zuazo-k (2008) argitaratu du. Horrez gain, euskalkien gaian sakontzeko ikusi baita ere Pagola (1984, 1992). Iturria: Euskaltzaindia.

Aurreko mapa Luis Luciano Bonaparte-k sortua izan zen eta Londresen inprimatua 1863an. Euskal hizkuntzak zazpi probintzietan zehar zuen hedapena azaltzen du. Kolore bakoitzak bertako eremuko euskalkia adieraztea du helburu. Aipatzekoa da garai hartan euskal gunetako biztanleen gehiengoa euskaldun elebakarra zela; Euskal Herrian 1967tik aurrera lortzen da euskaldun oro elebiduna izatea (irudia 4) -gaztelania eta euskara-.




Irudia 4: Euskal Herriko biztanleria elebiduna 1979an. Iturria: Euskaltzaindia eta Siadeco, 1979.

Alabaina, azken 21 urtetako eboluzio ikusita, euskal hizkuntzak bultzada handia jaso duela esan daiteke gero eta hiztun elebidun gehiago dauden heinean –horrek, jakina, azken 30 urteetan sortutako euskara suspertzea helburu izan duten programa politikoak ditu atzean-. Ondorengo irudietan ikusi dezakegu euskaldun elebidunen kopuruan eman den goranzko bilakaera (irudia 5):




Irudia 5: Euskal elebidunen, elebidun orekatuen eta erdal elebidunen garapena. Iturria: V. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzza, 2012: 12.

Eskoziako gaelikoaren kasuan, *Gàidhlig*, hiztunen kopurua murriztagoa dela ikusiko dugu. Eskoziako nazioak 78.782km² ditu non 5.222.000 biztanle bizi diren (General Register Office for Scotland, 2010eko datuak). Gaeliko hiztunen zenbatekoari dagokionez, kasu honetan 2001eko erroldaren datuak baino ezin izan ditugu eskuratu, 2011an egindakoaren lehen emaitzak 2012ko abenduan argitaratuko dituztelako. Gaelikoaren gaia aztertzerakoan, eskoziarrei lau galdera egin zizkieten: ea gaelikoz idazteko gaitasuna duten, ea irakurtzeko gaitasuna duten, hitz egitekoa edo ahozko gaelikoa ulertzekoa. Emaitzen arabera, 2001an Eskozian hiru urtetik gorako 92.400 pertsonak zuten gaelikoaren inguruko nolabaiteko gaitasuna (Scotland's Census Gaelic Report, 2005: 5) (irudia 6).



Map 2 - Parishes in Scotland by the percentage of people aged 3 and over who speak Gaelic, 2001



Irudia 6: Gaeliko hiztunen kopurua Eskozian, 1981 eta 2001. urteetan. Iturria: General Register Office for Scotland, 2005.

Ondorengo taulan adierazten denez, zenbaki honek behera egiten du irakurri, hitz egin eta idazteko gaitasunez alderatuta, nahiz eta hamar urte lehenago baion datu hobeak eskaini (Taula 1):

Gaelic area of residence	Total people		Some Gaelic Language ability		Understands but cannot speak		Speaks, reads and writes	
	1991	2001	1991	2001	1991*	2001	1991	2001
Scotland	4,809,698	4,900,492	69,510	92,396		26,722	29,450	31,218
Eilean Siar	28,559	25,745	19,736	16,423		2,374	10,171	8,999
Skye & Lochalsh	11,296	11,774	4,847	5,095		912	2,171	2,370
Rest of Highland	185,997	190,517	10,455	13,263		3,886	3,954	4,540
Argyll & Bute	88,547	88,676	6,165	6,515		1,897	1,896	1,924
Other Gaelic Areas	23,210	25,475	821	1,138		280	359	360
Rest of Scotland	4,473,069	4,558,305	28,484	47,957		17,393	10,871	13,025

Taula 1: Hizkuntza gaelikoaren nolabaiteko gaitasuna duten 3 urtetik gorako biztanleriaren kopurua, 1991an eta 2001ean. *Daturik ez. Iturria: General Register Office for Scotland, 2005.

Bi kasuetan hizkuntzek gaztelera eta frantsesa edo ingelesa bezalako mundu mailako hizkuntza indartsuei egin behar diete aurre, eta gogoratu beharra dago, egun gaeliko zein euskaldun hiztun guztiak elebidunak direla, nahiz eta egoera soziolinguistikoa -aurretik datuetan azaldu bezala- desberdina izan. Bi kasuetan elebitasun diglosikoa³ nabarmena dela azpimarratu beharra dago, gaztelania eta ingelesaren aldekoa. Zentzu honetan, euskarazko eta eskoziar gaelikozko medio indartsuak izatea, diglosi hori leuntzeko bideak izan daitezke. Baina nabarmendu nahi duguna da euskal eta *Gàidhlig* hiztun guztiek gaztelaniaz -lehenengoen kasuan- eta ingelesez, -bigarrenenean- ere mintza daitezkeela; hala ere, hiztun horietako batzuen berezitasuna, lan honetan aztergai diren irrati kazetariena kasu, preferentziaz euskaraz edo gaelikoz lan egiteko hautua egiten dutela da.

³ Charles A. Ferguson-ek (1959) sortu zuen ingelesezko “diglossia” hitza frantsesezko “diglossie”-tik. Hark diglosia zentzu hertsian definitu zuen, komunitate batean hizkuntza baten bi aldaera esparru eta funtzio desberdinetarako erabiltzen direnean dela ezarri (Ferguson, 1959: 325-340). Diglosia zentzu zabalagoan hartuta, komunitate batean bi hizkuntza desberdin elkarbizitzan daudenean eta bakoitza esparru eta funtzio desberdinetarako erabiltzen direnean ematen da (Mounin, 1974: 108). Beraz, elebitasuna lurralde batean dauden bi hizkuntzek erabilera bera jasotzen dutenean gertatzen den heinean, diglosia hizkuntzetako batek besteak baino prestigio sozial hobe duenean ematen da, alegia, hizkuntzetako bat boterearen hizkuntza da.

Aztergai ditugun kazetarien ezaugarri nagusietako bat bat beraz, baina horrekin batera, irrati kazetariak direla ere nabarmendu beharra dugu. Hain zuzen, beste masa-komunikabide batzuen gainetik irrateria izan da aukeratua, telebista baino demokratikoagoa izateagatik (Thomas, 1970), "ideiak eta abstrakzioak telebistak baino hobeto maneiatu" (Starkey, Crisell, 2009: 126) ditzakeelako, eta baita, eragin nabarmena izan duelako hizkuntza gutxituen zabalkundearen historian. Irratia da soilik prentsa existitzen zen mundu mediatikoan ikus-entzunezko hedabideen abiapuntu, eta lehenengoz mota askotako entretenimendu eta informazioa publiko zabalago batentzat eskuragarriago jartzen duena: bai audientzia aldetik, irrateria kontsumitzeko entzumena besterik ez baitugu behar, bai sortzaile ikuspuntutik, telebista batek eskatzen duen aurrekontuaren murrizketatik ihes eginez.

Testuinguru honetan txertatzen zaigu erresilientzia edo iraunkortasunaren kontzeptua, alegia, Euskadi Irratiak eta Radio nan Gàidheal irratiak Euskal Herriko eta Eskoziako irratiaren artean zein erresilientzia maila duten⁴, eta erresilientzia horretan zeintzuk faktorek parte hartzen duten. Definizioz erresilientzia sistema batek une jakin batean paira dezakeen perturbazioa xurgatu eta, halere, bere oinarriko funtzioak -besteak beste, identitatea- mantentzeko duen gaitasuna da (Walker, Salt, 2006: 62); erresilientzia gizakien sistematan aplikatuta beraz eragin nabarmeneko ondorioak izan ditzakeela frogatu da (*ibidem*). Eguneroko erabileran, erresilientzia gehienetan norbaitek edo zerbaitek indarberritzeko edo suspertzeko duen gaitasuna bezala ulertzen da. Aurretik aipatutako autoreekin bat eginez ordea, guk erresilientzia sistema batek asaldura baten ondoren indarberritzeko duen abiadurari baino, sistemak asaldura absorbatu eta ondoren, era berean jokatzeko duen gaitasuna bezala ulertzen dugu. Esaterako, hedabide publiko bat zeina 30 urtetan zehar politika bertsua jarraitu duen bat-batean, gobernu aldaketa etorri, komunikabide horretan aldaketa ugari ezarri eta hala ere hedabideak audientzia tasa errespetagarriak eta kazetaritza lan duina mantendu, baita hobetu, izana. Zentzu hertsian erresilientziaren pentsamoldea ez dugu kontu berria, hastapenak fisika eta biologiako adarretan eta

⁴ Erresilientzia hedabideekin lotuz agertzen zaigun beste ikuspegia, hedabide batek -kasu honetan irrati zehatz batzuek- komunitate baten edo hizkuntza baten erresilientzian izan dezakeen eragina aztertzea da. Guk lan honetan ez dugu bide hori landu.

ondoren psikologian ere batez ere garatu direlarik, baina zoritxarrez kontzeptuak ez du behar besteko tokia gestio eta erakunde akademikoetan.

Gauzak horrela, erresilientziak iraunkortasunarekin duela zer ikusia esan daiteke, sistema batek jasaten duen asaldura jasaten duela ere, bere horretara itzultzeko eta bere horretan irauteko duen gaitasuna. Era berean, sistema baten erresilientzia maila neurtzeko, sisteman dauden atalaseak⁵ zeintzuk diren eta non dauden jakitea ezinbestekoa da, hau da, zeintzuk diren sisteman eragiten duten aldagaien atalaseak. Hain zuzen, horretan datza erresilientziaren pentsamoldearen giltzarrietako bat, alegia sistema baten erresilientzia aldagaiek atalaseekin duten distantziaz neurtu daitekeela; modu honetan, sistemaren iraunkortasuna hein handi batean atalaseak existitzen diren era non dauden jakitean datza, eta atalase hauekin dagoen harremana jakinda, sistema kudeatzeko gaitasuna izatean (Walker; Salt, 2006: 63). Horretan jakina autoreek bitartekotza era desberdinak aipatu izan dituzte, eta guk McCubbin eta McCubbien-en pentsamendua ekarri nahi dugu, zeintzuek erresilientzia fenomenoei etengabe aldatzen doan ingurunean kontzepzio sistematiko eta ekologikoago batetik heldu behar zaiela uste duten, erresilientzia eta arriskuak era estu eta jarraituan begietsiko dituen ikuskera hain zuzen. Ikuspegi hau korrante indibidualisten bestelako aukera dela esan daiteke, erresilientzia komunitatearen presentzia funtsezkoa duen etengabeko bilaketa prozesua gisa hartzen dela, batik bat, kanpoko arrisku eta presioek testuinguruan sortutako aldaketei aurre egiteko.

Horrez gain, eta aurreko ideiarri helduz, gizarte zientzietan, gizarte edo herri-nazioek erresilientziarako erakutsi dezaketen gaitasunarekin lotu da. XIX. mendean Engels-ek garatutako gizarte-eboluzio ikuspegiaren ondorioz, Europako hainbat autorek nazio gutxituen herriak desagertu egingo zirela esan zuten (Garate, 1974), baina erresilientzia maila desberdinak agertu dira. Gizarte eta herrien erakundetzean datza iraunkortasunerako eta erresilientziarako giltza. Gaur egungo mundu mediatikoan ere gizarte eta herri guztiek ingurune mediatikoa eraiki behar dute iraunkorrak eta erresilienteak izateko, erresilientzia sozial eta politikoaren adierazleak ulertzeko elementu nagusiak baitira. Gisa honetan, erresilientziak familia, komunitate, gizarte

⁵ Atalasea, gazteleraz “umbral” eta ingelesez “threshold”, sistema baten portaera aldatu dezakeen muga bezala ulertzen dugu. Hots, aldagai bat kualitatiboki aldatzeko faktorea; hau da, aldagaia muga, atalase edo atari horretatik gero eta gertuagoa egon gero eta egoera arriskutsuagoan egongo da, aldiz, gero eta urrunago, gero eta seguruago. Esaterako, pobreziaren ataria.

eta kulturen arteko elkarreraginari erreparatzen diola ere esan dezakegu: Erresilientzia “komunitate edo kultura sistema batek aldaketak jasaten ari den bitartean, asaldadurak xurgatu eta berrantolatze duen gaitasuna da, bere identitatea gordetzen duen egituraren giltzarriak mantentzeko helburuaz” garatu duen ahalmena (Sonn, Fisher, 1998: 1-32).

Honenbestez, gure ikerketa eremura ekarriaz galdetu beharko genuke Euskadi Irratiak edo Radio nan Gàidheal-ek denboran zehar bere inguruan emandako aldaketek – politiko, soziolinguistiko, ekonomiko, kultural–, eragina izan duten irratia beraren funtzionamenduan –egituraketa, tresnak, baliabideak, lan-txandak, kontratuak– eta beraz, identitatean –gaien aukeraketa, hizkuntzaren erabilera, entzulearekiko harremana–. Beste era batera esanda, pairatutako perturbazioa zeinahi izanda ere, hizkuntza gutxituetan ari diren irradi horien, eta beraz, kazetarien xedea euskaraz/gaelikoz egun osorako saio informatzaile, entretenigarri eta hezitzaileak sortu eta helarazi ahal izatea kazetaritza lan duinaren bitartez. Honenbestez, hedabide edo irradi erresiliente bat kanpoko faktoreek eragindako barne gatazkari aurre eginez, bere kultura eta identitate bereziak iraunaraztea bermatu dezakeena izango litzake (Sonn, Fisher, 1998: 1-32). Era honetan berriro ere iraungarritasunaren kontzeptua agertzen zaigu, eta hain zuzen horixe dute asmo irratiosk eta bertako kazetariok, behin beren hizkuntzaz irratigintza prozesura helduta, garatuz eta hobetuz gizartean iraunaraztea. Erresilientzia prozesuak barne hartzen dituzten teoriak hedabideetara egokituz, iraupen hori bermatzeko irratiosk bi bide nagusi jarrai ditzaketela esan daiteke:

1) erredundantzien garapena lantaldean, hau da, kazetari askok funtzio berdintsua izatea; nahiz eta hasieran erabilgarritasun gutxi antzeman, gerora ikus daiteke onurak ekarri diezazkiola eguneroko 24 orduko programazio bete behar duen hedabide biziari, une batean esatari edo editore batek huts egiten badu, beti izango baitute hutsune hori betetzeko beste pertsona bat.

2) konexioak: erre berri den basoaren birsortzea alboko lursailean bizi diren txoriei esker eman denean, biziberritzea edo erresilientzia basoak txoriekin izandako lotura horri esker eman dela baieztatu daiteke; hortaz, lantalde bateko kazetariak, izan albistegi, programa edo kirolelakoak, edo baita hedabide bakarra baino gehiago dituen

komunikazio talde osoko kazetariak beraien artean gero eta lotura gehiago eta estuagoak eraiki, gero eta hobeto egin ahal izango diote aurre eguneroko ustekabeei.

Gaur egun hedabideek bere biziko eragina dute edozein gizartetan, are gehiago, "ikus-entzunezko komunikabideek gizarte eta erakundeen antolamendu-eredu bat legitimatzeko eginkizuna" dutela ezarri da (Zallo, 2003: 4). Gizarte integrazioan bere biziko eragina dute, mundua ulertu eta identifikatzeko adierazpide eredu osotzen duten heinean. Hedabideek laguntasuna, entretenimendua, informazioa eta kultura eskaintzen dute, eta funtsean, identitate -izan politiko, linguistiko edo/eta kultural-jakin baten sostengua eta komunitate baten iritziaren espazio publikoaren eusleak dira. Oro har, komunikabideek gizarte edo herri baten identitate kolektiboaren eraikuntzan (Amezaga *et al.*, 1998).

Ildo horretan, garrantzitsua da irrati baten bete beharko lituzkeen faktoreak zehaztea erresilientzia maila ona garatzeko. Dena dela, hedabideen erresilientzia aztertzea etorkizuneko beste ikerketa baten abiapuntua litzateke, tesi honetan ez baita gai horri konkretuki lotzen zaioen ikerketa sakonik egiten. Halere, irrati kazetari batzuen profilak -gaitasunak eta trebeziak- eta lan-ohiturak aztertzea, irrati baten erresilientzia ezartzean elementu garrantzitsuak direla deritzogu.

Hizkuntza eta komunikazioaren teoriak bateratuz -besteak beste, Habermas-en (1987) *Teoría de la Acción Comunicativa* abiapuntutzat hartuz zeinak aurreko garaietako eskola amerikarretako teoria neopositibisten aldean, komunikazioa aztertzeo interesa dimentsio humano batetik zuzentzen duen eta bere "biraketa linguistikoaren kontzeptuarekin, subjektua arazoaren oinarritzko elementu gisa hartzen du, hedabidea bera azterketaren erdigunera lerratuz-, kultura gutxitua partekatzen duen komunitatearen ikuspegitik nazio oso batentzat sortutako irrati publikoen jarduna dugu ardatz; konkretuago esanda, bertako kazetarien ezaugarri sozial eta profesionalak (Atxaga, 1991: 41-51; McLeod, Hawley, 1964: 529-539; Wright, 1975: 38-48; Nayman, 1973: 195-212; Henningham, 1984; Pollard, 1985: 21-38, 1996: 59-71; Weaver, 2005: 44-57; Balsebre, 1995; Martín Sabarís, 1993; Layton, 1995: 103-128; Nygren, Degtereva, 2012: 732-743; Hanusch, 2012: 668-686; Weaver, Wilhoit, 1996). Horrez gain, kazetariak beren eguneroko lan-ohitura eta erabakienganako

dituzten jarrerak, baita ere bizi duten errealitatearenganako dituztenak jaso eta landu nahi izan dira, izan ere ikerketek frogatu izan dute kazetarien sinesmen subjektiboek eragin nabarmena dutela albiste eta eduki mediatikoen erabakietan (Patterson, Donsbach, 1996: 455-468; Shoemaker, Reese, 1996; Starck, Soloski, 1977: 120-125; Seo, 2011: 467-481). Ildo horretan, gure kezka nagusia profesionalen profilak eta profesionaltasun ikuspegi batetik kazetariak egunerokoan hartutako erabaki eta jarrerak zeintzuk diren eta zergatik diren horrelakoak deskribatzea eta azaltzea da, baita kazetari hauek lanean duten asetasun-maila -azkeneko hau kalkulatzeko beste ikerketa batzuetan erabilitako inkesta moduko galderetatik abiatu gara, metodologiaren atalean azalduko dugunez-.

Kazetarien azterketa egiteaz gain, zuzenean baino zeharka bada ere, orotariko irratien edo irrati jeneralistaren inguruko eztabaida mahai-gaineratzea izan dugu xede. Alegia, zein da orotariko edukiak lantzen dituzten kazetarien irudipena edo pertzepzioa beren hedabidearekiko. Horretarako, irrati kazetarien lan egiteko ereduak ardatz izan dituzten ikerlanek bere biziko garrantzia izan dute (hala nola, Starkey, Crisell, 2009; Starkey, 2012: 167-178; Alcudia, 2008; Checa Godoy, 2003; Garner, 2003: 5-11; Larrañaga, 2006; Balsebre, 2004; Martínez-Costa, Herrera, 2004: 115-143; Gutierrez, 2002; Moreno, 2005: 61-111; Jiménez, Rodero, 2005: 83-107; Martí, 2001: 187-193; Cebrián Herreros, Flores, 2007; Merayo, 2007; Lacey, 2008: 21-32; Fleming, 2002; Alva de la Selva, 1989). Era berean, gaur egunean korporazio mediatiko sendoetan lan egiten duten kazetariak garatutako joeretan barneratuz, ikerketa honek konbergentziaren gaiari ere heltzen dio -ondoren sakonago azaldua izango den bezala-, konbergentzia prozesuek kazetarien, alegia, informazio igorleen eguneroko ekoizpenean duten eragina neurtuz. Beraz, beti ere igorle edo profesionalaren testuinguruan kontzentratua dago ikerlana, nahiz eta gaur egunean hedabideen testuinguruan ezaguna dugula oso *prosumer* figura, alegia, bi funtzioak, edukiak sortu eta kontsumitzearenak betetzen dituen ekintza edo pertsona (Bruns, 2009; Rennie, 2007: 25-32). Horrez gain, oraintsu Gonzalez Gorosarri (2012: 23-56) ikertzaileak argitaratutako artikulua -bere tesiaren (2011) emaitzen laburpena dena- oso lagungarri suertatu zaigula euskarazko hedabideen albisteen kalitatearen inguruko zehaztapenak aberasteko.

Ikerketa akademikoetan, komunikazioaren inguruko lehenengo teorietatik, bi ikerketa-adar bereizi daitezke -batzuetan argiago besteetan baino-, hain zuzen igorle edo kazetariaren gainekoak aztertzen dituztenak, hau da, hedabidearen engranajeen funtzionamendua, kazetarien rola eta lan egiteko erak (Schlesinger, 1987; Tuchman, 1978; Domingo, 2008; Tunstall, 1971); eta hedabideek gizartean duten eragina, alegia, audientziaren pertzepzioa eta komunikabideek kontsumitzaileen pentsaeran eta jokamoldean duten eragina (hasierako batzuk aipatzearen Jensen, 1987: 8-27, baita gaurko testuinguruan Sullivan, 2012). Zentzu honetan, azpimarratu beharra dugu tesi hau komunikazioaren arloan igorlearen arloan kokatzen dela bete-betean, nahiz eta honek ez duen esan nahi audientzia ikuspegi batek ez lukeela aberastuko. Beste modu batera esanda, gu irrati publiko batzuetan hizkuntza gutxitu batean lanean ari diren kazetarien perfil, jarrera eta eguneroko ohiturak aztertzean kontzentratu garen arren, hizkuntza gutxitu bera erabiltzen duen komunitateak hedabide publikoari buruz dituzten iritzi eta irudipenez jabetzeak ere azterlana beste ikuspegi batetik bideratzea ahalbidetuko luke. Audientziaren adarra beraz ez da joratu ikerketa honetan, eta horregatik etorkizuneko lanetarako zabalik geratzen den leioa dela nabarmendu daiteke. Are gehiago, 2012ko Europako Komunikazio Ikerketa eta Heziketa Elkarteak (ECREA, *European Communication Research and Education Association*) Istanbulen burututako kongresuan, hizkuntza gutxituak lanabes dituzten irrati eta telebista publikoetako kontsumitzaileek Twitter-en hedabideoi buruz argitaratzen dituztenak aztertu ziren (Garai, Agirreazkuenaga, 2012); ikerketa horrek bideak zabal-zabalik lagatzen dizkie hizkuntza gutxituetan ekoiztutako hedabideak kontsumitzen dituzten ikus-entzuleen jarreraren inguruko azterlanei.

Ikerketa honek irrati publiko jeneralista eremuan (Torral, 1997) lan egiten duten kazetariak aztertzea du hizpide, lanabes duten hizkuntza adierazle garrantzitsutzat hartuz, baina ez hizkuntza gutxituetako komunitateak hedabideetan duten ordezkapena deskribatuz (Lysaght, 2009: 45-57; Correa, 2010: 425-443; Avraham, First, 2010: 136-148). Alde horretatik, tesi honek ikerketa-eremu zehatzean agertutako hutsunea betetzera datorrela esan daiteke, alegia, Europan hizkuntza gutxitu batean eta hedabide publiko batean lanean ari diren kazetarien perfilak, jarrerak eta eguneroko eginbeharrak aztertzea ez hainbeste hizkuntza ikuspuntutik, baizik eta kazetaritza profesionaltasunetik. Badira hizkuntza gutxituen komunitateen

eta egoera politikoen (Glaser, 2007, 2006: 84-169) zein ekonomikoen (Zendoa, 2000) berri ematen duten azterlanak, edota hizkuntza gutxituen kategoriak eta talde identitatea azaltzen dutenak (esaterako, Edwards, 2010); legedia aldetik Europar Batasuneko eskualde eta hizkuntza gutxituen konparaketa bideratzen dutenak ere (Riemersma, de Vries Bed, 2009), edo hizkuntzarekiko militantziak kazetarien eguneroko erabakietan duten eragina aztertzen duten ikerlanak (Zabaleta *et al.*, 2010: 190-208; 2008: 195-211).

Masa-hedabideen eremuan, hizkuntza gutxituak aintzat hartzen dituzten azterketa garrantzitsuak daude (Jones, 2007: 188-211; Cormack, 2007: 52-68; Browne, 2007: 107-132), zeinak ikerlan honen oinarriak ezartzeko balio izan duten. Horietako batzuk, hizkuntza urritu zehatz batean ekoizten egiten diren hedabideen zenbaketa egitera edo hedabide horientzat egun garrantzitsuak diren helburuak zeintzuk diren adieraztera mugatzen dira (Pietikainen, 2008: 173-191); beste batzuek kazetariak era deskriptiboan aztertzen dituzte hizkuntza aniztasuna, hedabideen pluraltasuna, kapital soziala eta erantzukizun politikoekin batera (Cox, 2010: 181-193). Analisi deskriptibo hutsekin jarraituz, orokorrean herrialde bateko gutxiengoaren hedabideak zertan diren modu adierazten dituztenak ere badira (Camauer, 2003); baita hedabide horien funtzioa bereziki hizkuntza mantentzera bideratuak daudenak azaltzen dutenak (Uribe-Jongbloed, Peña Sarmiento, 2008: 355-366); gai sozial bati buruz berbetan hedabideek hizkuntza mantentzean zein paper duten azaltzera; proposamen eta eztabaida teoriko interesgarriak ere baditugu hizkuntza gutxituetan egindako hedabideek aurrera egiteko bizi dituzten edo bizi beharko lituzketen egoera eta baldintzen inguruan (Cormack, 1998, 2005; Lewis, 2001), baita hizkuntza gutxitu eta nazionalismoen harremanen ingurukoak (Cormack, 2000); beste batzuk hizkuntza gutxituetan sortutako hedabideen garapenean dauden hiru aro giltzarriak ezartzeaz arduratzen dira, "oparien" aroa, zerbitzuaren aroa eta etekinarena definituz (Pietikäinen, Kelly-Holmes, 2011), baina ez dute azken bi horietan etnografiaren bitarteko metodologiaz sakontzen; horiekin batera, herrialde bateko komunitate gutxituak bertako hedabideetan zelan ordezkutzen diren deskribatzen dutenak ere baditugu (Lysaght, 2009; Correa, 2010; Avraham, First, 2010). Azkenik esan, tesi honetan ez dugula hizkuntza gutxituen eta sentimendu nazionalisten arteko harremanean sakonduko (Cormack, 2000: 383-398), nahiz eta behin baino gehiagotan

agertu den, "arazo linguistikoak auzi politikoak" direla gehinetan (Guyot, 2007: 34). Alde horretatik, ikerketa honetan aztergai ditugun kazetarien hizkuntzek, nazionalismoarekin lotutako funtzio erabat desberdinak bizi dituzte herrialde bakoitzean. Euskaren kasuan, hizkuntza mugimendu nazionalisten erdigunean kokatzen den heinean, Eskozian gaelikoak "identitate nazionalen bigarren mailako garrantzia du" (Meech, Kilborn, 1992: 246).

Gainera, hautatutako ikerketa objektuez gain, tesi honen berezitasuna askotariko metodologiak aplikatzean datza. Hau da, tradizionalki kazetarien profilak neurtzeko erabili izan diren tresna kuantitatiboak -inkestak-, erreminta kualitatiboekin uztartzea -behaketak eta sakoneko elkarrizketak- kazetarien eguneroko lan-ohituren eta jarren inguruko informazio zehatzagoa lortzeko. Azken tresna bi horiek aplikatzeko, etnografia metodoak erabili dira, etnografia iturri askorekin lan egiten duen gizarte zientzien baitako tresna gisa hartuz (Hammer, Wildavsky, 1990: 23-61). Halere, tesi honek triangelatze metodologikoa defendatzen du, metodo kualitatiboak erabiliz batik bat baina kuantitatiboekin eskuratutako datuekin kontrastatuz, eta horrela, egiaztatze zientifikoari garrantzia erantsiz.

1. IKERKETA OBJEKTUAK ETA BEREN AUKERAKETAREN GARRANTZIA

Hasiera batean tesi honen zutabe nagusiak euskarak, irratiak eta kazetariak osatzen zuten, irradi kazetari euskaldunen perfil mota desberdinak erakutsi nahi zituelarik testuinguru politiko-sozial-linguistikoa aldatzearekin batera. Alabaina, ikertzaile honek Eskozian, zehazki Glasgow-ko Unibertsitatean CCPR (*Centre for Cultural Policy Research*) Sailean 2010ean egindako egonaldian ulertu zuen ikertzaile lehiakor batek, barrura begiratzeaz gain kanpoko kontuan hartzeko jarrera eta gaitasuna izan behar duela. Izan ere, norberak aktiboki eta lehen pertsonan bizi duen errealitatetik at dauden esperientziek, aurreko horiek aberastu ditzakete ikertzailearen jomugak zabaltzen dituen bitartean. BBC ezagutu eta erakunde honek eskoziar gaelikoz bultzatzen duen irratigintza erreferente gisa hartu nuen.

Aitatutakoa erdiesteko, gai baten inguruko beste egoera hori irudikatzen duen dokumentazioa landu daiteke -liburuak, artxiboak, aldizkariak-, edota aztertu nahi den egoera hori bizi den inguruan fisikoki eta mentalki barneratu. Bigarrenak izan ditzake zailtasun handiagoak, desplazamendu fisiko, gastu ekonomiko, eta inplikazio pertsonalaren garrantzia nagusitzen denez gero. Haatik, emaitzak esfortzu horren adinakoak izatea da seguruena, eta ikertzaileak nahiz eta mila liburu eta artikulu irakurri bere bulego itxitik jaso ezingo lituzkeen tresna berrien erabilpena ikasiko du, bere aztertzaile trebetasunak bikoiztuz. Gauzak horrela, Erresuma Batuko iparraldeko nazioaren egonaldian, Glasgow-n dagoen BBC Scotland-en egoitza nagusia ezagutzeko aukera izan nuen, eta horrekin batera, bertako Gaeliko Saila (*Galic Department*). Hortik aurrerako lanak bata bestearen atzetik etorri ziren: nazioaren egoera politiko, kultural, sozial, linguistikoaren inguruko irakurraldiak, irratiak Erresuma Batuan izandako ibilbidea, BBCren egungo irrati eskaintza, ... Oraindik gogoan dut goizero huts egin gabe aditzen nuen "Call Kaye", goizeko gaurkotasunezko magazin oso ausarta eduki eta errealizazio aldetik, eta aurkezle bikainarekin gainera... Eta hara non topo egin nuen erabat arrotza zitzaidan hizkerarekin, hizkera baino hizkuntza zela eta noizbait Eskoziako biztanleriaren gehiengoak hitz egindakoa gainera. *Gàidhlig*-aren inguruan hasi nintzen orduan liburu eta dokumentazioaren bila, gaur egunean jada nire idazki gehienetan aski ezagunak diren autoreekin lehenengoz topo eginez. Radio nan Gàidheal BBCren irrati publikoaren atzean zeuden profesionalen esperientzia aurrez aurre jasotzeko Inverness eta Edinburgo-rako bidaiak egin nituen besteak beste, eta hemendik aurrera jasotako eta ikasitakoa ondorengo ataletan ezagutuko dugu.

Kontua da honek guztiak hasieran definitu genuen eta garatzen hasiak ginen tesi planteamenduan beste dimentsio bat sartzeraz bultzatu gintuela. Era berean, Euskadi Irratiak erabiltzen duen hizkuntza menperatzen dugun bitartean, esan beharra dago ez dugula eskoziar gaelikoaren menperatzerik. Aipatutako muga esanguratsua izan daiteke eduki mediatikoen azterketa batean, baina kontuan izan behar da aurrean dugun ikerketak kazetarien portaerak lantzen dituela. Hizkuntzaren soziologia aintzat hartu da, baina ez gara irratiak eskaintzen duten produktuaren edukiaren azterketan sartu, baizik eta produktua sortzeko prozeduran.

2012ko azaroaren 23an, Euskadi Irratiak 30 urte bete zituen, eta beraz, urteurren hori ospatzera ere badator aurren dugun tesia. Gaur egun Euskadi Irratia (EITB) euskarazko irrati erreferentea dugu Euskal Herrian, edo euskaldunen gehiengoarentzat, hauxe baitugu entzule euskaldun gehien erakartzen dituen irratia. Gaur egunean ez dira asko egitura enpresarial indartsua duten eta %100 euskaraz ari diren orotariko gaiak lantzen dituzten irratiak -alde batera utzita irrati libreak (Bilbo Hiria edo Itsuki irratia kasu) edota eskualdekoak (Anboto, Goiena)-; hauen artean Euskadi Irratiaz gain aipatzekoak ditugunak Bizkaia Irratia, Bizkaierazko euskal hizkuntzaren eremura (Bizkaia, Debaldeko Gipuzkoa, ipar Arabara) mugatzen dena, eta Euskalerrria Irratia ditugu. Bigarrena Iruñerrira mugatzen bada ere aipatzekoa da duen eraginagatik, Nafarroan dauden euskara hutsezko irratiaren gabezia kontuan harturik. Dena dela, albistegietarako Euskadi Irratiarekin konektatzen du bere albisteak eskainiz. Bestalde, Euskal Herri Iparraldean *Euskal Irratiak* izeneko elkartearen barnean euskara hutsez ari diren Xiberoko Botza, Antxeta Irratia, Irulegiko Irratia eta Gure Irratia azpimarratu behar dira. Aipatutako apurren artean Euskadi Irratia nabarmen gailentzen da bai geografikoki, edukietan, baita hizkuntzan ere, Euskadi Irratiak oso euskara landua egiten baitu -kolaboratzaileen artean euskal munduko idazle ezagunak ditu-.

1985eko urriaren 1ean emititzen hasi zen Radio nan Gàidheal, gaur egun gaeliko hiztun komunitatearen %73ak entzuten du astero (BBC Scotland Management Review 2011/12). Kazetari gaelikoen esperientzia Euskadi Irratikoekin batera uztartzen da eta konparaketarako tresna erabilgarri gisa. Izan ere, BBC Alba-ren kasua berezia da Erresuma Batuan bertan baita, une honetan hizkuntza Zeltikoak erabiltzen dituzten komunikazio taldeen artean, eskoziar gaelikoz mintzatzen den taldearena delako telebista eta irrati albisteetako kazetarien arteko konbergentzia maila osoa lortu duen bakarra. Alde honetatik, egoera honek Radio nan Gàidheal-eko albisteetako kazetariak Erresuma Batuan talde publiko baten barnean kokatzen diren eta hizkuntza gutxitu bat erabiltzen duten gainontzeko irrati profesionaletatik nabarmentzen ditu eta, horratik, ikerketarako interes nagusia ezartzen dio Radio nan Gàidheal bezalako komunikabide bati. Esandako bera zioskun gaur egunean BBC Alba-ko buruak 2011an egindako elkarrizketan:

Unlike every other Celtic language station, all three media have a very close connection. In Ireland the television station and the radio station have no connection, in Wales the television station and radio Cymru don't have a connection either. So this is the only place that the three media, TV, radio and the website have a connection (Gaeliko Sail osoaren buruari egindako elkarrizketa, 2011).

Horrela, nahiz eta gure lana konbergentzia prozesuetan bete-betean kokatu ez, Eskozian BBC Alban irrati eta telebistako profesionalen artean ematen den gurutzaketak guztiz eragiten die objektu ditugun bertako kazetariei, eta beraz, baita gure ikerketa molde, testuinguru eta emaitzei. Gogoan izan behar dugu komunikazioaren alorreko ikerketetan goraldian dagoen gaia dugula konbergentziarena, eta alde honetatik, gure tesia gaur egungo kazetaritza joeren testuinguruan txertatzen duela.

1.1. Konbergentziaren eragina kazetarien egunerokoan

Hedabideetan ematen den edozein konbergentzia prozesuk bere biziko eragina du kazetarien perfil eta eguneroko rol eta jarreretan. Horrela bada, fenomeno konplexua ulertzeko hiru ikerlarik sortu duten definizio aski trinko eta zehatza ekarriko dugu gogora:

kazetaritza konbergentzia dimentsio anitzeko prozesua da, telekomunikazioen teknologia digitalen laguntzaz, hedabideen eremu teknologiko, enpresarial, profesional eta editorialean eragina duena. Horrek lehenago sakabanatuta zeuden espazio, lan eredu eta hizkuntzen arteko integrazioa bultzatzen du, halako moldez non kazetariak askotariko euskarrietan eta bakoitzaren berezko hizkuntzan banatuak izango diren edukiak sortuko dituzten (Salaverría, García, Masip, 2010: 59).

Kontua da dimentsio anitzeko ikuspegi honez gain, buruan izan behar dugula hedabideen konbergentziak izaera dinamikoa agertzen duela, mailaketa edo jarraitasun bati lotuta dagoen prozesuari egokitzen baitzaio. Hain zuzen, *convergence continuum* kontzeptuak (Dailey *et al.*, 2005: 150-168) horixe adierazten du, hots, konbergentziarik gabeko egoera batetik, konbergentzia osoa edo azpiegituren integrazioa -hedabideak, idazgelak eta edukiak- bezala ezagutzen den ondorengo fase bateranzko bidea.

Gaur arte, Europako ikus-entzunezko erakunde publikoen artean, BBC (Erresuma Batua), SVT (Suedia), NRK (Norvegia), DR (Danimarka) edota YLE (Finlandia) aipatu behar ditugu konbergentzia kasu adierazgarri gisa (Larrondo *et al.*, 2012). Oro har, Euskal Herriko eta Espainiako komunikazio talde publikoen konbergentziarako egokitzapenak, motelago doaz (López García, Pereira Fariña, 2011), nahiz eta azpimarratu beharra dagoen Euskal Irrati Telebistak (EITB) dagoeneko heldu diela konbergentzia prozesuaren ohizko hasierako faseei. José Larrañaga irakasle doktoreak zuzendutako ikerketa taldeak⁶, EITBren aro digitala eta konbergentzia aldien garapena sakonean aztertu ditu (Larrañaga *et al.*, 2011) . Larrañaga-k zuzendutako azterlanak EITBn konbergentziarako lehenengo pausu erabakigarriak 2007ko apiriletik aurrera ematen direla adierazten du, erakundeak Bilboko egoitza berria zabaltzearekin batera hain zuzen. Bilboko San Mames inguruan kokatutako Talde publikoaren eraikinean Euskal Telebista, Radio Euskadi eta EITBNET-ek bizikidetzan jardungo dute, euskarri desberdinetan -irratia, telebista, internet- lan egiten duten kazetariak espazio fisiko berean batuz. Konbergentziaranzko beste adibide argia Eitb.com atariak irratia eta telebistaren edukiak webean eskegitzeko garatutako gaitasuna da, ikus-entzunezko baliabideak erabiltzearekin batera. Era honetan Taldeak askotariko euskarrien arteko sinergiak bultzatu ditu produktuen promozioa euskarri anitzetara zabaltzeko asmo garbiarekin (Larrañaga *et al.*, 2011: 112).

Hala ere, hedabide bakoitzari egokitutako gai eta produktu jakin batzuk partekatzen diren arren (euskarri anitzetarako zabaltze eredu jarraituz), Taldeko hedabide bakoitzak beren erredakzioak baino ez ekoiztutako edukiak zabaltzen ditu (eredu *monomedia*) (Larrañaga *et al.*, 2011: 131). Ildo berari jarraituz, ohartaraztea dugu albistegien organigrametan ere ez dela aintzat hartzeko aldaketarik bultzatu, hedabide bakoitzak bere bidea jarraitzen duelarik norik bere aldetik eta bere egitura berezia mantenduz. Gisa honetan, nahiz eta konbergentziaren lehenengo oinarritzko aldia gainditu izan, idazgelen bateraketa eman aurretik zuten eskema funtzional bera mantentzen dute egoitza berrian, digitalizazioaren eta konbergentziaren arteko

⁶ EITBren hastapenak eta egungo konbergentzia prozesuak aztertzen dituen proiektuaren erreferentzia: EHU08/57. José Larrañaga ikertzaile nagusia izandako Eusko Jaurlaritzaren Ikerketa Taldearen erreferentzia: IT392-10.

erdibidean kokatuz euskal komunikazio taldea. Gauzak horrela, Euskadi Irratian ere ez da bertako eta Taldeko beste hedabideen arteko kazetarien aparteko bat-etortze edo konbergentzia sistematikorik ematen; are gehiago, irrati honetako kazetariei Taldeko telebistako eta interneteko kazetariekin izaten duten elkarlanaz galdetuta, gehiengoak elkarlan "gutxi" egiten dutela erantzun zuen (Larrañaga *et al.*, 2011: 142). Orokorrean konbergentziarekin lan gehiago duten itauntzean, Taldeko profesionalen gehiengoak "erabat desados" erantzuten du, Euskadi Irratikoak barne.

BBC Alba-ren kasuan egoera bestelakoa da. Aipatu beharra dago berez BBC Scotland-eko lan egiteko era EITBrenarekin alderatuz oso bestelakoa dela konbergentziari dagokionez; gaur eguneko BBC Scotland-eko Gai Korporatibo eta Politika Publikoetarako Buruaren ahotik jaso ahal izan genuenez (Larrañaga-k zuzendutako ikerketa taldeak egindako elkarrizketa, 2011ko ekainaren 3an), besteak beste, kazetariak interneten argitaratzearen garrantzia erabat barneratuta dute. Aldaketa teknologikoarekin batera mentalitate aldaketa egin behar dela azpimarratu zuen. Baina gaelikoz diharduen irrati publikora etorrira, 2008tik, gaelikozko telebista katea ezarri zenetik, Radio nan Gàidheal-ko albistegietarako lan egiten zuten profesional guztiak telebistan aritzeko heziak izan dira, *bi-media* kazetarietan bihurtuz. Alegia, bi hedabiderentzat edukiak sortuko dituzten kazetariak (ez gara ari sarerako edukiak ere sortuko dituzten kazetariei edo *online journalists* figurari buruz, bestela kazetari *tri-media* izango lirateke). Berez, autore batzuek konbergentzia terminoa komunikazio talde batean telebista kateen, irrati emisoreen eta interneteko atariaren eduki, antolaketa eta profesionalen integrazio prozesuarekin lotzen dute (Masip *et al.*, 2009). Kasu honetan, telebista eta irratiaren profesional eta edukien bat-etortzea ematen da, edukiak sarean eskegitzea beste pertsona baten esku egongo delarik.

Beraz, gaeliko sailaren barnean kokatzen diren albistegietako kazetari guztiak, egoitzaren kokalekua edozein izanda ere (egon *Video Journalists* modura lanean edo erredakzio zabalago batean), irrati eta telebista hornituko dituzte. Albistegietako kazetari gehienak Inverness-en kokatuta daude, eta bertan konbergentzia-maila gorena ematen dela esan daiteke; hau da, irratia eta telebistaren albistegietako "erredakzioen arteko erabateko fusioa" ematen da (Díaz Noci, Larrañaga, 2010: 100), partekatutako espazio komuna eratuz (Deuze, 2007; García Avilés, Carvajal, 2008).

Idazgelek antolaketa-egitura bakarra dute eta edukiak ekoizten dituzte BBC Radio nan Gàidheal-n eta BBC Alba irrati eta telebista kateetako albistegietarako: Lehenengoaren kasuan “Aithris Na Maidne” eta “Aithris an Fheasgair” informatiboak eta orduz orduko buletinak, eta bigarreanean, “An Là” albistegia.

Egoera honek, beraz, Radio nan Gàidheal-eko kazetarietako batzuk Euskadi Irratiko-enetatik desberdintzen ditu, eta honek metodologikoki ere eragina du. Izan ere, erabiliko diren tresna metodologikoez aztertuko duten egoeraren berezitasunak aintzat hartu behar dituzte, errealitatearen ahalik eta bilketa fidelena egin nahi badute; gure kasuan, galdetegien diseinuan eta behaketak gauzatzerakoan kontuan hartu beharreko puntua izan da. Alde batetik, itaunen bitartez perfilaren ezaugarriak zein eguneroko jarduna lantzeko, eta bestetik, behaketak gidatzerakoan espazio desberdinen –irratiko eta telebistako estudioa- egiturak balioesteko. Azkeneko kasu honetan esaterako, telebistako albistegietako saioaren estudioa Inverness-en dago fisikoki kokatuta, baina saioaren produktore eta errealizadoreak Glasgow-ko egoitzan daude, uhina igortzeko bertako kontrol-mahaia indartsuagoa delako. Horrela, behaketa bi egoitzetan burutuz, argiago ikusi eta barneratu ahal izan da irrati eta telebistako albisteetarako kazetarien artean ematen den gurutzaketa. Honenbestez, beharrezkotzat jotzen dugu BBC-ko Gaeliko Sailean ematen den profesionalen bat-etortzea metodoan barneratzea, egoera hori kontuan izateak beste helburu batzuei heltzera bideratzen gaituelako. Hain zuzen, alde batetik konbergentzia egoera horren erabilera, praktikotasuna edo aplikazioaren zergatia behatu beharko da, beste komunikabide talde batzuetan gertatu bezala (Larrañaga, 2008), kasu honetan konbergentzia baliabide eskasiei aurre egiteko estrategia izan den edo ez baieztatzeko. Beste alde batetik, aukera ezin hobea da kazetariak hedabide bakarreko profesionalaren perfila izatetik, bestelako euskarrirako edukiak sortzeko trebetasunak eskuratzeko jarraitu beharreko bidea zelan bizi izan duten lehen eskutik jasotzeko. Izan ere, maiz saila izaten da erakunde baten barnean lanean ari diren langileen benetako jarrera subjektiboak ezagutzea, batez ere portaerok erakundearekiko erabakiekiko kritikoak direnean. Kasu honetan komunikabide erakunde publikoei buruz ari gara, eta aldaketa bortitzak paratu direnean, badaude izaera honetako antolakundeetako barne-dinamikan tentsioak egon direla azaltzen duten jazoerak.

Alegia, badaude adibideak –BBCn kasu⁷– zeintzuetan erakunde buruak langileei "gogorarazi" dien beraien adierazpen askatasuna –iritzia emateko eskubidea– ez dela erakundearen arazoetara zabaltzen (Preston, 2009: 89).

2. HELBURUAK ETA IKERGALDERAK

Azterketa honek bi ikuspegi nagusi ditu. Lehenik, hizkuntza gutxitu bat lanabes duten kazetari taldearen ezaugarri sozial eta profesionalen ezagutza eskuratu nahi da.

Ondoren, kazetari horien lan-ohiturak eta eguneroko lanean agertutako faktoreekiko jarrerak ikertuko ditugu. Ikerketa hau, halaber, gaurkotasunezko gai bi ditu abiapuntu:

- 1) nortzuk dira eta zein ikuspegi dituzte beren lanaren inguruan euskaraz eta eskoziar gaelikoz ari diren irrati publikoetako kazetariak; eta 2) zelan egituratzen dira Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go kazetarien ekoizpen prozedurak.

Era honetan, gaur egun aipatutako irratieta lan egiten duten kazetarien profil eta jarreraren berri ematea dugu xede, horretarako beti ere adierazle zehatz batzuen erabileran oinarrituko dugularik gure lana. Profila zehazteko, ikuspegi soziologikoak (Pollard, 1985: 21-38, 1993: 193-208; Pollard, Johansen, 1998: 356-370; Layton, 1995: 103-128) and professional perspective and context (Henningham, 1984: 302-309; Frith, Meech, 2007: 137-164; Balsebre, 1995; Henningham, Delano, 1995; Gravengaard, 2012: 1064-1082). Honenbestez, ondorengo helburuak proposatu ditugu:

1- Honako aldagaien bidez, euskaraz eta eskoziar gaelikoz lan egiten duten kazetarien profil soziala eta ibilbide profesionala zehaztea: adina, jaioterria, euskara edo agelikoa ikasi duten ingurunea (eskolan, familian), hizkuntza nagusia oinarrizko hezkuntzan, goi-mailako zein ikasketa burutu dituzten eta zein hizkuntzatan; eta euren ibilbide profesionala garatu duten hedabideen ezaugarriak.

2- Euskaraz eta eskoziar gaelikoz lan egiten duten kazetarien eguneroko lanean eragina duten egitura eta lan-errutinak aztertzea. Ildo horretan, arreta berezia eskainiko zaio kazetariak parte hartutako bilera editorialeari; zein iturri -lehenengo eta

⁷ 2007ko azkeneko hiru hilekoan, BBC-n erabakiak hartzen dituzten arduradunek sei urte iraungo zituen muturreko erreforma iragarri zuten; erreformak, audientziarentzat bereizgarriak ziren edukietan eta kalitatean zentratzea eta aro digitalerako prest egotea zuen asmo nagusi BBC-ren hitzetan. Planak 2012rako 2.500 lanpostu desagerraraztea aurreikusten zuen, eta langileak aldaketa hauen kontra agertu ziren; hala ere, dirudienek erakundeak kexa hauek publikoki ez agertarazteaz arduratu zen (Preston, 2009: 89).

bigarren eskukoak- lehenesten dituzten; beren nagusiekin duten harremana; kultura eta hizkuntza erreferentziak edukiaren ekoizpenean; zeintzuk gai lehenesten diren eskaletatan; gazteleraren edo ingelesaren erabilera emisioetan; eta kazetariak irratiko web orrialdean argitaratzen diren edukiekin duten harremana.

3- Hizkuntza gaitasuna albisteetan lan egiteko programetan lan egitera desberdina den ezartzea.

4- Kazetariaren belaunaldiak, hizkuntzaren erabilerarekiko eta garapenarekiko dituen ikuspegiak baldintzatzen dituen zehaztea.

5- Kazetariak irratian horretan lan egiteko duten motibazioaz jardutea, beste era batera esanda, hizkuntzarekiko militantziagatik edota kazetaritza profesionala praktikatzeko dauden bertan.

6- Zein harreman duten Euskadi Irratia eta Radio nan Gàidheal-go kazetariak, gizarteko hizkuntza nagusian lan egiten duten erakunde bereko (EITB / BBC) kazetariekin.

7- Kazetari eta eduki trukaketak ematen diren hedabide desberdinen artean zehaztu; alegia, konbergentzia prozesuak ematen diren ikusi eta hala bada, zergatik eta zein eragina izan duten ezarri.

8- Kazetarien konbergentziak ematen diren kasuetan, baterakuntza horiek emateko egon diren arrazoiak zehaztu, eta prozesuok aplikatu direneko oinarriak eta efektuak zeintzuk izan diren ezarri.

9- Kazetari euskaldun eta gaelikoek egunerokoan dituzten arazoak eta erronkak definitzea, eta berauei ematen dizkieten erantzunak.

10- Irratian erabili beharreko hizkuntzaren inguruan eztabaidan egon diren ezarri. Hizkuntza batu bat edo dialektoen aldeko hautua egin duten alegia.

11- Kazetari euskaldun eta gaelikoek hizkuntzaren defentsa jokamolde profesionalen gaintik lehenesten duten ezarri.

12- Kazetari euskaldun eta gaelikoek euren buruan irudikatzen duten audientzia zein den ezartzea.

13- Kazetari euskaldun eta gaelikoen pertzepzioa finkatzea, beste hedabideetako kazetariak euren lanarekiko duten estimazioaren inguruan.

14- Kazetari euskaldun eta gaelikoen eguneroko laneko jarreretan agertzen diren, kazetaritza estandar profesionalak zeintzuk diren definitzea.

15- Kazetarien adinak lanean duten asebetetze mailan eraginik duen ikustea.

16- Kazetari euskaldun eta gaelikoek lanean duten asebetetze mailan eragin negatiboa duten elementuak zehaztea.

17- Kazetariak irratian duten lan mota eta zereginak, asebetetzean eragina duten finkatzea.

18- Kazetari euskaldun eta gaelikoen jarreretan eragin nabarmena duten joerak zeintzuk diren xedatzea.

Horrez gain, ikerketa hau aurretik aipatutako zenbait helburutan oinarritutako hipotesietan oinarrituta dago. Gure hipotesi nagusia, Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go kazetariak, irratik kazetari profesional gisa jarduten direla da. Alde horretatik, korporazio sendo baten barnean egotearen abantailak aprobetxatzen dituzte isolamendutik urrunduz eta gizartearen egitura zabalean integratuz, euren ezaugarri bereziak mantentzen dituzten heinean. Izan ere, gizarte orok ditu berariazko kultur paradigmak (Zallo, Idoyaga, Garzia, 1999: 389-517), nahiz eta kultura batzuen kideek batzuetan bere burua globalizatzea baino beste aukerarik ikusten ez duten, batik bat, komunitate gutxitu edo baztertuen kasuan (Amezaga, 2007: 239 - 261). Hori esanda, ondorengo usteetatik ekiten diogu gure lanari:

1- Beren eguneroko lanean, Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go (BBC Alba) kazetariak, beren hiztun komunitatearen mugak zeharkatzen dituen audientziara begira daude.

2- Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go kazetariak euren audientziaren Euskadi Irratian eta bai ikus-entzuleentzat buruzko kazetariak egindako pertzepzioa desberdina da.

3- Bai Euskadi Irratian bai Radio nan Gàidheal-en kazetariak, tradizionalki euskara eta gaeliko hiztun gehien dauden eremu geografikoetan dute jaioterria, eta horrek, eragina du egiten dituzten edukien aukeraketan eta irratian erabiltzen duten hizkeran.

4- Kazetariak profesionalki diru-sarrera egokiak jasotzen dituztela pentsatzeka, lanean hautemandako asebetetze mailarekin du zerikusia.

5- Kazetariaren goi-mailako ikasketa motak, eguneroko lanean edukiak sortzeko kazetariak hautemandako autonomiarekin erlazionatua dago.

6- Irratiek euren komunikazio taldeen barruan duten egiturak, eragina du kazetarien eguneroko lan-ohituretan eta erabakietan.

Ikerketa kuantitatiboa metodo kualitatibo trinkoekin aberastuz, azterketa honek bere ekarpena egin diezaioke bai gizarte zientziei baita etorkizunean ildo honetan garatu daitezkeen proiektuei. Lan honetan guk ez dugu konparaketarik egiten hizkuntza nagusiak eta gutxituak erabiltzen dituzten kazetarien perfilen artean, alegia, ez dugu bi eremuetan landa-lana bideratzeko metodorik diseinatu, soilik bigarreanean. Aitzitik, hizkuntza gutxituetan aritzen diren irrati kazetarien perfilen eta profesionaltasunaren zenbait aspektu, hizkuntza nagusiak erabiltzen dituzten kazetarien jarrerak eta profesionaltasuna neurtzeko beste autoreek (besteak beste lehenago aipatutako McLeod, Hawley, 1964: 529-539; Henningham, 1984: 302-309; Pollard, 1985: 21-38, 1996: 59-71; Weaver, Wilhoit, 1996; Weaver, 1998; Balsebre, 1995) erabili izan dituzten indize edo irizpideen bitartez balioetsiko ditugu.

3. AURREKARIAK: Euskal irratigintzaren sorrera eta lehen esperientziak (1925-1976)

3.1. Euskarazko irratigintzaren sorrera, garapena eta finkatzea (1925-1937)

Estatu espainiarrean 1924eko ekainean ezarritako arautegi berriaren babesean agertu ziren Hego Euskal Herrian lehenengo irrati-emandegia. Aipatutako arautegiak Estatuak irratigintzaren auzia kudeatzeko era aldatzen duen: Irrati zale eta enpresei irrati-emandegiak sortzeko askatasuna aitortuko die, Estatuak uko egiten ziolarik, momentuz, bere irrati propioa sortzeari (Murelaga, 2009: 367).

1924ko ekainean “Radio Club de Vizcaya” elkarteak, Bilbon sortutako irrati zaleen elkarteak, Euskal Herriko lehenengo irrati emisioak hasi zituen potentzia txikiko emangailua erabiliz (Garitaonandia, 1986: 55). 1925eko urtarrilean ordea, Radio Club de Vizcaya izeneko irratiak potentzia handiagoko emisore bat instalatzeko lizentzia lortu ondoren, 1kW-eko indarra, EAJ-9⁸ adierazgarriean emanaldi erregularrak hasi zituen. Irrati honek emisioak Bilboko Carlton Hoteletik hedatzen zituen (Gutierrez, 2002: 16). 1925eko irailean Donostian, Espainia mailako lehenengo irrati bidezko

⁸ EAJ esparru internazionalen emisora pribatu espainiarrei errendatutako adierazgarria dugu (Cebrián Herreros, 1981: 79). Esanahiari dagokionez, EA Espainia esan nahi du eta J 4. mailako irrati-emandegia (Gutierrez, 2002: 15).

komunikazio arautegiaren babesean⁹, Radio San Sebastián-ek lehenengo saioak aireratzeari ekin zion. 1924ko azaroan eskuratu zuen orduko hiriko alkateordea zen Sabino Uzelaieta-k gobernutik emititzeko lizentzia, bera izan zelarik EAJ-8 adierazlea zeraman irrati honen bultzatzaile nagusia (Gutierrez, 2002: 19). Donostiako irratiaren igorgailua Igeldo mendian kokatua zegoen, 1kW-eko potentzia zuelarik (Garitaonandia, 1986: 193). 1925ko urtarrilean Radio Vizcaya S.A. izeneko irrati-emisorea sortu zuen Armando Otero-k Bilbon; Bilboko “La Terraza” eraikinetik emititzen hasi zen, EAJ-11 izendegia zeraman eta 3kW-eko potentzia zuen¹⁰. Estazio honen euskarri gisa irratizale bilbotarrek “Unión Radio Asociación de Vizcaya” elkartea eratu zuten (Gutierrez, 2002: 17).

1926an bi urte lehenago ezarritako arautegiak aldaketak jasan zituen Estatu espainiarrak lizentzien salerosketa bidezkoztat jo zuenean. Handik aurrera aipatutako “Unión Radio” enpresa boteretsuak hartu zuen. Testuinguru honetan beharrezkoa zaigu Estatu mailako irrati elkarte boteretsu horren ibilbidea komentatzea. 1924ko azaroan irrati-telegrafiaren adarreko enpresa garrantzitsuenek (Compañía General de Electricidad, Compañía Nacional de Telegrafía sin Hilos, Compañía Telefónica Nacional de España, Radio Corporation of America, etab.) osatutako entitate indartsua dugu (Garitaonandia, 1988: 24). Irrati enpresa honek 1925eko ekainean inauguratu zuen bere lehenengo emisorea Madrilen, Unión Radio Madrid EAJ-7 adierazlepean. Enpresa honek beraz, aipatutako arautegiaren berritzea aprobetxatuz, 1927tik aurrera ordura arte Bizkaian sortutako irrati biak eta Gipuzkoan sortutako bakarrak eskuratuko ditu, 1928an hirurak bere menpean izango dituelarik. “Unión Radio”-k Donostiako irratia EAJ-8 Estatuko iparraldeko emisore zentro nagusi bihurtu zuen (Garitaonandia, 1988: 38). Azkenean, erosketa eta batze prozesu horien ondorioz, 1930. hamarkadako hasieran Euskal Herrian “Radio San Sebastián”-ek soilik biziraungo du.

II. Errepublikan irratian garapen azkarra jazoko da. 1932an Madrilgo gobernuan argitaratutako dekretu baten bitartez tokiko emandegiak sortzeko kontzesioak eskaini

⁹ Gutierrez apud Garitaonandia

¹⁰ Bizkaian sortutako bigarren irrati hau Estatu espainiarrean indar gehien zuen emisorea zen, baina “Compañía Ibérica de Telecomunicaciones” Madrileko enpresaren laguntza tekniko eta ekonomikoa izan zuen (Garitaonandia, 1988: 34).

zituen, eta hala, Hego Euskal Herriko hiriburu guztiek 200 edo 300 watioko irratiak sortzeko aukera izan zuten (Gutierrez, 2002: 23). Iruñeko Radio Navarra, EAJ-6, izan zen dekretu horren ondorioz sortutako lehenengo emisorea 1933ko urriaren 31an. Urte berean Radio Emisora Bilbaína EAJ-28 eta 1934ean Radio Vitoria, EAJ-62, eta Radio Tudela, EAJ-66, sortu ziren. Aipatzekoa da azken emisora hauek 200 watioko indarra zuten bitartean Radio San Sebastián-ek 3000 watioko emisorea zuela; irrati honen indarra hainbesterakoa izanik Hego Euskal Herrian ez ezik Ipar Euskal Herrian ere entzuten zen eta alde horretatik euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez eginiko saioak eskaintzen zituen (Garitaonandia, 1986: 194).

20. eta 30. hamarkadetan euskal hizkuntza aireeratu zuten irrati artean beraz Sabino Ucelayetak sortutako irrati dugu aitzindari eta entzutetsuena. Bertan programazioa ia osoa, orduko gainontzeko irratietan bezalaxe, musikarekin betetzen zen, nahiz eta ezin den ahaztu Donostiakoa bezalako irratietan euskaltzaleek euskara eta katolikotasuna zabaltzeko, irrati antzemandako aukera (Díaz Noci, 1991: 370). Euskal hizkuntza irrati bidez hedatzen hasitako irratiak hasieratik jaso zuen *Argia* aldizkari euskaldunaren babesa, izan ere, euskara zabaltzeko bide bikaina iruditzen zitzairen (Díaz Noci, 1991: 368). Aldizkari euskaltzaleak 1925eko azkenaldian “Irratizkiña” izeneko atala osatuko du, eta bertan programazioaren inguruko berriak argitaratuko dira.

3.2. Espainiako Gerra Zibila eta Francoren erregimeneko irrati gintza (1937-1960)

Frankismoa ezarriko duen estatu kolpe berean irratiak izan zuten eginkizuna nabarmentzea beharrezkoa da. Irratiak beste hedabide batzuek ez zituzten abantailak zituen, hala nola, material aldetik eskaintzen zuen erraztasuna (hargailu bat zegoen edozein tokitara heltzen zen), eta etsaiaren muga erraztasunez zeharkatzea aukera. Hortaz, guda hasieratik irratiak bere biziko indarra izango du matxinatuen eta errepublikarren arteko informazio eta propaganda gatazkan.

Carmelo Garitaonandiak adierazten duenez, 1936ko uztailaren 18an euskaldun oro irratiak zer esango zain, adi, egon zen egun osoan, bertatik soilik helarazten baitziren altxamenduaren inguruko albisteak. Besteak beste, egun horretako arratsaldeko

15:30etan, Radio San Sebastian-ek Eusko Alderdi Jeltzaleak sinatutako oharra aireratu zuen, zeinaren bitartez alderdiak demokrazia eta errepublikaren alde jarduteko nahia adierazten zuen (Garitaonandia, 1988: 195). Adierazgarria da hurrengo egunean, uztailaren 19an, egunkariak argitaratutako albisteak irratitik entzundako informazioan oinarritzen zirela ikustea. *El noticiero Bilbaino*-k “Noticias oficiales del movimiento revolucionario” izenburua jarri zion bere albisterik luzeenari, eta *La Gaceta del Norte*-k honelaxe zihoen bi egun beranduago: “Ofrecemos a nuestros lectores las noticias retransmitidas por Radio el domingo y el lunes”. Matxinadak aurrera jarraitu ahala, egunkari eta irrati batzuk itxi eta beste asko asaldatuen esku geratu ziren. Irratien kasuan Iruñeko Radio Navarra izan zen falangistek menpean hartutako lehenengoa, 1984ra arte Radio Requeté de Navarra izenaz ezagutuko dena (Garitaonandia, 1988: 119). 1936.urteko bukaeran Radio San Sebastian-en uhin igorgailua desmuntatu eta lehenbizi Debara eroan zuten, Radio Euzkadi izenarekin emitituko duelarik. Bi aste beranduago Getxoko Galea Golf zelaira aldatzen dute, 1937ko ekainean azkenik altxatuen menpe jausten deneraino. Donostian gelditu zen irrati ordea Radio Requeté adierazleaz emititzen hasiko da hiriburua Francoren armadaren eskuetan jausi bezain laster. 1937ko abuztuan Bilboko irratiak Radio España de Bilbao hartu zuen, eta guda bukatuta Radio Bilbao izena ipini zioten (Gutierrez, 2002: 31).

1937ko martxoan Telekomunikazioen Zuzendari Orokorrak irrati-emaileak sortzeko baimen oro deuseztatzen du. Hortik aurrera irrati bat sortzeko, Erregimenaren kide zen sindikatu edo alderdi politikoren batek sinatutako agiria eta 2 pezetatako ordainketa beharko da.

Frankismoa ezarri bezain laster, errejimen berriak Radio Nacional irrati kate publikoa sortu zuen, Estatu espainiar mailan eratzen den lehenengo irrati kate publikoa. Honetaz gain, potentzia handieneko irrati-emisoreak Unión Radio katearenak dira, zeinak SER (“Sociedad Española de Radiodifusión”) izena hartuko duen 1939tik aurrera; hauetaz gain, gainontzekoak 200 watt-etik beherako emisoreak izango dira (Garitaonandia, 1986: 133). Gerra ondorengo garai honetan irrati propaganda estrategiaren barnean kokatuta, alderdi bakarra den Movimiento Nacional-en pean, beste hiru irrati kate sortuko dira: “Cadena Azul de Radiodifusión” (CAR), “Red de Emisoras del Movimiento” (REM) eta “Cadena de Emisoras Sindicales” (CES). Honetaz

gain, 1945ean Radio Nacional de España (RNE) sortzen da estatuaren eskutik. Irrati honek uhin laburrean emitituko du atzerrirako, batez ere, amerikar kontinenterako. Momentu horretantxe baita 1939ko urriaren 6ko agindu batek irrati emisio guztientzako aurretiazko zentsura ezartzen du; Frankoren erregimenak irrati puliko, pribatu eta erlijiosoen erabateko kontrola hartzen du (Cheval, 1990) eta honek irrati ekoizpenerako zailtasunak aeragotuko ditu. irrati edukiak ekoizteko zailtasun handia suposatuko du agindu hau bete beharrak. Hortaz gain, Estatuko emisora guztiek Radio Nacional-ek uhineratzen zuen “parte” (errejimenaren aldeko albisteak) hori eguerdiko 14:30tan eta gaueko 22:00etan ematera derrigortuta egongo dira¹¹ (Garitaonandia, 1986: 133).

50. hamarkadan eliza katoliko espainiarrak irratigintzaren garapenean parte hartzeko asmoz Comisión Episcopal de Cine, Radio y Televisión (1956) izeneko erakundea sortu zuen. Errejimeneko agintari eta erlijiosoen hainbat bileren ostean, 1959an elizak eta Estatuak akordioa sinatu eta Red de Emisoras Diocesanas de la Iglesia izeneko emisoreen sarea osatu zen. Urte berean eliza katolikoak COPE (Cadena de Ondas Populares Españolas) erakunde edo irrati-katea sortu zuen elizaren irratien sarea ezarriz¹². 1959ko urriaren 12an katearen barruko estazioek Herri Irratia/Radio Popular adierazlea eramango zutela erabaki zen. Hortik aurrera, Bilbo, Donostia eta Iruñeko hiriburuetan irrati bana sortu zen gotzaindegien ardurapean. Honez gain, COPE kate horren barruan baita, Jesusen Lagundiak laugarren irrati bat sortu zuen Loiolako Santutegian (Gutierrez, 2002: 57).

Estatu espainiarretik kanpo, Ipar Euskal Herrian Joseba Rezolak (Euskal Erresistentziaren buru izendatua) Radio Euzkadi sortu zuen 1946an (Arrieta, Rodríguez, 1998: 77). Emanaldiak Mugerretik eskaintzen zituen irratiak, baina 1949an Ziburura aldatu zuten, arazo teknikoak zirela-eta ez baitzen ondo entzuten Hego Euskal Herrian. 1954ean irratia itxi egin zuten Paris-ko agintariek Iparraldetik eta beranduago, 1965ean, Venezuelako Macuto izeneko eskualdetik gaueko emisioak aireratzen hasi zen; bigarren aldi honetan EAJko gazteek, EGIkoek, hartu zuten

¹¹ Irratietan informazioa askatasuna ez da baimenedua egongo 1977ko urrira arte (Garitaonandia, 1986: 133).

¹² Aipatzekoa da 1953an Franco-k Vatikanoarekin izenpetutako ituna erabat mesedegarria izango dela horrelako kate bat sortzeko (Palazio, 2000: 24).

irradiaren ardura (Ibidem: 220). Irrati elebidun honek 1977an emititu zuen azkeneko saioa.

3.3. Frankismo garaiko euskarazko irratigintza (1960-1976)

1951an Franco-k “Información y Turismo” ministerioa eratuko du, Gabriel Arias Salgado katoliko-falangista buru izendatuz. Arias Salgadorek irratigintzarako politikak irratia espainiar gizartea berreraikitzekeko instrumentu bezala erabiltzea bideratuko du. Horrela, irradiaren funtzio soziala goratu nahi izango du, entretenimenduzko irratia komertzial izaera erabat mugatuz (Murelaga, 2009: 379).

Garai horretan sortutako euskarazko irratia, Arrate Irratia, Segura Irratia, Tolosa Irratia, Arrasateko Irratia, Irurita Irratia (Gutierrez, 2002: 56), Arantzako Irratia eta Berueteke Irratia, kasu gehienetan baserriar zonaldeetan kokatuta zeuden eta bereziki musika eta meza eskaintzen zuen programazioa egiten zuten. 1964ean, Espainiar Estatuko FMrako, maiztasun modulaturako, aldatzeko aginduak irratia guzti hauek itxi zituen. Gehienak betirako isilduko ditu, Segura eta Arrate-k 70. hamarkada erdialdean berriro ekiteari egingo diotelarik, gaur egunera arte. Irrati horiek 1956an eta 1959an hasi ziren emititzen, hurrenez hurren.

COPEren babesean, elizaren babesean beraz, sortu ziren Herri Irratiak: Iruñea (1959), Bilbo (1959), Donostia (1962) eta Loiolakoa (1960), eta azken honek goratu zuen euskara eguneroko erabilerara. 1961ean hasi zen emititzen, eta Donostiako Herri Irratiaren lan politikoarekin batera, demokrazia garaian sortutako Euskal Irrati Telebista-ren (EITB) oinarriak jarri zituzten euskarazko irratigintzaren ereduari eta langileria talde trebatu baten aldetik (Loiolako Herri Irratiaren ibilideak 1960 eta 1970. Hamarkadatan euskarazko orotariko-programaziodun irratigintzaren arloan egindako lana ulertzeko *ikus* Agirreazkuenaga, 2012: 498-509 argitalpena).

Euskadi Irratiak 1982ko maiatzaren 21ean aireratu zituen lehenengo hitzak. Zerbitzu publiko gisa, “estatuaren monopolioaren mende, eta gerra arteko garaian sortu eta garatu izanak” asko baldintzatu zuten irratitelebistagintzaren bilakaera (Amezaga *et al.*, 2010: 14).

**II. GAUR EGUNGO KAZETARIEN EGINKIZUNEN
INGURUKO EZTABAIDA TEORIKOAK**

II. GAUR EGUNGO KAZETARIEN EGINKIZUNEN INGURUKO EZTABAIDA TEORIKOAK

4. KAZETARIEN ZEREGINAK ETA LAN-OHITURAK

Berez, Ameriketako du jatorria komunikatzaileari buruzko ikerketak, baina han ere 1960. hamarkadaren erdialdera arte ez da horrelako azterketarik bideratuko. Izan ere, komunikabideen edukiek publikotik gobernuetan, nazioarteko elkartetan, enpresetan eta hedabideen beraien unitate operatiboetan zuten eragina neurtzeko eta balioztatzeko eskaerak etengabeak ziren (McQuail, 1969: 36). Aldiz, produktuaren atzean zegoen egilea, eta erantzule nagusia, hots, komunikatzaile profesionala, ikerketetatik baztertuak ziren sarritan. Dena dela, 1970. hamarkadatik aurrera komunikatzaileari buruzko ikerketak gero eta ugariagoak izango dira, herrialde honetan batik bat. 1995ean Balsebre-k (1995) Espainiako albistegietako irrati kazetarien profesionaltasunaren inguruan argitaratutako lanean, garbi azaltzen du ordura arte gutxi direla Europa eta Espainia mailan kazetarien profila aztertzeaz arduratu direnak. Izan ere, Europan 1966tik kazetariak ekoiztutako edukien analisi estruktural semiotikora daude bideratuta ikerketa gehienak, ordurako AEBtan interesa kazetarien ekoizpenerako antolaketaren analisi soziologikoan eta albistearen ekoizpen ohituren azterketan ezarrita zegoelarik. Hala ere, Balsebre-k idazten duen hamarkadan kazetarien profila aintzat hartzen dituzten lanen artean aipatzekoak dira Villafañe *et al.* (1987) irrati eta telebistako kazetaritza "profesionalaren" inguruko azterketa esperimentalak, baita Martín Sabarís-en (1993) Euskal Telebistako kazetarien profilari buruzkoa, aurrerago ere aipagai izango duguna. XIX. mendean, kazetarien lan ohiturak ardatz izango dituzten ikerlanek interesa bereganatuko dute, batez ere, interneten ezartzeak eragindako bultzadaren ondorioz (Domingo, 2008; Díaz Noci et al., 2007; Salaverría, 2009).

4.1. "Kazetari" kontzeptuaren atzetik

Kazetari hitza euskaraz "kazeta"-tik dator. Hiztegia-ren arabera, hitz italiar "*gazzeta*"-tik dator; txanpon veneziar bat dugu hauxe, berripaper bat erosteko adinako balioa zuena, eta honek eman zion izena aldizka agertzen eta zabaltzen zen berripaper inprimatuari. Euskaltzaindiaren aipatutako hiztegiaren arabera, "gazetak ezaugarritzat ditu gaurkotasuna duen informazioa eskaintzea (politika eta beste arlo batzuetakoa)

eta informazio hori azalduz batera hari buruzko iritzia ere eskaintzea" (Euskaltzaindia, Literatura Terminoen Hiztegia). María Moliner-en hiztegian, "gaceta" hitzaren ondoren "antzina egunkariei atxikitzen zitzairen izena" (Moliner, 1981: 1359) dio. Kazetaria hitza euskaraz "hedabideren batetan (prentsa, irrata, telebista) ari den langile berezia da [...] Idazlea edo esataria izan daiteke; kazeta edo prentsa idatzian ari izan da XX. mendea baino lehen; geroztik, irrati eta telebistan ere bai" (Euskaltzaindia, Literatura Terminoen Hiztegia). Ingeleseko Collins hiztegian, kazetari edo "journalist"-en atzetik "a person whose occupation is journalism. Broadcaster, columnist, commentator, contributor, correspondent, reporter [...]" irakurri daiteke. Honekin batera, argi gaur egun sortu diren hedabide mota anitzekin, anitzak direla baita "kazetari" izenarekin bat eratortzen diren profesionalak eta lan motak. "Berriemaile" terminoa "kazetari"-ren sinonimotzat hartzen da, eta alor akademikoan ere "journalism" edo "periodista" hitzak albisteekin lotzen dira maiz, ez bada beti. Halaber, kontsultatu ditugun kazetarien perfil eta rolak aztertzen dituzten lan gehienek albistegietako kazetariak dituzte ikerketa subjektu gisa. Aldiz guk lan honetarako, eta lehenago aipatutako esanahaia jasoz, albistegietatik kanpo - programetan- bizi den irrati kazetaria ere aintzat hartuko dugu, berrien alorrean lan egiten duenaren parean jarrita. Era berean, aipatzekoa da XXI. mendean sortutako izaera desberdineko hedabide anitzen ondorioz, kazetari hitzak ere esanahi zabalagoa hartu duela komunikabide bakoitzaren nolakotasunen elementuetara egokituta - berehalakotasuna, interpretazio eta sakontasuna, 100 karaktere idatziren muga izatea, etab. Era postmoderno digital honetan beraz, bat gatoz kazetaritza jardueratzat hartzen dena, jarduera horren edukiaren funtzioa dela esatean (Wiesslitz, Ashuri, 2011: 1040), eta ez kazetariaren heziketa edo lan egiten duen hedabidearen nolakotasuna.

Halaz, lan honetan guretzako kazetaria ez da berriemaile hutsa, ezta jazoera zehatz baten eta kaleko jendearen arteko zubi lana egiten duen informatzailea besterik gabe. Egia da gertaera baten lekuko izateak bere biziko garrantzia duela kazetariaren eginkizunean, honek bertan ez zeudenei gertaeraren aurrean entzungor edo ezjakin agertzea saihesten duelako; izan ere, egungo masa-hedabideen aroan lekukotasunak gero eta garrantzi etiko handiagoa du (Wiesslitz, Ashuri, 2011). Ikerketa batzuen arabera (Downing, 2001), badaude horretan diharduten kazetariak, baztertutako

errealitate bat begi-bistakoa egin eta nabarmen duguna aldatzearen aldeko lanean. Gainera, Interneten indartzearekin batera, gero eta gehiago hedatu da objektibotasunetik aldendu eta bere ustezko beste errealitate mota bat publiko egitea helburu duen kazetariaren irudia. Dena dela, berriro ere termino orokorretara etorriaz, kazetaritzak "gure gertuko esperientziatik haratago doan munduaren inguruko uneko narratiba" (McNair, 1999: 21) eskaintzen digula gogoraraztea oinarritzat jotzen dugu. MacNair-ek dio kazetaritzak funtsezkoa den eta parerik ez duen gizarte eginkizuna duela, eta errealitatearen inguruko gure "mapa konginitiboak" marrazteko informazioz hornitzen gaituela (McNair, 1999: 21).

4.2. Goi-mailako ikasketen beharrezkotasunaren auzia

Erresuma Batuan ikasketa aurreratuen arloko lanbidea bihurtu da kazetaritza, unibertsitate mailako jakintza beharrezkoa delarik; honek gutxika alde batera utzi du merkatuan bertan arituz soilik ikasi daitekeenaren ofizioaren ideia, baita ikasketak bukatu gabeko jendeari kontratu tentagarriak eskaintzen zizkieten hedabide enpresen praktikak, ondoren beraien estandarren mugetan "hezi" ahal izateko. Kontratazio mota berriek beraz heziketa akademiko lerro desberdinak behar ditu. Hedabideetako zuzendariak sistematikoki unibertsitate graduondoak kontratatzen hasi ziren unitetik, University College Cardiff-en herrialdeko lehenengo graduondoko kazetaritza ikastaroa ezarri zen (Frith, Meech, 2007: 138). Hala ere, 70 eta 80. hamarkadan aldaketak jazo baziren ere kazetarien formazio akademikoari garrantzia ezarriz, unibertsitatea eta hedabideen arteko errezeluak bertan dirau/zirauen (Keeble, 1998: 287). 1990ean paradoxa berezia sortzen da jendea kazetari zelan bihurtzen zen eta zelan bihurtu beharko zitekeenaren arteko printzipioen artean (Frith, Meech, 2007: 139). Ezin zitekeen alde batera laga kazetaritza, historikoki pentsamenduaren inolako prestaketa formalik behar izan ez duen ofizioa, bete-betean goi-mailako ikasketen alorrean sartuta zegoela. Egitez, 90. hamarkada erdialdeko ikerketa batek nabarmen agertzen zuen Erresuma Batuko kazetarien profilei buruz egindako ikerketan, Ikerketek ere halaxe erakusten zuten, "goi-mailako ikasketak izatea zela, merkatuan bertan ikasitako esperientziaren kontra, elementurik esanguratsuena Erresuma Batuko kazetarien profilean (Henningham, Delano, 1995: 20). 2002. urtean Kazetarien Heziketarako Barrutiak (*Journalism Training Forum*) Erresuma Batuan

kazetarian %98ak gradu ikasketak zituela eta %43ak berriz graduondokoak adierazi zuen.

Baina kazetaria instituzio formal batetik eta kaletik bertatik etorri behar diren eztabaidak hor ziraude. Izan ere, 1995ean Delano eta Henningham-ek iradokitzen zuten, eguneroko gauzez informatzeko kazetariak eguneroko “kaletar arrunta” izan behar du, ez akademiko jantzia; izan ere, bigarren hau ez da “mundu errealean” bizi eta beraz nekez irakatsi ahal izango dugu kazetari ofizioa (Delano, Henningham, 1995: 20). Roger Scruton idazle eta filosofo britainiarra, “berez, kazetaritza lanbideaz ikasi beharrezko guztia lanbidea beraz jardunez” egin behar zela adierazi zuen, *The Salisbury Review* aldizkarian editore zen garaian (Frith, Meech, 2007: 137-164). Dena dela, aipatzekoa da nahiz eta agertutako aipu hori orduko hedabideen eskuliburu askotan agertu, 2004tik aurrera ez da berriro inon ere idatzia izan. Alabaina, zaila da pentsatzea beste edozein alorretan zeinetan langileek uste duten beraien lanbidearen inguruko ikasketek garrantzi gutxi dutela lanbidearen beraren praktikan (abokatu, mediku, lehen hezkuntzako irakasle, arkitekto, etab.). 1992an Raymond Snoddy-k zioen kazetaritza ez dela eta ez lukeela inoiz ere lanbidea izan behar (Snoddy, 1992: 202), nahiz eta Delano eta Henningham-en azterketarako elkarrizketatutako kazetari guztien %51ak bere burua profesionaltzat zuten (Delano, Henningham, 1995: 57). Beraz, badirudi behin kazetariak lanbidean direnean, estatus sozial lausotua, lanerako gaitasun sorta nahasia, zehaztu gabeko jomugak eta lanbidearekiko ideia erromantiko oro ordezkaturiko duen kode profesional zurrun batekin topo egiten dutela (Marr, 2004: 5).

Kazetaritza lanbidearen aldaketen baitan hainbat zergatiren inguruko eztabaidaren hutsunea sumatzen da. Zeintzuk jakintza eta gaitasun bereganatu behar dituzte XXI. mendeko kazetariak; honelako galderak izan behar lirateke ikerketa akademikoaren gai zentrala, eta kazetaritzak ogibide legez aldaketak paraitu baditu, halaxe izan behar dituzte baita ere haren inguruko heziketa eta ikasketak. Dena den, unibertsitateak ere ez du argi kazetaritza irakasterakoan zein arlotan indartu. Frith eta Meech-ek Ezkoziako unibertsitateetako kazetaritza graduetakoko ikasleak elkarrizketatu zituzten, oinarrizko lau gairen inguruan. Laburbilduz gai horiek izandako lanbideak, jasotako formazio akademiko eta profesionala, *freelance* moduan egindako lana eta

kazetaritzaren eta harreman publikoen arteko harremana lantzen zuten. Gai hauen inguruko galdetegiak erakutsi zuen ez zegoela adostasunik kazetaria izateko kazetaritzan graduatua izatearen beharrezkotasunarekin. Izan ere, Frith eta Meech-ek beraien lanean azaltzen zutenez, zaila da galdetegi baten bitartez kazetari talde baten lanaren inguruko baloreak eta azpi-kultura argitara ematea (Frith, Meech, 2007: 159). Ildo berean, badira kazetaritza lanbide mota barik kultura mota bat dela aldarrikatzen (Frith, Meech, 2007: 144).

Kazetarien lan-kulturaren xehetasunen berri izateak garrantzia du langile horiek ekoiztuko duten produktu motaren nondik norakoak ezartzeko. Are gehiago, langile horien nortasunaren aztarnak jarraituz, erabakiak hartzeko eguneroko prozedurak uler ditzakegu. Izan ere, alde batetik hedabide eta erredakzio bakoitzeko buruak izango ditugu, zeintzuek lerro orokor batzuk ezarriko dituzten; baina bestetik, kazetari indibiduo bakoitzaren erabakiak daude, lan errutinak eta trebeziak. Azkeneko urtetan kazetarien erabakiak hartzeko prozedurak izan dira hainbat ikerketen gai nagusia (Domingo, 2008; Donsbach, 2004; Kepplinger, Ehmig, 2006; Reese, 2001), izan ere, kazetarien eguneroko lan ohiturak ezagutzea, kazetarien beraien eduki aukeraketa eta ekoizpena zelan jazotzen den ulertzea ekarri baitezake. Izan ere, kazetariak albisteak edota entretenimenduzko programak egiteko hautatzen dituzten edukien aukeraketa ausazkoa barik, orokorrean, arau eta metodo zehatz batzuk jarraitzen dituela esan daiteke. Hautaketa horiek beti ere kazetari horrek bizi duen inguruarekin bat etorriko dira. Zentzu honetan, anitzak dira idazgela desberdinak abiapuntutzat hartuz kazetarien albisteen selekzioa behatzen eta definitzen dituzten lanak, beti ere, albisteen arloko berriemaileen azterketa izanik xede nagusi (Reese, 2001). Alde horretatik, lan honetan guk bai albistegietako baina baita programetako kazetariei erreparatuko diegu, izan ere guretzako kazetarien jarrera bi eremutan ulertzea garrantzitsua da, albisteak ez direlako hedabide baten identitatea eta izaera sortzen duten produktu mediatiko bakarrak, eta batzuetan, aztertu nahi denaren arabera, ezta inportanteenak ere. Hanitzch-ek (2006) kazetaritza jarduerak kultura desberdin askotan antzekotasun handiak agertzen dituela behatu zuen, baina antzekotasun horiek batez ere eta ia bete-betean albisteen balioen kategoriari dagozkie. Baina guk notizietan soilik ez eta albisteen eremu horretatik at kokatzen diren produktu mediatikoen sortzaileek ere bere biziko garrantzia dutela irizten diogu, kontuan

hartuz bi hizkuntza elkarbizitzan dauden korporazioetan kokatutako hedabideetako subjektuak aztertzen ditugula. Albisteak sistema kultural konkretu batetik sortutako esanahiez jantzirik badatoz, halaxe datoz bestelako formatuetan sortutako produktuak. Beraz, lehenengo pausua aztertuko diren kazetariak partekatzen duten kultura horren oinarriak zeintzuk diren zehaztea da. Schein-en (1995) ustetan, kultura hori funtsean erakunde bateko kideek partekatutako sinesmen eta oinarrizko irudipen sakonenak dira, inkontzienteki funtzionatzen dutenak eta hitzetan esan gabe, erakunde batek bere buruaz eta inguruaz duen ikuskera definitzen dutenak. Lantaldean inplizituki agertzen diren kodeak behaketaren bitartez ezagutu daitezke; lan honetan guk irrati idazgelak, subjektu desberdinen arteko bilerak (editore-kazetari, kazetari-kazetari, kazetari-albistegi buru, kazetari-programetako buru) eta zuzeneko irrati saioak behatu ditugu. Metodologia atalean mintzatuko gara behaketaren teknikaz baina aurrerapen gisa esan Domingo-k (2008) agertzen duen *field notes diary* edo gure behaketen oharra biltzen dituen egunerokoa izan dela behaketa fasean erabilitako erreminta nagusia (Domingo, 2008).

4.3. Kazetarien rolak hainbat testuingurutan

Kazetaritzaren rolen ezagutzak, kazetariak berak kazetariak gizartean zelan funtzionatu behar dutenaren inguruan dituen ideiei egiten die erreferentzia. *Role theory* edo eginkizunen teoria delakoa 1960ko hamarkadan hasi zen sakonki garatzen arlo akademikoan, batez ere Cohen-en 1963ko liburuaren ondoren zeinak prentsak AEBetako kanpo-politikan zuen rola aztertzen duen; bertan kapitulu sakona du kazetariak bere eginkizunen inguruan dituen ikuskeren inguruan (Cohen, 1963: 19). Cohen-en ondoren, kazetaritza arloan rol-aren kontzeptuak zuen erabilera aztertzen zituzten lanak agertu ziren (Johnstone, Salwski, Bowman, 1976; Weaver eta Wilhoit, 1996). Cohen-en garaia baino lehenago ere hainbat soziologo eta gizarte psikologo hasiak ziren rola teoria garatzen, baina 60. hamarkada izan zen hainbat jakintza arlotan rola teoriaren posibilitateak ustiatzen hasi ziren, lanbide bakoitzean rol profesionalak azaltzeko asmotan. Kazetaritzaren rol desberdinak hasiera batean ideologia profesionalaren dimentsio gisa aztertuak izan ziren, hau da, hedabideek gizartean izan behar duten jokabidearen ikuskera partekatu bat. Johnstone, Slawski eta Browman ideologia profesionalen kontzentratu aldiz, rola kontzeptua kazetaritza arduratsu baten testuinguruan kokatzen zuten. Beste era batera esanda,

lanbide bat sozialki arduratsua izan behar zinez lanbidetzat hartu nahi bada. Ildo honetan aipatu beharra dago gure azterketaren muina diren kazetariak, hizkuntza gutxitu baten diharduten heinean, erabat arduratsu direla gizartearekiko. Kontua da kazetarien rola eta eguneroko lan-ohitura edo errutinak eskutik doazela esan dezakegula, errutinek pertsona bakoitzak eginkizun edo rol zehatz batzuk dituela gogorarazten digute (Shoemaker, Reese, 1996: 105). Dena dela, kontuan izan behar dugu kazetari berak rol bat baino gehiago barneratu dezakeela –Weaver eta Wilhoit-en (1996) lanak erakusten digun moduan. Beraz, ez litzateke zuzena kazetarien rola sistematikoki eta irmoki eraikiak direla esatea, izan ere errealitatean rol kontzeptu desberdinek ez dute kazetaria bete-betean definitzen, kazetariak rola ikusmoldearen barne eta kanpo mugitzen baitira.

Alabaina, kazetarien eginkizunak edo rola nondik norakoak aztertzeko arrazoi nagusia, Shoemaker eta Reese-rekin bat etorriaz (1996: 103), rol hauek komunikatzaileak bere audientziari helaraztea merezi duen istorioaren aukeraketa eta garapenean erabakigarriak suertatzen direla da. Azken batean, gutxiago edo gehiago rola eragina dute kazetariaren jarrean, kazetaritza profesioaren identitatea definitzen baitute (van Dalen et al., 2011: 3). Ildo honetan, kazetari lan-taldearen kultura, egunerokoa eta rola zehazterakoan garrantzia handiko elementua dugu herrialdea, kokalekua, hots, hedabidea ezarrita dagoen lurraldearen nolakotasun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak. Horrela erakutsi da kazetariak hedabideetako rola inguruan duten ikuspegia batez ere faktore sozialek baldintzatuta dela, antolaketarekin erlazioatutako faktoreek baino indar handiagoa dutelarik (Zhu et al., 1997: 84). Beste oraintsuko azterketa batek Danimarkako, Alemaniako, Espainiako eta Erresuma Batuko politika arloko kazetariak alderatzen ditu (van Dalen et al., 2011), eta nahiz eta denak Europarrak izan, kazetariok bizi diren herrialdeak berak rola ikuspegiaren eragin handiagoa duela beste faktore indibidual edo antolaketari dagozkionak baino ondorioztatzen du (2011: 10). Lan honetan autoreek erregresio ereduak erabiltzen dute rola ikuskeren inguruan ematen diren aldaketak konparatzeko, kazetarien formazio eta esperientzia, hedabide erakundearen nolakotasuna eta lan egiten duten herrialdea kontuan izanik. Jakina, azkeneko ikerlan honen antzera, kazetarien inguruko ezaugarriak finkatzen dituzten lan gehienek galdetegi itxietan oinarritutako metodologiak erabiltzen dituzte. Aurrean dugun

ikerlan honen indargunea aldiz erabilitako sakonezko elkarrizketetan datza, distantzia eremua errespetatuz gero datu aberatsak erantsi ditzaken metodoa.

Kazetarien egunerokoen azterketan, kazetarion hautaketa prozesuak ere agertzen zaizkigu, hots, eduki bat edo beste aditzera ematearen kausak. Aukeraketa horiek, kazetarien prestakuntza profesionalez gain, beraien sineskera subjektiboek ere baldintzatuta daudela frogatu da (Donsbach, 2004; Donsbach, Patterson, 2004: 251-270; Shoemaker eta Reese, 1996). Kontuan izan behar dugu iritziz publikoaren sorreran, bere biziko garrantzia duela kazetarien albisteen aukeraketaren eragileak zeintzuk diren ezagutzea. Hori ulertzekotan, Donsbach-ek (2004) lau arlo arakatu behar direla azpimarratzen du: albiste edo gertaeraren beraren faktoreak, helburu instituzionalak, informazio iturriek manipulaziorako izan dezaketen boterea eta kazetarien sinismen subjektiboak. Sineskera subjektiboen alorrak, gertaera baten inguruan kazetariak duen alde aurreko ezagutza edo jarrera ideologikoak, gertaeraren inguruan egiten duen estalduran zelan eragiten duen neurtzen du (Seo, 2011: 469). Ikerlerro hau jarraitu duten azterketek izaera, baloreak, erlijioa, esperientzia, jarrerak eta rolaerakiko ikuskerak lantzen dituzte, gizabanakoren hautaketa prozesuan sineskerak duten eragina neurtzeko.

4.4. Albistegietatik kanpoko kazetariak

Aztertutako lanek azaltzen dutenez, "profesionala" izatea albisteetan lan egiten duten kazetarien (*news journalists*) lan ideologiaren osagarri hagitz garrantzitsua dugu. Horrek objektibitatearen arauen ezarpenarekin du zer ikusia, alegia, albiste eta iruzkinak desberdindu nahiarekin. Baina jakina, zelan desberdindu behar ditugu gertakariak eta gertakarien komentarioak direnak; kazetaritzaz ikuspuntu soziologiko batetik diharduten lan sakonenak bereizketa eutsiezin hori zelan sortu eta zelan sostengatzen den azaltzera bideratuta daude (Tuchman, 1972). Beraz, albistegietatik kanpo ez al daude kazetari profesionalik? Programetan, edozein motatako magazinatan lanean dabilzanak ez al dute kazetaritza profesionalki lantzen? Entretenimenduzko eduki mediatikoek hartzaileen balio eta arau partekatuetan eragin handia izan dezaketen arren, ez dago informazio oparorik balio eta arau hauen igorleak diren entretenimenduan lan egiten duten langileen joera eta pertzepzioen inguruan (Von Rimscha, Siegert, 2011: 1009). Kazetarien inguruan aztertutako

literatura akademiko gehientsuena albistegietako kazetarietan zentratuta dago; aitzitik gure ikerketan entretenimenduak duen lekua eta pisua ere kontuan hartu nahi izan dugu, berrietatik at lantzen diren edukietan jarduten duten kazetarien profilak ere bere biziki garrantzia baitu hedabide baten izaeraren egituraketan.

5. KAZETARIEN PROFESIONALITASUNAREN INGURUKO EZTABAIDAK

5.1. Profesionaltasunaren afera eta kazetarien profilen eraikuntza

XX. mende hasieran, kazetariaren formazioa erredakzioetatik unibertsitatera igaro zen, eta une horretatik, Ameriketako Estatu Batuetan lehenengo eta mundu osoan ondoren, profesionalizazioaren ideia izan zen kazetaritzaren garapena azaltzeko eredu nagusia. Garai artan behin eta berriro aldarrikatzen zen gizartean kazetaritzak zuen duintasun maila hobetzeko metodorik onena profesionalizazioa zela. Profesionalizazio terminoak, hedabideetako langilearen heziketa formaletik abiatuz, kazetari horrek eguneroko lan ohituretan dituen jarrera, etika eta balore bereizgarriak aztertzea du helburu. "Professionalism" kontzeptua barne-hartzen duten ikerketen aurrekariak Amerikako Estatu Batuetan kokatzen dira. Bertakoak ditugu kazetarien profesionalizazioaren neurketan aitzindariak ditugun Jack M. McLeod eta Searle E. Hawley, *Profesionalizazioa kazetarien artean* (1964) lan aitzindariaren egileak; kasu honetan beraz lanbidea bera baino lanbide batetako kideak dira azterketaren giltza. Wisconsin-eko unibertsitateko McLeod eta Hawley-k kazetarien orientazio edo joera profesionala erkatzeko adierazleak finkatu zituzten, garaiko "lanbideen soziologia" aztertzen zuten idatzietan oinarrituz: hezkuntzari buruzko lanak ziren, zeinak ogibide edo profesioetan bihurtu daitezkeen lanek (*occupations*) izan behar dituzten ezaugarriak identifikatzen dituen, baita joera profesionala duten langileek dituzten ezaugarriak definitzen dituztenen idatziak (Wilensky, (1964). Literatura hori kontuan izanik, McLeod eta Hawley-ek ulertzen dute "pertsona profesionalak, ematen duen zerbitzuari, egiten duen jarduera intelektualari, autonomiari eta eragiteko aukerari garrantzi handia ematen diola" (McLeod, Hawley, 1964: 530).

Autoreok masa komunikazioaren alorrean komunikatzailearen inguruko ikasketak bultzatu nahi zituzten, ordura arte kontzeptu berritzailea zen "kazetarien profesionalizazioaren joera" barneratuz. Nahiz eta berauen lana pertsona bakanean

finkatu, garai hartan eragina izan zuen lanbideen soziologiaren pentsamenduan, kazetarien jarduna eta soziologia uztartzen zituelako. Beraz, joera profesionalaren kontzeptualizaziorako lanaren soziologia erabili zuten. McLeod eta Hawley-k profesionaltasun maila baxu, erdi eta altuko langileak desberdindu zituzten 24 itaunetako galdetegi itxiaren bitartez -12 itaunek arlo "ez-profesionala" jorratzen zuten eta beste 12k eremu "profesionala" (McLeod, Hawley, 1964: 538). Milwaukee hiriko kazetari laginak erantzun beharreko galderak honela zioen: "Jendeak bere lana asegarri egiten duen gauza desberdinei erreparatzen die. Ondoren lanbide gehienei ezarri dakizkieken ezaugarriak agertzen dira. Zuretzako adierazle bakoitzak edozein lanetan zenbaterainoko garrantzia duen jakin nahi dugu". Lau erantzun zituzten aukeran, erabat garrantzitsutik ez garrantzitsura (McLeod, Hawley, 1964) (gaian gehiago sakontzeko ikusi Becker *et al.*, 2003). McLeod eta Hawley-k bazekiten elkarrizketatuek bi multzoetan ("ez-profesionalean" eta "profesionalean") kokatzen ziren adierazleak izango zituztela gustuko (Becker *et al.*, 2003: 28); hala ere, profesionaltasuna adierazle profesionalak ez-profesionalen gainean zuten nagusitasuna kontuan izanda neurtuko zuten. McLeod eta Hawley-ren ikerketak, profesionaltasun maila egunkari baten -elkarrizketatuak egunkarietako kazetariak ziren- funtzionamenduaren hiru elementu nagusietara lotuta daudela adierazten du: kazetariak beraien egunkariarekiko duten jarrera eta iritzietara, egunkariko jardueretara eta egunkariko lanean jarraitzeko nahira. Autoreon eremuan, kazetari "profesionalek" orokorrean estandar etikoekiko kezka nagusiagoa dute, heziketa maila altuagoa dute, norberaren lanarekiko kritikoagoak dira, lanean independenteagoak dira, kazetaritzarekin zer ikusia ez duen lan bat onartzeko posibilitate gutxiago dituzte, eta McLeod eta Hawley-k "erdi-profesionalek" deitzen dituztenek baino kezka gutxiago dute dirua eta ospearekiko.

Ordutik kazetaritzaren profesionaltasunaren inguruko analisiak zabalkunde handia jaso zuten, eta azterketa horien irizpide erabileran eta emaitzetan ere desberdintasun ugari agertzen hasi ziren lan bakoitzak argitara ematen zituen ondorioetan. Wright-ek (1975) ere, maila altuko irrati eta telebista kazetari kanadarrak beraien lanekin bereziki disgustura zeudela topatu zuen. Weinthal eta O'Keefe-k (1974) Denver-eko irrati eta telebistako kazetarien profesionaltasuna aztertu zuten, eta profesionaltasun altukoek heziketa maila hobea, beraien lanarekiko kritikoagoak, balio profesionalakiko

kezkatuagoak, elkarte profesionalen kide izateko aukera gehiago, eta kazetaritza uzi eta diru gehiago irabazteko beste lan baten bila hasteko aukera gutxiago zutela erakutsi zuten. Antzeko emaitzak lortu zituzten Idsvoog eta Hoyt-k (1977) profesionaltasuna, errendimendua eta lanaren asetasuna lotzen zituen telebistako kazetarien inguruko lanean; emaitzetan, profesionaltasun maila altukoaren artean %54ak esan zuen ez zutela harreman publikoetan edo publizitatean lan egiteko egun telebistan zuten lana utziko; maila baxu eta ertaineko profesionalen artean ostera %80ak hausnartu beharreko aukera zela erantzun zuen (Idsvoog, Hoyt-k, 1977: 102).

5.2. Profesionaltasuna zehazteko proposatutako aldagaiak

Ikerketak anitzak izan ziren gai honen inguruan beraz, autore berberak ere behin baino gehiagotan erabili zuelarik ereduak kazetari multzo desberdinetan. Zenbaitetan bateragarritasunak agertzen ziren; batzuk ados zetozen profesionaltasun joera altuko kazetaria gaztea, goi-mailako ikasketaduna, etika profesionalaren eta informazioaren balioa neurtzeaz jabetuta dagoena, alor desberdinen bereizketaren aldekoa dena (zientzia, ekonomia, gizarte gaiak, etab.), hedabideetako informazio iturrien gehiegizko eragina ekiditen duena eta orokorrean hedabide merkatu txikiak langilea dela esatean (Pollard, 1985, 1982; Nayman, 1973; Lattimore, Nayman, 1974). Dena dela, Idsvoog eta Hoyt-k (1977), Wisconsin-eko hedabide merkatu handietan lan egiten zuten telebista kazetariak trebezia handiagoz lan egiten zutela ondorioztatu zuten; azaltzen zuten, enpresa txikiak kazetarien abiapuntua ziren, eta anbizio eta talentua duten horiek beraien trebetasunak hobetuta, enpresa handiagotara egiten dute salto.

Haatik, Ameriketako Estatu Batuetan zeharo zentratuta hasi ziren lan hauen mamia hobeto ulertzeko, ezinbestekoa deritzogu balio "profesional" eta "ez-profesional" bezala zer hartzen dugun jakitea. Hennigham-en (1984) lana abiapuntutzat hartuta, balio profesional eta ez-profesionalak definitzen dituzten faktoreak adieraziko ditugu labur, McLeod eta Hawley-ren eskalarekin harremana dutenak. Alderdi "profesionalen" adierazleak: 1) Trebezia eta ezagutza profesional berriak ikasteko kazetariak dituen aukerak; 2) erredakzioan hartzen diren erabakietan parte-hartzeko eta eragina izateko ahalmen; 3) erredakzioko kideekiko errespetu eta gaitasun profesionala; 4) kazetariak duen autonomia maila erredakzioko lanaren gaineko etengabeko ikuskapenean; 5) gai

batzuen inguruan kazetariak audientzien iritzietan eragina izateko zuen aukera; 6) kazetariak bere gaitasuna eta prestaketa profesionala era egokian erabiltzeko dituen aukerak; 7) kazetariak sormena, originaltasuna eta inizatiba adierazteko dituen aukerak; 8) komunitatearentzat funtsezkoa den lan izatearen jakinean egotea; 9) Lehiakortasun profesionalean hobetzeko aukera izatea; 10) nagusiek kazetariak bere gaitasun profesionala hobetzen ematen duen denbora aintzat hartzea; 11) beste hedabide batzuetako kazetariak errespetatzen duten lana izatearen jakinean egotea.

Henningham-ek proposatutako eskala 10 adierazle "ez-profesionalekin" osatzen da: 1) Lanak eskaintzen duen interesa eta gai batetik bestera aldatzeko aukera; 2) bizitzeko beste diru irabaztea; 3) lankideen elkartzunaz gozatzea; 4) bizi naizen komunitatean ospe ona duen lana izatea; 5) lan egiten dudan enpresan promozio pertsonalerako aukera izatea; 6) segurtasun eta egonkortasuna lanean; 7) lanaz gozatzea; 8) lan egiten dudan enpresan prestigiozko kargua izatea; 9) norberak harreman onak dituen jendearekin egon ahal izatea; 10) jende garrantzitsuarekin hartu emana errazten duen lana izatea. Beraz, subjektu batean alderdi ez-profesionalak gailentzen baziren (puntuazio altuagoa lortzen bazuen galdeketaren alderdi honetan), langile hori oso profesionala ez zenaren seinale zen.

21 neurri hauek kontuan hartuta, Henningham-ek McLeod, Nayman eta Windhal-ek beraien ikerketetan aplikatutako eskalak alderatu, eta aipatutako adierazle berberak erabiliz, eskala bat edo bestea aplikatuta emaitzak desberdinak zirela ondorioztatu zuen. Horrela, Henningham-en ikerlanean nabarmentzen da adierazle profesionalen eta ez-profesionalen arteko korrelazioa kasu guztietan positiboa dela; alegia, irizpide profesionaletan kalifikazio altuak lortu zituzten kazetariak, puntuazio altuak lortu zituztela baita irizpide ez-profesionaletan. Honek agerian uzten du, MacLeod eta Hawley-k esandakoren kontra, adierazle ez-profesionalak gailentzeak ez duela eragin kaltegarririk langileen profesionaltasunean (Balsebre, 1995: 28).

Beranduago, Pollard kanadarrak antzeko ikerketa metodoa irratik kazetarietan aplikatzea proposatu duen. Wright-en (1975) galdetegian oinarrituta, irratik esatarien ezaugarri demografiko eta profesionalak aztertu nahi zituen (Pollard, 1982: 31-50, 1985: 21-38), esatariek 9 adierazpen "profesionalen" eta 7 "ez-profesionalen"

garrantzia adierazi behar zutelarik 1etik 7rako garrantzia emanez. Adierazpen profesionalen artean ditugu karrera profesionalean aurrera egiteko aukera, publikoaren iritzian eragina izateko aukera, etengabeko ikuskapenetik aske izatea, originaltasun eta ekimenerako aukera, kideen gaitasunetikiko errespetua, trebezia eta ezagutza berriak eskuratzeko aukera, komunitatearentzat funtsezkoa den lana egitea, eta gaitasunen erabilera osoa. Adierazpen ez profesionaletan, norberaren familia harro egoteko moduko lana izatea, bizitzeko behar beste irabaztea, atsegina eta lan egiteko erraza den jendearekin egotea, zirrara garria den lana izatea, egoera zailtan lankideen elkartasuna izatea eta lan egonkorra izatea ditugu. Pollard-ek hiru taldetan banatzen ditu esatariak: maila altuko profesionalak (*high professionals*), maila ertainekoak (*medium professionals*) eta maila baxukoak (*low professionals*). Horretarako, Norabidetze Profesionalaren Indizea erabiltzen du, $P = 2PI - NP_i$ formula erabiliz, non P-k Norabidetze Profesionala adierazten duen, 2PI alderdi profesionalak biltzen dituen itemen batuketaren bikoitza, eta NP_i alderdi ez-profesionalak biltzen dituen itemen batuketa (Pollard, 1982: 36). Norabidetze Profesionalaren Indizearen erabilerari dagokionez, ikerketa honetan hasieran zegoen ustea da, maila altuko profesionalak adierazle profesionalak nabarmenduko dituztela gehienbat, puntuazio altuagoa emango dietela alegia, eta kontrako gertatuko dela adierazle ez-profesionalekin. Pollard-en ondorioetan, ordea, lehenengo baieztapena betetzen den heinean, bigarrena ez dator bat agertzen diren emaitzekin. Egia da maila altuko profesionalak garrantzia handiagoa ematen dietela adierazle profesionali maila baxukoek baino; hala ere, garrantzia handia ematen diete baita ez-profesionaltzat hartzen diren hiru adierazleri: zirrara garria den lana izatea, erakundean gora egiteko aukerak izatea eta egoera zailtan lankideen laguntza izatea. Hiru kasuetan, maila altuko profesionalak maila baxukoek baino puntuazio altuagoa eskaini diete adierazleoi. Hala ere, ondorio hau ez da soilik Pollard-en azterlanean agertzen; Naymen (1970) eta Wright-ek (1974) lehenago egindako ikerlanetan, itaun ez-profesionalak maila altuko profesionalak maila baxukoek baino garrantzia handiagoa ematen ziotela agertu zen. Bestetik, maila ertaineko profesionalak maila altukoengatik gertuago kokatzen dira, bien arteko trantsizioaldian esango genuke.

Ondorio demografikoei dagokienez, esatari gehienak gizon gazteak direla dio, erdia 25 urtetik beherakoa; maila profesional altuko esatariak batez ere irratiko enpresa

handietan kokatzen dira; batezbestez estariak lau urte daramatzate egungo lanean; guztiek dituzte batxilergora arteko ikasketak baina soilik heren batek jaso ditu unibertsitate mailakoak. Horrez gain, maila altuko profesionalek beste elkarrizketatu batzuek baino heziketa hobea dutela adierazten da, esaterako, aukera gehiago daude horien artean unibertsitate ikasketadunak topatzeko. Halere, hirutik bi elkarrizketatuk nolabaiteko goi-mailako heziketa beharrezkotzat jotzen dute, lan egiteko eran bertan bete-betean eragiten duela diotelarik.

Kazetarien heziketaren aferari jarraituz, Pollard-ek beranduago argitaratutako lanean (1989) heziketa eta esperientzia profesional maila altuagoak ez duela maila profesional hobean eragiten ondorioztatu zuen. Ikerlanak heziketa unibertsitarioa ez dagoela profesionaltasunarekin positiboki erlazionatua azaltzen du, eta Pollard-ek unibertsitate graduatuek lanbidea gehiegi idealizatu dutelako dela azaltzen du; graduatuen frustrazio maila igo egiten da erredakziora iristean, errealitatetik oso urrun zegoen testuingurua imajinatzen zutelako, eta horrek kalte egiten dio eguneroko lan ohitura profesionalak praktikatzeari. Honekin erlazionatuta aipatzekoa da Idsvoo eta Hoyt-en (1977) lana zeinak une batean heziketa mailaren eta asetasunaren arteko binomioa planteatzen duen; emaitzen ageri denez, unibertsitate mailako ikasketak zituzten kazetarien %27a soilik sentitzen zen asebeteta lanarekin, eta aldiz, maila horretako ikasketak ez zituztenen artean %86ra iristen zen asebeteta zeudenen zenbatekoa (Idsvoo, Hoyt-en, 1977: 104). Ikerketa honetan autoreok adina eta karguak (edo autoritateak) asetasun mailarekin lotura estua dutela ondorioztatzen dute; Pollard-ek (1985: 21-38) ondoren adierazi bezala, kazetari gazteek idealizatuta dute hedabideetako lana, eta heltzen direnean beraien karguak ez duenez autoritate garrantzitsurik enpresa barruan, lanean egitea pentsatzen zutena egin ezin dutenean beraien asetasun maila guztiz jaisten da (Idsvoo, Hoyt-en, 1977: 106).

Pollard-ek frogatzen duen beste ondorioetako bat, Kanadako irrati kazetariak oso esperientzia profesional laburra dutela da, eta behin esperientzia hartuta, beste hedabide batzuetara alde egiten dutela; honek, egilearen ustez, Kanadako irrati informazioa kalitate eskasekoa izatea eragiten du. Alabaina, Pollard-ek ezin dezake konklusio hori zehaztasunez agertu, McLeod eta Hawley-ren Joera Profesionala neurtzen duen eskalak ez baititu albistearen ekoizpen prozesuaren inguruko

aspektuak barneratzen, erabakigarriak direnak kazetaritzaren profesionaltasuna neurtzeko. Hots, ez du aukera ematen aurretik aipatutako adierazleen arteko eta kazetaritzaren arau ezagunen (inpartzialtasuna, iturri anitzen kontsulta, zehaztasuna, etab.) arteko egiazko harremana arakatzeko. Beste ikerketa batzuetan ere saiatu ziren profesionaltasun eta lanaren egikaritze hobe baten arteko harremana topatzen, esanez profesionaltasunaren inguruko azterketa gehienek inplizituki onartzen dutela kazetari "profesionalek" etekin hobeak zituztela lanean (Idsvoog, Hoyt, 1977: 97).

Dena dela, ikerketok ez dute lehenago azalduko adierazle profesional eta ez-profesionalen arteko banaketa zurrunik erakusten. Balsebre-k (1995: 33) ere agerian jartzen duenez, aitaturako adierazleen artean ezartzen den muga anbiguoak zalantza metodologiko larriak ezartzen ditu horrelako korrelazioek -hots, adierazle profesional eta ez-profesionalaren arteko batuketa edo kenketatik ateratako indizeek- izan dezaketen esanahietan.

Kazetarien profesionaltasunaren garrantziaren gaiak 90. hamarkadan zehar ere jarraitu zuen, esaterako, ezaugarri sozialek irrati esatarietan zuten eraginari buruzkoetan (Pollard, 1996), zeinetan ondorioztatzen zen kazetariak gehien baloratzen zutena lanerako gaitasuna, karrera profesionala eta lanetik eratorritako asebetetze pertsonala ziren. Aurrerago azalduko dugunez, azkeneko bi ezaugarri hauek gure galdetegietan erabiliko ditugu, kazetarien perfila dimentsio desberdinetatik aztertzen dituztelako. Dena dela, hein handi batean profesionalizazioa neurtzea kazetarien lanaren emaitzaren kalitatea aurreikustea esan nahi zuela ondoriozta daiteke; izan ere, ez dira gutxi hari beretik jarraituz, kazetarien jarrera profesionalaren eta berauen eguneroko jardueren arteko lotura azertu dutenak (Soloski, 1984). Eta Reese-rekin (2001) bat etorriaz, guretzat ere profesionaltasunaren esanahia testuinguru kultural zehatzetara erlazionatuta ulertu behar da. Eguneroko ohiturak erredakzio bakoitzean ere desberdinak izango dira, kazetariak profesionala izatea era desberdinetan ulertuko dutelako; esaterako, eta gure objektuak gogora ekarriaz, komunitate zabalago edota hertsiago batentzat komunikatzerakoan. Bestela ere, profesionaltasuna errutina eta eguneroko ohituren ikuspegi batetatik (Reese, 2001: 184) azertu beharko litzatekeenaren iritzikoak gara.

Alabaina, badago perfilak neurtzeko eredu "profesionala"-ren ideia eredu angloamerikarraren lan kulturaren produktua dela argudiatu duenik kultura angloamerikarrari mugatua (Freidson, 1994). Zentzu honetan Wilensky-ren (1964) aspaldiko lana gogoratu dezakegu, zeinetan lanbide batek lanbide bezala kontsideratua izateko lau pausu jarraitu eta bete behar zituela esaten zuen: lanbide horrek formazio eskolak, profesionalen elkarteak, lanbide horren egikaritzea babestuko dituen legeak eta kode etiko formal bat behar ditu. Aucoin-ek bere lanean batez ere azpimarratzen duena zera da: lanbide batzuetan, erizainak, ingeniariak edo abokatuak kasu, lan egiteko lizentzia lortzeko azterketa batzuk gainditu beharko dituztela, eta lanbidearen arauak hausten badituzte lizentzia horiek baliogabetu dakizkiekela. Aldiz, Aucoin-en hitzetan, kazetaritzari botere hori ematea adierazpen askatasunaren kontra joango litzateke, estatu demokratikoen eskubiderik preziatuenetarikoaren kontra. Beraz, beste modu batera esanda, lanbide baten definizioak lanbidea nork praktikatzen duen arautzeko gaitasuna barne hartzen du, eta "kazetaritzak ez du gaitasun hori" (*ibidem*). Are gehiago, adierazpen askatasunaren kontrakoa litzateke hedabideen bitartez beraien iritzia espresatzen dutenei edozein motatako legitimazioa eskatzea. Horrela, hedabideen inguruko ikertzaileek kazetaritza erdi-lanbidetzat (*semi-profession*) hartu dute (Witschge, Nygren, 2009: 40), batez ere profesionalak ez direnak kazetaritza eremutik baztertzeko aipatutako ezintasunagatik.

Gaur egun, World Wide Web fenomenoaren agerpenarekin batera, 1994tik aurrera komunikazioaren profesional berri baten agerpena sustatzen da (Deuze, 1998), hain zuzen sareko kazetariarena. Horrela, sareko kazetaritzaren garapenarekin (*online journalism*) (Singer, 1998) kazetari profesionalaren perfila neurtzeko irizpide berriak agertzen zaizkigu; interneten garatzen den kazetaritzak konbergentzia, elkarreragina, edukien pertsonalizazioa eta hipertestualitatea ditu giltzarri, eta kazetarien funtsezko eskumen eta funtzioen eta sareko kazetaritzaren berezko potentzial hiritarraren arteko bat-etortzea ordezkatzen du (Bardoel, Deuze, 2001: 91). Ia mende oso batez, kazetaritza kulturaren balio eta lan errutinak egonkor mantendu izan dira (Schudson, 2003; Tuchman, 2002), baina sarearen ugaltzearekin nagusiki, konbergentzia eta multimedia bezalako fenomenoek aldaketa nabarmenak eragin dituzte kazetarien ohitura eta perfiletan. Aipatzekoa da halaber, azkeneko hamarkadan aberastu egin dela konbergentzia prozesuek kazetarien praktika eta pertzepzioetan duten eragina

aztertzen duten lan akademikoen eremua, eta prozesu horrek kazetari multimediaren identitate profesionala zelan moldatzen duen ikertzen saiatu dira (Deuze, 2004). Ingurumari digital honetan, eduki sortzaile eta hartzailearen arteko muga mehetu (Jenkins, 2006), eta kazetariaren profesionaltasunaren eztabaida suspertu egin da, *practitioner* eta *layperson* bi figuren arteko bereizketaren beharra azpimarratuz (Singer, 2003: 139-163). Sarerako kazetaritzarekin erlazionatutako edukiak ekoiztu ditzakeen baina kazetari profesionala ez den figura dugu esaterako “blogger”-arena: nahiz eta sarean argitaratuak izateko kazetaritza lanak sortu, berauen perfila kazetari profesionalaren bestelako praktika eta sinesmen etikoek osotzen dute (Singer, 2006; Cenite et al., 2009: 575); esaterako, kazetari-printzipio funtsezkoa den gertaeren egiaztatzea baztertzen dute (Micó *et al.*, 2008). Honek guztiak beraz halabeharrez aldatu du kazetariaren egunerokoa, eta goratu egiazkotasunari, “erantzukizunari eta autonomiari zor dion konpromisoa” (Hayes, Singer, Ceppos, 2007: 263). Autore batzuek, horrela, kazetariaren perfila “gatekeeper” izatetik -termino honek adierazten du kazetariak direla publikoak jakin behar duena erabakitzen dutenak-, kazetaria eta audientziaren arteko elkarreragin handiagoko harremana izatea eskatzen duen “jendarteko kazetaritza” (*public journalism*) (Massey, Haas, 2002: 559-586) izatera igaro dela diote. Honek esan nahi du, sareak eragindako kazetaritza gero eta lotuagoa dagoela audientziari (Domingo, Quandt, Heinonen, Paulussen, Singer, Vujnovic, 2008: 326-342) eta kazetariak gero eta gehiago beraien egunerokoa erabiltzaileek sortutako edukiei garrantzia ematen diotela (Hermida, Thurman, 2008: 343).

Eskenatoki berrian, garbi agertzen zaizkigu kazetarien rola osatzen duten bi ardatzak: historian zehar kazetariaren zereginak ezarri dituzten elementuek osatutako ardatz historikoaz, eta “gizarte modernoan duen lanaren berezitasunek osatutako gaur egungo ardatzaz” (Steensen, 2009: 702-718). Sarerako lan egiten duten kazetari holandar eta flamenkoak ikertzen dituen azterlanean, profesional hauen eguneroko lana teknologiaren etengabeko erabilerari eta audientziari zuzenduegia dagoela agertzen du, eta lan-denboraren gehiena idazgelan igarotzen dutela gai desberdinen inguruko ikerketak eta txostenak lantzen (Deuze, Paulussen, 2002: 243-245). Ondorio bertsuak topatzen ditugu *Dagbladet.no* sareko egunkari norvegiarrean lan egiten duten kazetarien inguruko ikerlanean: sareko egunkarietako kazetariak paperekoek baino gehiago hartzen dute kontutan audientziaren eragina eta iturri anitzagoak

erabiltzen dituzte (Steensen, 2009: 702). Alabaina, kontuan hartzekoa da informazio iturri bezala sareak kazetariarentzat izan ditzakeen arriskuak, izan ere bertan topa ditzakeen iturrien egiaztatze, sinesgarritasun edo kontraste faltak, eragin kaltegarria izan dezake bere lanean. Dena dela, langilearen kategoriaren arabera asko aldatzen da interneteko baliabideez egiten den erabilera (ikusi Garrison, 2000: 22). Bestalde, aitatu beharra dago, kasu batzuetan sareak kazetaritza lanaren espezializazio handiagoa bultzatu duela, hala nola, informazio zientifikoa besterik ez lantzen duten berriemaileen kasuan. Zientzian berezitatuko kazetari honek bestelako lan-ohiturak zein perfila agertuko ditu.

Azkenik, atal honetan gaur egungo kazetaritzaren hiztegiaren parte den “multimedia” kontzeptuak gaurko kazetariaren identitatean izan dezaken eragina aipatu nahi dugu. Ugariak dira azken aldian multimedia kontzeptuak kazetaritzarentzat orokorrean eta kazetariarentzat zehazki zein balio edo esanahi duen arakatzan saiatu diren lanak, batik bat multimediak kazetarien pertzepzioan eta eguneroko lanean eta kazetari multimediarren identitate profesionalaren eraikuntzan duen eragina zehazten saiatu direnak (Deuze, 2004: 139). Multimedia maila instituzionalean, antolaketan eta teknologikoan eman daiteke, baina ikertzaile eta profesionalek orokorrean multimedia teknologia berriekin lotutako auzia bezala ikusten dute, hau da, edukiak topatu, editatu, itzuli eta euskarri mediatiko desberdinetan plazaratzera mugatutako kazetariaren fenomeno bezala. Zentzu honetan, kazetari pasiboagoa eta sormen gabezia arriskutsuaz hornitutako kazetaria genuke, informazioa “moztu eta itsastera” bideratutakoa (Deuze, 2004: 144). Hala ere, hedabideetako exekutibo, editore eta sareko kazetariak aditzera ematen dute gaitasun teknologikoak ez direla kazetari kide berriak kontratatzeke ezinbesteko irizpideak; hori baino gehiago, hedabide desberdinetatik zehar pentsatzeko gaitasuna eskatzen da. Kazetari multimedia testuinguru konbergente batetako langile profesional trebea bezala definitu daiteke, pentsamendu malgua eta aldaketetarako egokitzeko gaitasuna duena (Deuze, 2004: 149).

5.3. Kazetari taldeen arteko alderaketak

Ikerketa konparatiboa bideratzea ez da zeregin erraza (Esser and Pfetsch, 2004: 3), geografiko eta historikoki definitutako bi sistema edo gehiagoren artean ikerketa

bideratzea eskatzen duen heinean. Horrez gain, baliokidetasun adierazgarriak onartuko dituzten eta, aldi berean, testuinguru kultural anitzetako aberastasuna aintzat hartuko dituzten ikerketa metodoak diseinatzea beharrezkoa da. Aurreko atal batean azaldu dugunez, munduan badira kazetarien profila, kazetarien nolakotasuna aztertzeari eta definitzeari ekin dietenak, herrialdez herrialde kasu bakoitzean agertutako berezitasunek ekarpen handia egin diotenak gure lanari. Beraz, behin gure herrialde edo nazioa taxutzen duten mugen barneko kazetariengan ikerketa bideratuta, ondorengo pausua begi ninia bestelako koloreez elikatzea litzateke; alegia, ezaguna zaigun inguru geografikotik at kazetariak dituzten portaera eta jarrerei so egitea.

Azkenik, ekarpenik interesgarriena gure arteko eta mugaz gaindiko hedabideetako profesional horien antzekotasunak eta desberdintasunak zeintzuk diren zehaztean legoke. Zientziaren edozein arlo hartuta ere, ez da lan samurra konparaketak bideratzea, eta are gutxiago, gizakien arteko harremanak nagusi diren ikerketa konparatiboetan. Muga nazional eta kultural desberdinetan hezi diren kazetariak alderatzea aberasgarria izan daiteke ikuspuntu teoriko zein praktikotik; batetik egoera desberdinak bizi dituzten kazetaritzaren profesionalen nolakotasunak ikertzeko metodoak finkatu daitezke, baliagarriak diren adierazleak finkatze aldera, eta bestetik, hedabide enpresetan bertan ditugun kazetarien lan ohiturak eta jarrerak zalantzan jarri eta eztabaidatzeko aukerak sortu daitezke. Herrialde edo nazioen arteko konparaketak bideratzerakoan, gure ikerketa objektua kokatuta dagoen inguru horrek, hots, nazio horrek eginkizun desberdinak joka ditzake: objektu gisa, testuinguru, azterketa unitate edo sistema zabalago baten osagarri bezala. Beraz, badaude ikerlanak non nazio sistema azterketa objektuarekin estuki lotuta dagoen (Hallin, Mancini, 1994), baina baita nazioa interesguneke beste fenomeno batzuen testuinguru bezala hartzen dituztenak (Weaver, 1998). Masa-hedabideen jokabideen azterketa zabalagoan nazioak azterketarako unitate soil bihur daitezke, eta azkenik, nazioen arteko mugak apurtzen dituzten sistematan, nazioak sistema horren osagarri izango dira. Honekin esan nahi dena da, ikerketa konparatiboak gidatzerakoan tentagarria izan daitekeela sistema nazionala hedabideen antolaketarako printzipio natural bezala hartzea; hala izan badaiteke ere, arduraz aztertu behar dugu kazetariak eta beraien sistema profesionalak nazio sistemarekin duten erlazioa.

Aro digital eta Interneten ezarpenak ere eragina izan du azterlan konparatiboen hedapenean, esaterako herrialde desberdinetan agertutako sareko egunkarien egitasmoen inguruko lanak (Domingo *et al.*, 2008) edo Europako herrialdeetan hedabide taldeek garatutako konbergentzia prozesuak modu konparatiboan aztertzen dituzten ikerketak (García Avilés *et al.*, 2008) plazaraziz. Internetek “sareko kazetariak” sortu ditu, zeintzuek herrialdez herrialde eta kontinentez kontinente zeregin, erantzukizun eta baliabide desberdinak partekatuko dituzten (Schmitz, de Macebo, 2009: 587), sarearen ezaugarri bereziak diren hiperrestekak, eduki multimediak eta elkarreraginerako elementuei ere erabilpen desberdina emango diotelarik eduki horrek beraien testuinguruan hartzen duen garrantziaren arabera.

Kazetarien arteko lan konparatibo zehatzagoetara etorriaz, lehen ikusian badirudi topatzen diren ezaugarri, jarrera eta portaera desberdinak testuinguru zehatz bati lotuta daudela eta hala soilik ulertu daitezkeela. Hala ere, muga geografiko, kultural, hizkuntza, gizarte edo etnikoak gainditu eta antzeko ezaugarriak bilatzen saiatu diren ikerketak ere azaleratu dira, kazetaritza esperientzia oro ez dagoela toki eta garai zehatz bati soilik itsatsia aldarrikatuz (Weaver, 1998: 455). Kazetarien oinarrizko ezaugarriak (adina, generoa, ikasketak, etab.), lan-baldintzak (autonomia lanean, asebetetze maila, kazetaritzarekiko konpromisoa) eta rol profesionalak (albisteen berehalakotasuna, azterketa sakona eskaintzea, entretenimendua eskaintzea, etab.) kontuan hartuta, Weaver-ek (1998) *The Global Journalists* liburuaren barnean mundu mailako kazetarien jarrera profesionalen arteko konparaketa bideratu zuen 21 herrialdetan¹³. Weaver-en ikerketan hipotesi nagusia, mundu osoan hedabideetako kazetarien aurrekariak eta ideiak, helarazten diren edukiekin (eta edukiak lantzeko moduarekin) harremana dutela da. 21 herrialdeetatik, 12 lurraldeetako kazetarien artean antzekotasunak agertu ziren publikoari informazioa azkar helaraztearen garrantzian. Aldiz, gobernuaren eskaerak ikertzearen auzian ez zuten halako adostasunik topatu, nahiz eta hemen desberdintasunak topatu zituzten historikoki demokratikoak zirenen herrialdeen - Australia, Erresuma Batua eta Finlandia-, eta

¹³ Ikerketa bideratutako herrialdeak: Asia (Txina, Hong Kong, Korea, Taiwan); Australia eta Pazifikoa (Australia, Zeelanda Berria, Pazifikoko Irlak); Europa (Erresuma Batua, Finlandia, Frantzia, Alemania, Hungaria, Polonia, Espainia); Ipar Africa (Algeria); Ipar Amerika (Kanada, Estatu Batuak); Hego eta Erdi Amerika (Brasil, Txile, Ekuador, Mexiko) (Weaver, 1998: 466, 467).

bestelakoen artean -Taiwan, Algeria eta Txile-, zeintzuek zaindari (*watchdog*) jarrerari ez zioten aparteko garrantzirik emanen (Weaver, 1998: 49). Hala ere, salbuespenak azaltzen dituzte; esaterako Alemaniako (herrialde demokratikoa III. mundu guda ostetik) kazetariak Algeriako kazetariak beste garrantzia ematen zioten rol honi. Eta Txinan (herrialde demokratikoa ez duguna), kazetariak gobernu ikerketa bideratzeari Frantzia eta Kanadan beste sostengu eskaini zioten.

Weaver-ek (1998) kazetariak entretenimenduari eskaintzen dioten garrantzia ere aztertzen du irizpide konparatibo gisa, desadostasun nabarmenak azalduz bere emaitzen artean. Kanadako eta Frantziako -eta ondoren 2002an AEBtan (Weaver, 2003)- kazetariak ziren garrantzia gutxiena ematen ziotenak albistegietatik at kokatzen diren produktuak ekoizteari, mugaren bestaldean kokatzen zirelarik Alemaniarrak eta Txiletarrak. Nonbait zailagoa zen Ekialde Hurbileko eta Ipar Ameriketako kazetariak entretenimendua kazetaritzaren funtzio garrantzitsu bezala hautematea, nahiz eta Europan ere herrialdez herrialde desberdintasunak nabariak ziren, iradokiz entretenimenduarena ez dugula rol unibertsala Mendebaldean (Weaver, 1998: 50). Datu honek bere balioa du gure azterlanean, kontuan izanda albistegietako baina baita entretenimenduan jarduten duten kazetariak aztertzen ditugula. Autore berak munduko kazetarien balio profesionalen alderaketa aztertzeke zehazten duen beste irizpidea erakunde edo elkarteekiko atxikimendua da, hots, kazetariak beraien balio eta estandar profesionalak hobetzera bideratuta dauden elkarteetan afiliatuta dauden ala ez. Autoreak azaltzen du soilik zazpi herrialdetan bideratu dela galdera hau eta emaitzak nahiko desberdinak direla: Hong Kong-en %18a kazetaritza elkarteren batekoa da, Australian %86a eta Hungarian %83a, Taiwan, Erresuma Batua eta Espainiak jarraitzen diotelarik (Weaver, 1998: 51). Gure ikerketan sindikatuekiko afiliazioa ere neurtzen dugu; dena dela, gure helburua kasu honetan harago doa eta sindikatu batean edo bestean egoteak beste galdera batzuen erantzunak ere baldintzatzen dituen behatu nahi izan dugu.

Praktika etikoetan konparaketak egiten ditu informazioa lortzeko bideen inguruan galdetuz, mikrofono eta kamera ezkutuen gaia ere azaleratuz. Weaver-ek profesionalizazioaren gaia ere aintzat hartzen du, aurretik azaleratu ditugun adierazleetako batzuk erabiliz; soldata, lanaren segurtasuna eta lanean gora egiteko

aukera profesionaltasun-eza adieraziko luketenak bezala, eta politika editorialak, espezializazio bat garatzeko gaitasuna, autonomia eta jendea laguntzea faktore profesionalagoak bezala. Hemen ere desberdintasun ugari ageri dira herrialde desberdinetako kazetarien artean (Weaver, 1998: 54). Autore berak kazetarien profesionalizazioa neurtzeko erabiltzen duen beste azkeneko adierazle bat, kazetariak audientziaren inguruan duten irudia da. Algeria, Brasil eta Estatu Batuetako kazetarien laurden bat ados zetorren beraien audientzia azken orduko berrietan (*breaking news*) interesatua zegoela esatean. Aldiz, Estatu Batuetako kazetarien heren bat soilik zihoen bere audientzia arazo politiko eta sozialetan interesatua zegoela; Alemanian eta Mexikon kazetarien hiru laurdenek uste zuten ordea gai horiek interesgarriak zirela beraien audientziarentzat (Weaver, 1998: 55). Gure tesian kazetariak audientziaz duten irudiak ere bere garrantzia du, baina Weaver-ek bere inkestan lantzen ez duen ikuspegi batetik; alegia, zelan imajinatzen duten kazetariak euren entzulea -gure kasua irrati kazetariena baita-, besteak beste, zein hiztun komunitatetan, non kokatua geografikoki, zein heziketa mailaduna den, zein adin tartekoa, hots, entzuleak talde heterogeneo edo homogeneo bateko parte diren.

Weaver-en liburuak agertu bezala, aipatzekoa da kazetarien profesionaltasunaren inguruko ikerketak direla azterketa konparatiborako hobekien egokitzen direnak; inkestaren metodologiak galdetegi bera inguru nazional anitzetan errepikatzea ahalbidetzen du. Profesionaltasuna aintzat hartuta konparaketarako bestelako irizpideak proposatzen ditu Reese-k (2001), profesionaltasunarena aldaketa sozialei erantzunez etengabeko aldaketak bizi dituen ika-mikaz betetako eremua dela iritziz (Reese, 2001: 175). Dena dela, autorearen kezka nagusia kasu honetan ez da herrialde batetako kazetariak beste batzuekin alderatuta zein profesionalak diren agertzea, baizik eta profesionaltasunak kultura desberdinetan dituen adiera desberdinak azaltzea, edo helburu berdinarik lortzeko erabiltzen diren kazetaritza ohitura desberdinak ikustea. Horretarako, proposamen praktikoa baino teorikoa igortzen digu egileak, komunikabideen edukien sorreran eragina duten bost faktore nagusien mailakadura adierazten digularik: maila indibiduala, errutinen maila, antolaketa maila, estra-komunikabide maila (hedabide taldetik at ematen diren eraginak) eta maila ideologikoa (Reese, 2001: 183).

Dena dela, Weaver-en lana atzean utziz, azpimarratu beharra dago kazetarien arteko konparaketak kazetarien lanean garrantzia duen faktore bakarra hartuaz ere bideratu daitezkeela, faktore hori isolaturik errutina profesionaletan zenbaterainoko eragina duen behatuz. Esate batera, Israel eta Estatu Batuetako egunkarietako kazetarien konparaketa egiten duen lanak, faktore pertsonalak ez zeudela erabaki etikoekin edo bestelako faktore profesionalekin zuzenki erlazionatuak ondorioztatzen zuen (Berkowitz, Limor, Singer, 2004: 159-181); aldiz, autoreek testuinguru sozialaren garrantzia nabarmentzen dute, hots, herrialdearen testuinguruak eragin aipagarria izan zuela faktore etikoekin erlazionatutako hiru egoeratik bitan (*ibidem*). Kazetarien kultura profesionalaren ikerketarekin jarraitzen duten beste azterlan batzuetan aldiz, herrialdeen arteko mugak kazetarien errutina mediatiko eta faktore indibidualen azpitik daudela diote (Mellado *et al.*, 2012: 60-77), antzekotasunak azalduz aipatutako bi adar horietan Hegoaldeko eta Erdialdeko Ameriketako kazetarien inguruan garatutako ikerketan; jakina, kasu honetan ere azpimarratzekoa azterketa kasuen testuinguru soziala aurreko adibidean baino berdintsuagoak izaki, arruntagoa da puntu komun gehiago topatzea. Laburbilduz beraz, aztergai ditugun objektuen inguru sozialak bere osotasunean erabateko eragina izango duela ikerketa prozesuan bertan baita emaitzetan. Azkenik atal honetan aipagarria dugu baita diskurtsoaren teoria hartuta (Carpentier, 2005), BBC eta TVE hedabide erakunde publikoetan lanean ari diren kazetarien identitatea neurtzen duen lana dugu (Lamuedra, Lara, 2009). Kasu honetan, hedabide batetako profesionalek euren identitatea zelan eraikitzen duten eta identitate horrek gizartean duen zentzua zelan egonkortzen den ezartzen saiatzen dira lau elementu giltzarriren bitartez: Hedabidearekiko harremana/publikoarekiko harremana, kudeaketa/kolaborazioa (gatekeeper/gate-opener); autonomia/dependentzia; objektibitatea/subjektibitatea. Beraz, kazetaria zein lerrotan dabilen neurtuta, lanaren ondorioetako bat da BBCko kazetarien identitatea askoz ere lotuagoa dagoela erakundeari berari eta publikoaren nahiak asetzeari, TVEko kazetariekin alderatuz.

III. METODOLOGIA: Kazetarien profila eta portaerak ezagutzeko bideak

III. METODOLOGIA: Kazetarien profila eta portaerak ezagutzeko bideak

Metodologiak arazoak bideratzeko eta erantzunak topatzeko bideak ezartzen ditu, ikerketa gauzatzeko era azken batean. Metodologia, ezagueraren izadiaren inguruko premisa multzoan oinarritzen da, "halako ezagueraren teoriatik eratorritako halako printzipio epistemologikoetan" (Montenegro, Pujol, 2008: 77). Horrela, gure hipotesi, helburu eta jakin-minek metodologia bat edo beste aukeratzera bultzatzen gaituzte. Gizarte-zientzietan, bi ikuspegi metodologiko teoriko gailendu dira (Taylor, Bogdan, 1984). Alde batetik positibismoa dugu, gizarte fenomenoaren gertaera edo zergatiak kontuan aztertzen dituen gizabanakoen egoera subjektiboak kontuan hartu barik. Positibistek erabiltzen dituzten metodoen artean galdetegi itxi, inbentario eta ikerketa demografikoak ditugu. Bigarren ikuspuntu teoriko nagusia fenomenologikoa dugu, filosofia eta soziologia jatorrikoa (Berger, Luckmann, 1967); fenomenologiak pertsonaren beraren ikuspegitik ulertu nahi ditu gizarteko gertakariak. Azken ikuspegi hau jarraitzen dutenek, metodo kualitatiboak aplikatzen dituzte, hala nola, behaketak, sakoneko elkarrizketak eta datu deskriptiboak sortzen dituztenak; hots, fenomenologikoek "gizabanakoen ekintzen atzean dauden arrazoi eta sinismenak ulertzeko" nahia dute (Taylor, Bogdan, 1984: 16). Honekin ez dugu esan nahi positibistek ezin dutenik metodo kualitatiborik erabili beren ikerketa interesei heltzeko, badaude eta bi ikuspegiaren metodoak erkatzen dituzten ikerketak.

Metodologia kualitatiboak hartuko du nagusitasuna tesi honetan, alegia, "datu deskriptiboak sortzen dituen metodologia: pertsonen beren hitzak, ahozkoak zein idatzizkoak, eta jokabide behagarria" (Taylor, Bogdan, 1984: 20). Praktika kualitatiboaren bitartez egiaztatu daiteke "ikertzen den jakintza objektua subjektu multzo bat dela eta subjektu oro mugimenduan dagoela -gizarte zientzien ikertzailea barne-" (Alonso, 2008: Hitzaurrea). Horregatik, subjektu horien noranzkoa berreraiki eta interpretatzea beharrezkoa dugu.

Gainera, inkesten bidezko analisi estatistikoak ere eskaini dira, datu semi-kuantitatiboak/erdikuantitatiboak lortuz. Ondoren azalduko badugu ere, datu horiek 1etatik 5erako likert eskala batean neurtu direla aurreratu dezakegu.

Ikerketa honen asmo nagusia Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-ko kazetarien perfilak eta portaera profesionalak biluztea izanda, ikerketarako metodologia konkretu bat egokitu da etnografiaren baitako tresna nagusietako batzuk aplikatuz. Izan ere, etnografiak gizarte errealitatea era holistikoan ulertzen saiatzen diren zenbait metodologia kualitatibo barneratzen ditu, hala nola, errutina sozialen behaketa, elkarrizketa formal eta informalak, eta dokumentu eta objektuen analisiak (Lindlof, Taylor, 2002: 17). Horrez gain, ikerketaren "informatzaileak" ezagutu eta beraien "ekintza nagusia" egikaritzen duten espazioa ezagutzea barne hartzen du; "it means understanding the perspectives and problematising the accounts of organisational actors, spatial and temporal, and exploring their local and translocal contexts" (Garsten, 2010: 66).

Atzera begira, metodo etnografikoa aspaldikoa dugula baieztatu daitezke, XIX. mende bukaerarako jada antropologoaren artean araututa zegoelarik. Ondoren XX. mendeko etnografiaren garapenean bere biziko eragina izan zuten "antropologia modernoaren fundatzaileak eta soziologiaren Chicago-ko eskolak" "the founders of modern anthropology and that of the Chicago school of sociology" (Atkinson, Hammersley, 1994: 249). Boas, Malinowski eta Radcliffe-Brown izan ziren bakoitza bere aldetik antropologia modernoaren bideak ezarri zituztenak; antropologiarekiko konpromisoa zientzia berezi batekikoa bezalakoa zen berentzat. Berentzat lan antropologikoan zientifikoa zena erakusteko oinarritzakoa zen etnografia: Antropologoak lehen eskuko informazioa biltzea eta gizartearen ezaugarri sozial eta kulturalen deskripzioak eskaintzea barne-hartzen du (*ibidem*); finean, espekulazioa alboratzen zuten ikerketa empirikoaren alde. Chicago-ko eskolan eragin nabarmena izan zuena aldiz, Robert Park izan zen (Park, Burgess, 1969).

Euskal Herrian etnografia metodologiaren erabilpena, garaiko autore alemanetan oinarriturik Telesforo Aranzadiren bidez heldu zen; dena dela, nabarmendu beharra dago bereziki Jose Migel Barandiaran-ek garatu zuela 1921an *Anuario de Eusko-Folklore* aldizkaria sortzearekin batera. W. Schmidt Austriako etnologoaren jarraitzaile izanik, Barandiaranen helburua "gertaera biltze prozesu sistematikoak, orokortze zientifikoaren eta materialen azterketa konparatiboaren aurretik joatea" lortzea zen (Barandiaran, 1973: 17). Handik gutxira, 1922an Malinowski antropologo poloniarra

argitaratutako lanak (Atkinson, Hammersley, 1994), etnografiak ikerlaria “bertan”, *in situ*, egotearen garrantzia azpimarratu zuen. Garai horretatik aurrera, ikerlariak ikerketaren subjektuekin baita espazioarekin izan beharreko ezinbesteko lotura azpimarratzen da (Murchison, 2010: 12).

Era berean, XIX eta XX. mendearen lehen erdira arte metodo etnografikoa batez ere antropologia eta historia azterlanetan erabilia izan arren, 1970etik aurrera hedabideen praktika eta errutina produktiboak aztertzeke aplikatuko da, komunikabideak aztertzeke diziplina gisa onartuta (besteak beste Tuchman, 1978, 1991: 79-92, 2000: 150-174; Domingo, Paterson, 2008; Domingo, 2008; Paterson, 2004; Boczkowski, 2004: 197-213; Lievrouw, Livingstone, 2002: 1-15; Cottle, 2000b: 19-41). Etnografiaren ikuspegitik, soilik lehen eskuko ikerketa aplikatuz ahalbidetu daiteke ikerketan parte hartzen duten eragileek gai eta galdera mamitsuak arakatu eta une berean praktikan jartzea, bestela eskuratzea ezinezkoa liratekeen datuak sortuz. Hartara, aipatu metodoaren helburu nagusienetakoa elkarrizketatuen barneko ikuspegiak jasotzean datza, eta elkarrizketen bitartez aurretik formulatutako hainbat ideia eta datu beraien artean lotu eta testuinguratzea (Murchison, 2010: 44). Hala ere, datuak lortzea bezain garrantzitsua da ondoren datuok lantzen jakitea, eta hori ezin hobeto azaltzen du Michael Agar antropologoak asmatutako “inbutu” metodoak (*funnel method*): Lehenengo landa-lanean batutako materiala inbutu formako ontzi baten zulo zabalenetik isuri beharko litzatekeela dio, ondoren oinarri estuenerantz irristatu eta materiala finduta aterako zelarik (Okely, 2010: 30). “Tresna” honen azalpenak orduko antropologiaren aurkariak isildu zituen nolabait, eta ikerketarako garrantzitsuak diren alorrak hasieratik ezartzea beharrezkoa ez den ikuspuntua sustengatu zuen (*ibídem*). Finean antropologiak “Bestea ulertzea bilatzen du, antzekotasun gizatiarra desberdintasun kulturallean” antzematea (Sanmartín, 2003: 82). Era berean, aintzat hartu behar dugu azterketa etnografiko baten emaitzak ikerketa kasuetan oinarrituta daudela, eta ildo honetan, soilik ikuspegi kuantitatibo estatistikoekin jasotzea zaila izango liratekeen gizarte prozesuen “deskribapen trinkoak” eskaintzen dituela etnografiak (Jensen, 2002: 242). Jensen-en iritziz, ikerketa kasu kualitatiboen helburua, gizarte sistema zabalagoetan eragina izan dezaketen deskripzio eta tipologiak sortzea da (2002: 239).

6. UNIBERTSOA ETA TESTUINGURUA

Irrati kazetari komunitate euskaldunaren eta eskoziar gaelikoaren ohiturak eta perfilak aztertzea xede izanik, alde batetik, gaur egunean aipatutako bi hiztun komunitateen eremu zabalenera heltzen diren bi irrati publiko bakarrak hartu ditugu. Garrantzitsua da oso ikerketa objektuak txertatzen diren inguruneak adieraztea, izan ere, gizarte zientzia batzuk besteengandik desberdintzen dituen ez da ikerketa metodoa bera, baizik eta diziplina bakoitzak interesekoak dituen auziak eta ikertzaileek azaleratzen dituzten galderak (Coller, 2005). Ikerketa honen ardatza bi hedabideetako kazetariak dira, baina kazetariak aztertzeko beharrezkoa da beraien inguruan sakontzea baita. Alegia, azterketa objektu ditugun irrati kazetarien perfil eta ekintzabideak testuinguru desberdinetan ulertu behar dira, besteak beste, hedabide egitura konkretu baten barnean. Honela, atal honetan ikerketa kasuen ingurune mediatikoa azaltzen da. Berez, ikerketa kasuen metodoa esploraziorako tresna gisa erabili daiteke, baina baita teoriak eraiki eta frogatzeko. Are gehiago, ikerketa kasuek protagonistengana hurbilaraziko gaituzte: “kasu-azterketak aktoreengana hurbildu eta beren ekintzak era egokian ulertu eta interpretatzeko aukera ematen du”¹⁴ (Coller, 2005: 21).

Horrez gain, azterlanaren helburu nagusia testuinguru erreal baten parte diren fenomenoak aztertzea denean gomendatzen da kasu zehatzetan ezarritako ikerketak garatzea. Beraz, ikerketa kasuaren metodologia, fenomeno bat bere testuinguru errealaren barnean aztertzen duen ikerketa enpirikoa dugu; fenomeno eta testuinguruaren arteko mugak ez dira agerikoak eta kasua aztertzeko iturri anitzak erabiltzen dira (Yin, 1984). Halaber, tesi honetan hiru ikerketa kasu izango ditugu aztergai, une batzuetan garai bereko kasu biren arteko konparaketak bideratuko direlarik. Ondoren deskribatuko ditugun bi hedabideek agerrarazten dute gure azterketa objektuak, alegia, kazetariak kokatzen diren testuinguru orokorra.

6.1. Euskadi Irratia (EITB)

Euskadi Irratia EITB taldearen barnean sortu zen orotariko informazioa jorratzen duen euskara hutsezko irrati bakarra da, eta gaur egun euskarazko irratiaren artean

¹⁴ Jatorrizko aipua: “El estudio de caso permite aproximarse a los actores de manera que se pueda realizar la comprensión e interpretación de sus acciones con cierto éxito” (Coller, 2005: 21).

entzule gehien dituen. Aipatutako irratia halaber ez dugu Espainiako guda zibil garaiko Euzkadi Irratiarekin nahastu behar, Ipar Euskal Herrian Joseba Rezolak (Euskal Erresistentziaren buru izendatua) 1946an sortutako hain zuzen (Arrieta, Rodríguez, 1998: 77). Irrati honek ez zuen euskara hutsean emititzen, gaztelerazko saioak ere ugariak zirelarik; 1954ean Paris-ko agintariak Iparraldetik irratia itxi eta 1965ean, Venezuelako Macuto izeneko eskualdetik gaueko emisioak aireratzen hasi zen. Bigarren aldi honetan EAJko gazteek, EGikoeak, hartu zuten irratia ardura (Arrieta, Rodríguez, 1998: 220). Irrati elebidun honek 1977an emititu zuen azkeneko saioa. Bestalde, oraindik zaharragoak diren eta euskaraz emititzen zuten irratietara begiratu behar badugu, Espainiako Guda Zibilaren aurretik sortu zen Radio San Sebastian dugu (1925) (Díaz Noci, 1991: 369); ez zuen euskara hutsean emititzen, baina euskarazko irratigintzari buruz berbetan ezinbestean aipatu beharrekoa dugu, bertatik entzun baitziren lehenengoz euskal hitzak uhinen bidez.

Euskal Irrati Telebista (EITB) 1982ko maiatzean eta 5/1982 legepean sortutako lehenengo euskal komunikazio talde publikoa dugu. 1979an sinatutako Lege Organikoak Euskal Autonomia Erkidegoak “bere telebista, irratia eta egunkari propioak arautu, sortu eta mantentzeko” eskubidea zuela jaso ondoren (1979ko abenduaren 18ko Lege Organikoa), 1980an finkatutako Euskal Parlamentuak euskal komunikabideak sustatzeko proiektuei ekin zien. Gaur egunean lau dira EITB osatzen duten enpresak: EITBnet, S.A. (Internet-eko kudeaketarako); ETB, S.A. (telebista kateak); Radio Vitoria, S.A. eta Eusko Irratia (Euskadi Irratia eta Radio Euskadi), S.A. EITBren sorrera horretan, Euskadi Irratiaren helburu ere izango diren hiru xede hartu zituen bere baitan komunikazio talde publikoak: Euskara eta euskal kultura sustatu eta zabaltzea; euskal herritarren informazioa jasotzeko eta parte-hartze politikorako eskubidea bermatzea; eta euskal hezkuntza-sistema laguntzea (Alkorta, Zuberogoitia, 2009: 135-137). Dagoeneko badaude euskal komunikazio-talde publikoa ikuspegi desberdinetatik aztertu dituzten tesi eta ikerlanak. Besteak beste, kronologia historikoari jarraitzen diotenak (Ibáñez, 1993; Arrieta, 2009), urteen buruan EITBk bizitako aldaketak modu historiko anekdotikoetan garatzen dituztenak (Castilla, 1997; Díez Urrestarazu, 2003; Otermin eta Unzueta, 2007), komunikazio-taldearen alor zehatz batera begira ezarritako ikerketa-analisi sakonak (Torrealdai, 1985; Martín Sabaris, 1999; Larrinaga, 2005), eta euskarazko kazetaritza aztertuz EITB taldearen

eskaintza ere barne-hartzen dituzten azterketak (Arana, Amézaga *et al.*,1999; Zupiria 2004; Bañales, 2005; Sainz Nieto, 2005). Hala ere, ikerketotatik Euskadi Irratia bere horretan gutxitan izan da protagonista bakar eta nagusi, eta izan denean ere, ez da bertako kazetarien perfil, jarrera eta lan-ohiturei buruzko azterketa sistematikorik egin. Ondoren irarritako testuan Euskadi Irratiaren nondik norakoak adieraziko dira, hastapenak baita egungo egoera azpimarratuz.

Historikoki aurretik SER katearen menpean zegoen Radio Vitoria irratia izan zen EITBren baitako lehen hedabidea, nahiz eta Erakundearen legepean sortu ez izan. Radio Vitoria 1934tik dago uhinetan, eta 1981ean igaro zen Euskal Gobernuaren jabetzara, EITBren sortze-legea oraindik itzalpean zegoela. Ordutik aurrera, EITBk 5/1982 legepean gorpuztutako aurreneko masa-hedabidea euskara hutsezko irratia izan zen, Euskadi Irratia alegia, Taldearen sorrerako legean zehazten zen hizkuntzaren aldeko helburua beteaz. Hala bada, EITBren sorrera-legearen bidez gorpuztutako lehenengo hedabideak, 1982ko azaroaren 23an ekin zien lehenengo emanaldiei, Donostiako Andia kaleko 13. zenbakian zituen estudioetatik. Euskarazko saioak soilik emango zituen irratia-erentzat kokapen aproposena Gipuzkoaldea zela erabaki zen, lurralde historiko horretan bazegoelako jada irratia eta euskara batzen zituen tradizioa; bertakoak ziren eta garaian irratia-mundura lotuta zeuden ekintzaile euskaldunak ditugu besteak beste Juan Lekuona, Ignazio Arregi, Joxe Ramón Beloki, José María Iriondo, Jose Mari Otermin eta Txaro Arteaga. Alde horretatik, azpimarratzekoa da aipatutako pertsonak lehenago Loiolako eta Donostiako Herri Irratian arituak zirela, eta beraz, irratia horietako lantaldeak izan ziren hein handi batean Euskadi Irratiaren egoitza bete zutenak. Horrela, bada, euskara hutsean emititzen zuen hedadura zabaleko lehenengo irratia hutsune sakon bat arindu zuen bere lehenengo hitzekin. Dena dela, irratia ez zuen hasiera samurrik izan, alde batetik irratia profesional euskaldunen urritasunagatik, eta bestetik, euskararen erabilgarritasunaren auziari aurre egin behar ziolako, alegia, euskal hizkuntza edozein gaitaz aritzeko baliagarria zela frogatu; Europako Batzordearen azkeneko hitzarmenaren berri zein igandeko futbol-partida zuzenean emateko haina erabilgarri.

Ignazio Arregik –orduko EITBko irratien koordinatzaileak- eta Jose Mari Oterminek – Euskadi Irratiko zuzendarik- argi zuten zein izan behar zuen irratia euskaldunaren

lantaldearen profilak: Jende gaztea, Euskadin gertatzen ari ziren garaian garaiekiko arduratsua, euskal gizartearen erritmo eta taupadak ezagutzen zituena, euskaraz zein gaztelaniaz egokiro konpondu zitekeena eta euskal hedabide moderno bat sortzeko gogotsu zegoena (Arrieta, 2009: 215). 1983ko otsailaren 15ean era sistematikoan emititzen hasi zen Euskadi Irratia; hasiera batean 12 orduz, goizeko bederatzietatik gaueko bederatzietara. Magazinak eta musika izan ziren gehien erabilitako formatuak 1983-84 urte bitarte horietan. 1984an ordutegia luzatu (7:00etatik 23:00etara) eta 1986rako Euskadi Irratiak euskara hutsezko 24 orduko programazioa ematea lortu zuen, betiere albistegiak, musika eta euskal kultura uztartzeko ahaleginetan. Irratian gainera, telebistan ez bezala, dena zen barne-produkzioa.

1996ko martxoan Euskadi Irratiak egoitza berria estreinatu zuen Miramon Parkean (Donostia) (Kaltzada, 1996), grabazio, edizio eta artxibo digitalez hornitua. 2007ko apirilean EITBk bere egoitza nagusia izango denaren ateak zabaldu zituen Bilbon, San Mamés auzo inguruan. 2008ko urrian, EITBren egoitza nagusia Bilbon ezarri eta urtebetera, Euskal Irrati Telebistak interneterako estrategia korporatiboa aldatu, eta ordura arte sarean zituen hedabideen atariak –Euskadi Irratiarena barne- web-gune bakarrean bildu zituen, Eitb.com-en. Web orrialde honen diseinuak eduki multimedia eta herritarren partaidetza lehenetsiko ditu. Horrela, euskal talde mediatikoak BBC-ren *single-brand* edo marka bakarreko eredua jarraituko du -Talde britainiarrak Bbc.co.uk atari orokorrarekin funtzionatzen du-, Eitb.com izango delarik taldearen identifikazio-sinbolo nagusia interneten.

Gaur egun Euskadi Irratiaren egoitza nagusiak Miramon izaten jarraitzen du, nahiz eta Bilboko EITBren egoitzan ere kazetariak izan. Guztira 72 kazetarik lan egiten dute Euskadi Irratiarentzat. Horietatik 34k albistegietan lan egiten dute, 24 Donostian Miramon-eko egoitzan kokatuta daude eta beste 10ak irratiak Gasteiz, Iruñea, Baiona Bilbo eta Bruselan dituen korrespontsaliatan. Kiroletan 10 kazetarik egin dute behar, Donostiako egoitzatik denak, eta beste 30 kazetari programetan aritzen dira; horietatik gehienak, 28 Miramon-en daude kokatuta, eta bi Bilbon. Gaur egun irrati publiko hau da euskal entzule gehien hartzen dituen, astelehenetik ostiralera goizeko 05:00etatik gauerdiko 01:00etara zuzenean etenik gabe emitituz. Larunbatetan 07:00etatik 22:00etara eta igandeetan 07:00etatik 00:00etara. Azkeneko 30 urtetan

euskarazko albistegi lehiakorrek eskaintzea izan da irrati katearen erronkarik garrantzitsuenetakoa. Finantzazioari dagokionez ezin izan dugu jakin zein den Euskadi Irratiaren urteroko aurrekontua (Euskadi Irratiko zenbait kideren eta EITBko Administrazio Kontseiluko kide baten bitartez ere ezin izan dugu honen berririk jakin). Hala ere, badakigu 2012. urtean Eusko Irratia Sozietate Anonimo osoaren aurrekontua 22.454.478€-takoa izan zela (Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak, 2012); alegia, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Euskadi Gaztea eta EITB Irratiarenzat.

Entzuleriari dagokionez, irratiak gorabeherak izan ditu audientzia zenbakietan, eta hori ohartzeko hiru data adierazgarri hautatu ditugu. Lehendabizi, 1992an hautsi zuen Euskadi Irratiak "bere marka asteroko 100.000 entzule lortu ondoren" (Otermin, Díez Unzueta, 2006: 164). Hortik aurrera kopuruak behera egin zuen, 2008an 89.000 izanez; hala ere, 2011ko azkeneko datuek astero 101.000 entzule bereganatzera iristen dela agerrarazi dute (EGM, 2011). Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan 600.050 elebidun daude (V. Inkesta Soziolinguistikoa, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012: 4). Nafarroan, 2006ko datuei jarraituz, 56.400 lirateke elebidunak eta Iparraldean 51.700 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza Inkesta Soziolinguistikoa, 2006: 5). Biztanleriari buruzko 2006ko datuen arabera, Euskal Herrian 3.000.000 pertsona inguru bizi dira guztira, %90 baino gehiago Hegoaldean (%71 EAEn eta %20 Nafarroan) eta gainerako %9a Iparraldean .

6.2. BBC Radio nan Gàidheal (BBC Alba)

Eskoziar gaelikoz mintzatzen den irrati publiko bakarra eta hizkuntza honetan entzunena dugu Radio nan Gàidheal. British Broadcasting Corporation-ek (BBC) Eskoziako nazioaren komunikabide publikoen beharra asetzeko BBC Scotland sortu zuen, eta bertan ezartzen da gaelikozko irratia. Berez BBC Britainia Handiko Posta Bulego Nagusiak sortu zuen 1922ko urrian, "Posta Bulegoak finantzatutako monopolio gisa" (*company*edo enpresa komertzial moduan eta ez korporazio publiko bezala) (Schlesinger, 1987: 14); enpresa hori laster desegin zen eta 1927an British Broadcasting Corporation erakunde ez-komertziala ezarri zen Erret Dekretu (*Royal Charter*) bati jarraiki. 1922ko lehenengo estazioek "Londres, Birmingham eta Manchester hartu zuten kokaleku" (Walker, 2011: 21). 1923an John Reith-k zuzendari

nagusi (Managing-Director) kargua hartu ondoren, BBC elkarte publikoan bihurtzera zuzendu zuen (McDowell, 1992). Urte berean BBCK Londreseko Posta Bulego Nagusira (*General Post Office*) gutuna igorri zuen "Glasgow-n irrati-etxea eraikitzeke aginte eske" (McDowell, 1992 :3). Baiezkoa jasota, 1923ko martxoan hasi zituen bere lehenengo emisioak BBC Scotland-ek Glasgow-n Bath Street-en zegoen kontrol gunetik, eta 1924rako Belmont Street, Aberdeen, Lochee Road, Dundee eta Edinburgon ere ireki zituen irrati estazioak. 1935etik Queen Margaret Drive-ko North Park House-n lekutu da egoitza nagusia, baina 2007an gaur eguneko egoitza nagusira aldatu zen (BBC Scotland web orrialdea¹⁵).

Hain zuzen, BBC Scotland-ek 2007an estreinatu zuen gaur eguneko egoitza nagusitzat duen eraikina Glasgow hirian, Pacific Quay inguruan. Orotara BBCK Erresuma Batuen baitako hiru erregio nazionalen behar komunikatibo publikoak berdintzeko ondorengo luzapenak ditu: BBC Scotland, BBC Wales eta BBC Northern Ireland. Lehenengoaren barnean BBC Alba kokatzen da (Alba eskoziar gaelikoz Eskozia da), *Galic Departmenta* osotzen duena. Gaeliko Sail horretan kokatzen dira gaelikoz ekoiztutako irratiak (Radio nan Gàidheal), telebista katea (BBC Alba) eta bakoitzaren web gunea. Aitatutako irratiaren gaur egungo egoera hobeto ulertzeko, begirada azkar bat joko dugu iraganera, beronen aitzindarien denborara.

Halaber, eskoziar gaelikoz egindako irrati bidezko lehenengo transmisioa 1923ko abenduan egin zen, 15 minutu irauten zuen zerbitzu erlijioso legez. Zerbitzu hura kanta eta musika gaelikoz luzatu ostean, 1935ean ezarri zen lehenengo BBCren barneko Gaeliko Sails. Bigarren Mundu Guda hastarekin batera, 1940ko apirilean asteroko 5 minututako buletina transmititzen hasi ziren gaelikoz BBC Scotland-en Etxerako Zerbitzua (*Scottish Home Service*) deitutakoaren barnean. 1952ko martxoan, Eskoziako Etxerako Zerbitzuaren barnean baita, gaelikozko bertsoekin konposatutako obra ematen da. 1962an gaelikoz egindako irrati programa solteak produzitzen ditu Fred MacAulay-k (aitzindaria irrati ekoizpen gaelikoetan eta ondoren BBCren zuzendaritza-batzordekoa; 2003an zendu zen). Hasierako urteetan gaelikozko irrati saioak ekoizten zituzten gizonen gehiengoak lotura estuak zituen Ann Comunn Gaidhealach-ekin (gaelikoaren aldeko elkarte) (gaian sakontzeko ikusi

¹⁵ BBC Scotland-en web orrialde ofiziala: <http://www.bbc.co.uk/scotland/>.

MacKay, 1998: 1-51). 1974ean gaelikoz zabaltzen ziren irratsaio guztiak VHF (*Very High Frequency*) formatura transformatu ziren, hau da, irratia FMn entzun ahal izateko beharrezko sisteman. Horrela, 1976ko martxoan BBC Radio Highland Inverness-tik (Highland eskualdeko guneko administratiboa) VHF formatuan transmititzen hasi zen, eta urte berean finkatu zen ere Gaelikoaren Aholku Batzordea (*Gaelic Advisory Committee*). Bi urte beranduago, 1979ko urrian, BBC Radio nan Eilean zabaldu zen Stornoway hirian, eta 1985ean, azken bi irratiok ordezkatzuz sortu zen BBC Radio nan Gàidheal (*History of Gaelic Radio Broadcast*, www.bbc.co.uk/alba/). Nabarmentzekoa da, ikerlanek erakutsi dutenez urteetan zehar Radio nan Gàidheal izan dela (batez ere telebistako saioak agertu arte) gaelikoz ekoiztutako "albiste duinak" eskaintzen dituen hedabide bakarra (Chalmers *et al.*, 2011: 5).

Radio nan Gàidheal (gaelikodunen irratia, *Radio of Gaels*) Eskoziako nazio osoan zabaltzen da eta FM transmisoreen (103.5-105), DAB irrati digitalaren, telebista plataforma digitalen eta sarearen bitartez kontsumitu daiteke (BBC Radio nan Gàidheal Service Licence, 2011: 1). Hedabideko profesionalak Eskoziako hiri desberdinetan kokatzen dira, Glasgow, Edinburgo, Stornoway, Inverness, Portree, Uist Hegoaldea, Argyll, Ovan eta Central Belt eta Parlamentua deritzon eskualdean kasu. Dena dela, estudio nagusiak Inverness-en ditugun bitartean, Glasgow eta Stornoway-n kokatzen dira irratiaren beste funtsezko erredakzioak (BBC Alba-ko burua eta Editore Buruari elkarrizketa pertsonala, 2011). Gaur egunean orotariko informazioa eskaintzen duen gaeliko hutsez egindako irrati publiko bakarra dugu eta astelehenetik ostiralera goizeko 07:30etatik gaueko 23:30etara etengabeko jarioa eskaintzen du, albisteak, magazinak, eztabaidak eta musika berezitua uztartuz. Larunbatetan aldiz ordu gutxiago ditu zuzenean, 09:00etatik 13:00etara, eta igandeetan 09:00etatik 16:00etara eta 21:00etatik 22:00etara. Gaueko eta goizaldeko tarteak Radio Scotland-en irrati edukiekin betetzen da.

BBC Alba-ren baitako hedabideak, MG Alba enpresak eta BBCk elkarlanean sortutakoak dira (ondorengo atalean azalduko da hobeto zertan datzan eta zelan egituratzen den elkarlan hori). Radio nan Gàidheal-ek urteko 3,800,000£-ko (4,569,979€) aurrekontua du, BBCTik jasotzen duena, eta horrez gain MG Alba-k

100,000£ (120,262€) eskaintzen ditu irrati edukien produkzioarako. Kontuan izanda MG Alba batez ere telebistako edukiez arduratzen dela, irratirako diru kopuru bat zuzentzeak hedabide honek hizkuntzaren indartzean duen garrantzia adierazten duela baieztatu daiteke (elkarrizketa BBC Albako Editore Buruari, 2011).

BBC Trust¹⁶-ek idatzitako Radio nan Gàidheal Lizentzia Zerbitzuaren¹⁷ (*License Service*) arabera, irratia-aren helburuak kalitadeduna, originala, zorrotza, berritzailea eta erakargarria izatea dira, eta gaeliko hiztunen baita Erresuma Batuko bestelako biztanleen talentua elikatzea (BBC Radio nan Gàidheal Service Licence, 2011: 2). Horrez gain, albiste zuzen, inpartzial eta independenteak eskaini behar ditu, eta zeregin garrantzitsua du nazioko bizitza politikoa aztertu eta entzuleentzako eztabaida guneak sortzen. Gainerakoan, irrati publiko izaera edukita balio publikoei ekarpena egin behar die ondoren azaltzen ditugun BBC-ren jomuga publikoak jarraituz: herritartasun eta gizarte zibila sustengatuz; Erresuma Batuko nazio, eskualde eta komunitateak islatzeaz arduratuz; heziketa eta ikasketa sustatuz; sormena eta bikaintasun kulturala piztuz; Erresuma Batua mundura eramanez eta mundua Erresuma Batura ekarriz; eta komunikazio teknologia berrien abantailak publikoari eskainiz (BBC Radio nan Gàidheal Service Licence, 2011: 4).

Eskozian egindako azkeneko errolda galdeketa 2011ko apirilean izan zen, baina 2012ko irailera arte ez direnez erantzunen datuak argitaratuko, 2001eko erroldaren datuak hartu ditugu hizpide gaeliko hiztunen kopurura adierazteko. Honela, Eskozian 5.062.011 biztanleetatik (Scotland's Census Population Report, 2002: 1) 92.400 ziren 3 urtetik gorako pertsonen artean gaelikoaren inguruko nolabaiteko gaitasuna zutenak 2001ean (Scotland's Census Gaelic Report, 2005: 5). Entzule kopuruari dagokionez, BBCren datuen arabera batez-bestez irratia 2010-11 epealdian komunitate gaelikoaren %72,4a hartzen zuen astero (BBC Trust Service Review, 2011: 1). Komunikazio talde publikoak adierazten duen bezalaxe, irratia-aren entzuleri xedearan

¹⁶ BBC Trust, BBC komunikazio erakunde publikoaren administrazio kontseilu gisakoa dugu. BBCren zuzendaritzatik eta kanpo erakundeetatik independentea da funtzionalki, eta beronen helburua harpidedunen *-licence fee* ordaintzen dutenen- interesen alde lan egitea da.

¹⁷ BBCren irrati-telebista zerbitzuez gozatzeko, ikus-entzuleek urtero zerbitzu horiek jasotzearen lizentzia bat ordaindu behar dute. Gobernuak ezartzen du ordaindu beharrekoaren kuota, eta 2010eko apirilaren 1etik Gobernuak 145.50£-tan (179.77€) du izoztuta tasa hau. Dirudienez, horrela mantenduko da 2016ra arte, egungo BBCren Gutunaren (*BBC Charter*) epealdia bukatu arte alegia (BBC Press Office Website).

proportzio altua dugu hau; aitzitik, ezin dezakegu ahaztu aipatu portzentajea gaeliko hiltune mugatuta dagoela eta honek asteroko entzuleak 66.897ra murriztuko lituzkeela. Dena dela, gaur egunean neurrigabea da komunitate gaelikoak Radio nan Gàidheal-ek egiten duen lanaren inguruan duen oniritzia hainbat arlotan¹⁸, ulergarria kontuan izanda berau dela gaelikoz egunero 16 orduz jarraian Eskoziako lur-eremu zabalerako emititzen duen irrati bakarra.

7. IKERKETA ALDIAK ETA LAGINKETA: ASKOTARIKO METODOLOGIEN APLIKAZIOA EUSKADI IRRATIA ETA RADIO NAN GÀIDHEAL-EN, 2011-2012 EPEALDIA

Kapitulu honen hasieran adierazi bezala, ikerketa honek batez ere metodologia kualitatiborako funtsezkoa den ikuspegi fenomenologikoa jarraituko du; ikerketa aldi honetan gailenduko da beronen aplikazioa. Ikertzaile fenomenologikoarentzat, jendeak bere munduaren ikuskera esaten eta egiten duenaren bitartez definitzen du (Taylor, Bogdan, 1984: 23). Ikuspegi hau gizarte zientzietako pentsamendu eskola eta marko teoriko sorta zabalari lotuta dago (funtzionalismo estrukturala, elkarrekintza sinbolikoa, antropologia kultural eta kognitiboa; feminismoa; Marxismoa, etnometodologia, teoria kritikoa, ikasketa kulturalak, postmodernismoa, eta abar.); inoiz ere ez da ematen ortodoxiarik, baizik eta etengabeko heterodoxia eta herejiak. Alabaina, gure ikerketa "elkarrekintza sinboliko"-aren (*symbolic interactionism*¹⁹) ikuspegitik hurbil kokatu daiteke, gizakien portaera eta gizaki taldeen bizitza ikastea barne hartzen duen terminoa. Ikuspuntu honek, bere biziko garrantzia eransten die pertsonak sortzen dituzten gizarte esanahiei; Blumer-en (1969) esanetan, "elkarrekintza sinbolikoak esanahiak produktu sozialtzat hartzen ditu, pertsonak

¹⁸ 2001an BBC Radio nan Gàidheal-ren inguruan egindako galdeketa, besteak beste, erantzundakoen %94ak uste zuen irratia programazioak eta edukiak komunitate gaelikoaren inguruko ardurak dutela; %91ak kalitate handiko albisteak eskaintzen dituela; %84ak ekintza artistiko eta kultural aukera zabala lantzen dituzten programa eta edukiak eskaintzen dituela; %83ak Eskoziako artista musikal eta idazle berrien berri ematen diotela; %79ak Erresuma Batuko gaurkotasuneko gaien eta albisten inguruko ulermen hobea eskaintzen diotela; %71ak Eskoziako politika ulertzen laguntzen diotela, eta abar luze bat (iturria: Leirsinn Research Centre. Ikusi BBC Trust Service Review, 2011: 5). Puntuazio ahulena garapen digitalen sustatzeak eskuratu zuen.

¹⁹ Blumer-ek 1969-ko liburuan azaltzen du "Symbolic interactionism" terminoa "Man and Society" (1937) aldizkarian idatzitako artikuluan batean modu itxuragabe landutako neologismo zertzobait barbaroa dela dio. "Terminoa nolabait gogoko gertatu zen eta orain erabilpen arruntekoa da" (Blumer, 1969: 1); "The term somehow caught on and is now in general use" (Blumer, 1969: 1)

elkarri eragiten diotenean sortzen dituzten esanahietan eta esanahien bitartez burutzen diren sorkuntzak bezala” (Blumer, 1969: 5). Horrez gain, elkarrekintza sinbolikoan aktore sozialek hainbat esanahi esleitzen dizkiete egoerei, beste pertsoneri, gauzei eta beren buruei, interpretazio prozesu jakin baten bitartez; "egoera desberdinak bizi ahala, pertsonak etengabe daude interpretazio eta definizioak sortzen" (Taylor, Bogdan, 1984: 25). Ildo honetan, gurera etorriaz elkarreragineko ikuspegi sinbolikotik hedabide erakunde guztiak bertan dauden aktoreek garatutako interpretazioez osatuta daude, hain zuzen, aktoreek inguratzen dituen munduaz sortutako interpretatze prozesu etengabeaz. Aktore edo pertsona horiek erakunde baten esparruaren barnean jardun arren, egoera desberdinen inguruan dituzten interpretazio eta definizioak dira beren ekintzak zehaztuko dituztenak; eta ez ezarritako arau, balio, rol edo jomugak (Taylor, Bogdan, 1984).

Azterketa honetako ikerketa objektuak Euskadi Irratia eta Radio nan Gàidheal-eko kazetariak dira, beren perfilak eta portaera profesionalak aztertzea duelarik asmo nagusi. Ikerketa-aldi honek paraleloan aztertuko diren bi etapa ditu bere baitan: Alde batetik, irrati bakoitzeko kazetariei –Euskadi Irratia eta Radio nan Gàidheal-n– berezitatutako emaitzak izango ditugu, aplikatutako tresna metodologiko konkretuen bitartez; bestetik, kasu bien arteko konparaketak bideratuko dira adierazle zehatz batzuei jarraiki. Ikerlan honetako sarrera atalean azaldu bezala, bi kasuetako testuinguru soziolinguistikoa ezberdina izanda ere, badaude bi irratiotako kazetarien perfil eta errutinak konparagarri bihurtzeko elementuak. Horrez gain, eduki mediatikoen produkzioa aztertzen saiatu diren azterketa askotan, errutinetan ematen den aniztasuna eta eboluzioa baino, homogeneousatzea eta iraunkortasuna azpimarratzera mugatzen dira (Domingo, 2008: 155). Hau ekiditeko, Cottle-en (2000b) ustetan ikerketa kasu etnografiko konparatiboak bideratzea da egokiena. Gauzak horrela, azpimarratzekoa da ondoren agerraraziko ditugun azpi atalen mamia, elementu konparatibo horiek topatzeari keinu egiten diotela; esaterako, laginaren hautaketa edota galdetegiaren antzekotasunak. Baina ikerketa aldi honetan erabili dugun triangulaketa metodologikoarekin jarraitu baino lehen, egun talde mediatikoetan bideratzen den konbergentzia prozesuen auzia ekarriko dugu, aplikatutako metodoen ekoizpenean izandako eraginagatik.

7.1. Triangelaketa metodologikoaren erabilera

Ikerketaren atal honetan ikuspuntu metodologiko kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartu dira. Era honetan, ikerketa guztietan baliozkotasun zientifikoa lortzeko desiragarria den metodoen arteko triangelaketa metodologikoa aplikatu da, sakoneko elkarrizketak, zuzeneko behaketak eta inkestak erabiliz. Ildo honetan aipatzekoa da, nahiz eta gaur egun ikerketa kualitatibo eta kuantitatiboen erabilera bateratua konplexu gutxiagorekin ematen den, iraganean ez dira gutxi izan bi adar metodologikoak batu barik bata edo bestea hobesten zutenak; kasu gehienetan metodo kualitatiboak ikerketa kuantitatiboaren estrategiei egindako kritiken testuinguruan garatu dira eztabaidok. Halere, egun maiz jotzen da bi estrategia metodologikoen konbinaketara, nahiz eta tresna bakoitzari maila bera eman ez: Kasu batzuetan tresna kuantitatiboak kualitatiboaren gainetik jartzea gerta liteke, esaterako inkestei garrantzia gehiago erantsiz eta elkarrizketa irekietan lortutako testigantzak soilik inkestetan jasotakoaren arabera azalduz; besteetan aldiz, metodo kualitatiboaren nagusitasuna gailendu daiteke, behaketa eta sakoneko elkarrizketak lehenetsiz.

Honenbestez, ikerketa berean metodo kualitatibo eta kuantitatiboek hainbat modutan bat egin dezakete. Zenbait autoreek proposatutako diseinu konbinaketan artean, hauxe da ikerketa honetan jarraitutakoa hobekien azaltzen duena (Flick, 2004: 279; Miles, Huberman, 1994: 41):

Kualitatiboa → Kuantitatiboa → Kualitatiboa

Esplorazioa Inkesta Eraitzen ebaluazio eta sakontzea

Gisa honetan, ikerketa batek ikuspegi kualitatiboak eta kuantitatiboak ikerketa prozesuaren aldi desberdinetan barneratu ditzakeela azalerazten da. Triangelaketa metodologikoak metodo kualitatibo desberdinen konbinazioa adierazi dezake, baina baita ikerlan honetan landu dena, alegia, sistema kualitatibo eta kuantitatiboen bat egitea (Flick, 2004: 280). Metodo kualitatibo eta kuantitatiboak bata bestearen osagarritzat hartzean, ikerlana bera baita gizarte ezagutza aberasteko aukerak sortuko ditugu. Are gehiago, honelako metodoen arteko integrazioek soziologiaren maisuek

betidanik defendatu duten "aniztasun metodologikoa" begien aurrera ekartzen digute (Coller, 2005).

7.1.1. Lagina: Sakoneko elkarrizketatuak eta inkestetarako aktoreak ezartzen

Gizarte zientzietan ohikoa da lehendabizi metodo kualitatiboak erabili, elkarrizketak eta behaketak kasu, eta ondoren teknika kuantitatiboak garatzea (Finkel, Parra, Baer, 2008: 133), inkestetan aurreko elkarrizketatik eratorritako ikuspegi eta proposamenak eransteko. Ikerketa baten lagina diseinatzerakoan, maiz ikerketaren helburuetara jotzen da, baina baita ikerketa garatzen den testuingurura: Elkarrizketatu nahi diren subjektuen berezko ezaugarrietara, informatzaileen eskuragarritasunera, eta ikerketa kokatzen den denbora-mugetara. Berebat, ikerketa honetan erabilitako laginak desberdinak izan dira aldi kualitatiboan eta kuantitatiboan.

Sakoneko elkarrizketekin hasiz, nabarmentzekoa da mota honetako tresna kualitatiboetarako ez dagoela elkarrizketatu mota eta zenbatekoa zehaztasunez aukeratzeko errezetarik (Finkel, Parra, Baer, 2008: 134). Izatekotan, Glaser eta Strauss-ek (1967) "asetasun teorikoa" bezala identifikatzen dutena lortu arte jarraitu behar da elkarrizketak egiten, hau da, elkarrizketa -edo behaketetara aplikatua ere, behaketa- gehiago egiteak ez gaituztenean gauzak hobeto ulertzera bideratuko. Ikerlan honetan elkarrizketatuak hautatzeko egitura-adierazgarritasuna edo adierazgarritasun estrukturala (*ibidem*) bezala ezaguna dena jarraitu da, ikerketa kualitatiboan adierazgarritasun teorikoa bezala ere adierazi dena. Mota honetako laginek, sakonago aztertu nahi diren gertakari edo pertsonak topatzeko aukera ematen dute eta, halaber, elkarrizketatu zenbaki egokia baino iker galderak erantzungo dituen informazio esanguratsua lortzea du helburu. Hargatik aztertuak izango diren pertsonak, ikerketaren helburuekiko duten garrantziaren arabera hautatuko dira (Flick, 2004: 56). Lagin teorikoan, lagin estatistikoaren kontra, material enpirikoaren bilketa eta aukeraketa datuen jasotze eta interpretatze prozesuan egiten da. Laginaren adierazgarritasuna ez da ausazko lagin batez ezta estratifikazioz bermatzen, baizik eta garapen bidean dagoen ikerketaren teoria eta helburuei egin diezazkien ekarpenen arabera. Hortaz, lagin teorikoan alde aurretik ezezagunak zaizkigu ikertuko den biztanleriaren hainbat ezaugarri, eta laginaren tamaina ere ez da aurretiaz definitzen

(Flick, 2004: 79). Gauzak horrela, azterlan honetarako elkarrizketatuak ondorengo irizpideak aintzat hartuz aukeratu dira: Elkarrizketatuak euskarazko edota gaelikozko irrati publikoarekin izan duen eta duen harremana profesional gisa; gaur egun duen kargua; adina (belaunaldi desberdinak); euskarazko edota gaelikozko irrati publikoan duen lan kategoria (albistegiak, programak, erredaktore/esatari, editore buru, etab.); hedabideetan izandako ibilbidea. Salbuespena izan genuen kasu batean, elkarrizketatua ikerketa helburuekin zeharka erlazionatutako artikulua argitaratzearen hautatu baitzen.

Tresna kualitatiboetarako laginarekin jarraituz, hasieratik argi izan genuen irratiko kazetarien kolektiboa bere osotasunean hartu nahi genuenez, albistegietakoak soilik ez eta programetakoak eta kiroletoakoak ere hartu nahi genituela, aniztasun horrek islatzen baitu azken batean Euskadi Irratiaren eta Radio nan Gàidheal-en kazetari taldearen profila (argi eta garbi agertzen zen baita 60-70. hamarkadetako Loiolako Herri Irratiaren kasuan, zeinetan albisteak programen arloan txertatzen ziren). Egia da bibliografikoki erreferentzia modura izandako lan akademikoen gehiena *newsmen*-engan oinarrituta dagoela, eta berez, albistegiek garbitasunez osatu dezaketela hedabide batek errealitatearen inguruan duen irudipena, eta bertako kazetariak eguneroko errutinetan islatzen saiatuko direna. Hala ere, gure epe luzerako baloreetan eraginez albistegien formatuan bete betean kokatzen ez diren saioek ere munduaz dugun ikuskera itxuratzen dutela kontuan hartu dugu. Horrela, kazetarien laginak bi kasuetan, bai euskaldunen bai eskoziar gaelikoenean, egun irratian eduki desberdinak lantzerantz dedikatzen direnek osatu dute: Albistegietakoak, programetakoak eta kiroletoakoak (azken hauen kasuan desberdintasunak ageriko dira albistegietarako edota programetarako aritu). Haatik, hautatutako profesional gehienak albistegietako adarrekoak izango ditugu, mundu mailan albistegietakok baitira ezaugarri konparagarri bertsuenak eskuratu dituztenak.

Beraz, Euskadi Irratiaren kasuan lagina ondorengo elkarrizketatuek osatu dute: Irratiko albistegietako buruak; programetako buruak; 12 albistegietako kazetarik (horietatik 1 kiroletoan berezitua); 8 programetako kazetarik (horietatik 1 kiroletoan berezitua); eta interneterako edukiez arduratzen den profesional bakarrak. Aipatutako guztiak Euskadi Irratiaren pertsonalaren parte dira, kontratu desberdinekin (%70era,

lanordu osoan baina ez finkoa, finkoa eta lanordu osoan, autonomia). Horiez gain, irratiko euskara zuzentzaile Jesus Artetxe (duela hiru urte sortutako kargua), eta gaur egun unibertsitatean lan egiten duen baina Euskadi Irratiaren hasierako lantaldean aritu zen kazetaria, Joxerra Garzia, ere elkarrizketatu ditugu. Hala ere, azken hauek ez ditugu ondoren adieraziko dugun koadro orokorrean sartu, gaur egunean gure interesekoak diren kazetarien jarrerak aztertze baina, zenbait kasuren inguruko ikuspegiak eskuratzeko erabili ditugulako testigantzok.

Radio nan Gàidheal-en kasuan kontuan izan behar dugu, lehenago azaldu bezala, irratiko albistegietarako lan egiten duten kazetari guztiek telebista katerako ere, alegia, BBC Alba katerako, edukiak ekoizten dituztela. Kasu honetan, hauek izan ditugu elkarrizketatutakoak: 9 kazetari albistegietan lanean; 4 programetarako; interneterako edukiez arduratzen den profesional bakarra; irratiko albistegietako editore burua; irratiko albisteen eduki planifikatzailea; irratiko erredakzio burua; BBC-ko zerbitzu Gaeliko osoko burua; BBC Scotland-eko Estandar Editorialen Burua (iraganean BBC-k gaelikoz ekoiztutako edukien sortzaile izatearren); BBC Scotland-eko ekonomia gaietarako editorea (Eskoziako hedabideen zereginaz idatzitakoa argitaratzearren); gaelikozko irratia errentzat albisteak eta dokumentalak sortzen dituen kazetari *freelance*-a eta gaelikoa ikasteko saioak ekoizten dituen beste *freelance* bat, lehenago BBC Radio nan Gàidheal-ko erredakzioaren parte zirenak. Ildo berean, aipatu beharra dago irradi euskaldunean eta gaelikoan dauden albistegietako kazetariak, gizarteko arlo guztietako gaiak jorratzen dituztela; hots, espezializazioa oso murrizta da. Euskadi Irratiaren kasuan, nazioartekoan, politikan, kulturen eta kiroltan berezitatutako kazetariak daude, azkeneko bien edukiek albistegietan baino programetan hartzen dutelarik protagonismo handiagoa. Halaber, gaikako espezializazioaz gain, badaude eremu geografiko zehatz batera mugatutako kazetariak gai lokalak lantzerantz bideratuak; hala nola, Donostia aldera, Bilbo aldera, Bizkaia aldera, Ipar Euskal Herrira edota Madrilerara. Radio nan Gàidheal-en kasuan, politikan espezializatutako bi kazetari dituzte; bi kazetariak alde aurretik albistegi orokorrean ibilitakoak ziren eta ikasketa aldetik politikan espezializatutakoak. Beraz, kasu honetan enpresak, irradi gaelikoak, proposatu zuen politikarako kazetari espezializatuak izatea. Egia da, kazetaritza espezializatuak sustatzeak garrantzi handia duela arazo publikoei buruzko “irudi mental” zehatzagoak sortzeko (Tunstall, 1971);

aitzitik, gure bi ikerketa kasuek hizkuntza gutxituetan aritzen diren irratietan oraindik kazetaritza espezializazioa ez dela modu sistematikoan eman baieztatu daitezke –batik bat, horrek lantalde zabalagoa izatea eta beraz, gastu ekonomiko handiagoa, suposatuko lukeelako.

Elkarrizketatzeko aukeratutako irradi gaelikoko kazetarietako batzuk, gaelikoz gain ingelesezko ingurune mediatikoetan ibiliak zirelako ere aukeratu ziren; ezaugarri hau konkretuki interesgarritzat jo genuen, kazetari horren perfilak bestelako berezitasunak izan baitzituzkeen. Guztira 46 sakoneko elkarrizketa egin dira, eta jarraian adierazten dugu zein datatan egin ziren eta zein da bakoitzaren kargua (kargua antzekoa den kasuetan, zenbakiak erabili dira kazetari bakoitza desberdintzeko) –elkarrizketatuen izen osoa ez da agertzen pertsonaia bakoitzaren anonimatua babesteko, gehienak gaur egun lanean ari diren kazetariak direlako eta ez da ikerketa honen asmoa euren lanbidea kolokan jartzea.

Elkarrizketatutako profesionalak:

Euskadi Irratia

2011/02/08- Albistegietako Burua 2009tik gaur arte²⁰

2011/02/08- Programetako Burua 2009tik gaur arte

2011/02/14- EITBko irratietako zuzendari koordinatzailea, 1999-2009

Unibertsitateko gaiak lantzen dituen asteroko saioaren editore-aurkezlea 2009tik.

2011/02/15- Eguneroko eguerdiko musika programaren editore-aurkezle 1982tik.

2011/02/16- Berriemailea atzerrian eta asteroko magazine baten zuzendari, 1997-2008.

Berdintasunaren inguruko saioaren editore-aurkezle 2009tik.

2011/02/17- Asteroko teknologia berriei buruzko saioaren aurkezle eta interneteko edukien arduradun, 2008tik.

2011/02/17- EITBko Albistegi Zuzendaria 2005-2009.

Eguneroko arratsaldeko magazinaren editore-aurkezle 2009tik.

2011/02/18- Eguneroko goizeko magazinaren editore-aurkezle 2001etik.

²⁰ 2012ko udaberrian.

- 2011/02/19- Asteburutako goizeko magazinaren editore-aurkezlea 2009tik.
- 2011/02/19- Asteburutako goizeko magazinean kazetari 2009tik.
- 2012/02/22- Albistegietan kazetari 1982tik. Asteroko ekologia programan editore-aurkezle 2009tik.
- 2012/02/22- Kazetaria albistegietan2 2008tik.
- 2012/02/23- Albisteei lotutako saioen aurkezlea 2003tik.
Asteburuetako albistegietako editore-aurkezlea 2011tik.
- 2012/02/23- Eguneroko goizeko magazinean kazetari 2008tik.
- 2012/02/23- Kultura arloko kazetaria albistegi eta programetan, 2008tik.
- 2012/02/24- Albistegietako kazetari 2008tik.
Eguneroko goizeko lehenengo magazineko produktorea eta kazetaria albistegietan3, 2011tik.
- 2012/02/24- Eguerdiko albistegiko editore-aurkezlea, ≈1998.
- 2012/02/24- Eguerdiko albistegiko editore laguntzaile eta esatari, ≈1990.
- 2012/02/24- Albistegietako kazetari 1983tik.
Arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea 2009tik.
- 2012/02/24- Kiroletan 1990etik eta kirol edukien koordinatzailea 2012tik.
- 2012/02/24- Kirol arloan kazetaria 1988tik. Kiroletako editore-aurkezlea arratsaldeko albistegietan kazetari, 2009tik.
- 2012/02/24- Goiz eta arratsaldetako programetan erredaktore esatari, 2002-2009.
Kazetaria albistegietan1 2009tik.
- 27/02/2012- Izaera aniztun programen aurkezlea 1985tik.
Gertuko albisteen editore-aurkezlea 2009tik.

BBC Alba-Radio nan Gàidheal

- 2011/04/18- BBC Gaeliko Sailaren zuzendaria, 2008tik.
- 2011/04/18- Irratiko editore nagusia (*Managing Editor*) 2008tik.

- 2011/04/18- Irrati eta telebistarako²¹ (BBC Alba) albistegietako aurkezle eta erreportaria1. "Eòrpa" gaurkotasunezko gaiei buruzko saioan kazetari 2008tik.
- 2011/04/19- Arratsaldeko irrati magazineko aurkezle eta produktorea 1990tik.
- 2011/05/17- Irratia eta telebistarako (BBC Alba) albistegien eta gaurkotasunezko gaien editorea 2002tik.
- 2011/05/16- Albistegietako aurkezle eta erredaktore, 2007tik.
- 2011/05/16- Irrati eta telebistako (BBC Alba) albistegietan aurkezle eta produktorea1 2010tik.
- 2011/05/17- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietako aurkezle eta erreportaria2 1990tik.
- 2011/05/17- Irratiko albisteetako web orrialdearen editorea 2006tik.
- 2011/05/17- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietarako produktore laguntzailea 2007tik.
- 2011/05/17- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietarako aurkezle eta produktorea2 1995tik.
- 2011/05/17- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietarako editore eta produktorea 2002-2009.
- Irratiko eta telebistarako (BBC Alba) etorkizuneko albistegietarako planeatzailea (*news' forward planner*) 2009tik.
- 2011/05/17- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietako aurkezle eta erreportaria3 2008tik 2011ra. Gaur egun ez dihardu irratian.
- 2011/05/17- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietako aurkezle eta editorea 1992tik 1997ra.
- Gaelikoa ikasteko irrati saioen aurkezlea *freelance* gisara 2001tik.
- 2011/05/18- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietarako aurkezle eta produktorea3 2001etik.
- 2011/05/18- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietarako aurkezle eta produktorea4 1999tik.
- 2011/05/23- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegietarako aurkezle eta editorea 1998tik 2007ra.
- Irrati albisteetarako aurkezle *freelancea* –batzuetan irrati-arratsaldetako kiroletako magazina ere aurkezten du– 2007tik.

²¹ We used brackets to indicate that as television was formed in 2008, it is from that date that the radio journalist will become television journalist too.

2011/05/24- Kiroletako saioaren editore eta aurkezlea 2003tik eta arratsaldeko irrati magazinaren aurkezle eta produktorea 2010etik.

2011/06/02- Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegiaren editorea 2001etik 2005era eta "Eòrpa" saioaren aurkezle eta editorea 2005etik 2008ra. Irrati eta telebistarako (BBC Alba) albistegiaren aurkezle eta produktorea 2008tik.

BBC Scotland

2011/04/18- Gai ekonomikoetarako editorea 2008tik.

2011/05/10- Albistegi gaelikoetarako aurkezle, produktore eta editorea 1986tik 1988ra. BBC Scotland-eko Estandar Editorialen buru (*Head of Editorial Standards and Compliance*) 2009tik.

2011/05/16- BBC Highlands-eko albistegiaren editorea 2004tik.

Osagarriak

2010/03/29/- Euskadi Irratian programetako kazetari eta esataria izandakoa 1983tik 1988ra. Ondoren Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle 2013ra arte.

2011/02/17- Euskadi Irratirako euskara kontseiluko arduraduna 2009tik.

Azterlanaren emaitzak eta ondorioak lantzen diren kapituluetan elkarriketatuak beronen hedabide eta kargua adierazten duen azalpen laburraren bitartez identifikatuko dira.

Inkestei dagokionez, helburua datu kualitatiboak eskuratzea izanda eta irrati kazetarien unibertsoa bi kasuetan txikia izanik, unibertso osoaren gaineko inkesta egiteko nahia izan dugu. Unibertso handiak inkestatu nahi direnean, bereziki garrantzitsua izaten da laginketa on bat egitea, batik bat, esfortzuak ez xahutze aldera. Gure kasuetako kazetari populazioaren tamaina murrizta ikusita, aldiz, interesgarriagoa jo dugu inkestaren teknika unibertso osoaren edo ia osoaren erantzunak jasotzera bideratzea, errealitateari ahalik eta hurbilen zaizkion emaitza fidagarriak lortzeko asmotan. Horrez gain, beste ikerketa batzuetan (Larrañaga *et al.*, 2011) inkestaren teknikarekin erantzunak eskuratzeko sortu daitezkeen zailtasunak atzemanda, erantzun kopuru handiena lortzeko hasieran batean hobe zela unibertso osoa jomuga izatea erabaki zen. Euskadi Irratiaren

kasuan 74 kazetari dira irratia sortzen dutenak, kontratu mota guztietako kazetariak kontuan hartuta; guztira 50 erantzun jaso ditugu. Geroago ikusiko dugunez inkestak hainbeste jendek erantzutearen desioa ez zen guztiz bete, baina kazetarien ezetzak jasota ere, azkenean unibertso osoaren %68aren erantzunak jaso genituen. Lagina beraz fidagarritzat jo dezakegu, lehen ikusian bederen. Halere, zalantza izpiak usatzeko nahian, inkestetarako aukeratutako laginak %99,9ko konfiantza maila duela adierazten duen formula (Fuentelsaz Gallego, 2004: 5) aplikatu da:

$$n = \frac{N}{1 + \frac{(0,5 \cdot 0,5)^2 (N-1)}{Z^2 \cdot 0,5 \cdot 0,5}}$$

n = Lagin tamaina egokia

N = Unibertso osoa

Z = Konfiantza maila ($Z= 2,57$ izan da %99,9 konfiantza maila lortzeko)

Euskadi Irratiaren kasuan kalkulaturako n -ren balioa 19,7 kazetari dira. Radio nan Gàidheal-en kasuan, 63 profesioaletatik 32k erantzuten zuten gure inkesta, %50,8ak. Kasu honetan n -ren balioa kasu honetan 18,9 kazetarietakoa da.

7.1.2. A priori. Tresna metodologikoak diseinatzea

Lehendabizi, behaketak eta sakoneko elkarrizketak bideratu dira, behaketekin hasita. Ondoren elkarrizketa txanda bi egin ziren, eta azkeneko fasean, irratirako edukiak sortzen dituzten kazetariei inkesta egin zitzaien. Horrela, ahotan hartutako ikuspegi metodologikoen loturak, triangelatze metodologikoa ahalbideratu du ikerketaren baliozkotasun zientifikoa handituz.

a) Sakoneko elkarrizketen egituraketa

Ikerketa honen helburu nagusiak irrati kazetari talde batzuen perfilen ezaugarriak, berauen pertzepzioak eta eguneroko lan ohiturak jasotzea dira, eta ikusiko dugunez aipatu datuak biltzeko, "erdi egituraturako elkarrizketa" (Flick, 2004: 89) edo "sakoneko elkarrizketa irekia" (O'Sullivan, 2005: 48) da tresna aiposenetako bat.

Ameriketako Estatu Batuetan behaketa izan da iraganeko urte luzetan zehar azterketa kualitatiboetan datuak biltzeko erremintarik erabiliena, elkarrizketa aske edo irekiak hizkuntza alemaneko esparruetan eta esparru anglosaxoietan (Kvale, 1996) gailendu zirelarik batez ere. Azterketa honetan erabilitako erdi egituratutako elkarrizketen xede orokorra, arreta nagusia objektu zehatz baten eta beronen esanahian jartzea da, horretarako gakoa elkarrizketatuari bere iritzia aurkezteko ahalik eta askatasun gehien ematean datzalarik (Flick, 2004: 94). Libertatea eskaintzeak halere ez du esan nahi elkarrizketa hauek aurrez landutako galdetegi bat oinarrian ez dutenik; elkarrizketatuek beraien erantzunetan luzatzeko aukera izango dute, baina beti ere planteatutako galderak zehatzak eta ordena jakin batean helaraziak izango zaizkielarik (Wimmer, Dominick, 1996: 132). Honela, mintzaidea kasu hauetan bestelako egitura itxiagoko elkarrizketetan baino askeago sentitzen da proposatutako galderak unean-uneko moldaketak onartzen dituztelako, eta beraz, interpretazio desberdinetarako abagunea eskain diezaiekitelako elkarrizketatuei. Alabaina, ikerketa honetan hein handi batean autore batzuek "adituei egindako elkarrizketak" bezala deitu dituztenak ere bideratu dira; berez, adituei egindako elkarrizketa, erdi egituratutako elkarrizketak aplikatzeko forma espezifikoa dugu. Elkarrizketa biografikoetan ez bezala, kasu hauetan elkarrizketatuak garrantzia hartzen du jarduera eremu bateko aditu gisa eta ez hainbeste "pertsone" gisa. Era honetan, aditua talde baten ordezkari legez integratzen da ikerketan, eta ez kasu indibidual legez.

Elkarrizketa mota hauek aberasgarriak izan daitezke oso ikertzailearentzat, bere buruan pilatutako ezagutzetatik abiatutako galderez gain, elkarrizketatuek beraiek proposatutako ekarpenekin hornitu ditzakeelako galdetegiak. Ildo honetan bere biziko garrantzia du elkarrizketatuaren jarrerak, bai alde aurretikoak baita elkarrizketa unekoak; hasierako uneetako tentsioa ekidin ezina izaten da, eta ikertzailea eta elkarrizketatua maila desberdinetan kokatzen dituen egoera horretan elkarrizketatua begirada eta keinu bakoitzari adi egotea espero behar dugu. Horregatik, sakoneko elkarrizketek galdetegiaren egituraketa zein ikertzailearen, baita elkarrizketa osoan zehar ikertzaileak garatu beharreko ez ahozko hizkuntzaren, prestaketa berezia eskatzen dute (Finkel, Parra, Baer, 2008: 138). Galdetegian hastapenetik "beroketa" itaunak finkatzea beharrezkoa den heinean, galderoi begirada zuzen baina ez erasokor batez osatutako gorputz adeitsuak lagundu behar die. Horrez gain, elkarrizketatzaileak

elkarrizketatuak esandako zerbaitekin bat etorriaz bizitu dezake hizketaldia. Dena ez da hitza izan behar ordea, eta isiltasun uneei ere eustea komeni da, elkarrizketatuen konfiantza, gogoeta eta oroipena sorrarazi dezakeen aldetik; ikertzailea eta ikertuen arteko konfiantza horri, *rapporta* lortzea ere deitu izan zaio (Johnson, 1975: 141), elkar ulertzea.

Ikerlariak momentu oro soa elkarrizketatuen izan behar du, erosotasuna helaraziz, azken batean berak esan behar duena jakinduriaz baina inozentziaz hartuko duela adieraziz. Gure ikerketa helburuen giltzarrietako batzuk elkarrizketatuen pertzepzioetan egonik, elkarrizketan zehar hartzen duten jokaerak ia une oro izango du eragina gure ikerketaren garapenean, eta horrexegatik komeni zaigu zati hau aurretik taxuz prestatzea. Galdeketa hasi aurretik egokia da elkarrizketatuaren inguruko informazioa biltzea, ibilbide profesionalaren ingurukoa batik bat; baina ez dezagun agerian utzi dugun ezagutza osoa, hots, entzun ditzagun euren hitzak. Planteatzen diren galderek beti ere ikertzailearen interes praktikoaren arabekoak, eta beste askotan bizi den testuinguruaren –sozial, ekonomiko, politiko, kultural-arabekoak izango dira (Flick, 2004: 63). Era berean, beti egongo dira kontrola gaitzak zaizkigun kanpo elementuak, eta zentzu honetan, aipatzekoa 2009. urtean gertatutako gobernu aldaketak EITB erakundearen, eta hortaz Euskadi Irratian baita, izan duen eragina. Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera politikoaren aldaketak zuzenean du eragina komunikazio talde publikoan, eta honek aldi berean, gure elkarrizketatuen prestutasunean. Ondorioz, aurrerago azalduko dugunez, testuinguru politikoak ere eragin zuzena izan du gure ikerketa objektuekin era errazago edo oztopagarriagoan kontaktatu eta behaketak bideratzerako unean.

Sakoneko elkarrizketa zein inkestetarako diseinatutako galdetegiak ikerketan finkatutako helburuak lortzera bideratuta egon behar dute, baina gaiak itaunen bitartez planteatzeko, estrategia bat jarraitzea komeni da; hau da, galderaren motiboa era zuzenean agerrarazi behar zaio elkarrizketatuari, baina, ahal bada, itaunak atzean duten ezkutuko asmoa agerian utzi gabe. Esaterako, kazetariak beraien buruaz duten irudiaren berri jakiteko, gaiari zuzenean helduko liokeen galdera bakarra proposatzea baino, hobe hiru lau albo galderaren bitartezko planteamenduak sortzea.

Orobat, sakoneko elkarrizketen galdetegiak ondorengo gai nagusiei heltzen die (*ikus* eranskina1):

- Profesionalen aurrekariak hizkuntza, ikasketa eta ibilbide profesionalean (1-2 galderak).
- Profesionalen eguneroko lan-ohiturak, harremanak eta jarrerak (3-12 galderak).
- Profesionalek duten entzulearen irudipena (13-15 galderak).
- Konbergentzia prozesuak hizpide hartuta, taldeko kazetarien arteko gurutzaketak eta koordinazio maila (16-19).
- Hizkuntzaren arautegia, euskara/eskoziar gaelikoaren erabilera moldeak eta bestelako hizkuntzen ezarpena emisioetan (20-26).
- Profesionalek eskaintzen dituzten izaera desberdineko edukienganako jarrerak (27-30).
- Profesionalen konpromisoak, erronkak eta lan egiten duten hedabidearen barne-dinamikarekiko ikuspegiak (31-37).

Oinarrizko galdetegi abiapuntu izanik, testuinguru bakoitzari egokituko zitzaizkion egokitzapenak egin dira abiagune bera zuten galdetegi berezituak sortuz. Izan ere, elkarrizketatuak herrialde, hizkuntza eta erakunde egituraketa desberdinetatik datozen irratietan kokatuta, auzi konkretu batzuk lantzeko ikuspegi ezberdinetatik sortutako itaunak behar izan dira. Esate batera, hizkuntzaren aferan, euskararen kasuan aldaera estandar bat erabiltzen duten -euskara batua- eta albistegiak euskaraz sortzeko estilo liburu bat duten profesionalak ari gara; eskoziar gaelikoaren kasuan ez dago aldaera estandarrik, eta entzule guztien jatorria ordezkatzeko duen irratia sortu nahian, kazetariak neurri handi batean askatasuna dute beraien hizkera propioa erabiltzeko antenan. Honelako *a priori* ezarritako ezaugarriek nahi eta nahizko baldintzak dira galdetegientzat. Horrez gain, elkarrizketatzen ari garen profesionalak hedabideetan izandako ibilbideak ere xedatu ditzake galdetegiaren zenbait itaun. Esate batera, elkarrizketatuaren ibilbidea hedabide publiko eta pribatuetan eta hizkuntza nagusietan zein gutxiagotuetan zabaldu izan bada, galderak esperientzia guzti horietan landutako jarrera eta ohiturak jasotzera zuzendu behar ditugu; izan ere, elkarrizketatutako profesionalak soilik enpresa publikoetan, edo soilik albistegietan eta ez programetan, edo soilik irratian eta ez telebista edo prentsan, lan egin badu, gai

bertsuen inguruan helaraziko dituen ikuspegiak desberdinak izango dira. Hartara, bere biziko garrantzia du ikertzaileak alde aurretik informazio horren arabera galderak moldatzen jakitea, profil anitzagoen ordezkapena lortzeaz gain, elkarrizketatuak aurretik dakartzan ezaugarriak ondorengo erantzunetan beti arau gisa eragina duten edo ez konprobatu dezakegulako. Ildo berean, elkarrizketatuak gaur egun duen kargua ere kontuan hartu beharko da itaunketak zehazterakoan, erredakzioko albistegietako kazetari, programetako eduki sortzaile edo albistegietako editore izateak galdera batzuk gehitu edo kentzea ekar baitezake; hots, erredakzioko kazetariari ez diogu galdetuko albistegietako eskaleta definitzerakoan zeintzuk gai lehenesten dituen, bera ez baita horren arduradun, nahiz eta beti ere bere pertzepzioaren berri eman diezagukeen. Edo editore buruari ez diogu galdetuko zein harreman duten talde bateko eta besteetako kazetariak, beraiek egunerokoan batez ere beste editoreekin edo beraien taldeko kazetariekin izango baitute soilik harreman zuzena.

Ikerketak dirauen denboran zehar ikertzaileak bereganatzen dituen esperientziak ere eragina dute galdetegiaren eduki zein forman. Ikertzailearen ezagutza teoriko eta praktikoaren aberastea paraleloki landa-lanaren egikaritzearekin ematen denean, aztertzaileak ezin ditzake pausu horiek bere hurrengo urratsetatik alboratu. Azterketa honetan lehendabiziko sakoneko elkarrizketak eta behaketa egonaldiak Miramon-en, Donostian, Euskadi Irratiko egoitza nagusian egin genituen, ikerketaren atal honetarako zehazki taxututako tresnekin (galdetegiak eta behaketetarako irizpideak). Ondorengo epealdi praktikoa Eskozian garatu zen, Glasgow eta Inverness hirietan, Euskadi Irratian erabilitako tresnak Radio nan Gàidheal aztertzeke egokitu ondoren. Erresuma Batuko iparraldean gauzatutako landa-lanean ordea, hasieran proposatutako irizpide eta neurgailuak aldarazi zitzakeen informazio berria jaso genuen; hots, elkarrizketa eta behaketa epe berriek ikerketarekin zer ikusi zuzena zuten auzi berrien proposamena ekarri zuten. Horrela, Inverness eta Glasgow-n barneratutakoarekin 2012an Euskadi Irratiko Donostiako eta Bilboko egoitzan egindako elkarrizketen galdetegiak moldatu genituen. Bada, ikertzailearen ezagutzaren hedapenak eragin zuzena izan zuen metodologiaren tresnen aplikatzean baita.

b) Behaketaren teknika: Field diary

Behaketa etnografikoak kazetarien eguneroko ohitura profesionalak *in situ* jaso ahal izatea ahalbidetu du. Landa-lanetan behaketa egitea oso aproposa izan daiteke gizarte-munduak edo "mundu sozialak" ("social worlds"²²) (Lindesmith, Strauss, Denzin, 1975: 439-440) aztertzeko. Alde honetatik, behaketa parte-hartzaile eta ez-parte-hartzaileen arteko bereizketak egin izan dira, parte-hartzailea ikertzaileak ikerketa espazio edo gunean rol aktiboa jokatzen duenean bezala deskribatuz (Atkinson, Hammersley, 1994); esate batera, hedabide batean bertako nagusien baimenaz -Becker-ek (1970) "atezainak" bezala identifikatzen dituenak- ikertzailea langile bezala sartzen denean ikerketa espaziora -erredakziora-, eta beraz, rol horretatik aztertzen ditu langileen eguneroko lan ohiturak. Behaketa ez-parte-hartzaileetan aldiz, behatzaileak ez du aztertzen dituen portaeretan edo ekintzetan parte hartzen; hots, jarrerak aztertzen ditu baina behatutako fenomenoetan parte hartu gabe (Juaristi, 2003). Jakina, behatzaile parte-hartzaile moduan sarbidea lortzea, askotan, erakundearen arabera, ezinezkoa da. Gainera, lortzen denean ere aberasgarria izan daiteke langileak ikerlaria beraietako bat bezala hartuko duelako, baina era berean baditu bere desabantailak: Ikerlaria idazgeletako -hedabideen kasua kontuan hartuta- erritmoa jarraitzen kontzentratu behar denez eta bertako arauak segitzen, ezin dezake bere alde aurretiko ezagutza ondo aplikatu eta kazetarien errutinak, jarrerak eta pertzepzioak lasaitasunez jaso (Domingo, 2008). Ikerlariak espazioan modu aktibo honetan ez parte hartzeak ere bere desabantailak ditu, behatzailea behatuentzat pertsona "arrotza" izango delako eta honek eragina izan dezake beren jarreretan. Aldiz, behaketa ez-parte-hartzaile honen abantaila ikerlariak egoera bat bere ohizko inguruan miatu dezakeela izan daiteke (Park, Griffiths, 2008: 1-14), alde batetik bestera bere gisara mugituz.

Dena dela, nahiz eta garrantzitsua izan behatzaileak bere gain hartuko dituen zereginak zehaztea, aipatutako dikotomia ez da oso baliogarria behatzaile ez-parte-hartzaileak egiteko gutxi duela iradokitzen duelako. Horrez gain, gizarte ikerketa oro behaketa parte-hartzaile era bat dela baieztatua izan da, gizarte mundua ezin

²² Gizarte-munduak bezala, errealitateari buruzko ikuspegiak partekatzen dituzten gizabanakoak hartzen ditugu, diskurtsoen unibertsoez edo komunikazio sareen bitartez lotuak daudenak: "those groupings of individuals bound together by networks of communication or universes of discourse and who share perspectives on reality" (Lindesmith, Strauss, Denzin, 1975: 439-440).

baitaiteke bertako kide izan barik ikertu (Atkinson, Hammersley, 1994). "Participant observation is a mode of being-in-the-world characteristic of researchers" (Atkinson, Hammersley, 1994: 249). Bistakoa da behaketa parte-hartzaile edo ez-parte-hartzailea gauzatzea erabakitzerako unean, adostasun gutxi dagoela biderik egokiena zein den ezartzerakoan. Horregatik, beste autore batzuekin bat eginez (besteak beste, Jorgensen, 1989; Spradley 1980), guk ondorengo oinarritzko printzipioari heltzen diogu: Datuak, aurrean duguna behatuz, aktoreekin hitz eginez, egoerak esperientziatuz, konparatuz eta kontrastatuz lortu behar dira, beti ere, ikertu nahi den eremuarekiko ziklo erreflexibo eta kritikoan. Edonola ere, kontzeptu aldetik guk nahiago dugu Domingo-k (2008) egiten duen bereizketa: "behatzaile pasiboa" eta "behatzaile aktiboa" (Domingo, 2008: 223-224). Hark lau *online newsrooms* edo sarerako edukiak ekoizten dituzten lau idazgeletan –lau hedabide katalanenetan- egin zituen behaketak; soilik kasu batean hartu ahal izan zuen behatzaile parte-hartzaile aktiboaren rola -idazgeletako editore gehienek ikerlariak kazetari hasi berriaren rola hartzea arbuiatzen zutelako-. Hala ere, bietariko esperientziak bizita, Domingo-k behatzaile pasiboarena lehenesten du: "Behatzaile pasiboarena egitea askoz ere erabilgarriagoa izan zen, behatzaile aktiboaren rola idazgela bakoitzeko arau espezifikoetara egokitu ahal izateko pausuz-pausuko gogoeta sakona inplikaturako luke, aldi berean, nire aurretiko ezagutzak erabiltzea eragotziko lukeena. Berri-biltzaileak lanean behatzea idazgeletako arauak ulertzeko bide askoz ere emankorragoa izan zen" (Domingo, 2008: 224). Honez gain, "behaketa zuzena" eta "ez zuzena" bereizi dituen ere badago. Behaketa zuzenaren helburua "gizakien portaerak inolako manipulaziorik gabe era sistematiko eta kontrolatua begiratzea" da (Juaristi, 2003: 195). Beraz, portaerok "begiratzea", ez ekintzan zuzenean parte hartzea. Behaketa ez zuzena aldiz, portaerak berak baino portaeron ondorioak behatzea litzateke; esaterako, kazetarien prentsa irakurketa ohiturak irakurtzen dauden unean behatu beharrean, behin kazetariak lan-lekutik alde eginda bere mahai eta zakarrontzian topatzea egun horretan irakurri dituen egunkariak.

Gauzak horrela, ikerlariak lan honetan behaketa zuzenak gauzatu ditu behatzaile pasiboaren rola bereganatuz. Horrela, irratietako egoitzetan bertan izan gara kazetarien lan orduetan idazgela batetik bestera eta kazetari talde batetik bestera askatasunez mugituz, une zehatzetan espazioko aktore batzuei galderak helarazteko

aukera aprobetxatuz. Beraz, aurretik zuzendaritzarekin adostutako irratietako erredakzio, zuzeneko emisio eta talde bileratan *in situ* behatzaile pasibo modura egon gara. Bileratan entzun eta ikusi besterik ez dugu egin, eta beste egoera batzuetan, horrez gain kazetariekin elkarrizketa laburrak izan ditugu.

Ondoren, gure ikerketa helburuak erdiesteko behaketaren metodologia aurretiaz zelan prestatu genuen azalduko dugu. Izan ere, ikerketa espazioan sartzean, ikertzaileak galdera sorta bat du buruan. Galdetzaileon artean, "substantzial" edo funtsezkoak, eta "formalak" (Glaser, Strauss, 1967), baita ere "teorikoak" deitutakoak (Taylor, Bogdan, 1984: 33), desberdintzen dira. Berez, ikerketa kualitatibo on batek biak barne hartu behar lituzke; alegia, ikerketa espazio partikularren ulermen sakona, eremu berezi hori gainditzen duten teoria orokorrekin konbinatua. Hala ere, kontuan izan behar da behatzaileak metodologia zehatz eta ikerketa interes orokor batzuk izanda ere, bere ikuspegiaren bereizgarri espezifikoak behaketa bera burutzen doan neurrian aldatzen eta garatzen joango direla (Taylor, Bogdan, 1984). Tesi honetan bi hedabide publikoko lan-tokiak aukeratu dira zuzeneko behaketak bideratzeko, bi komunikabide –Euskadi Irratia eta Radio nan Gàidheal- hauetako kazetariak baitira ikerlaneko ardatz nagusi. Horrela, eta objektuekiko harremanaren auzia ekarriaz, irradi euskalduna ikerlariaren kulturatik hurbilago badago ere behaketetan garrantzitsua da desberdintasun kulturala eta distantzia metodologikoa ez nahastea; norberaren kultura aztertzean ere, ikerlariak distantzia kritikoa ezartzen du gizarte zientzien teoria eta metodoen oinarrien laguntzaz (Sanmartín, 2003:57). Izan ere, behaketarako giltzarria ikertzen diren pertsonak baino lengoia profesionalaren ezagutza espezializatuago bat izatea izango da, ikertzen den aktorearen interesekoak diren auzien inguruko ezagutza esaterako, halako moldez non horrek erraztu egingo duen ikerlariaren presentzia lanbidea egikaritzen den kokalekuan.

Ikerlan honetan irratietako idazgela eta estudioetan landutako behaketetan, kazetarien eginbeharrak, zeregin eta harreman anitzen aurrean azaltzen dituzten jarrerak, eta oro har erredakzio-prozesuko ohizko produkzio lanak jarraitu dira. Honelako obserbazioetan, sakoneko elkarrizketetan bezala, ikertzailearen eskumen komunikatiboak dira ezagutza berrien bilketarako "tresna" nagusi (Flick, 2004: 69); ikertzaileari eskaini eta ezkutatuko zaion informazioa, hark hartzen duen rola

arrakastaren arabera izango da. Nabarmendu beharra dago nahiz eta gure ikerketan sakoneko elkarrizketek pisu nabarmena izan, behaketa sistematikoek galdetegi batean inoiz ere jaso ezingo genukeena eskaini digutela. Izan ere, hasiera batean idazgeletako aktoreentzat pertsona arrotza izan garen arren, ordutik ordura eta egunetik egunera, gure presentzia oharkabean igarotzen zen eta aktoreek unean bertan hitzez sortzen zituzten gogoeta eta interpretazioak jaso ahal izan genituen. Horrek ez dauka pareko tresna metodologikorik; alabaina, azpimarratu beharra dago, aurrerago ikusiko dugunez, egun Euskadi Irratian bai EITB osoan bizi den giro politikoak²³ eragina izan zuela behaketa aldietan.

Euskadi Irratia eta Radio nan Gàidheal-ko erredakzio eta estudioetako behaketetan, gure arreta bereganatu behar zuten puntuak erabakitzeko bi dimentsio hartu dira kontuan. Batetik, barruko zurrumbiloa, alegia, egoitzetan ematen diren harremanak: Erredaktore-aurkezleen, editoreen edota albistegi/programetako buruen artekoak, eta baita aipatutako taldeen artekoak (menpekotasun maila, erabakitzeko ahalmena, ezagutzak, eta antzekoak aztertze bidea). Bestetik, kanpoko zurrumbiloa, alegia, inguruko faktore sozialek idazgeletako eta emisio geletako kazetaritza jardunean duten isla (informazio iturriak, hizkuntzaren erabilera, zuzenekoak, audientziak, eta antzekoak aztertze bidea). Hartara, behaketen asmo nagusia kazetarien eginkizunak, harremanak, jarrerak, hizketaldiak, bilerak (mahaiaren inguruko bakoitzaren kokapena, berba egiteko txandak, ideien garapenaren ordena, proposatzen eta eztabaidatzen diren auziak, etab.) emankizunen aurre prestaketak, zuzenekoak, eta emankizunen ondorengoak ikuskatzea izango da; irrati profesionalen barne-dinamika zelan jazotzen den finean. Horrez gain, behaketa garaia dokumentazio gehigarria lortzeko unea ere izango da, hala nola, albisteetako editoreen gai-ordena, eskaletak eta zuzenekoan gidioak.

²³ 2009ko martxoaren 1ean Euskal Legebiltzarrerako hauteskundeak izan ziren. Ezker Abertzalea ordezkatzeko zuen alderdia legez kanpo geratu zen. Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) izan zen eserleku gehien (30) lortu zituena, baina Alderdi Sozialista (PSE-EE) (25 eserleku) eta Alderdi Popularrak (PP) (13 eserleku) ituna sinatu eta Parlamentuaren agintaritza hartu zuten. Horrez gain, gaur egun legezkoa den Ezker Abertzaleak (Amaiur koalizioa) oraino ez du ordezkartzarik ez Euskal Parlamentuan ezta, ondorioz, EITBren administrazio kontseiluan. Bide batez esan, Euskadi Irratian sindikatu batera afiliatuta dauden kazetari guztiak, ELA edo LAB euskal sindikatuetan afiliatuta daudela.

Behaketetan, ikusten zen guztiaren oharrak jasotzeko koadernoak izan da ikertzailearen erremintarik erabiliena, *field diary* edo landa-lanaren egunerokoa osatuz; aitzitik, behatutako ezaugarri eta xehetasun oro berehala idatzi ezin direnean (egoera horretan subjektu gehiegiz inguratuta gaudelako eta naturaltasun itxura eman nahi delako), gomendagarria da behaketa fasea bukatu eta berehala buruan gordetakoak hitzez apuntatzea (Domingo, 2008: 231). Honetarako, gure kaierak behatze irizpide zehatzak zeramatzan aurrez apuntatuak (*ikus* eranskina²), nagusiki arreta zein gertaeretan jarriko genuen zehazteko. Hauek ditugu behaketan landutako sailak:

- harrera eta lehenengo kontaktua behatze espazioan;
- erredakzioak (espazioak, antolaketa);
- bilerak (espazioak, partaideak, ordutegiak eta maiztasuna, edukiak, gaien kokapen geografikoa, gidoia, sareko edukien presentzia, hizkuntza);
- zuzeneko emanaldiak (espazioak, partaideak, edukiak, bitartekoak, tresna teknologikoen erabilera, gidoia, harremanak, interneten presentzia, hizkuntza);
- grabatutako emisioak (espazioak, partaideak, edukiak, gidoia, editaia, hizkuntza, interneten presentzia);
- hizkuntzaren garrantzia (erabilera kazetari taldean oro har, hizkuntzarekiko hautemandako garrantzia, erabilera kazetari bakarraren mailan -testuetan, ahoskeran, etab.);
- kazetariak erabilitako hitz gakoak edo *keywords* ("funtzio mobilizatzailea dute, pentsamenduak eta ekintzak norabide batean edo bestean zuzentzeko gaitasuna" (Garsten, 2010: 60));
- internetekiko harremana (kazetarien pertzepzioak, kazetariak egunerokoan internetekin duten lotura eta harremana);
- sareari ematen dioten erabilera edukiak eskegitzeko unean (sararako eduki eksklusiboak sortzen dituzten edo ez, kazetaria bera arduratzen den airean emandako edukiak sarera igotzeaz);
- irrati bereko beste produktuenganako jarrera eta erabilera;
- irrati bereko beste profesionalenganako jarrera (belaunaldien arteko bizikidetzaz);

- komunikazio taldeko (EITB/BBC) beste hedabideetako saioenganako eta profesionalenganako jarrera;
- audientziaren presentzia eta jarraipena (aurrerago azalduko denez, berezitasun hau sakoneko elkarrizketen bitartez garbiago aztertu ahal izango da).

Aipatutako irizpideez gain, ikerketa eremuko aktoreek instituziotik kanpo bestelako biziak dutela kontuan hartuta, hori ere ez dugu zokoratu behar, nahiz eta proportzio txikiagoan, zeren eta horrela ere ulertuko dugu erakunde horrek ikertutako aktoreen bizitzaren oro har duen lekua (Sanmartín, 2003: 71). Izan ere ez da lan erreza eremu baten konexio, kontraste, tentsio, asoziazio eta harremanak antzematea.

Horrela beraz, behaketa etnografikoaren bitartez, kazetarien informazio-edukiak planifikatzeko, sortzeko eta hedatzeko gaitasuna eta bideak bildu ahal izan dira, lan-ohituren eta berauek sortutako dinamika profesionalen berri jasoz. Gainera, behaketa beti da informazioa biltzeko teknika indartsua, ikertzailea eta behatzen denaren artean bitartekorik ez dagoenez, errealitatea hobeto ezagutu daitekeelako (Juaristi, 2003). Hau esanda, zalantzarik ez dugu behaketa parte-hartzaile zein ez-parte-hartzailearen bitartez informazio baliotsua ekoiztu daitekeena; hala ere, metodo honek kritikak jaso ditu bere "subjektibotasuna" dela eta (Wood, Griffiths, 2007: 151-163). Ustezko subjektibotasun horrek bildutako datuen egitasun eta baliotasuna ezbaian jarri dezakeelakoan aplikatu dugu ikerlan honetan aurretik aipatutako metodoen arteko triangulatzea; behaketak sakoneko elkarrizketa eta inkestekin konbinatuz, bildutako informazioa bide desberdinetatik balioztatu eta konparatu ahalbidetu du.

c) Inkesta egituratzea

Jakina da ikerketa enpirikoak "tradizio handia" daukatela Gizarte Zientzietan (Juaristi, 2003: 85), eta inkestaren aldekoek datu kuantitatiboak lehenesten dituzte den informazioa baina adierazgarritasunik ez duen informazioaren aurrean. Ikerketa honen kasuan, kazetariei aplikatutako inkestaren teknikari esker sakoneko elkarrizketetan eskuratutako iritziak kuantifikatu, eta zehaztutako tekniken bidez egindako behaketen atal nagusi batzuk (batik bat, iturrirei, harremanei eta asetasunari

dagokionez) egiaztatu ahal izan dira. Sakoneko elkarrizketetan, era kualitatiboan ez bada lortu ezingo genituzkeen esperientzia, ikuspegi eta deskribapenak eskuratzen dira. Aldiz, inkestaren helburua aztertzen ari garen unibertsoak bere osotasunean partekatzen dituen ezaugarriak ebastea da; alegia, lagin zehatz bat aukeratu beharrean unibertso osoa hartu eta galdetegi itxi baten bitartez, elkarrizketatuaren interpretazio libreak onartuko ez dituen, populazio talde guztiaren edo gehiengoaren atributuak ezagutzea.

Inkesta diseinatzerakoan, ezinbestekoa da datuen bilketarako aukeratutako metodoa gogoan izan eta honen arabera galderak sortzea, hein handi batean, galdetegiaren formatuak baldintzatuko baitu beronen eraginkortasuna (Wimmer, Dominick, 1996: 115). Gure kasuan posta elektronikoaren bitartez egin da, eta beraz, kasu horretan ezinbestekoa da galderak irakurterrazak eta ulerterrazak izatea, inkestatuak ezingo baitu bestelako argibiderik jaso inkesta betetzean. Sakoneko elkarrizketetan bezala, galdeketa itxirako itaunak azterlaneko helburuen arabera ezarriko dira. Kasu honetan ere, egoera batzuen neurketa bideratzeko galderak lanketa berezia beharko dute. Hala nola, elkarrizketatuak lanean duen asetasun maila jasotzeko ez diogu zuzenean "lanak asetzen al zaitu" galdetuko; gaiari zeharka heltzen dioten itaunak erabiliko ditugu, lanerako sentitzen duen askatasuna eta sormenerako aukeren inguruan galdetuz, edota ekoizten dituen edukien eta ekoiztea gustatuko zitzaizkiokeen artean aldea dagoen aztertuz.

Kazetariak inkestak betetzera erakartzea lan erreza ez izanik, galdeketa batez beste 15 minututan betetzekoa eta konplexutasun handirik gabekoa izatea erabaki zen. Honenbestez, azterketa honetan erabilitako inkestak lau ataletan banatutako gaiak lantzen ditu (*ikus* eranskina3):

- Lehenengo atalak, kazetarien soziologiaren (adina, jaioterria, ama hizkuntza) eta ikasketen izaeraren berri (oinarrizko eta goi-mailako ikasketak eta zein hizkuntzatan) ematen digu.
- Bigarren atalak, kazetariak ordura arte izandako ibilbide profesionala finkatzea du asmo (gaur egunean euskarazko/gaelikozko irrati publiko batean lan egiten duen kazetariak lehenago ere euskara edo gaelikoa erabiltzen zuen irratan edota beste izaera bateko hedabideetan, bestelako hizkuntza nagusiagoa

erabiltzen zuen irrati edo hedabideetan esperientzia izan duen, publikoa izan gabe bestelako izaera juridikodun komunikabidean ibili den, eta abar).

- Hirugarren atalak, kazetarien gaur egungo lan-kategoria eta eginbehar (albistegi, programak, kirolak, bestelako kolaborazioak), afiliazio (sindikatueta) eta iturrien erabileran (iturri bakoitzaren nagusitasuna egunerokoan, jatorria, beste komunikabideen erabilpena, etab.) sakontzen du.
- Laugarren atalak, kazetariei beronen lanak eskaintzen dien asebetetze maila agertzea du jomuga. Horretarako, kazetarien asetasuna testuinguru desberdinetan neurtzen saiatu diren iraganeko eta gaurko aurrekarien (Stepinska, Ossowski, 2012: 857-867; Nygren, Degtereva, 2012: 732-743; Demers, 1994: 914-925; Pollard, 1993: 193-208) metodoen moldaketa erabili da. Gure egokitzapenean, kazetariei zortzi baieztapen agerrarazi zaizkie, 1etik 5era balioztatu beharko dituztenak (1=Erabat desadoz, 2=Desadoz, 3=Hala-moduzkoa, 4= Ados, 5= Erabat ados). Galderak planteatzeko era honek (*preguntas cuadro o batería*) arintasuna eransten diote galdetegiari (Díaz de Rada, 2005). Hala ere, adierazpenotan komeni da esaldi positibo eta negatiboak uztartzea, inkestatuak “modu automatikoan eta pentsatu gabe erantzutea ekiditeko” (Díaz de Rada, 2005: 119). Era berean, ideia desberdinak tartekatu dira esaldiotan, ondoren berauen arteko gurutzaketek asetasunaren irizpidearen azalpen zehatzagoa eskaini ahal izango digutelakoan. Hona zortzi esaldiok:

1. *Beste hedabideetako kazetariak biziki estimatzen dute neure lana*
2. *Ondo bizitzeko bezain beste diru irabazten dut* [hasiera batean kazetarien soldataren berri jakiteko moduko galera planteatu genuen, baina zailatasunak izan genituen praktikan jartzeko garaian; lehenago egindako ikerlanetan ere agerian utzi izan da kazetariei emandako galdetegietan soldaten inguruko galderak desagertu egin direla, erantzun gabekoen portzentaje handiak direla eta (Amurrio, Martín Sabarís, 2005: 434)]
3. *Lanbide honek gizartean eragiteko ahalmena ematen dit*
4. *Egunerokoan ez dut lantzen dudana edukiaren inguruan hausnartzeko denborarik*
5. *Baliabide tekniko gehiago beharko nituzke nire lana hobeto burutzeko*
6. *Erabateko askatasuna dut nire edukiak lantzeko*
7. *Nagusien komentarioak zuzenean jasotzen ditut*
8. *Alde handia dago egiten dudana lanaren eta egin nahi nukeenaren artean*

7.1.3. *In situ*. Ikerketa objektuekin kontaktuan landa-lana zuzenduz

Sakoneko elkarrizketak gauzatzean, elkarrizketatzaileak pazientziadun esploratzailearen rola hartu behar du, elkarrizketatuaren adierazpena erraztu eta ikerketaren helburuekin erlazionatutako dimentsioei heltzeko. Era honetan, konfiantza eta erosotasunean fundatutako egoerek, hizketaldi emankorrakoak onartuko dituzte. Hala ere, beharrezko "kimika" hori gutxitan lortzen da, autore batzuek baieztatzen duten bezala, elkarrizketa ez delako ikertzaileak informatzailearengandik datuak jasotzeko erabiltzen duen erregistro soila, baizik eta "konplizitatearen artea" (Alonso, 1998: 71 aipatua). Tesian zehar egindako elkarrizketak, metodo hauek aplikatzen dituzten ikerketan gertatu oi denez (ikusi Garsten, 2010), askotarikoak izan dira; kasu batzuetan elkarrizketatzaile eta elkarrizketatuaren artean konplizitate maila handira iritsi gara, elkarrizketatuak bere laneko esperientziak detaile osoz eta sakontasunez agerrarazi dituelarik. Horrez gain, egoeretako batean elkarrizketatuetako bat gurekin jarri zen harremanetan guk bera kontaktatu aurretik, haren lankide batek bideratuta; honek ere, aurreko elkarrizketatuarekin elkarrizketa unean lortutako konplizitate maila nabarmena adierazten du, ondoren bera izan baitzen lankideari gure ikerketaren berri eman eta kontaktua igorri ziona.

Hala ere, konfiantza maila horretara urreratu ezin izan diren elkarrizketak ere gauzatu ditugu, eta gehienetan elkarrizketatuaren denbora faltak edota ikertzaileekiko (edo unibertsitate mailako akademikoekiko) mesfidantzak eraginda sortu dira egoerok. Era horretako egokierak jazotzean konturatzen da ikertzailea, zenbateraino aberastu dezakeen ikerketa elkarrizketatuaren laguntza izateak. Euskadi Irratia eta Radio nan Gàidheal-en elkarrizketak pertsonen lan lekuetan egin ziren, haien etxeetan beharrean, eta elkarrizketatuek eskainitako denbora ere ez zen mugagabea. Orokorki, esan beharra dugu harremanak desberdinak izan direla elkarrizketatu batetik bestera, batzuk epe laburrekoak eta unean-uneakoak izanda, eta beste batzuk aldiz denboran luzatu direnak. Radio nan Gàidheal eta Euskadi Irratiaren kasuetan, sarritan informatzaileak lanez lepo eta denboraz estu zebiltzala kontuan izan behar dugu. Hargatik, elkarrizketatuekin partekatutako denbora "balio handikoa" dela onartuta, "galdeketa, entzuketa eta behaketa aktiboak" (Rabinow, 2003: 86) bideratzea izan

dugu xede. Gure elkarrizketek batez beste ordu bete-ordu eta erdiko iraupena izan dute (kasu gutxi batzuetan ia bi ordutara helduz).

Bestenaz, lehenengo puntu garrantzitsuena aukeratutako erakundeetarako sarbidea eskuratzea da, sakonek elkarrizketak baita behaketak prestatu eta gauzatu ahal izateko. Horretarako ikertzaileak bere identitatearen erabilera kontrolatu behar du, hau da, ikerketa espazioan sarbide aukera gehien eskainiko dizkion irudia aurkeztea (Taylor, Bogdan, 1984: 37). Finean, lehenago aipatutako "atezainei" (Becker, 1970) gure lanarekin ez dugula euren erakundea inondik inora ere kaltetuko sinestarazi behar diegu. Ereku baterako sarbidea antolatzerakoan, kezka bertsuak izango dira: Zelan segurtatu dezake ikertzaileak ikerketaren erdigunean kokatzen diren parte-hartzaile potentzialen lankidetzak? Zelan lortu dezake ez soilik eremura sartzeko baiezkoa jasotzea, baizik eta elkarrizketak edo bestelako datuak eskuratzeko aukera izatea? Aurrerago azalduko dugu irratiko bakoitzeko kazetariarekin harremanetan jartzeko jarraitutako bideak, baina gogoratu beharra dugu bi ikerketa kasu horiek erakunde publiko baten baitan kokatuta daudela, eta beraz, pentsa liteke ikertzaileak eremu pribatuetan baino erraztasun gehiagorekin jokatuko duela –litekeena delako erakunde publikoek beraien izaerari erantzunez, ikertzaileenganako jarrera irekiagoa izatea. Edonola ere, inoiz ere ez da zeregin samurra ikerketa eremuan barneratzea, ikerketak beti eragin asaldatzailea izango duelako aztertze den sisteman, eta horren jakinean, sistemako subjektuek mekanismo babestzaileak garatuko dituzte. Ondoren azalduko dugunez, ikerketa eremurako sarbidean maila batek baino gehiagok eragiten dute. Lehenengo eta behin, ikerketa baimentzeko erantzukizuna duten pertsonen maila dago, eta bigarrenik, elkarrizketatu edo behatuko diren gizabanakoena, bere denbora eta borondate ona eskainiko digutenak.

Kazetari euskaldunetatik hasiz, Euskadi Irratiko elkarrizketatuak aukeratzeko aurreneko irratian gaur eguneko zuzendari lanetan dagoen pertsonari, Felipe Juaristi-ri (Euskadi Irratia, Euskadi Gaztea eta EITB Irratia ditu bere menpe) postaz gutuna baita mezu elektronikoa bidali genion, eta honek jarraian, albistegi eta programetako buruen esku utzi zuen kasua. Kristina Zorita albistegi burua eta Arantza Kalzada programetako burua (aipatu beharra dago Euskadi Irratian albistegietako, programetako eta kiroltako lan kategoriak bereizten direla, kiroltakoak albistegi

buruaren menpe daudelarik) jarri ziren ondoren gurekin kontaktuan posta elektronikoa bitartez. Lehenengo bilera Kalzada eta Zoritare-kin 2011ko otsailaren 8an izan genuen EITBren Miramon-eko (Donostia) egoitzan, hirugarren solairuko bilera geletako batean. Bata aurrean eta bestea ondoan jesarrita nituelarik, nire ikerketaren nondik norakoei buruz aritu ginen, lehenago Herri Irratietan egina nuen lana azalduz. Programetan eta albistegien barne-egituraketaren berri eman zuten, eta hasiera batean bilera grabagailu barik hasi bagenuen ere, kazetari eta programa bakoitzeko editoreekin zituzten bilerei buruz berbetan hasi zirenean grabagailua pizteko aukera luzatu eta ezetzik jaso ez genuenez, lehenengo bilera horren soinua grabagailu digitalarekin jaso genuen (atal honetan ez gara hainbeste topaketetan sortutako edukiez ariko, baizik eta formaz, edukiak eskuratzeko erabilitako tresna eta bidez alegia). Bileran izan eta ondorengo astera, otsailaren 14ean, bueltatu ginen Miramon-era, Euskadi Irratian aurreneko behaketa aldia eta sakoneko elkarrizketak bideratzeko. Astelehenean larunbatera eman genuen bertan, goizeko 08:00ak inguruan heltzen ginelarik eta arratsaldeko 20:00etan alde egin.

2011ko urte horren bukaeran, behin Eskoziatik bueltatutakoan, kontaktuan jarri nintzen Euskadi Irratiko programetako buruarekin, irratian buruzko kongresu batean topo egin ostean. Kongresu horretako berrelkarretaratzea aprobetxatu genuen Euskadi Irratirako bigarren sarbiderako bidea leuntzeko, ordurako prentsan behin baino gehiagotan argitaratua zen euskal erakunde publikoaren barne-egoera zailak ikerketaren jarraipenean izan zezakeen eraginaren beldur. Mezu elektronikoz akorduan jarri, eta 2012ko urtarrilaren 16an ordu eta erdiko bilera izan nuen Arantza Kalzadarekin Miramon-eko egoitzan, bigarren solairuko bilera geletako batean. Bertan, urte hartan Eskozian irratian inguruan begietsitako tendentzien berri eman nion -hark eskatu bezala-, batez ere beste hizkuntza gutxitu bat lanabes zuten irratienak. Programetako buruak "ordainetan" ondorengo hilabeteetan egikaritzea pentsatzen nuen behaketa eta galdeketei argi berdea eman zien. Bileran honetan ez genuen grabagailua atera, eta jakina da askotan grabagailua piztuta ez izateak ikerketarentzat oso interesgarriak izan daitezkeen datuak eskaini ditzakeela (Finkel, Parra, Baer, 2008: 140). Kasu honetan ere antzeko zerbait gertatu zitzaigun, programazio buruak grabagailua piztuta egon balitz komentatuko ez litzatekeen kontuak hitzez adierazi zituelarik (kazetari batzuen afiliazio sindikalak eta zelan

honek eragina izan zezakeen euren erantzunetan, komunikazio taldean oro har sindikatuek zuten indarra, irrati horrek talde bereko telebista hornitu bai baina telebistak oso-oso gutxitan hornitzen zuela irratia, etab.). Horrez gain, guk sortutako elkarrizketatzeko kazetari potentzialen zerrenda erakutsi genion eta akorduan jarri ginen, bere iradokizunak jasoz. Inkestaren gaia azaleratuz, kazetari guztiek erantzutea nahi genukeen galdetegiaren lehenengo zirriborroa erakutsi zitzaion; irratiko zuzendariari pasatuko ziola esan zuen, onarpena jaso beharra baitzegoen.

Miramón-era urte bereko otsailaren 22, 24 eta 27an egin genituen ondorengo bisitak, elkarrizketak egoitzaren 2. eta 3. pisuko biltzar geletan garatu genituelarik aurretik ordua eskatuta. Gainera, Bilboko egoitzan otsailaren 23an egon ginen; bertan Euskadi Irratirako lan egiten duten hiru kazetarirekin burutu ziren sakoneko elkarrizketak, bigarren solairuko kristal gardendun bulegoetan. Azkenik, euskarazko irratian gauzatutako elkarrizketetan aipatu beharra dugu Miramón-eko egoitzan kokatzen den Euskadi Irratiko euskara zuzentzailearekin ere egon ginela. Aldez aurretik adostutako egitarauetan hitzordua finkatuta ez bagenuen ere, elkarrizketetan hizkuntzari buruz berba egitean zuzentzailearen lana behin baino sarriago azalerazi zenez, harekin elkarrizketatzeko saiakera egin genuen. Programazio buruaren bitartez lortu genuen kontaktua eta Miramón-eko egoitzaren hirugarren solairuan egin genuen solasaldia Jesús Artetxe-rekin. Ondoren ikusiko dugunez, Eskozian aurretik aipatutako figurekin parekotasun hurbilagoak aurkitzeko aukera izan genuen bezala, azkeneko figura hau Radio nan Gàidheal-n ez zen ageri.

Eskoziar gaelikoz mintzatzen den Radio nan Gàidheal irrati publikoari dagokionez, behin Glasgow hirian kokatuta, eta Glasgow-ko Unibertsitateko (*University of Glasgow*) CCPR Kultura Politiketarako Ikerketa Zentroko irakasleen aholku eta laguntzaz, egun BBC Alba kudeatzen duten bi buruzagiekin jarri ginen harremanetan posta elektronikoa bitartez: Alde batetik, BBC Scotland-en barnean Gaelic Department-eko buru den Margaret Mary Murray-rekin (*Head of the new Gaelic Digital Service for Scotland*); bestetik, Radio nan Gàidheal-eko Zuzendari Editorial Marion MacKinnon-ekin (*Managing Editor of BBC Radio nan Gàidheal*). MacKinnon Stornoway-n (Lewis irla, Eskozia) lekututa egoten da, ez bada Murray-ekin batu behar dela. Horrela, 2011ko apirilaren 18an BBC Scotland-en egoitza nagusian finkatu genuen hitzordua,

Glasgow hiriko Pacific Quay izena hartzen duen zonaldean. Bi emakume buruekin egoitzaren hirugarren pisuan izan nuen elkarrizketara Darren Laing gehitu zen 15 minutuz; Laing Glasgow-n gaelikozko albistegietarako -irratia eta telebista- eta “Eòrpa”²⁴ gaelikoz ekoiztutako telesaio ezagunerako BBCko langilea dugu.

Egun berean elkarrizketatu genuen Douglas Fraser, 2008an “Nazioa nazioari hizketan: masa-hedabideek distantzia kulturala sortzen al dute Eskozia eta Ingalaterra artean?” (“Nation Speaking Unto Nation: Does the media create cultural distance between England and Scotland?”²⁵) titulua zeraman artikulua idatzi zuena Politika Publikoetako Ikerketa Erakunderako. Artikuluaren autorearen bitartez Eskoziako hedabide publikoen, gaelikoak barne, betekizunen eta betebeharraren ingurukoak hobeki ulertuko genituelakoan, eta egun Fraser BBC Scotland-eko Ekonomia gaietarako Editorea (*Business and Economy Editor*) dela baliatuta, posta elektronikoz zita egi genuen egun bererako. Elkarrizketa Murray, MacKinnon eta Laing-ekin egon ondoren gauzatu zen, egoitza bereko bigarren solairuko erdigunean, hormarik gabeko sofa erosodun ingurunean.

Ondoren etorriko ziren elkarrizketatuengana heltzeko “elur bolaren bitartezko lagina” (Finkel, Parra, Baer, 2008: 135) bezala ezaguna den prozedura jarraitu genuen, lehenengo elkarrizketatuek izenak eta kontaktuak helarazi zizkigutelarik, beste profesionalenganako bidea urratuz. Horrez gain, gure elkarrizketatuetako batek ikerketarentzat interesgarria izan zitekeen beste pertsona bati igorri zion gure kontaktua, kasu zehatz horretan elkarrizketatua etorri zelarik gugana. Beraz, BBC Scotland-eko egoitza nagusian izan ondoren, Cathy MacDonald-engana zuzendu ginen; irratia programazioaren inguruan irakurriz jakin genuen urte askoan Radio nan Gàidheal-en magazinak eta entretenimenduaren alorreko saioak ekoizten aritu

²⁴ “Eòrpa” (Europa gaelikoz) gaurkotasan gaiak lantzen dituen eskoziar gaelikoz egindako telebistarako saioa dugu, 1993an hasitakoa *Comataidh Telebhisein Gàidhlig*-k (Gaelikozko Telebistarako Batzordea) bultzatutako egitasmoari esker. Nahiz eta hasiera batean ez zen epe luzerako aurreikusi, gaur egunean eskoziar gaelikoz egindako saio ospetsuenetarikoa dugu (Chalmers *et al.*, 2011: 4). Irrati-telebista Eskoziarretarako Batzordeak saioa sormen eta kalitatearen adibide dela adierazi du. Hasieran Eskoziako BBC2 katean emititzen zen, eta orain BBC Alba katean ikusi daiteke. Ingeleseko azpitoluak dituen gaelikoz ekoiztutako saioak, Europari ikuspegi gutxitu, ez metropolitarrak batetik begiratzen dio, bere ingelesezko lehiakideengatik bereiziz (Cormack, 2008: 221).

²⁵ Sarean eskuragarri: <<http://www.ippr.org/publications/55/1641/nation-speaking-unto-nationdoes-the-media-create-cultural-distance-between-england-and-scotland>>

den, eta ari den, erredaktore-aurkezlearen berri. Mezu elektronikoa bidali eta Edinburgo-ko egoitzan lan egiten duenez, hark aukeratutako bertako jantokian egin genuen hitzordua; bazkaltzen geundela grabatu genuen elkarrizketa 2011ko apirilaren 19an.

Hurrengo elkarrizketatua Alasdair MacLeod izan zen; gaur egun BBC Scotland-eko Estandar Editorialen Burua dugu (*Head of Editorial Standards and Compliance*), baina kazetaritzan eman zituen lehenengo pausuak Radio nan Gàidheal izan ziren eta ondoren ere gaelikoz ekoizten diren edukien sortzaile izan zen urte askotan, "Eòrpa" teleaioan ere lan eginez ikertzaile-aurkezle gisara. Elkarrizketa BBC Scotland-eko Glasgow-ko egoitzan 2011ko maiatzaren 10ean egin zen.

Testuinguru honetan egokia da nabarmentzea ikerketa batek aurrera egin ahala, aldaketak jasan ditzakeela ezarritako laginean landa-lanetik eratorritako informazioaren eraginez. Horrela, nahiz eta hasiera batean Glasgow-n kokatuta dagoen BBC-ko egoitzan gaelikoz lan egiten duten kazetarietara mugatzea pentsatuta genuen, Glasgow-en geundela bideratutako irakurketen eta baita Alasdair MacLeod-ekin izandako elkarrizketak motibatuta, Pacific Quay-n lan egiten zuten profesioaletako batzuk elkarrizketatu ostean Radio nan Gàidheal-en egoitza nagusira joatea erabaki genuen. Horretarako lehen aipatutako Gaelic Department-eko buruaren eta gaelikozko irratia erredakzio buruaren laguntzaz, gaelikoz produzitzen diren albistegietako kazetarien editorearekin harremanetan jarri ginen. Inverness-eko (Eskozia ipar mendebaldea) BBC Alba-ren egoitzan lan egiten du berak, bertan baitago irratia erredakzio burua, albistegietarako lan egiten duten beste 20 kazetariarekin batera. Kontaktua egin eta tresna hartuta astebete eman genuen Inverness hirian, behaketak eta elkarrizketak bideratzen albistegietako kazetari eta editoreekin, 2011ko maiatzaren 16aren astean zehar.

Handik bueltan beste hiru elkarrizketa hitzartu genituen Glasgow inguruan. Maiatzaren 24ean, BBC Scotland-en egoitzan bertan, arratsaldean musika eta kirolak uztartzen dituen entretenimenduzko saio arrakastatsua egiten duen gidari nagusiarekin elkartu ginen; irratiko programazioa arakatzuz izan genuen bere berri. Ondorengo elkarrizketatua Glasgow-ko unibertsitateko Hizkuntza Zeltikoetarako

artxiboan topatu nuen, eskoziar gaelikozko irratien historia goiztiarra lantzen zuen Master tesinaren autorea haina zuzen. Unibertsitatean eskaini zidaten haren e-mail helbidea (ez bere onarpena lortu aurretik jakina) eta taberna batean egin genuen zita maiatzaren 23an; gaur egunean berak gaelikozko irratirako lan egiten du *freelance* modura albisteak eta dokumentalak ekoiztuz, eta noizean behin arratsaldetako musika-kirol magazina aurkeztuz. Azkenik Glasgow-ko egoitzatik gaelikoz ekoizten den telebistako albistegietan editore eta kazetari lanak egiten dituen profesionala elkarrizketatu genuen, Pacific Quay-ko egoitzan bertan ekainaren 2an.

Lehen esan bezala elkarrizketa bakoitza desberdina izan da, eta egoera bakoitzak bide desberdinak jarraitu ditu; batzuetan nahiko zuzenak, besteetan berezitasun bat edo beste azaleraziz. Pare bat kasutan esaterako, elkarrizketatuek grabagailua itzaltzeko eskatu ziguten, esan behar zutena entzun nahi bagenuen bederen; beraz, edo erantzun egiazalea jaso baina grabatu barik, edo elkarrizketa grabatuarekin jarraitu baina erantzun horri uko eginez. Ikerlari honek lehenengo aukera hautatu zuen, eta behin etxera iritsita, grabagailuak isilik iraun zuen denbora horretan ahoz jasotakoa oharren bidez apuntatu genuen, badaezpada ere. Dena dela, kasu hauetan ez da erreza behin informazioa era horretan eskuratuta zelan erabili igartzea eta alde horretatik, arazo metodologiko ugari sortu zatzaizkiguke: Elkarrizketatuak informazio oso esanguratsua eman du baina ikertzailearen asetasun pertsonalerako, ez ikerlanean erabilia izateko. Modu honetan, esan beharra dugu alde batetik ikertzaile honi ez zitzaiola zilegi iruditzen informatzaileek *off the record* esandakoa modu gordinean ikerlanean agertzea. Bestaldetik, informazioa agertzea baina iturria ezkutatzea ez zaigu akademikoki zuzena iruditzen. Hortaz, honelako arazoak izan ditugunean bi bideetara jo da: Jasotako hori bere horretan lagatzea, edo jasotakoa lanean erabilitako beste iturri batzuen bitartez kontrastatu eta iturri horiekin erakutsi badaiteke, modu horretan islatzea.

Elkarrizketatuak aitaturako estatusunetan jartzen ziren batez ere, erantzunetan nagusien figura sartu behar zutenean, eta bereziki, nagusi horrenganako jarrera edo ekintzenganako ikuspegia negatiboa zenean. Beste askotan, "hau ez dute nire nagusiek entzungo ezta?" edo "hau hemen gelditzen da ezta?" moduko galderak egiten zizkiguten.

Horrez gain, hizkeraren erabileraren inguruko itaunak izaten ziren, "normal hitz egin dezaket, edo mikro aurrean bezala?" bezalakoak, ofizioarekin erlazionatuta ikusten dugun ezaugarria (azkeneko hauek Euskadi Irratiko elkarrizketetan soilik jazo zitzaizkigun). Gainera, irrati bietako elkarrizketatuek esku artean genuen beste ikerketa objektuarenganako interesa erakusten zuten, ikerlariari galderak eginez. Esate batera, Eskozian "zuen euskarazko irrati publikoaren kasuan berdina al da?" edo "eta euskara bateratu bat erabiltzen al duzue irratian?" eratako galderak, Euskadi Irratiaren funtzionamenduaren inguruko jakin-mina azaleraziz. Elkarrizketatutako kazetari euskaldunen artean ere, Radio nan Gàidheal-n bizi zuten egoerari buruz galdetu zutenak izan ziren, batik bat, eskaintzen zuten programazio eta edukien ingurukoak.

Azkenik, elkarrizketak egikaritzekoan aipatzekoa da elkarrizketa amaitu eta berehala, hots, post-elkarrizketa deitutako denboran (Finkel, Parra, Baer, 2008: 140), esperimentatutakoaren inguruko oharrak edota gogoetak idatziz jasotzea oso metodo erabilgarria irudi zaigula. Atal honetan garrantzitsua da informazioa biltzea hizketaldiaren etenak, erantzunen zintzotasuna edo galdetegiaren egokitzapenaren inguruan, gehienbat planifikatutako hurrengo elkarrizketetan erabilgarriak izango zaizkigun akats zaharrak saihesteko.

Behatze aldiari dagokionez, estrategia aldetik hasita, lehenik eta behin zuhurrak izatea komeni da, beste era batera esanda, erakundeko nagusiei, "atezainei" -gure kasuan irrati-tako buruak- ez diegu oharrak hartuko diren zehaztasunez eta ikerketaren inguruko xehetasun guztiez informatu behar; "hertsiki ikertuak izango direla badakite, pertsona gehienak kikildu egingo dira ikerlariaren aurrean" (Taylor, Bogdan, 1984: 43). Bestalde, jakina dugu ikerketa espazioan sartzen garenean, landaren ohar zehatzak eraman behar direla, horretarako guk lehenago aipatutako egunerokoa sortuko dugularik. Era berean, irrati-tan behaketak egiterakoan, kontuan izan behar dugu hedabide enpresek beren barnean albistegiak eta bestelako saioak antolatzeko era desberdinak dituztela, eta berez, "zaila da komunikabide erakundeak aurretik ezarritako antolaketa eredu zehatzetara estuki egokitzea" (Tunstall, 1971: 27). Horrela, hedabide batek izaera desberdineko produktuak ekoizten dituenean, ezin daiteke esan hedabide horretako kazetari orok errutina berak jarraitzen dituztena;

adibidez, produktu bakoitzaren igorpen maiztasun eta ordutegiak esateko handia du. Eguneroko albistegiaren ekoizpenean dihardutenek, beren gaiari lotutako berezitasunetatik kanpo, lan-ohitura bertsuak jarraituko dituztela igarri daiteke, orduz ordu gertatzen denari hertsiki itsatsitakoak. Programen arloan lan egiten dutenek ordea, bestelako lehentasun eta helburuak izan ditzakete, eta horrek, halaber, eragina izango du beren lan ohituretan; orobat, ez da gauza bera eguneroko magazina edo asterokoa izan, eta goizekoa edo arratsaldekoa. Honenbestez, behaketak gauzatzerakoan kontuan izan dugu baita albistegi eta programa bakoitzeko profesionalak bere ohiturak eta lan egiteko moduak izango zituztela, eta izaera bateko zein besteko kazetariak barne hartu nahi genituzenez, irratia errutina orokor batzuk zehaztu baino lehenago, banakako lan-taldearen jarduteko erak ezarri behar genituela erabaki zen. Horregatik, behaketak irratietako askotariko espazioetan bideratu dira, izan albistegi edo programak.

Euskadi Irratiko kazetariak behatzeko bi behaketa aldi egin dira, 2011ko eta 2012ko otsailean biak. Radio nan Gàidheal-ko kazetarien kasuan, behaketa aldi bat Inverness-en, kazetari gaelikoen egoitza nagusian, eta beste bat Glasgow-ko BBC Scotland-eko egoitzan bideratu zen, hamahiru egun orotara. Lehenengo ikusian badirudi labur geratu zitzaigula behaketa aldia. Hala ere, aintzat hartu behar da tesi honetan azalerazten diren ekarpenik handienak ez direla tresna metodologiko bakar baten aplikazioaren ondorio, hau da, behaketekin batera sakoneko elkarrizketek eta inkestek, hirurak batera sukaldatu dute ikerlanaren mamia. Badaude behaketa aldi luzeagoak garatu dituzten tesiak (Domingo, 2008), baina hauetan tresna horixe izan da azterketaren erdigunea, bestelakoak alde batera laga direlarik edo erabiltzekotan, esaterako erdi-egituratutako elkarrizketak, kopuru minimoetan usatu direlarik. Hortik aparte, bideratutako behaketa egun orok gutxieneko zortzi orduko iraupena izan zuen, eta ikerlariari idazgeletako zein zuzenetaoetako egoera ugarietan parte-hartzeko aukera luzatu zioten. Halaber, behaketa egun trinkoen bitartez, behar genituen helburuak asetzeko behar beste datu jaso genituen.

Landa-lanaren behaketak hiru ekintza nagusi barne-hartzen ditu: Lehenengoa, elkarrekintza sozial ez erasotzaile batekin erlazionatua dago, hots, sakoneko elkarrizketetan bezala, informatzaileak eroso senti daitezten lortu eta berauen arreta

erakarri. Bigarren alderdiak datuak eskuratzeko bideekin du zer ikusia, landa-lanetik lortu dezakegun informazioa lortzeko estrategia eta taktika egokiak enplegatzea. Azkeneko aspektuak ikerketa espazioan behatutako datuak ohar moduan jasotzea eskatzen du (Taylor, Bogdan, 1984: 50). Bestalde, behaketa denbora ere garrantzitsua da egokitasunez eta praktikotasunez zehaztea; behatzaileak landan lehenengoz sartzen direnean informazio uholde izugarria jasotzen ari direla sentitzen dute. Horrexegatik, behaketa bakoitzarekin ikerketa eremuan igarotzen dugun denbora mugatzea gomendatzen da (Taylor, Bogdan, 1984: 53). Irrati publiko euskaldunean 2011ko eta 2012ko otsailaren gauzatu ziren behaketa aldiak, Miramon-eko egoitzan (irradiaren egoitza nagusia), bertan kokatzen diren albistegietako eta programetako buruekin bilera izan eta astebetara. Bertan, erredakzio nagusiaren eta txikiagoaren egunerokoak behatu ahal izan genituen, kristal garden batek bereizita ondoan zegoen bilera gelatik, baita zuzeneko emanaldiak zein kazetariak eta editoreak zituzten koordinazio bilerak (albistegietako lan-taldearen artean, eguerdiko albistegietako editoreak arratsaldekoarekin duena, programetako lan-taldearen artean, programetako buruak goizeko eta arratsaldeko magazineta buruekin duena, albistegietako buruak eguerdiko editorearekin eta “Gertukoak” albiste lokalen editorearekin duen harremana, albistegietako buruak Radio Euskadi, ETB eta Eitb.com-eko albistegietako beste buruekin duena, eta abar). Aipatzekoa da sakoneko elkarrizketen kasuan soilik erabili dela grabagailua, behaketa aldiak apunte eta oroimenak lagundu digularik ikusitakoa eta hautemandakoa gordetzen.

BBC Alba/Radio nan Gàidheal-en kasuan lehendabizi Inverness-en, Radio nan Gàidheal-en egoitza nagusian, egin genuen behaketa 2011ko maiatzaren bigarren astean eta ekaineko hasierako egun batzuetan. Inverness-en kokatzen dira gaelikoz irrati eta telebistarako albisteak sortzen dituzten kazetari gehienak, albistegietatik kanpo lan egiten duten profesionalen gehientsuena Stornoway-n daudelarik. Gaelikozko albistegietarako gaurkotasunezko gaietarako buruarekin antolatu genuen bertako behaketa aldia: Bilerak (Inverness-eko kazetari eta produktoreak Glasgow-koekin zituztenak, albiste editore nagusiak goizeko eta arratsaldeko albistegietako editoreekin zituenak), zuzeneko emanaldiak (irratiko eta telebistako albistegienak) eta erredakzioen bizikidetzak ikuskatuz –azken puntuaren harira, aipatzekoa da Inverness-en BBC Highlands albistegietako editore den pertsona ere lekututa dago beste lau

kazetarirekin; hauek ingelesez aritzen dira hizkuntza horretan ekoiztutako edukiak plazaratuz eta kontaktu zuzena dute Glasgow-ko gainontzeko ingelesezko hedabideekin-. Inverness-etik gain, maiatzaren bukaeran Glasgow-ko egoitzan Gaeliko Sailean (Galic Department) lan egiten duen kazetariaren bitartez, arratsaldeetan Radio nan Gàidheal-erako bertatik aireratzen den musika eta kirolen inguruko magazinaren aurre prestaketa, zuzeneko eta ondorengo behatzeko aukera izan genuen bi egunez, “Siubhal gu Seachd” du izena irratsaioak. Pacific Quay-n lekututako egoitzan bertan, ekainaren hasieran, BBC Alba gaelikozko telebista katerako lan egiten duen kazetari eta produktorearen bidez, “An Là” gaelikozko telebista albistegiaren aurre prestaketa eta zuzeneko emanaldia bertako kontrol mahaitik zelan aireratzen duten ikusteko beta izan genuen (bi egunez). Izan ere, “An Là” albistegiaren platoa Inverness-en egon arren, bertako kontrol mahaia ez da Glasgow-koa bezain indartsua eta beraz, programako produktore eta errealizadore nagusiak Glasgow-n daude, programa bertatik emitituz. Behaketa hauek balio handikoak izan dira zerbitzu berarentzat lanean ari diren profesionalen arteko harremanak eta profil aniztasuna behatzeko, eta fisikoki bateratutako eta berezitutako kokaguneetan ematen diren erlazioak ulertzeko.

Lehenago zehaztu dugunez, oharren bitartez bilduko dira behaketetan jasotakoak. Alde horretatik, Bogdan eta Taylor-ek (1984) behaketen bidez eskuratutako datuak kodifikatzeko eta ondoren modu erraz batean berreskuratu ahal izateko gidak proposatzen dituzte. Besteak beste, guk jarraitutako gida horietako batzuk ditugu: egun bakoitzerako titulu zehatz bat izango duen orrialdea hastea, tituluaren data, ordu eta leku konkretua agertuz; behatzen gauden espazioaren irudi edo krokisa egitea, guk ulertzeko modukoa besterik ez, izan ere oso lagungarria izango zaigu bileran partaide bakoitzaren jesarlekua non kokatuta dagoen baita erredakzioan kazetari bakoitzaren lekua zein den diagramen bitartez gogoratzea (posizioak informazio aberatsa erantsi diezaioke hainbat gairi); orrialdeen marjinak normalean baino zabalagoak egin genituen, zerbait jaso eta beranduago beste ekintza berri batek zerbait horri gehitu diezazkiokeen azalpenetarako; aipu zuzenak jasotzeko komatxoak erabili ditugu, argi geratzeko gure pertzepzioak barik, hitz horiek ikertutako pertsonaren beraren ahotik irten zirela; hedabide barneko eremu batzuk izendatzeko goitizenak erabili ditugu, izan ere, goitizen horrek berak unean-unean espazio jakin batek iradoki diguna gorde dezake; batzuetan oharrok jasotzeko koaderno bat baino gehiago eramatea

gomendatzen da, eta gure kasuan, zuzeneko emanaldiak eta bestelakoak aparteko liburuxketan jaso genituen.

Inkestei dagokiolarik, lehendabizi erredakzioko kazetarien gainetik dauden buruekin egin zen kontaktua; Euskadi Irratiaren kasuan albistegi eta programazio buruekin eta Radio nan Gàidheal-ean, irratiko erredakzioko eta Gaeliko Sail osoko buruarekin. Euskadi Irratiaren kasuan, programetako buruak inkesta *in situ* egin beharreak emailez bidaltzea gomendatu zigun, kazetariak erabaki zezan noiz erantzun, egunean zehar ez baitute tarte libre askorik izaten. Inkestak mota honetan egikaritzeko arazoez jabetuta ere (batak besteari zer erantzun duen galdetzeko arriskua egon baitaiteke), irratiko buruetako baten menpean geundela ikusirik metodo horri ekin genion. Horrela, Arantza Kalzada programazio buruak inkesta bere email helbidetik helarazi zion irratiko kazetari talde osoari, guk idatzitako ikerketaren nondik norakoak azaltzen zituen aurkezpen gutunarekin batera. Handik aste betera erantzunak eskuratzeko zailtasunak genituela ikusirik, bigarren abisu bat zabaltzeko baimena eskatu genion Kalzada-ri; honek baiezkoa eman zigun baina berriro ere bere emailetik kontaktatu zuen kazetari taldearekin, nahiz eta guk nahiago genuen, eta horrela adierazi genion, gure emailetik kontaktatzeko aukera. Izan ere, ikertzaile honen usteetako bat zen kazetari batzuek erakunde publikoan egondako dinamika "politikoen" aurka, "erresistentzia" modu legez ez zituztela inkestak erantzuten, alegia, une horretan nagusi zuten pertsonaren kontra egitearren (inkestak bere emailetik bidaltzen baitziren). Hau kontuan izanik, eta behin sakoneko elkarrizketak bukatuta eta inkesta egiteko baimena izanda, inkesta erantzuteko hirugarren oharra gure email helbidetik bidali genuen, erantzun egokiarekin. Hala ere, bide honetan agertutako beste arazoa helbide elektronikoko okerren edo posta sarrera beteen arazoa izan zen; kazetariak gure kabuz kontaktatzen saiatu ginenean konturatu ginen askoren postak mezuz beteta zeudela eta beraz ezingo zutela gurea jaso. Kasu honetan telefono zenbakia lortu eta inkesta ahoz egitea erabaki genuen, helburua ahalik eta erantzun gehien lortzea izaki.

Radio nan Gàidheal-ko kazetarien artean inkestak aplikatzeko, lehenengo Gaeliko Sailaren buru Margaret Mary Murray-rekin kontaktatu genuen e-mail bitartez, inkestaren ingeleseko bertsioa helaraziz. Honek, Norrie MacLennan-i igorri zion

eskaera, aurretik ere Inverness-en egindako egonalditik ezagutzen genuena. Excel formatuan bidali genion hari inkesta, eta baiezkoa emateko BBC Scotland-eko aholkularien oniritzia behar zuela erantzun zigun, galdetegiaren bigarren partea “arazotsua” izan zitekeelakoan; gaelikozko albisteen editoreak ziurtasunez jakin nahi zuten inkestaren eduki eta egikaritzeak BBCren arauak (*BBC Guidelines*) soberan betetzen zituela. Azkenean BBC Scotland-eko gaur eguneko Gai Korporatibo eta Politika Publikoetarako Buruaren (*Head of Public Policy and Corporate Affairs*) baiezkoa jaso genuen, era honetan, Maclennan-ek lasai bidali ahal izango zizkielarik galdetegiak kazetariei. Hori ere ez zen lan erreza izan ordea, albisteetako editoreak kazetari batzuk soilik selekzionatu baitzituen galdetegiak erantzuteko, bere aburuz kazetaritza eginkizunetan bete betean aritzen ziren hogeiri. Gauzak horrela, irriati gaelikorako edukiak sortzen dituzten beste kazetari batzuen emailak lortzeari ekin genion, bestelako bide eta kontaktuekin harremanetan jarritz. Azkenean inkesta 63 kazetariei bidali genien, 32ren erantzuna jasoz.

7.1.4. *A Posteriori*. Landa-lanaren ostekoa

Landa-lanerako enplegatutako tresnak aplikatu ondoren, hau da, sakoneko elkarrizketak, behaketak eta inkestak era praktiko eta sistematikoan gauzatu ostean, eskuratutako informazioa eratoritzea eta interpretatzea dator. Hasiera batean, bere horretan jasotako datuak "gordinak" edo jorratu gabeak izango dira, beranduago helduko delarik lanketa fasea aurkikuntzak elkarrizketatu eta behatuen aipamenez tartekatuz. Erdi egituratutako sakoneko elkarrizketetan eta behaketetan azaldutako gaien identifikazioa burutzea izango da jarraitzeko lehenengo pausua, transkripzioak egin eta *field diary*-a ordenatu asmotan.

Elkarrizketei dagokionez, metodo honekin lortutako datuen azterketa bi aldi nagusitan antolatu dugu: Transkripzio indibidualen analisia eta elkarrizketatuen diskurtsoan agertzen diren gaien analisia. Honetarako, jakina, erabiliko den transkripzio mota zehaztea ezinbestekoa da. Gure kasuan, oharren bitartezko datu-fitxen eta hitzez hitzeko transkripzio erabat literalaren arteko erdibidea hartu dugu. Beraz, elkarrizketatuaren hitzak bere horretan batuko dira, baina kasu batzuetan eduki nagusia xeheki sintetizatzen da “transkripzio laburtua” erabiliz; era berean,

azterketaren helburuetan pertinenteak ez diren puntuazio markak ezabatzea ere badugu. Laburtutako pasarteaz zalantzarik egotekotan edo jasotako informazio pusketa bakoitza grabazioan errazago topatzeko, orrialdearen margenetan denbora kokapen zehatza adieraziko da (Thompson, 1988: 256). Aipatutako transkripzioa ikerlan zehatz honetarako egokia suertatu zitzaigun bidea dugu, baina kontuan izan behar da finean ikerlariak aukeratu behar duela zein sistema erabili beti ere bere helburuei eta ondoren burutuko den analisi mota eta informazioaren aurkezpenari men eginez (Thompson, 1988: 261). Beraz, guk datu-iturria hartuko dugu; batzuetan elkarrizketatuaren esaldia literalki erabiliko da, eta beste batzuetan hark esandakoak azterketaren eskeman erantsiko dira bestelako iturrietatik lortutako datuekin batera, interpretazio eta azalpen berriei bide emanez.

Behin elkarrizketa bakoitza transkribatua izanik, hizketaldian agertzen diren gai nagusiak identifikatu eta prozesu edo testuinguru zabalagoekin harremanetan jarriko aurrena, testuinguru soziologiko edota linguistiko zehatzekin esaterako. Honenbestez, tesiaren hastapenetan finkatutako jomugak buruan, elkarrizketetan agertutako datuak klasifikatuko dituen adierazleak ezarri genituen. Euskadi Irratiko kazetarien perfilak eta jarrerak zehaztuko zituzten irizpideak finkatu ziren, horiek oinarritzat hartutako sailkatuko delarik transkripzioetan lortutako informazioa; ondoren, Radio nan Gàidheal-eko kazetarien nolakotasuna eta lan-ohiturak definitzeko prozedura bera jarraitu genuen. Hasiera batean, herrialde batean eta bestean egindako elkarrizketak irizpide desberdinak medio xehatu ziren, bakoitzaren testuinguru berezia aintzat hartuz. Ondorengo urratsa irizpideok komunean jartzea izango zen, hedabide eta hizkuntzen eremuan marko euskaldunean eta eskoziar gaelikoan ematen diren berezitasunak barne-hartuko dituen klasifikazioa burutuz. Aipatzekoa da, elkarrizketak eta berauen transkripzioak Nvivo software kualitatiboaren bitartez landu direla, datuen gurutzaketa aberatsagoak lortzeko helburuaz. Gisa honetan, ondorengo taldeetan multzokatu ditugu transkripzioetan azaleratutako ideiak: Aurrekariak ikasketetan, euskara/gaelikoaren eskuratzea barne; aurrekariak hedabideetan; kazetarien eguneroko lan ohiturak (eta honen barneko azpi-atalak: albistegiak vs. programak, programazioa, iturriak, bilerak, iratiaren web orrialdearen funtzionamendu eta hornitzea, gaztelera/ingelesaren erabilera, gaelikoaren presentzia erredakzioaren egunerokoan); Hizkuntza Planaren existentzia eta hizkuntzaren

kalitatearen eboluzioa; Radio nan Gàidheal vs. Radio Scotland, Euskadi Irratia vs. Radio Euskadi; oztopo nagusiak egunean-egunekoan; gaur egungo lana (azpi-atala: audientziaren irudipena²⁶); telebistan izandako lana; hizkuntzan duten segurtasuna; aldaketak industria mediatiko euskaldunearn/gaelikoan; erronkak (hedabide modura eta hedabideetako profesional gisa). Beraz, elkarrizketa bakoitzaren azterketa indibiduala besteenekin komunean jarri ondoren, testuak egituratzen dituzten lerro tematiko nagusiak identifikatu ziren; ondoren, diskurtsoen artikulazioari ekiteko ekarpen teorikoak uztartuko dira, beti ere testuinguruak agertutako gaietan duen eragina kontuan izanik.

Behaketetan eskuratutako oharrak ere taldeetan banatu ditugu, hedabide bakoitzetik hautemandako datuak landuz. Kasu honetan ere, irrati bakoitzean garatutako behaketek datu desberdinak biltzera derrigortu gaituzte, aurreko atalean ezarritako behaketetarako irizpideak jarraituz. Behin datu gordinak erdietsita, errutina produktiboen (bilerak, erabakiak, lanaren partiketa, etab.), estudio eta erredakzioen deskribapen fisikoen (telebistak, egunkariak, etab.), profesionalek egunerokoan erabiltzen dituzten erreminten (editatzeko, grabaketak egiteko, etab.), kargu desberdinetako profesionalen arteko bileren (zeintzuk parte hartzen dute bileratan, zelan dauden jesarrita, zein ordenatan hitz egiten duten, etab.), telebista eta internetekin duten harremanen, eta azkenik irratiaren barne-egituraketaren (buruak, editoreak, erredakzioen banaketa fisikoa, etab.) inguruko datuak emaitzetan testu moduan integratzeko prestatu dira, ikuspuntu teorikoekin eta bestelako iturri idatziekin uztartuz. Alde honetatik, eta behaketetan da beharbada ezaugarri honek eragin gehien duen esparrua, gogoratu beharra dugu metodo kualitatiboen erabileran ikertzailearen subjektibotasunak eta ikertzen dituenenak, ikerketa prozesuaren parte direla (Flick, 2004: 20).

Inkesten arloan, eskuratutako datuak helburu deskriptiboetarako, adierazleen arteko korrelazioetarako eta kazetarien jarreraren aldaketa joerak eztabaidatzeko erabili dira. Spearman-en korrelazio indizea (Hollander, 1973) erabili da adierazleen arteko

²⁶ Cottle-k (2000a) dio audientziaren inguruan behaketa zuzena egitea lan zaila denez, kazetariak audientziaren inguruan duten irudia faktore erabakigarria dela sortzen dituzten produktuak definitzerakoan, eta horrexegatik, paper nagusia izan beharko lukeela ikerketen egituraketetan.

korrelazioak determinatzeko. Bestalde, Erredundantzia Analisia (RDA) erabili da kazetarien pertzepzioen eta egun duten lanaren arteko harremana aztertzeko, Osagai Nagusien Analisia (PCA) (Johnson, Wichern, 2007) erabiliz horretarako. Azterketa honek datuen barne egituraketa aurkezten du, kazetarien pertzepzioen adaketarako joerak agerraraziz.

Inkestetarik hartutako datuak ikuspuntu kualitatibotik ere landu direla nabarmendu behar da. Izan ere, behin datuak eskuratuta, metodo kuantitatibo eta kualitatiboen konbinazioa enplegatzen duten ikerketetan, datu kuantitatiboak kualitatiboetan transformatzera bideratu daitezke (Flick, 2004: 280). Horrela, emaitza soziologiko kuantitatiboak lortzeaz gain (zenbat kazetari 40 urtekoak, zenbat kazetari ikasketekin, zenbat hedabide publikoetan lanean aritutakoak, etab.), galdetegia osotzen duten adierazleen arteko harreman edo loturak topatu nahi izan dira. Esate batera, kazetarien ibilbide profesionalaren eta erabiltzen dituzten iturri nagusien artean, edo gaur egungo lan kategoriaren eta iraganeko lanen artean, edo ibilbide profesionalaren eta egun lanean duten asetasun mailaren artean.

Oro har, komeni da azpimarratzea ikertzaile bezala elkarrizketatuengatik jasotako datuak ez ditugula halabeharraren emaitzatzat interpretatu behar, alegia, testigantza indibidual isolatu huts legez; baizik eta iker gaiarekin erlazionatuta gizartean definituta agertzen diren irizpideen (aurrekariak, ibilbide profesionala, adina, lan-ohiturak, etab.) adierazgarri gisa.

7.2. Beste jatorrizko sorburuak

Orain arte azaldutako lehen eskuko iturriak lortzeko, metodo zehatz batzuk mamitu dira, elkarrizketak, behaketak eta inkestak bide gaur arte argitara gabeko datuak lortzeko asmoz. Hala ere, ziurtasunez esan daiteke ikertzen den kultura edo komunitateak sortutako materialen azterketa sakonak, lehenago aipatutako metodoak egokiago bideratu ditzakeela (Paterson, Domingo, 2008: 5); horrela, azterlan honetan badira lehen eskuko iturri gisa erabili diren bestelako sorburuak. Hauek ditugu behaketetan eskuratutako gidoi eta eskaletak bezalako dokumentuak.

Erredakzioetako behaketa eta elkarrizketen bitartez gaur egunean irratia gidatzeko dituzten protokolo edo erakundeko txostenak eskuratzen saiatu gara. Orokorrean erredakzioek ez dute material informatibo askorik beraien eguneroko lana erregulatzen duenik, arau gehienak kazetarien arteko ahoz-ahozkoan finkatzen direlarik. Hala ere, bestelako dokumentu lagungarriak erdietsi genituen, hala nola, zuzenean emititutako saioen gidoiak eta eskaletak. Interesgarria zen eskaletan aurrezaldetik emitituko zena zelan planteatuta zuten ikustea, zeintzu irizpide jarraituz, eta ondoren zuzenean zenbateraino errespetatzen zen aurretiko planifikazioa. Albistegien kasuan ikusten genuen zelan maiz denbora faltagatik, editore-aurkezleak ezin zituen finkatutako gai guztiak sartu; kasu horietan, hurrengo orduz-orduko buletinean sartzen zuten baztertutako albistea. Beste kasu batzuetan, ikertzailearentzat ezezaguna zen lan-egituraketa ulertzeko proposak izan dira dokumentuok; esaterako, aurreragoko ataletan agerraraziko dugunez, Radio nan Gàidheal-en txandaka lan egiten dute, lan-orduez gain lan-postuak ere (aurkezle-erredaktore-produktore) txandakatuz. Alegia, kazetariak batzuetan erredaktore-aurkezle, besteetan produktore, besteetan produktore-aurkezle, eta abar izan daitezke. Beraz, txandaren arabera lan-ohiturak ere desberdinak izango dira, eta gidoietan bakoitzak antolatutakoa komentatzen denez, bisualki errutinak nondik nora zihoazen ikusten genuen. Horrez gain, bileretan eskuratutako albistegietako eskaletak zeintzuk eduki lehenesten ziren erakusten zizkiguten, baita esaterako edukiok gaelikoz edota ingelesez batez ere idatzita azaltzen ziren.

Bestela ere, lagungarriak izan dira oso irratia antolatuta dauden erakunde publikoek web orrialdeetan eskaintzen dituzten txostenak: Urteroko balantzeak irratia helburuak eta audientzia ezagutaraziz, organigramaren egitura, eta BBCren kasuan irratia aurrekontuaren nolakotasunak. Sareaz ari garela, irratien web guneak aipatu behar dira, programazioa eta programen inguruko hustuketa eginez bakoitzaren eduki eta ordutegiaren inguruko berezitasunak jasotzeko ezinbestekoak. Batik bat Radio nan Gàidheal-n kasuan, lehenago irratia ezezaguna izanez, kazetariak programazioa zein ikuspegitik lantzen zuten ulertzeko bere biziko garrantzia izan zuen web orrialdeko informazioak.

Azkenik audioak hartu behar ditugu ahotan. Gure azterketa kazetarietan eta ez hainbeste edukietan zentratuta egonda ere, ikerketa objektuen lanak entzutea derrigorrezkoa izan zaigu beraien lanean bultzatutako ohiturak adierazteko. Oraingoan ere, Euskadi Irratikoak ezagunagoak zitzazkigun bai edukiz bai hizkuntzaz, eta beraz gaelikoz egiten den irratia igorpenak ulertzeko, ikerketa akademikoan jarduten ez duen baina hizkuntza ulertzen duen pertsonaren aldizkako itzulpenak behar izan genituen. Hala ere, erabilitako hizkuntzatik at audioen entzunketak bestelako informazioa ere erantsi diezaioke ikerlanari, kasu honetan interesgarriak direlarik esaterako atzerriko hizkuntzen korteen erabilera edo musika.

IV. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

IV. EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Kazetariak egunerokoan emititu beharreko edukien inguruko erabakiek, egoera konplexu eta iragankorrak sortzen dituzte (Donsbach, 2004: 131-157). Ikerketa batzuk saiatu dira erabakitze prozesu horren baitako aldagaiak antzematen (Schudson, 1989), eta komunikazioan adituak bat datoz kazetarien ebazpenetan -istorio bat aukeratu, landu eta aurkezterakoan- eragina duten lau elementu izendatzerakoan: albistearen beraren faktoreak, helburu instituzionalak, iturriek manipulatzeko duten boterea eta kazetarien sinismen subjektiboak. Lehenengo elementuari dagokionez, "albisteen faktoreak" (*news factors*) terminoa Walter Lippmann-ek (1965) barneratu zuen lehenengoz 1922an, istorio bat emititua izan dadin bere ezaugarrien balioztapen profesionala egiteari esleitua. Bigarren faktorea kazetari batek enpresa batean duen estatusari erantzuteko, aurre egin behar dien lan-moduei dagokio (produktuen eduki eta forma dagozkionak baita). Hirugarrenak kazetariak egun jasotzen dituzten informazio uholde izugarriei egiten die erreferentzia, izan ere, argudio batzuen arabera, informazio uholdeek "kazetariaren denbora kontsumitzen dute, kazetariari iturrien ikerketa sakona eta faktuetan oinarritutako frogak topatzea eragotziz" (Donsbach, 2004: 135). Jatorrizko aipua: "consumes the time for research, and critical proof, of facts". Laugarren osagai legez, lan honen ardatz nagusietako bat dugun kazetarien usteak ditugu, behin baino gehiagotan eztabaida gai bihurtu den ezaugarria bai profesionalen bai komunikazio ikertzaileen artean.

Alabaina, dagoeneko frogatua dago kazetari batek gai edo pertsona batekiko duen alde zuzeneko jarrerak, eragina duela informazioa jorratzeko erabakietan (Starck, Soloski, 1977: 120-125; Kepplinger, Brosius, Staab, 1991: 132-156), nahiz eta eragin maila desberdina izango den herrialdeetik herrialdera, balio profesional eta erakunde mediatikoen izaerak ere desberdinak diren heinean (Patterson, Donsbach, 1996: 455-468). Kazetarien jarrerak euren rol eta errutinetan dute isla, eta hain zuzen errutinak garrantzitsuak dira hedabideek, eta beraz, kazetariak "ordezkatzeko duten errealitate sozialean eragina dutelako" (Shoemaker, Reese, 1996: 103). Azken batean, kazetarien portaera eta lan-ohiturek kazetaritza profesioaren identitatea definitzen dutela (van

Dalen, de Vreese, Albæk, 2011: 1-20) baieztatu daiteke, eta alde horretatik, adierazgarria da kazetariak eguneroko edukien produkzioan sortzen zaizkien presioei zelan erantzuten dioten hausnartzea (Usher, 2012: 1-16). Egia da teknologia berrien ezarpenak eraldaketak sortu dituela kazetarien eguneroko praktikan, kazetaritza fenomeno berriek bestelako kontzeptuen sorrera behar izan duten bezala (Boczkowski, Mitchelstein, 2009: 562-586). Hala ere, kazetariei idazgelan sortzen zaizkien presio edo muga horiek arakatzeari ekin dioten azterlan sakonetan, lehen eta oraingo kazetarien lanaren saka izaten jarraitzen duten elementuak ageri dira; hala nola, denbora, iturriak kontsultatzeko era tradizionalak (egunkariak, albiste agentziak) eta enpresaren antolakuntza arauak istorioen hots eta forman duten eragina (esaterako ikusi Schlesinger, 1987: 23-105; Usher, 2012: 13). Ildo honetan, kazetari talde baten eguneroko rola, eta kultura zehazterakoan, garrantzia handiko elementua dugu komunikabidearen kokalekua, hots, hedabidea ezarrita dagoen lurraldearen nolokotasun politiko, ekonomiko, sozial eta kulturala. Horrela erakutsi da kazetariak hedabideetako rolen inguruan duten ikuspegia batez ere faktore sozialek baldintzatua dela, antolaketarekin erlazionatutako faktoreek baino indar handiagoa hartzen dutela (Zhu *et al.*, 1997: 84-96). Ondorengo ataletan zehar beraz, aipatutako mugez gain, aztergai ditugun kazetari taldeei bereziki atxikitzen zaien bestelako presio guztiak ezagutuko ditugu, eta horrek bezain besteko garrantzia duena, zedarri horiei aurre egiteko ze ikuspuntu eta portaerak garatuko dituzten.

Ondorengo kapituluetan beraz, Donostiako Miramon parkean kokatutako Euskadi Irratiko (EITB) idazgeletan lan egiten duten kazetarien lan-errutinak eta ohitura horien inguruan agertzen dituzten portaerak azaltzen ditugu. Horretarako, Philip Schlesinger-en *Putting 'Reality' Together. BBC News* (1987) lana izan dugu erreferentzia nagusi eta beharrezko, bere antzintasuna ikusita ere, metodo aldetik eta gauzak kontatzeko aldetik gaurkotasuna galtzen ez duen lana delako. Klasikozat har dezakegu. Horrez gain, David Domingo (2008), S. J. Taylor (1984), Gaye Tuchman (1978) eta Jeremy Tunstall-en (1971) lanak ere, batzuk aipatzearen, oso baliagarriak gertatu zaizkigu. Izan ere, bertan garatzen diren behaketa eta kazetaritza eredu eta egiturek, gure lanean garatutako behaketak xedatzen eta lan-ohituren ezaugarrien adiera topatzen lagundu digute.

8. EUSKADI IRRATIA: KAZETARIEN PROFILAK ETA JARRERA-JOKAMOLDEAK

EITBren legepean sortutako lehenengo hedabidearen idazgela nagusia bertan, Donostian, kokatzen da, eta beraz, nahiz eta beste hirietako egoitzetan ere (Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Baiona, Brusela) Euskadi Irratirako edukiak sortzen dituzten kazetariak egon, Gipuzkoako hirian kokatutako idazgeletan bideratutako zuzeneko behaketek irratiko kazetarien prozesu nagusiak (aurre-emisioak, zuzenekoak, bilerak, emisio ostekoak, eta abar) jasotzea ahalbidetu dute. Bileretan jasotako materialei dagokionez, aipatzekoa da ez dugula aktarik [*minutes* esaten diote ingelesek] jaso, beste ikerketa etnografiko batzuetan horrelakoak batu izan dituzten arren -"bi bilera garrantzitsuren zehaztasunak zabaltzen dira albistegietako unitateen akten bitartez" (Schlesinger, 1987: 141)-. Gu egondako batzarretan ez dute halako agiririk sortzeko ohitura, baina esan beharra dago EITB taldearen baitan hiru hilabeterik behin egiten diren goi mailako bilera editorialetan bai burutzen direla bilera agiri horiek (Larrañaga, et al., 2011). Donostian egindako behaketak beraz, Miramon-eko egoitzako bigarren pisuan bideratu dira, Euskadi Irratiak bere idazgelak eta estudioak dituen espazioa; bertan kokatzen dira 62 kazetari (74tik). Miramon-eko egoitzak osotasunean hiru pisu ditu, Euskal Telebistaren fikziozko produkzioa bertan egiten baita. Beraz, Euskadi Irratiaren kasuan alde batetik, idazgela nagusia dugu (irudia 7). Idazgela nagusiaren ondoan dago estudio nagusia (irudia 8); bertan zuzenean emititzen dira magazin nagusiak eta albistegi nagusiak. Horren aurrean grabazio gela txikia dago, eta hortik buletinak egin eta emititzen dira orduz ordu. Idazgela nagusian kokatzen dira albistegietarako lan egiten duten kazetari gehienak (kulturakoak ez), goizeko eta arratsaldeko magazin nagusietako kazetariak, kiroleko kazetariak, asteroko saio batzuen kazetariak ("Andromeda"-ko arduraduna kasu), logistika arduraduna (teknikoak koordinatzen dituen), eta baita Albistegi eta Programazio Buruak. Izan ere, azken horien bulegoak erredakzio barruan kokatuta daude (irudia 9), sabai bako eta kristalezko pareta gardendun espazioetan; itxura bera duen bilera gela txikia ere kokatzen da toki berean. Aipatu baita Euskadi Irratian ez dagoela fikziozko istorioetan oinarritutako tarte berezirik. Beraz, magazinak aipatzean ditugunean, goizean eta arratsaldean gaurkotasunaren markoan kokatutako gaiak lantzen dituzten bi eta hiru ordu bitarteko saioez ari gara (taula 2), magazinaren aurkezleak (editorea dena aldi

berean) bere kazetari taldea eta kanpoko kolaboratzaileen/elkarrizketatuez osatua. Programak aldiz, egunero edo astero gai edo arlo zehatz bati lotuta egiten diren saioak ditugu, unibertsitate mailako heziketa, kultura, zientzia eta dibulgazioa, musika (*tekno-dance*, euskal musika, klasikoa, rocka), kirolak (arraunak, pilotari buruzko programa berezituak) edo gai sozialak hizpide dituztenak.

Goiza		Arrats.		Gaua	
5:05	Goizeko izarra	14:30	Kostaldeko trena ¹	21:04	Klasikoak eitbn
6:00	Goiz kronika	15:08	Kostaldeko trena	22:08	Hiru erregeen mahaia
6:10	Goizeko izarra	16:08	Arratsaldekoa	23:00	Egunbete
7:00	Albiste faktoria	17:08	Mezularia	23:15	Ilargipean
9:30	Faktoria	19:00	Egunak Gaur	0:05	Izar betaurrekodunak
12:30	Oilategia	19:30	Kirolak	1:05	Hiru erregeen mahaia
13:00	Goizak gaur	19:50	Egunak gaur	2:05	Klasikoak eitbn
14:05	Kirol legez	20:05	Arratsean	3:05	Arratsean
				4:05	Ilargipean

Taula 2: Euskadi Irratiaren programak agertzen dituen programazio teorikoa, alegia, gure ikerketan kontuan izan diren kazetarien programen integrazioa azaltzen duena. ¹ Orain "Musikatea". Iturria: Autoreak egina.

Bestalde, erredakzio nagusia atzean utzi eta pasillo estua zeharkatzen badugu, bidean hiru grabazio estudio -programentzako grabatutako piezak egiteko- eta *Gaztearen* estudio nagusia -EITBko radio formula- topatuko ditugu; korridorea amaitzean erredakzio multimediarara iritsiko gara eta bertako lehenengo mahaietan Euskadi Irratiko programetan lan egiten dute kazetari gehiago daude kokatuak: asteburuetakozko magazin nagusiko kazetariak, eduki kulturalaz arduratzen direnak (albistegi zein programetarako, baina gehienak programetarako), astean behineko programetara dedikatzen diren kazetarien gehiengo ere han dago, umorezko saion lan egiten dutenak, eta baita Euskadi Irratiko edukiak internetera igotzeaz arduratzen den kazetaria -horrez gain larunbat goizeko teknologia berriei buruzko saioa aurkezten du-. Mahai horien aurrealdean bi bilera gela daude, eta goizeko magazineko lan-taldea horietako batean elkartzen da egunero emisio osteko batzarrerako (gela honek izena du, "Miramon 01"). Oro har, espazio honetan Euskadi Irratiko kazetariak gutxiago dira idazgela nagusiarekin alderatuz, beraiekin batera beste hedabide batzuetarako lan

egiten duten kazetariak baitaude, esaterako, Radio Euskadi-k Donostian dituen bost lankideak -bat kulturarako eta lau albistegietarako-. Gainera erredakzioaren atzealdean internetekoak kokatzen dira. Azkenik esan, ikerlari honek behaketen bidez ezagutu dituen bilera gelak aipatutako erredakzio nagusiko (txikiak, kristalezko hormadunak eta irekiak, ate barik) eta erredakzio multimediakoez (besteak baino handiagoak, horma ilunekin eta atearekin) gain, eraikineko hirugarren solairuan eta gelak "Miramon 03" du izena.

Dena dela, behaketez gain sakoneko elkarrizketez ere baliatu gara eguneroko lan-ohituren nondik norakoak zehaztasun gehiagoz agertu ahal izateko. Izan ere, apropos hautatutako kazetariekin burututako solasaldi luzeek, irratiko hainbat barne-dinamiken ikuspegi subjektiboak ezagutzeko aukera eman digute eta era horretan, gure behaketetan planteatutako gaietan aktoreen optika ere eransteko parada izan dugu.

Garrantzitsua ere bada azpimarratzea, behaketa eta elkarrizketen bitartez irrastian ematen diren eduki-sortze prozesu ahalik eta zabalena eskuratzen saiatu gara. Kazetarien idazgeletan lan-ohiturak ikertzen dituzten lan akademiko nagusienak albisteen zertzean oinarritzen dira, bestelako kategoriak kanpo utziaz. Azterlan honetan, albistegien lanketa prozesuak eta bertako eguneroko lanari buruzko hautemandako auziak nagusi izanik ere, programen eta kirolen kategoria ere aintzat hartu nahi izan dugu. Hautu honen zergatia azaltzen erreza da: orain arte ez da lan sistematikorik egin, landa-lana oinarri duen ikerketa sistematikorik abiatu, EITBri buruz bere osotasunean. Lehenengo korporazio mediatikoa dugu Euskal Herrian eta aurrenekoa euskara hutsezko ekoizpen hedabidea. Hori horrela izanda, beharrezkotzat ikusi genuen behin irrastian funtsatutako azterketa egitea erabakita, irrastia bere osotasunean sortzen duten dinamiken eta aktoreen eginbehar eta jokamoldeak jasotzea. Gainera, hasieratik begietsi genuen harreman handia zegoela kategoria batetako eta bestetako kazetarien artean, edukiak partekatzeko, datuen inguruko kontsultetarako zein istorioen jarraipena egiteko. Beraz, *a priori* albistegi eta programen artean lokarri inportanteak daudela esan zitekeen, batak bestea elikatzen duen heinean. Kiroletako kazetariak, Kirol Sailaren barnean albistegietan edo programetan lan egiten dute, une puntaletan programetarako lan egiten duen

kazetari batek albistegietan esku-hartzea izan arren, edo kontrara. Alabaina, kiroltako kazetariak irratia lantaldearen %13a izanik, eta albistegietakoak eta programetakoak %45,9 eta %40,5 hurrenez hurren, azken bi kategoria hauetako kazetarien lan-ohitura eta ikuspuntuek arreta handiagoa jaso dute.

Ekoiaren ohikeriek bere biziko eragina daukate albistegi eta programen egituratzean, eta horrexegatik, beren produkzioaren pausu eta ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzea kazetarien jarrerak eta irratia eskaintza testuinguruan jartzera zuzentzen gaitu. Egia da zuzeneko behaketek gehienetan mesfidantza pizten dutela kazetarien artean, baita sakoneko elkarrizketak egiteko nahiak -nahiz eta bigarren honetan, kazetariarekin banaka eta bakarka egoteko denbora gehiago izanez, bere errezelo eta barrerak leuntzeko aukera efektibo gehiago dituen ikerlariak-. Behaketak egiten hasi ginenean, oraindik gure rola “ezezaguna” zenean, kazetari batek baino gehiagok galdetu zigun ea SGAE-koak ginen, edo ea beste hedabide baterako lanean geunden; behatutako idazgelaren arabera erreakzioak desberdinak ziren. Beste kasu batzuetan kazetariak beren nagusienganako kezak agertzen zizkiguten, ikerlariari “salbatzaile” edo “salatzaile” rola atxiki nahirik bezala.

Alabaina, behaketak baliagarriak izan zaizkigu oso irratian lanaren planifikazioa inprobisazioa baino arruntagoa dela adierazi eta frogatzeko; eta are gehiago, denbora edukiei baino, hein handi batean esku artean dituzten edukiak ezarritako denbora tarteei egokitzean datza kazetarien zereginak. Horrez gain, kontuan izan behar dugu beti ere irratia gurpilari jaten eman behar zaiola orduro, alegia, gauen ere buletinak daudela -24 orduz- eta beraz albistegietako editore eta kazetariak, albiste nagusirako berriak prestatzeaz gain, ondorengo orduz orduko buletinak elikatzeaz ere arduratu beharko dira. Honek, batez ere albistegietako kazetariak denborarekin duten arazoko harremana agerian uzten du; eskuarki kazetariak gaien inguruan sakontzeko eta gogoeta egiteko aukera aho batez kanpoan laga behar dute landu beharreko gertaeren kopurua denbora tartea soberan gaintzen duelako. Horregatik, geroago ikusiko dugunez, eguneko *running order* edo eskaleta sortzeko albistegietan berealdiko garrantzia izango dute beste komunikabideek eta albiste agentziek estrukturatzen dituzten albistegiak. Era honetan, espezializatutako kazetariak baino ez dute izango arlo baten inguruan hausnartzeko aukera, baina kazetari espezializatu hauek ez dira

nabarmen Euskadi Irratiko idazgeletan, are gehiago, ez da kazetariak berezitzeko heziketarik finkatu enpresaren aldetik. Albistegietan kulturen, politikan eta nazioarteko gaietan ageri dira espezializatutako kazetariak, soilik bana azkeneko bi arloentzako eta hiru lehenengoarentzat. Jakina dugu espezializazioak kazetariaren lanari eta bere sentrazio pertsonalari egiten dion ekarpen positiboa: Gasteizko egoitzan politika gaietarako -Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren berri eman zuten- beren-beregi zegoen kazetariaren ikuspegitik, bertan egon zen denbora izan zen “laboralki nik euki dudan esperientziarik aberasgarriena [...] aukera ematen zizulako gai bertsuak lantzeko egunero, ze hemen [Euskadi Irratiko Donostiako erredakzioan] tokatzen zaizu egun batean A, hurrengoan Z eta bestean J eta gehienetan dakizkizunak [gai baten inguruan] dira bi zertzelada” (interviews' producer and presenter of news3, 2012).



Irudia 7: Euskadi Irratiko kazetarien idazgela nagusia. Erredakzio honetan albistegietako eta kiroltako kazetariak daude batez ere. Iturria: Autoreak egina.



Irudia 8: Euskadi Irratiaren estudio nagusia. Albistegi eta magazin nagusiak bertatik emititzen dira zuzenean. Iturria: Autoreak egina.



Irudia 9: Kazetariak egunerokoan gehien erabiltzen duten bilera geletako bat dugu irudikoa, idazgela nagusian kokatua. Horren ondoan, Albistegi eta Programazio Buruen bulegoak ageri dira. Iturria: Autoreak egina.

8.1. Albistegien eta programen sorketa zikloa

Gaur egun Euskadi Irratian hiru eduki kategorია desberdin daude, bakoitza bere zuzendaritzarekin (kasu honetan izenak ematea zilegi ikusten dugu kargu publikoak izanik lehenago ere hedabideetan ezagunak egindakoak direlako): Albistegi Burua

(Arantza Kaltzada), Programazio Burua (Kristina Zorita) eta Kiroletako Koordinatzailea (Txetxu Urbieta) ditugu horiek, nahiz eta praktikan azken horren zereginak Kirol Buru baten berberak izan, duela lau urtera arte kiroletako langileak Albistegietako Buruaren menpe egon dira eta 2012tik aurrera Txetxu Urbieta dugu kiroletako lankideen buru Kirol Koordinatzaile tituluarekin. Hiru kategoriak bananduta egon arren, beren artean elkar elikatzen direla esan dezakegu, batez ere albistek eta programak. eta horregatik euren artean etengabekoa da eguneroko harremana. Behaketa egindako unean oraindik ez zegoen Kiroletako Koordinatzailek, beraz albistegi eta programetakoaren artekoa behatu ahal izan dugu batik bat. Edukien sormen-prozedura ulertzeko beren buru eta editoreek dituzten erlazio eta bilerak ikasi behar ditugu lehendabizi. Albistegi buruak egunero goizeko 10.30tan bilera egiten du Radio Euskadiko, ETBko eta Eitb.com-eko albistegietako buruekin Euskadi Irratiko erredakzio nagusiaren barruko gelatxoan (kristalezko horma gardenak dituena); Radio Euskadiko eta ETBkoa telefonoz sartzten dira, interfonoarekin. Bilera gaztelaniaz egiten da eta bata besteari nondik abiatuko diren galdetzen diote eta zenbait gai komunean jarri; hortik aurrera editore bakoitzak bere ordena emango dio albistegiari, emaitzak zenbati kasutan desberdinak izango direlarik (horretatik aurrerago mintzatuko gara). Ondoren, Euskadi Irratiko albistegi buruak irratiko informatibo desberdinetako editoreekin bilduko da, jarraian zehaztasun gehiagoz ikusiko dugunez.

Programazio burua, Euskadi Irratiko aste barruko bi magazin nagusietako editoreekin biltzen da egunero, asteburuetako magazin nagusiko editorearekin bilera esporadikoagoak dituenaz. Alabaina, programa guztiak lantzen ari diren edukiak ondo kontrolatuta izateko, 2009an izendatu zuten buru honek (zuzendaritza taldea aldatzearekin batera) Programetako Edukiak izeneko dokumentua sortu zuen, kazetari guztiek profesional kideek egingo dutenaren berri jakiteko. Horrela, programa bakoitzeko kazetariak fitxa bat bidaltzen diote programazio buruari aurreikusten dutena edo bideratuta dutena azalduz. Programazio buruak fitxa guztiak begiratzen ditu gonbidatuen edota elkarrizketetarako zein erreportajeetarako gaien errepikapena ekitzeko –programa desberdinek gai bera jorratzea alegia-, eta koordinazio orokor bat ahalbidetzeko. Behin guztia txukunduta, programazio buruak dokumentua programetako arduradun guztiei bidaltzen die, eta horrela kazetari denek dakite larunbatetik ostiralera (asteburuetako programak ere sartzten dira) zer egongo den, zer

aurreikusten duten edo zer den egingo dutena edo zer nahi luketen egin idazteko. Ostiralean bertan bidaltzen zaie guztiei, astearen ikuspegi orokora bat izateko. Era honetan, kazetari guztiek guztien edukien berri izateak balio die pentsatuta zuten gaien bat zokoratzeko edo aldi berean, hortik abiatuz ideia berri bat sortzeko, beste norbaitek proposatutakoari buelta bat eman eta gai berriak sortzeko alegia. Programetako Edukien dokumentu horrek programen arteko koordinazioa ahalbidetzen du, nahiz eta horrek ez duen esan nahi programa bakoitzak jadanik astebete lehenago badakiela zer egingo duen; dokumentu horretan “hutsuneak egoten dira, jakina, txarra izango litzateke dena beteta emango bagenu ze horrek esan nahi du ez gaudela aktualitatearen harian” (Programazio Burua, 2011). Hutsune horiek betetzeko programazio burua bere bulegoan egoten da astelehenetik ostiralera, Euskadi Irratiko idazgela nagusiaren barruan dagoen kristalezko horma gardeneko bulegoan, ondoan albistegi burua dagoela. Ikusi dugu bi buru hauek ez dutela ezarritako ordutegirik bilerak egiteko, nahiz eta ia egunero elkarrekin bazkaltzen duten eta tarte hori alde batean zein bestean jorratutakoaren berri emateko baliatzen duten. Hala ere, albistegi eta programazio buruen bulegoak bata bestearen ondoan egoteak beren artean harreman zuzena eta etengabekoa egotea bermatzen du, bat albistegietako jendearekin bilera izan duenean programetakoari jorratuko dituzten gaien berri ematen diola, eta alderantziz. Kiroletako koordinatzailea ere idazgela nagusian kokatzen da.

8.1.1. Bilerak, gai-ordena eta erreferentzia informatiboak

Euskadi Irratian bi albistegi nagusi daude, eguerdiko albistegia (13.00etatik 14.00etara) eta arratsaldekoa (19.00etatik 20.00etara). Horrez gain, goizeko albistek ditugu 07.30tan “Albiste Faktoria” saioan (07.00etatik 09.30etara irauten du); halere, oso goizetik denez bertan egiten dena da albisteen berri eman egunkariak egun horretan argitaratutakoaren bitartez. Horrez gain, 09.30tara arte irauten duen tartean -ondoren goizeko magazina dator- gonbidatuz osatutako tertuliak eta aukeratutako pertsonaia publikoren bati egindako elkarrizketak ere barne-hartzen dira. Gaueko 23.00etan ere “Egunbete” albistegiak 15 minututan, 23.15tara arte, egunean gertatutako berri nagusiak laburbiltzen ditu, orduz orduko buletina baino luzeagoa den albisteetarako tartean. Aitzitik, irratian albistegi nagusi giza ezagutzen direnak eguerdiko eta arratsaldekoak dira, beren artean ere egitura desberdinak jarraitzen

dituztenak. Honez gain, jakina, orduro eta 24 orduz igortzen diren lau eta zortzi minutu bitarteko buletinak ditugu, beti ere aurkezle baten gidaritzapean.

Eguerdiko albistegiaren, “Goizak Gaur” izena duena, edukien banaketa denbora-tarte hauetan egiten da: 13.00-13.30 politika, gizarte, ekonomia eta nazioarteko gaien inguruko albisteak; 13.30-13.50 “Gertukoak” tarte berria (2009tik irratian) tokiko informazioari irekitako gunea; 13.50-14.00 kulturaren hainbat ikuspegi jorratzen dituzten albisteak. Ikusten dugunez, kirolak ez dira albistegi nagusi horretan sartzen; kirolak “Kirol Legez” saioan jorratuko dira 14.05tik, 14.00etako buletinaren ondoren, eta 14.30etara arte. Ondoren, “Egunak Gaur” arratsaldeko albistegian “Gertukoak” tarte desagertu egingo da kirolak bere baitan barneratuz: 19.00-19.30 politika, gizarte, ekonomia eta nazioarteko gaien inguruko albisteak; 19.30-19.45 kirol albisteak; 19.45-20.00 kultura albisteak. 20.00etan buletina, “Egunak Gaur” albistegiko editore eta aurkezleak esan berri denaren inguruko laburpena egiten du, eta azkeneko minutuetan albistegi nagusian eman ez den zerbait jazo bada, hori ere helarazten du aurkezleak. Gauza bera gertatzen da aurretik aipatutako “Goizak Gaur” albistegian. Gauzak horrela, bi albistegi nagusietan kazetariak dituzten rol eta lanei adi egongo gara.

Albistegi bakoitzaren ekoizpena kazetari lantalde desberdinen bitartez kontrolatzen da, eta kazetarien artean kaleko kazetariak eta estudiokoak daude -‘on the desk’ edo idazgelan bertan kokaturikoak-. Kaleko kazetariak gutxiago daude, “lantalde eskasa daukagulako” (programazio burua, 2011). Albistegietan bi pertsona daude goiz eta arratsalde kalera irteteko, alegia, informazioa kalean eskuratzeko; gertukoak lantzen dituen kazetari taldea gehienetan bai irteten da prentsaurrekoetara eta aurkezpenetara, eta programakoak ere tarteko, batez ere inkestak egitera. Beste askotan, esleitu zaien gaiaren arabera geratzen dira kazetariak idazgelan edo ateratzen dira kalera albistea estaltzera, baina editore-aurkezleak edo albistegi/programen arduradunek idazgelatik betetzen dute beti beren lana. Beraz, eguerdiko albistegietako editoreak kazetariei albistegi horretarako estali beharreko gaiak adjudikatzen dizkie, eta arratsaldeko editoreak berdin. Aldi berean, kazetari horiek 2 edo 3 prentsaurreko estaltzen badituzte, eguerdirako pieza batzuk prestatuko dituzte pertsonaian soinu-zati edo korte jakin batzuekin baina grabatuta utziko dituzte baita beste albiste zati

batzuk -beharbada bestelako aldagai edo korteekin-. Honenbestez, editoreak, editore laguntzaile batekin, egindako gaien aukeraketa jarraituz, kazetariak gertaera zehatz batzuk denbora tarte zehatz batean jaso, landu eta emititu beha dituzte; hortaz, kazetariak abiatzen duten edukien zertze-prozesua programazioak agintzen duen denbora tartetara egokitu behar dira.

“Gaur Egun” izeneko eguerdiko albistegiarekin hasiz, bertako editore nagusia eta editore laguntzailea 07.30tan heltzen dira idazgela nagusira. Orduan editore nagusia hasten da begiratzen agenda instituzionalak (irradi publikoa izanik honek leku handia hartzen du, Legebiltzarra, Brusela, eta abar.), aurreikuspenak zeintzuk diren - aurreikuspenak gauek datoz eta beraiek osatu egiten dute, eta izaten dira geografikoki zer gertatu den non (Euskal Herrian, Espainian, eta abar.), eta arloka zer jazo den (politikan, ekonomian, sozialean, kulturean, kirolean eta abar.) (*ikus eranskina4*)-, zer dagoen agendan, eta zer ez, zer albiste agentzietan; azken hauek gazteleraz edo ingelesez izaten dira (Efe, Europa Press, Reuters), euskarazko agentzietan ez baitago. Aldi berean, editore laguntzaileak egunkarien hustuketa bat egiten du, batez ere nazio eta estatu mailako egunkariak (*Berria, Gara, Diario Vasco, Diario de Noticias, Deia, El País, El Mundo, El Correo, 20 minutos, Diario de Navarra*, eta abar) baina baita ingelesezko edo frantsesezko hedabideak, ikusteko irradian zer sartu daitekeen edo panorama osatzen joateko. Editore nagusiak ere kontsultatzen ditu, batez ere sarean (Euskal Herrian argitaratzen direnak eta Estatu espainiarreko pare bat), eta BBC eta CNN ere, lehenengoa batez ere. Gainera, goizaren errebaso horretan oso garrantzitsuak dituzten beste iturri batzuk etxe barruko hedabideek sortutako edukiak dira. Euskadi Irratian esaterako “Albiste Faktoria” eta “Faktoria” saioetan gaurkotasanari lotutako gai asko daude elkarrizketa posturan. Aldi berean, ETBn eta Radio Euskadiren ere ia goizero egoten dira elkarrizketak, politikoak edo sozialak, eta horiek ere jarraitzen dituzte. Inguruko beste irrati-tara ere jotzen dute (*Euskalerrria Irratia, Bizkaia Irratia, Onda Vasca, SER Sociedad Española de Radiodifusión, Radio Nacional de España, Radio France Bleu Pays Basque*, besteak beste), eta horren egokitasunaz edo egokitasun ezaz gogoeta asko egin dutela aitortzen digun arren editore laguntzaileak, irradi honek bere txikitasunean duen beste errekurtsio bat da toki guztietara iritsi ezin direnez, beste irrati-tan emandako korte bat harrapatu eta teletipoen edo beste informazioen bitartez albistea egitea.

Hurrena editoreak eta editore laguntzaileak bateratze-lana egiten dute, eta editoreak zerrenda batean hustuketa bat egiten du, gutxi gora-behera zertara iritsi daitezkeen edo albistegiaren ardatza zein izan daitekeen erabakiaz. Horren ondoren, 10.00etan bilera egiten dute eguerdiko editoreak, gertuko gaien editoreak (eguerdiko albistegian “Gertukoak” tarte betetzen duenak) eta informatibo buruak; bilera horretan edukien bateratzea egiten da jarraituko diren gaiak aurreikusiz; editoreek aurreikuspenak jasotzeko EFE agentzia dutela nagusi ikusten dugu. Horren ondoren, eguerdiko editoreak eta editore laguntzaileak bilera egiten dute kazetariekin, gaien partiketa eginez eta kazetariak deialdietara bidaliz, informazio bakoitza nondik jasoko duten erabakiz eta bizkarrezurra edo gai-ordena xedatuz. Gai-ordena definitiboa 12.45tan ixten da (informatiboari 13.00etan ematen zaio hasiera), baina alde horretatik esan beharra dago eguerdiko albistegia oso berezia dela, editoreek aurreikuspen bat egin dezaketelako, baina azken orduan eman beharreko zerbait gertatzen bada -esaterako, lehendakaria Legebiltzarrean agertzen dela datorren astean aurkeztuko duen bake plana zein den azalduz- hori sartu egin behar dute, emisioan aurreikusitako ordena dezente aldatuz: “eguerdikoak dituen berezitasunak dira, arratsaldekoak edo hurrengo goizekoak ez duen bezala, hor gehiago gauza itxiekin jokatzeko duzulako, eta hau irekiagoa da. Horregatik zailtasun handiagoa du eguerdikoak” (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012).


“Goizak Gaur” eguerdiko informatiboan gertuko berriak helarazteaz arduratzen den tarte dago, “Gertukoak” izenekoak. Azken tarte honetako editorea goizen goiz iristen da idazgelara, eguerdiko albistegirako lan egiten duten kazetariak bezalaxe. Bere 20 minutuko tarteko edukiak prestatzeko agenda, finkatuta dauden deialdiak (erakundeetatik, elkarte sozialetatik), prentsa idatzia -euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako Euskal Herriko prentsa- eta “belarria” ditu erabilgarri, batez ere belarria, “informatibo lokal bat egiteko belarriak asko funtzionatu behar du [...] azken finean, kalean gertatzen dena” (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012). Editore honen kasuan gainera erreferentzia nagusia hedabideei dagokionez prentsa idatzia da, beste telebista edo irrati batzuetako informatiboak baino, eta batik bat informazio lokala dakarten aldizkari eta egunkari zein gehigarriak. Lehenago adierazi bezala, goizeko 10.00etan bi tarteetako editoreak bildu egiten dira informatibo buruarekin. Horrez

gain, gertuko informazioaren editorea arratsaldeko informatibo nagusiko editorearekin ere biltzen da, goizean tarte horretan jorratu nahiz izan duten zerbait nola errekueratu beharko litzatekeen azaltzeko esaterako.

Une honetan Euskadi Irratian antolatuta dagoen informatiboaren gorpila jarraituz, “Gaur Egun” arratsaldeko informatiboko (19.00etan) editore nagusia 13.00etan heltzen da Euskadi Irratiko idazgelara. Lanera sartzean 13.00etan emititzen ari diren “Goizak Gaur” albistegia entzuten du bere apunteak hartuz. Ondoren, albistegi horretako editore nagusiak 14.10tan bilera egiten du arratsaldeko albistegiko editorearekin, eta hor, lehenengoak bigarrenari -eguerdiko editoreak arratsaldekoari-puntu konkretu batzuei buruzko informazioa pasatzen dio, besteak beste garrantzitsuenak: zer gai jorratu dituzten, gai horiek ze profesionalak jarraitu dituzten, landutako kronika edo albiste guztiak itxita geratu diren, zer dei egin behar izan diren erabakitako gaiak lantzeko, eta arratsaldean zer egin beharko litzatekeen ere. Finean aurretik igorritako informatibo osoaren erreparoa egiten dute, gai guztiak berrikusiz, notizia bakoitza zein kazetarik egin duen hitz eginez, eta arratsalderako zein aurreikuspen dauden edo zer gelditu den zintzilik komentatuz. Tarte horretan, bi editore nagusiak bileran dauden bitartean, arratsaldeko albistegiaren editore laguntzaileak Radio Euskadiko 13.00etako informatiboa entzun duenez han zer gai jorratu diren zerrendatzen du, ondoren editorearekin komentatzeko ze diferentzia dauden berak proposatutako gai-ordenarekin edo berak sartu ez duen zerbait sartu duten ikusteko.

Albistegian sartuko dituen edukiak erabakitzeko, editoreak gutxi asko pausu hauek jarraitzen ditu. Lehenengo irratiko kazetariak goizeko beste saioetan gaurkotasunezko zein gai jarraitu duten begiratzen du; ondoren, Radio Euskadi-ko informatiboari erreparatzen die; gero Euskal Herriko egunkari digitalen eta Espainiako batzuen -*El País*, *El Mundo*, *La Vanguardia*- gainbegiratu egiten dute. Horrekin albistegian egongo denaren zirriborroa egiten du editoreak (irudia 10). Horrela, 16.00etarako editoreak eskaleta idatzita dauka, landuko diren gaiak zeintzuk izango diren eta gai bakoitza nork egingo duen ezarriz. Iturriari buruz eguerdiko editore nagusiak komentatzen duenez, gaur egun irradian ez dira garai batean bezala -gogora beza kazetari hau irratia sortu zeneko lan taldekoa dela, 1982an- egunkariaren morroi

sentitzen, egunkariak argitaratutakoaren inguruan (*Deia, Egin, Diario Vasco, El Correo*) emititzen ari ziren; orain hori erabat aldatu dela dio, orain beraiek burutzen dute beren sarea, eta internetek ere askatasun gehiago ematen die lan anitzagoak jorratzeko. Horrez gain, editore honek Euskadi Irratiko albistegietan programetan lantzen denak ere garrantzia duela nabarmentzen du. Esaterako, goizeko “Faktoria” (9.30-12.30) magazinean eta arratsaldeko “Mezularia”n (17.00-19.00) gaukotasunari lotutako gaiak; “ez da informatiboetako sarea bakarrik, programetako sarea ere bai. Koordinatuta gaude” (eguerdiko albistegiko editore nagusia, 2012). Adibidez, “Faktoria” saioan Zumaian egin zen urteurrenari buruzko egunean elkarrizketak egin zituzten, eta eguerdiko albistegiko editoreak erabaki zuen merezi zuela horri tarte bat egitea, aurreko informazio lanketa horiek erabiliz.




Irudia 10: Euskadi Irratiko kazetariak gehien erabiltzen dituzten iturriak beren eguneroko lanean 1etik 8rako eskalan (8=gehieneko lehentasuna, 1=gutxieneko lehentasuna). Grafikoan batz besteko balioak adierazten dira. Iturria: Egilearen neurketa.

Gertuko informaziorako gune berezia dagoen bezalaxe, eguerdiko eta arratsaldeko informatiboetan informazio kulturalerako tarte berezitua ere badago. Albistegietarako kultura gaiak lantzen dituzten kazetari gehienek, kultura hizpide duten programetan ere dihardute, hots, “Arratsaldekoa” (16.04tan) eta “Arratsean” (20.04tan) ematen diren programak. Dena dela, programetarako editore bat dago eta informatiboetako kulturako albisteetarako beste bat, nahiz eta biak idazgelan (Donostian) espazio (multimedia idazgelan) eta mahai berean jesarri. “Arratsaldekoa” eta “Arratsean”-eko editorea 09.30tan heltzen da idazgelara eta 10.30tan egiten du bilera bere taldeko

beste kultura kazetariekin, ze gai dauden komentatu eta banatzeko; eta aldi berean, informatiboetako kultura editorearekin etengabeko harremanean dago, bigarren hauek eguneko prentsaurrekoak jarraitzen dituztelako, eta arlo horretan batez ere Bilbon dagoen kulturarako kazetariak kudeatzen du dena. Eguerdiko albistegian kulturak hamar minututako tartea du (13.50-14.00).

Albistegietan kulturako tartea egituratzen duen kazetariarentzat erreferente informatibo nagusiak herri aldizkariak, Europa Press albiste agentzia, eta egunkarietako agendak dira: *Berria*, *Errenteriako Hitza*, *Uztarría.com*, *BizkaiE!*, *Goiena*, *Diario de Navarra*-koa, *La Vanguardia*, *El País*, *Deia*, *Gara*, *Público*, *El Correo*. Lehenago ikusi dugu, oro har kazetariak gehien erabiltzen dituzten bigarren eskuko iturriak hedabideak direla. Horien artean, bide batetik eta bestetik baieztatu dezakegu gaztelerazko eta euskarazko egunkariak direla erabilienak, EITBko beste hedabideek sortutako edukiekin batera (irudia 11). Eduki kulturalak lantzerak dedikatzen den lantaldeak gainera, informatibo nagusienetatik at beraiena propioa den “aurreikuspenen karpeta” du; horrela, *BizkaiE!* aldizkaritik ateratako berri bat karpeta horretan sartzen dute, data hurbiltzen denean erabiltzeko. Kazetari hauen tartea albistegietan motza da, baina saiatzen dira beren lantaldetik kalera irtendako jendearen piezak sartzen (Bilbon dagoen kazetaria kulturarako, programetan eta informatiboetan lan egiten duena), baita beste saioetan elkarrizketatutakoen (“Faktorian” batik bat) nondik norakoak. Dena dela, kulturaren lan egiten duen kazetari bati entzuten diogunez, edukiak lantzerakoan erakundeekiko menpekotasuna handia da; alde batetik irratia bera erakunde publikoa delako, baina baita argitaletxeekin adibidez harremana zuzeneko delako, eta horrela eurek kazetariei zuzenean bidaltzen dizkiete deialdiak eta nobedadeak. Hedabide txiki edo eskualdeetakoetatik ere asko edaten dute, eta horrez gain “Facebook-ean lagunak edukitzea ezinbestekoa da, kultura mailan behintzat bai” (kultura kazetaria, 2012). Izan ere, kultura arloko edukiak sortzeko oso garrantzitsua da elkarrizketak lortzea, artistekin-eta, eta horretarako ezinbestekoak dira hartu-emanak. Gero Bilbon dagoen kazetari bakarrarentzat ere prentsaurrekoetara irteteak garrantzia handia du, hiri horretan gainera kultura prentsaurreko asko egonik.



Irudia 11: Euskadi Irratiko kazetariak gehien erabiltzen dituzten hedabideak bigarren eskuko iturri gisa 1etik 8rako eskalan (8=gehienezko lehentasuna, 1=gutxieneko lehentasuna). Grafikoan batz besteko balioak adierazten dira. Iturria: Egilearen neurketa.

Lan-errutinak behatzerakoan, interesgarria da ikustea aste barrutik asteburura dauden eritmo aldaketak, lan-pausu eta ohiturak gehienetan berdintsuak izaten jarraitzen duten arren. Asteburuetako bi editore daude, goizeko informatiboa egiten duena eta eguerdikoaz arduratzen dena. Dena dela, goizekoak astean zeharko informatiboetarako lan egiten du kazetari gisa, eta beraz, asteburuko prestatzeko editore bakarra dagoela esan dezakegu. Asteburuetako eguerdiko informatiboko editoreak ostegunetik igandera egiten du lan lanaldi osoan, ostegun eta ostiraletan asteburuko kontuak prestatzen egoten denez -kazetari honek Donostiako estudioetatik lan egiten du larunbat eta igandeetan, albistegia zuzentzen eta aurkezten dagoenena, baina ostegun eta ostiraletan Bilboko egoitzan egoten da prestaketa lanetan, Bizkaian bizi denez, hurbiltasunagatik-. Ostegun goizean Bilboko Euskadi Irratiaren idazgela apalera heltzen denean hasten da ikusten ze aurreikuspen dauden, astebururako dauden deialdiak (erakundeetatik, alderdi politikoetatik, elkarte sozialetatik, sindikatuetatik) erreparatzen ditu, euskarazko eta gaztelerazko ia prentsa guztiarekin batera; beraz pil-pilean dauden gaiak ikusi, aukeratu eta erreportajeren bat egitea merezi duen ikusita egiten hasten da; honelaxe azaltzen du berak:

Yo me lo guiso yo me lo como. Joaten bazara Radio Euskadira asteburuak prestatzeko editoreez aparte uste dut daudela beste 3 edo 4 pertsona erreportajeak egiteko. Gurean ez. Beraz saiatzen zara apur bat asteburua perfilatzen horrekin (asteburueta albigietako editore-aurkezlea, 2012).

Ostiral goizean, editore honek batzuetan -ez da ezarritako bilera- informatibo buruarekin hitz egiten du eta beste batzuetan ez, “segun zein da gaia eta azkenean zuk ere behar duzulako nolabaiteko seguritate bat” (2012). Ondoren, ostiral eguerdian bai, ezarritako bilera egiten dute asteburueta goizeko editoreak, asteburueta eguerdiko editoreak eta informatibo buruak; batzar horretan asteburueta aurreikuspen denak errepasatzen dituzte eta gutxi gora-behera -izan ere gero ikusi dugu azken orduko deialdi bat sartzen bada aurretik ezarritakoa aldatu behar dela, baina gutxienez oinarri baten gainean- erabakita uzten da zeintzuk gai estaliko dituzten eta zein kazetari bidaliko duten nora.

Ondoren, asteburueta goizeko 10.00etan bilera egiten dute asteburueta Radio Euskadiko eguerdiko editoreak, Euskadi Irratikoak, ETBkoak eta Eitb.com-ekoak. Ordu laurdeneko bilera izaten da eta editoreentzat baliagarria izaten da inori ezerk ez diola ihes egin ziurtatzeko. Asteburueta eguerdiko editorea goizekoarekin ere elkartzen da bere informatiboa bukatutakoan. Eguerdikoak bere informatiboa prestatzeko batzuetan dauden deialdietara kazetari bat bidaltzen du, kazetaria bera erabiliz iturri bezala agerraldi batean edo manifestazio batean gertatu dena kontatzeko. Hala ere, asteburueta oso kazetari gutxi daude informatiboa osatzeko, bi Bilbon eta bakarra Donostian; gehienetan ezin dira deialdi edo gertaera guztietara *in situ* iritsi. Horregatik, telefonoa ere asko baliatzen dute; esaterako 2012ko otsailaren 19ko asteburuan, aste horretan Euskal Herriko kostaldeetan hilda agertutako izurdeen inguruko kronika egitea erabaki zuten eguerdiko albistegirako, baina jenderik ez zuten, telefonoz kontaktatu zuten *Ambar* izeneko elkartearekin -*Sociedad para el Estudio y la Conservación de la Fauna Marina*/Itsasoko Faunaren Iraupen eta Ikerketarako Elkarte, 1996an sortua-; elkarrizketa horrekin eta agertutako beste iturriekin osatu zuten informazioa.

Programetako alorrera etorriaz, kontuan izan behar dugu orotariko gaiak lantzen dituzten eguneroko 2 edo 3 ordutako magazinak, gai batean espezializatua dagoen astean behineko programaren oso desberdina dela, bai lan prestaketa bai emisio aldetik. Euskadi Irratian gaur egun hiru dira saio izarrak: “Faktoria”, “Mezularia” eta “Amaraura” -azken hau, asteburuetakoko goizeko magazina da- (programazio burua, 2011); irratiko programarik luzeenak dira eta ordu gehien betetzen dituztenak. *Prime time*-a 9.30tatik 12.30tara da, aste barruko bost egunetan “Faktoria” magazinak betetzen duena hain zuzen. Saio honetarako zortzi kazetarik lan egiten dute, editore-aurkezlea barne; zazpi Donostiako egoitzatik eta batek Bilbotik -honek Bilbo aldeko gaiak ere estaltzeko aukera ematen die-. Saioaren editore eta aurkezlea 07.00etan heltzen da idazgelara edo behar izan ezker lehenago eta orduan, saiorako lan egiten duten beste kazetariak bezalaxe, kontaktuak egiten hasten da, elkarrizketarekin harremanetan jartzen, eta gidoia idazten.

Edukiak sortzeko “Faktoria”-ko lantaldeak batez ere sarea eta egunkari digitalak erabiltzen ditu, baina baita kalean ikusi edo entzuten dituzten gaiak, horiek ere interesgarriak izan daitezke programan jorratzeko haien ustez. Saioko editoreak garrantzi handia ematen dio gainera Espainian beste irrati nagusienek egiten dutena ikusteari. Alde horretatik eskolarik onena Kataluniako irratigintza duela dio, “niretzako Espainiako irratigintzarik modernoena han egiten da, eta nik beti begiratzen dut hango irratiak eta beti ideiak berriak sortzen dira” (goizeko magazinaren editore-aurkezle, 2011). BBC-k dauzkan irrati musikalak ere gogoko ditu, oso berritzaileak iruditzen zaizkiolako, BBC Radio 1 esate batera, eta BBC Radio 6 ere jarraitzen du. Kazetari honek 23 urte daramatza irratian, eta iturriei dagokionez gogoratzen du hasiera batean liburutegietara joaten zirela informazio bila edo pertsonaien berri jakitera, edo mailegari buruzko saio espeziala egin nahi bazuten ekonomista eta banketxei bat baino gehiagori dei egin behar zieten; orain informazio guzti hori internetekin eskura izan dezakezula aitortuta ere, telefonoa astintzeari ez diotela utzi azpimarratzen du. *Prime time*-ko saioaren editorearen aburuz “lehen, orain eta gero beti egin beharko da telefonoa hartu eta lehen eskuko informazioa jaso. Edo kalera atera jendearekin aurrez-aurre hitz egitera, hori beti egin beharko da” (goizeko magazinaren editore-aurkezle, 2011). Bilbotik lan egiten duen kazetariari Bizkaia inguruko jazoeren batuketa egitea egokitzen zaio, eta horretarako egunkariak

ditu iturri nagusi; kasu honetan, Bizkaiko gaiak gehien jorratzen dituzten egunkariak izango ditu erreferente -*Deia, El Correo, Gara, BizkaiE, Hitzak; Berria* egunkari euskalduna esaterako Donostian dute erabiliagoa. Kokapen geografikoak iturriak nabarmenki baldintzatzen ditu. Lan-taldeak hitz egin du jada editorearekin emisioaren aurretik eta bakoitzak badaki, aurreko egunetik ere, zer landu idazgelan. Bilbon dagoenak ere komentatu dio zein gai landuko duen editoreari, edo beste batzuetan, editoreak berak agintzen dio eduki bat edo beste lantzeko.

Editore-aurkezlea estudio nagusian -estudio nagusia irratiko idazgela nagusiaren ondoan dago- zuzenean dagoen bitartean, saioko lantaldea erredakzioan ari da lanean, momentuan sartu beharrekoak eta hurrengo egunetako gauzak. Erredakzioa eta estudioa etengabe daude kontaktuan aurkezleak estudioan duen ordenagailuaren txat-aren bitartez. Zuzeneko emisioan ikusten dugu zelan igarotzen diren erredakzio nagusitik estudioira kazetariak, gonbidatuak edo kolaboratzaileak estudioira sartuz edo gidoiaren ondorengo parteak eramanaz aurkezleari eta teknikoei baita. Izan ere, goizeko magazin nagusia dugun hiru orduko iraupeneko programa ezin liteke erabat lortu hasieratik eta horregatik, nahiz eta eskaleta edo gidoi orokor bat izan, orduak aurrera joana ahala saiorako lantaldea hori osotzen joaten da. Behin "Faktoria" izeneko magazin hau bukatzean, 12.30tan lan-talde osoak bilera egiten du; bilera gela idazgela nagusiaren ondoan egon beharrean, ondo pasilloan aurrera joan eta idazgela multimediararen aldean kokatzen den gela handi xamarra da, gai luzexkarekin. Editorea eta beste sei kazetariak gela berean (beti berdinean) biltzen dira eta zortzigarren kidea, Bilbotik sartzen da telefonotik (erdian kokatzen da telefonoaren bozgorailua). Bilera luzetxo izaten da hau, beste batzuk baino luzeagoa bederen, egunean igorritako edukiak komentatzeaz gain, hurrengo egunerako eta egunetarako prestatu behar dituzten edukien aurreikuspena eta esleipena egiten baita. Aurrena, emititu berri dute saioaren komentarioak egiten ditu editoreak eta beste kazetarien iritzia jaso -esaterako, Goya sarien garaian egindako behaketan (2011ko ekainaren 14ean) editoreak esan zuen nahiz eta urduri jarri, ondo atera zela uste zuela; aldiz kazetarietako batek kontrakoa esan zion, lehenago Goya sarien kontuari ez ziotela "kantxa" askorik emango esan zutela eta azkenean gehiegi luzatu direla. Ondoren, hurrengo eguneko gauzak lotuta dauden ziurtatzen du, kazetari bakoitzari banan-banan galdetuz ea zertan den prestatuko zutena; une berean, kazetariak ere topatu

dituzten gai interesgarrien ingurukoak mahai gaineratzen dituzte -maiz *Diario Vasco* egunkaria, Sustatu euskarazko sareko albistegia, edo *ZuZeu* albistaria dutela iturri-. Bilera erraz luzatu daiteke 13.30tara arte, eta jarraian, “Faktoria”-ko editore-aurkezlea, “Mezularia”-koarekin biltzen da.

Arratsaldeko bi ordutako magazinak “Mezularia” izena du eta sei kazetarik osotzen dute lan taldea, lau Donostiako idazgelan daude kokatuak eta bat Iruñako egoitzan. 11.00etan iristen da saioko editore-aurkezlea idazgelara; irratiko idazgela nagusiaren barnean dagoen bilera gela txikian (kristalezko hormak dituena) dauden egunkariak begizatzen ditu, baita digitalak bere mahaiko ordenagailutik. Handik ordu betera edo ordu eta erdira, 12.00etan edo 12.30tan, bere taldearekin elkartzen da; Iruñean dagoen kazetaria telefonoz sartzen da. Erredaktore guztiek dituzte koadernoak eta gai desberdinak agertzen dituzten albisteak esku artean inprimatuta -besteak beste, *Berria*, *Diario Vasco*, *Expansión* 12-tik ateratakoak-. Erdian lehen aipatutakoa programazio buruak sortutako Programetako Eduki-en dokumentua dago, eguneko emisioaren gaien ordena kokatzen laguntzen duen beste dokumentu batekin batera.

Erredaktore bakoitzak ondorengo egunetarako gaiak proposatzen ditu -batik bat astelehena denean astean zehar landuko dituztenak zerrendatzen dira-; editorearen oniritzia jaso ondoren, zein kazetarik landuko duen erabakitzen da. Gero, egunean bertan emitituko duten saiorako landuko dituzten edukiez jardungo dira, eta editore-aurkezleak saioa zerekin hasiko duen ere esaten du -maiz kalean entzun duen gai edo esaera batekin ekiten dio, esaterako, behin Amarako (Donostia) autobus geltokian emakume bati umea erretxinduta zuela entzun zion, eta hitz horrekin hasi zuen saioa-. Edukiak lantzeko asko erabiltzen dituzte irratiak hiri desberdinetan banatuta dituen kazetariak ere, esaterako New York, Madril, Bartzelona edo Bruselakoa; albistegietarako kulturako eta gertuko gaiak lantzen dituzten kazetariak ere aipatzen dira maiz, berek landutako edukiak erabiltzeko asmoa dagoenean -goizeko magazineko editoreak bihar zer egingo dugu planteatzen duen bezalaxe, honek arratsaldean zer galdetzen du-. Egunekoa lotuta dutenean, hurrengo egunean landuko dutena adosten dute.

“Mezularia”-ko editoreak bere lan-taldearekin bilera bukatzean, “Faktoria”-ko editorearekin eta Programazio Buruarekin batzen da. Bilera hau 13.30tan izaten da idazgela nagusian txertatuta dagoen kristalezko hormadun bilera gelan, mahai borobil txikia duena. Alde batetik, bilera baliagarria izaten da arratsaldeko editorearentzat goizeko programan erabili dituzten gaiak eta korteak berreskuratzeko; izan ere, arratsaldeko magazinean editoreak eguneko ahotsen bilketa egiten du eta orduan goizeko material batzuk biltzen ditu, “eta horrela auto-promozio pixka bat egiten dio batak besteari” (programazio burua, 2011), eta alderantziz baita ere. Horrez gain, bi editoreek landuko dituzten (egun berean edo hurrengoetan) edukien eskema eramaten dute: horrela programazio buruarekin gai berriak komentatzeko aukera dute, baina baita batak bestea zer egingo duen jakiteko eta gaia ez errepikatzeko. Beraz, egunero-egunero errepasatzen da bakoitzak bere tarterako sortuko dituen edukien gaiak; editoreen artean gai eta ideia berriak sortzen dira, eta zuzendaritzak ere, programazio buruak kasu honetan, landu beharrezko beste gai batzuk ere komunikatzen dizkie bilera hauetan. Argi ikusten da baita arratsaldeko magazineko editoreak (irratian 27 urte daramatzanak eta lehenago ETBko albistegietako zuzendari izandakoak) irratia emankizunen kalitatea lehenesten duela bere programaren distiraren gainetik; gai berri eta mamitsu bat agertzen denean, goizekoari esaten dio “nik ez daukat problemarik hori sartzeko, baina ulertzen dut zurean [goizeko magazineko editoreari] sartzen baduzue, *prime time*-an ematea hobeto da” bezalakoak esaten baitizkio.

Arratsaldeko magazinaren emisioan editore-aurkezlea eta haren ondoan dagoen lan-taldeko beste kazetari bat dira une oro estudioan jesarrita dauden bakarrak; lan-taldeko beste kazetariak joan etorrian ibiltzen dira idazgela nagusitik estudioara. Beste saio eta albistegietan bezalaxe, teknikoak adi egon behar dira bakoitzaren deia noiz sartuko. Kasu honetan, arratsaldeko magazin honek kolaboratzaile eta gonbidatu nahikotxo izaten ditu, eta beraz, saioa hasi baino lehenago kazetari bakoitzak teknikariei ordenagailura dokumentua bidaltzen die; bertan, emisio momentu bakoitzean zein audio sartu behar duten agertzen zaie. Saio hauetan zehar askotan entzuten dira irratia emititutako beste programetako audioak (batez ere “Faktoria”-koak) baita ETBkoak. Arratsaldeko programa izanik, tertulia ikuspegia hartzen du oro har. Beraz, helarazten diren gaiak gaurkotasuna dute, baina tertuliako atalean

jorratutakoek ez dute bete-betean gaurkotasunekoak izan behar (kolore baten erabileraren inguruko edota aitzinako kirol praktika bati lotutakoa eztabaidak izan baitaitezke).

Asteburuetakoa, eta jai egunetakoa, orotariko magazinak hiru ordutako iraupena du, 10.00-13.00, eta editore batek eta beste bi kazetarik osotzen dute lantaldea. “Amarauna” izena duen saio honetakoa editoreak eta lan-taldeak ostegun eta ostiralean gaiak komunean jartzeko eta astebururako eskaleta eraikitzen joateko bilera egiten dute goizeko 08.30tan. Aldi berean, egun hauetan saioko editorea programazio buruarekin ere elkartzen da; bilera hauetarako ez dute ordu jakin bat, biok ahal dutenean izaten da, gaiak komentatu eta asteburuko ardatza zein izango den azaltzeko, eta programazio buruaren oniritzia jasotzeko jakina. “Amarauna”-koen lan egiteko era aste barruko magazinean dabilzanenen desberdina da, asteburuetakoa bi egun produkzio -ostegun eta ostiral- eta beste bi emisio -larunbat eta igande- egiten baitute. Asteburuetan goizeko 06.00etan iristen dira idazgelara, emisioa prestatzen hasteko, izan ere aurreko egunetatik finkatua dituzte jada landuko dituzten edukiak eta gaiak -denetarikoa gaiak, politika eta sexuaren ingurukoak izan ezik-. Editoreak gidoia prestatzerakoan euskararen kalitateari²⁷ balio handia eransten dio -Euskal Filologian da lizentziatua-. Egingo dituzten elkarrizketak eta sartuko dituzten gonbidatuen kronikak konfirmatzen dituzte. Entzuleari zabaldutako tarte asko daude baita. Beste magazin batzuetan bezala, kasu honetan ere editorea estudioan dago une oro eta lantaldeko kazetariak idazgelan, estudiotik sartu eta irtenez; editorea estudioko ordenagailuko txat-arekin komunikatzen idazgelan dauden kazetariekin. Emisioa bukatutakoan, 13.30tan, bilera laburra egiten dute lantaldeko hiru kazetariak, erredakzio nagusian bertan; emisioa zelan joan den, jendearen iritzien egokitasuna eta ondoren internetekoei pasatu beharreko audio eta titularrak prestatzen dituzte (aurrerago arituko gara iratiaren edukiek interneten agertzeko prozeduraz).

Azaldutako magazinak elkarrizketa, gonbidatu, tertulia eta kroniken bitartez, orotariko gaiak lantzen dituzten saio bezala identifikatzen dira, bertan lan egiten duten kazetariak errutina edo lan-ohitura antzekoak dauzkatelarik. Hala ere, Euskadi

²⁷ Kalitatetzat ulertzen dugun euskara zuzenaz gain jatorra eta erregistro aldetik egokia da.

Irratiko erredakzioan badago programen edukian parte hartzen duen baina lantaldeetan egiten den bestelako lanera dedikatzen dena; hain zuzen, erreportajeak egitera, Euskadi Irratia erreportajeak markadunak. Erreportaje hauek “Faktoria”-n, “Mezularia”-n eta “Amarauna”-n jartzen joaten dira, astero programa desberdin batean. Beraz, astero gai konkretu baten inguruko erreportaje landua izaten dute programetarako, eta bertsio laburra informatiboetan txertatzen da. Horretarako kazetari taldean momentu honetan pertsona bakarra dute, nahiz eta programazio buruak dioenez, talde hori indartzea dute xede. “Mezularia” saioaren bileretan esaterako, editore-aurkezleari aditu diogu “gai hau beharbada XXXXXrentzat”, erreportajeetara dedikatzen den kazetari honen izena aipatuz. Izan ere, programazio buruak honelako gaien proposamenak batu ditzake, ondoren kazetariarekin komentatzeko.

Aipatutakoak une honetako Euskadi Irratiko magazin izarrak dira esan bezala, baina irrastian badaude bestelako programa laburragoak; lehenago aipatutako kultura arloko eguneroko ordubeteko saioak, eta baita gai berezituak lantzen dituzten eguneroko edo asterokoak: ekologiari buruzkoa (“Ekosfera”), teknologia berriei buruzkoa (“@bildua”), emakumeari buruzkoa (“Andromeda”), musikari buruzkoak (“Kostaldeko Trena”, “Portobello”, “Kaja beltza”, “Euskal musikaririk onena”, “Poliedroa”), umorea (“Oilagetia”), gai-sozialez jarduten dena (“Ilargipean”), entzuleen deiak, musika eta eskaintzak goizero (“Goizeko izarra”), zientzia eta ezagutzari buruzkoak (“Jakin minez”, “Norteko ferrokarrila”), kirol desberdinei buruzkoak (“Tostartean”, “Katedra”, “Kirol legez”), nekazaritzaren ingurukoak (“Landaberrri”; “Lizardiren baratza”), euskara ikasleentzat saioa (“Ele-alea”), haurrentzako saioa (“Tortolikan”). Ikusten dugunez saio horietan egoten diren kazetariak astelehenetik ostiralera egunero joaten dira irratora, eta kasu batzuetan beren saioa edo saioaren parte bat, elkarriketak esaterako, grabatuta uzten dituzte. Saio guztietan kazetari bakarra dago, “Oilategia” (hiru, bi antzerki mundutik etorritako jendea, umorezko saio nahiko berria da) eta “Ilargipean” (bi kazetari, editore-aurkezlea eta piezak grabatuta uzten dizkion kazetari laguntzailea; azken honek umorezko saioaren produkzioan ere parte hartzen du). Programazio buruak ez du ezarritako bilera finkorik saio horietako kazetariekin, gehiago dira unean-uneko batzarrak edo kazetariak beraiek joaten dira bere bulegora (idazgela nagusian txertatuta dagoena, albistegietako programazio buruaren ondoan)

gaien egokitasunaz galdetzen. Bestela ere, denek dute Programazio Edukiaren dokumentua eta beraz, buruak ere badaki nondik nora doan bakoitza.

Kirolak gaur egun albistegietatik eta programetatik aparteko kategoria da; 2012ko ekainean izendatu zuten kirol saileko burua. Beraz, alde batetik daude albistegietarako kirol kazetariak: goiz-goizeko albistegian kiroleko prentsak dakarrena irakurtzera mugatzen dira, eguerdiko albistegian berriz kirolak ez dira sartzen eta albistegiaren ondorengo “Kirol Legez” saioan (14.05-14.30) daude kirolak, eta arratsaldeko albistegietan txertatzen den kirol tarte 19.45-20.00. Tarte horiek, “Katedra”-k (astelehenean 22.00-23.00) eta larunbat eta igandetan emititzen den “Hiru Erregeen maila” (16.00-20.00pm) saioak osotzen dituzte kirol tarterik garrantzitsuenak. Albistegietan lan egiten duten kirol kazetariak oso gutxitan irteten dira idazgelatik, albisteak bertatik jaso eta harreman gehienak bertatik egiten dituztelako, albistegian ere 15 minutuko tarte laburra izaten dute nahiz eta gero programa berezituak jarraitu. Baina Euskadi Irratian zalantzarik gabe kirol ikuspegitik lanketa gehien behar duen eta arrakasta gehien duen saioa “Hiru Erregeen Maila” kirol magazina dugu. Saioaren editorea da gaur egun kiroleko buru dena (22 urte daramatza irrastian). Astelehen, ostiral, larunbat eta igandeetan egoten da bera irrastian, eta astelehenean asteburuaren gutxi gora-beherako diseinua egiten du, lan-taldeko bakoitzari egin beharreko lana emanez; berak hartzen ditu magazinean sartuko diren gaien erabakia, “baina badakit berak ere erabaki hori hartuko lukeela, beraz nire erabakia da bakoitzak zer egingo duen baina ez dago beste munduko aukerarik” (kiroleko koordinatzailea, 2012). Kiroleko jendeak bestelako kazetari perfila osotzen duela ikusten dugu, esaterako, iturriei dagokionez; kazetari hauek asko erabiltzen dituzte sare sozialak beren eguneroko lanean, batez ere Twitter eta Facebook. Alde horretatik, kazetari hauentzat sekulako iraultza izan da sare sozialen asmakizuna, lehen kirolaria deitu egin behar bazenuen, orain jada bere laguna zarelako eta berak idazten dizkizu zuk lehenago asmatu egin behar zenituen hainbat gauza. Horregatik, lehen albiste baten bila joan behar bazenuen, orain duten sentsazioa da zuk aukeratu behar dituzula bide egokiak bera “etortzeko”. Kiroleko kazetariarentzat bere biziki garrantzia du protagonisten, alegia, kirolarien jarraipen ona egitea, bere ibilbidea gertutik jarraitzen -zertan ari den, zer prestatzen ari den, zein helburu dituen- eta ez soilik albiste denean egoten berarekin: “kazetaritzan asko balio du primiziak, niretzako ez du ezer ere balio.

Inportanteena niretzako olatu onean egotea eta kirolarien jarraipen ona egitea da” (kiroletako koordinatzailea, 2012). Jakina, horretarako sare sozialak tresnarik aproposenatarikoak dira. Magazinean kirol ekitaldien zuzeneko jarraipenak egiten dituzte, eta gero erreportajeak eta elkarrizketak. Dena dela, beste magazin batzuetan ez bezala, kiroletako honetan editoreari entzuten diogu beraiei berririk berriena ematea gustatzen zaiela, eta horretarako sareak ere asko erraztu du gauza; lehen pertika jaurtitzaielaren irabazlea nor zen jakiteko teletipoaren zain egoten baziren, orain interneten ia-ia ikusten ari zara.

Behaketa eta kazetariekin izandako elkarrizketen ondoren ikusten dugu albistegietatik programetara oinarrian aldatzen dena lan-talde bakoitzaren funtzionamendua dela. Magazinean lan egiteko modua oso talde modukoa da, taldeko kazetari bakoitzak bere zereginak ditu baina gero beti dago bilera bat eta bilera horretan lanak banatzen dira baina baita ere proposatu, eta orduan hor badago eztabaida bat. Informatiboetan aldiz editore bat dago eta editoreak erabakitzen du zeintzuk gai sartu eta albistegia horren arabera antolatzen da, gero kazetari bakoitzak esleitu zaion edo zaizkion albistek lantzen dituen.

Iturriei dagokionez erabiltzen dituzten hedabideetako batzuk azaldu ditugu, baina *in situ* jasotakoaz gain goazen bestelako datu kuantitatiboek esaten dutena ikustera. Inkestaren emaitzen arabera, albistegietan lan egiten duten kazetarien gehiengoak, alegia %85ak, erakunde publikoak ditu gehien erabiltzen dituen bost sorburuen artean (galdetegian zortzi iturri ordenatu behar zituzten gehien erabiltzen zutenetik gutxien erabiltzen zutenera, *ikus* eranskina 3); %40ak gainera gehien erabiltzen dituen lehenengo bi iturrien artean kokatzen ditu erakunde publikoen jarioa. Horrez gain, bigarren postuan, albistegietako kazetarien %74ak komunikabideak -ondorengo puntuan azalduko dugu zein komunikabide mota- kokatu dituzte gehien erabiltzen dituzten lehenengo iturrien artean, eta %37k gehien erabiltzen dituzten lehenengo bi iturrien artean. Ondoren, ordena honetan hautatu dituzte lehenengo bost iturririk erabilienak: alderdi politikoak (%63ak), alderdietako bulego informatiboetatik datorren informazioa, albiste agentziak (%52k), korrespontsalak (%44k), lekukoak (%41k) eta herritarren elkarteak (%30ak). Azkenik esan, inkestako "Besterik" atalean kulturako kazetariak argialetxe nahiz bestelako kultura eragileak asko erabiltzen

dituztela iturri gisa adierazten dutela; eta orotariko albisteak lantzen dituztenak sare sozialak -Twitter batik bat- azpimarratzen dituzte. Kiroletan dabilzan kazetari denek azpimarratzen dute iturririk erabilienak komunikabideak dituztela, albiste agentzia eta lekukoekin batera. Gainera, sare sozialetatik, bereziki Twitter eta Facebook-etik, asko edaten dutela baieztatzen dute.

Programen arloari dagokionez, kategoria horretan lan egiten duten inkestatutako kazetarien %95k kokatu ditu komunikabideak gehien erabiltzen duten lehenengo bost informazio iturrien artean gisa, eta horietatik %81ak egunerokoan sorburu nagusia duela diote. Bigarren maila batean herritarren elkarteak izan dira programetako kazetarien %81ak gehien erabilitako iturrien artean kokatu dituenak, eta %38k gehien erabilitako lehenengo bi iturrietan. Horrez gain, programetako kazetariarentzat albistegi agentziak (%67arentzat) eta lekukoak (%67ak) maila berean, baita korrespontsalak (%62ak), erakunde publikoak (%48ak) eta maila apalagoan sindikatuak eta alderdi politikoak (%14ak) dira sorburu nagusi. "Besterik" atalean programetan diharduten profesionalen %24ak, sare sozialak (Twitter, Facebook), gai zehatzetan adituak diren ezagunak, kaleko iturri informalak -"jendearkein/lagunekin izandako elkarrizketak, lanerako bidean autobusean entzundako solasak"- oso erabilgarriak dituztela edukiak erabaki, sortu eta lantzerako garaian adierazten dute. Ekologia programan dabilen kazetariarentzat ikerketa zentroak dira ezinbesteko iturri.

Emaitza hauen arabera beraz, bai albistegietako baita programetako zein kiroleko kazetariak hedabideek helarazitako informazioak dituzte lehenengo sorburu. Euskadi Irratiak berak sortutako edukiak izango dira lehenengo kontsultagarri, baina hortik aurrera inkestan 16 iturri jarri genizkien ordenan jartzeko. Emaitza horietan ageri da kazetariak gaztelaniazko prentsa dutela hedabideen artean gehien erabilitakoa, eta horiek lortutako puntuaziotik oso gertu (0,22ko diferentzia) dabil euskarazko prentsa, kazetariak darabilten bigarren informazio iturririk garrantzitsuena hedabideei dagokionez. Radio Euskadi dugu hirugarren lekuan eta ETB laugarrenean; beraz, Euskal Herriko bi komunitate linguistikoak asetzen dituzten idatzizko hedabideen ondoren, EITB etxe bertako irrati eta telebistak dituzte sorburu nagusi Euskadi Irratiko kazetariak, talde beraren barnean daudenaren, edo talde berean daudena erakustearen garrantziaren isla. Behin "gertuago" duten prentsa eta etxe

komunikabideak kontsultatuta, irrati publiko euskalduneko erredaktoreek prentsa ingelesera edo TVE-era joko lukete informazio bila. Horiek beraz lehenengo sei aukeraketak. Ondoren datoz SER irratia, BBC eta RNE maila berean, prentsa frantsesa eta Onda Vasca irrati katea eta irrati lokalak orokorrean, azken hauek baita puntuazioa bera lortuta eta beraz, maila berean. Aukeren artean eskainitako komunikabide gutxien erabilienak berriz, Bizkaia Irratia, tokiko telebistak, Tele5 eta Antena3 leudeke.

8.1.1.1. Magazin eta albistegietako profesionalen ezaugarri dibergenteak

Aurreko atalean kirol, albistegi eta magazinetao kazetariak zelan lan egiten duten azaldu dugu, eta alde horretatik, beharrezkoa iruditzen zaigu azaltzea hiru kategorietan diharduten profesionalen perfilean dauden bereizgarri eta desberdintasunak agertzea. Kontuan izan behar dugu egun magazin eta albistegietarako lan egiten duten kazetarien %20a -aurreko atalean azaldu dugu zehatzago- alde batean eta bestean aritutakoak direla; beraz, antzekotasunak nabarmenak izan daitezke. Aurretik azaldu bezala, adin tarteari dagokionez ez dago desberdintasun nabarmenik, denetari adin tarteari baitaude nahiko orekatuak bi kategorietan. Baina badaude bestelako berezitasunak ere. Horietako bat dugu lantaldean funtzionamendua. Bai albistegietako zein magazinetao lan taldeak egunero bilera egiten du saioko arduradun edo editorearekin. Informatiboetako bileretan editoreak erabakitzen du gai-zerrenda eta horren arabera kazetari bakoitzari gai bat edo batzuk esleitzen dizkio. Eguneroko magazinetao bilerek aldiz, eztabaida kutsua hartzen dute gehiago, eta nahiz eta azkenean editoreak oniritzia eman gai bat edo beste lantzeko, kazetarien proposamenak ere ugariak izaten dira -eta askotan edo gehienetan aurrera ateratzen dira-.

Informatibo eta magazinetao lan egiten duten kazetarien arteko alde lan erritmoan eta sormenean ere badagoela esan daiteke. Alde batetik, albistegietako kazetaria bere egunerokoan erabat lotuta dago azken orduko albisteari, eta beraz, askotan ez du margen handirik beste mota bateko edukiak lantzeko. Bestetik, sormenaren aldetik programetan kazetariak gehiago lantzen dute sormena, edo formatu/gai berritzaileak erabiltzeko pentsaera aktibatuagoa dute. Hala ere, egunero-egunero magazina egin izan dutenek, eta egun egiten dutenek -arratsaldekoak batez ere-, bitarteko humano

eskasak aipatzen dituzte zailtasun handien bezala sormen nahiak asebate ezinaren edo gaiak patxadaz landu ezin izatearen oztopo nabarmen gisa. Iturriei dagokionez, albistegietan agentziek, alderdi politikoez, komunikabideek eta erakunde publikoek markatzen duten gaurkotasunari men egiten zaion bezala, magazineta kaleko jendeak bizi duen gaurkotasuna islatu nahi da; horrek editore-aurkezleak lanerako autobusean zein parkean jendeak izaten dituen solasaldiei adi egotea eskatzen die, horietako hizketaldietako bat izan dezaketelarik ondorengo saioaren abiapuntu. Kiroletako kazetariak sare sozialak beste arlo guztietan baino gehiago erabiltzen dituzte, bai emisio aurreko lanetan baita, eta hemen dator batez ere bereizgarria, zuzenekoetan.

Hizkuntzari dagokionez, magazineta erregistro gehiagoren beharra nabarmena dela esan daiteke, albistegietan oso hizkuntza jasoa eta testuinguru formaletako esaldi eraikuntzak erabiliko diren bezalaxe, magazineta hizkuntzarekin jolasteko gaitasuna eta erabilera formaletik informalerara salto egiteko erraztasuna garatu beharko du kazetariak. Bide honetatik, esatea dago EITBko irratien koordinatzailea izan zen eta hasieratik irratian egon den kazetariak azaldua, eta ondoren irratian 24 urte daramatzen kazetariak berretsita, hasieran batean Euskadi Irratiaren filosofia langileei dagokionez plantillako jendea, hots, LEP-en (Lanpostu Eskaintza Publikoa) bitartez sartutakoa, informatiboetan; beste guztia ekoizteko, kanpoko jendea izan daiteke. Eta bigarren eskari hau estaltzeko kazetaritzako fakultateak ez zuen biderik eskaintzen, orduan filologiara edo magisteritzara jotzen zuten irratiko zuzendariek. 2012an ikerketa honetarako egindako inkestan ere, kazetaritza edo ikus-entzunezkoak ikasi duten kazetarien %40a 1978-1987 urte bitartean jaiotakoa da, 25-34 urte artekoa beraz. Filologian edo magisteritzan lizentziatuak direnetatik %55a berriz 1958-1967 artean jaio zen, 45-54 urte ditu egun alegia; bigarren talde horretatik %11ak baino ez ditu 25-34 urte bitartean. “Euskadi Irratiak plazak ateratzen zituenean bereizten genituen kazetariak eta kirol kazetariak [...] Baina ez dugu inoiz berdina egin kontalaria edo aurkezle edo animatzailearekin, ez dugu inoiz plazarik atera “Faktoria”-ko aurkezle izateko, edo Gaztea-ko esatari izateko, eta nik uste filosofia on batekin, hor ona delako mugimendua, berrikuntza” (asteroko unibertsitateari buruzko programako editore-aurkezlea, 2011); “horrekin jokatu nahi zuten, probatu jendea eta ikusi balio zuten edo ez” (kiroletako kazetariari elkarrizketa, 2012). Magazin baten

gidaritzarako hizkuntzarekin jolas egingo zuten horien atzetik ibiltzen ziren; “batez ere hizkuntzaren sena primatzen zen, biziagoa izatea, eta hor euskaldun berri bat ez zen inoiz sartzen. Informatiboetan idatziz ondo ematen bazuen, bai” (asteroko unibertsitateari buruzko programako editore-aurkezlea, 2012).

Kazetarien perfilen inguruan oro har hitz eginez, goizeko eta arratsaldeko magazineta editoreak - biak ibili dira albistegietan eta programetan-, biak datoz bat irrati kazetariaren perfilera erantsita agertu behar diren ezaugarrietako batzuk definitzearekin. Alde batetik, kanpoko hizkuntzen ezagutza zehatzagoaren beharra nabarmentzen dute, kazetari guztiak ingelesean trebeak izatearen beharra, eta baita frantsesean; izan ere, Ipar Euskal Herriko entzuleengana heltzeko tresna garrantzitsua litzateke frantsesez ondo moldatzea. Bestetik kuriositatea izan behar da, “interesa edukitzea medioengatik [...] interesa eduki gauzekiko eta gauzak kontatzeko” (goizeko magazineko editore-aurkezlea, 2011). Gero badago komentatzen duten beste zerbait, kazetaritza fakultateetan ikastea zaila dena baina landu beharko litzatekeena, eta da kazetaritza sena; finean, komunikabideak asko kontsumituz -prentsa irakurritz, irratia entzunez, telebistako saio onak ikusiz- lortzen dena. Gaur egun esan daiteke desiratutako kazetari profil honetan, kazetariak eta komunikatzaileak bat izan behar dutela. Hau da, batetik kazetari lana egiten jakin behar da, albiste zer den erabakitzen, iturriak kontrastatzen eta galderak ondo egiten, baina bestetik, albiste hori egoki eta eraginkor kontatzen jakin behar dute; “ebaluatzen gaituztenean ebaluatzen gaituzte ni kazetari bezala batetik hamarrera zenbat naiz, eta gero kontalari bezala batetik hamarrera zenbat naiz, baina kontalari modura nola irratian, Twitter-en, Facebook-en, telebistan, eta guzti hori” (arratsaldeko magazineko editore-aurkezlea, 2011). Ildo honetan argi dagoena da komunikatzaile ona izateko lanabesa den hizkuntza ondo menperatu behar dela. Horrez gain, zer kontatu nahi den eta ze publikori kontatuko zaion argi izateak, publikoa irudikatzeak, bere biziko garrantzia du kazetari perfil eraginkorra osatzeko.

Kasu batzuetan, badaude komunikatzaile oso onak albistearen bila estudiotik edo idazgelatik inoiz ere irten ez direnak; kazetari perfila zehazterakoan ere aintzat hartu behar da “kazetaritza” nola ulertzen den, kazetari lanaren ikuspegi desberdinak agertuko direla. Alegia, kazetaria bada albiste gertatu eta bertara joaten dena, Euskadi

Irratian “kaleko kazetaria” deitzen zaiona, albistegietako eta programetako gehienek ez dute hori egiten. Aldiz, kontsideratzen badugu kazetaritza ere badela jasotako informazio iturri desberdinetatik albistea idatzi, bakoitzak bere errealitatean ulerkorra izateko moduan jarri eta testuinguruan kokatu, hori ere bada kazetaritza lana. Euskadi Irratian badira kazetaritza lan mota bat eta bestea bizi izan dutenak. Esate batera, Bruselan lau urte korrespontsal moduan ibili eta gero magazin baten editore-aurkezle izatera igaro zen kazetariarentzat, kazetaritza zereginak arras desberdinak ziren batean eta bestean. Bigarren lanean “batzuetan frustrantea zen ze zu bitartekaria zara albistea eta entzulearen artean, baina ez duzu gertakaria zure begiekin ikusi” (berdintasunaren inguruko programako editore-aurkezlea, 2011). Beraz, alde nabariak daude ere kazetariaren perfilaren eraikuntzan korrespontsal moduan albistegietan lan egitetik programetan lan egitera.

8.1.2. Gaien aukeraketa albistegietan: bereizgarritasunak mantenduz, informatibo ulergaitzetik ihesi

Euskadi Irratiak bere agenda propioa sortu nahi du informatiboetarako, baina Euskal Herri nazio mailakoari garrantzia emanaz, Espainia nazio mailako, Europako eta nazioartekoaren berri ere eman nahi denean, editoreek unean-uneko irizpideekin jolastu behar dute. Prozedura, lehenengo albistegietako editoreek behin-behineko gai zerrenda daramate albistegia baino lehen izango dituzten bi bileretara; lehenengo albistegi buruarekin eta gertuko editorearekin izango dutena, eta ondoren, editore laguntzailearekin -bigarrenez lehenago ere elkarrekin hitz eginda egongo direlako- eta kazetari lan-taldearekin biltzeko. Beraz, bilera hauetan guk editoreari zerrenda osatuta ikusi diogu, alorka joan direlarik komentatzen bakoitzean jorratuko ziren gaiak. Gai hauek aukeratzeko irizpideak beti ere garrantziaren arabera doazela baina Euskadi Irratia izanda, batez ere Euskal Herrian gertatzen denari ematen diotela lehentasuna azpimarratzen dute editoreek. Hala eta guztiz ere, “horrek ez du esan nahi derrigor hemengo albisteekin hasten garela ezta gutxiagorako ere. Gu ez gara Telenorte²⁸” (eguerdiko albistegiko editore nagusia, 2012). Telenortek nahiz eta Sirian sekulako

²⁸ *Corporación Radiotelevisión Española* (RTVE) Espainiako telebista eta irrati publikoen erakundea dugu. Televisión Española telebistak estatu osoan emititzen du bere bi kateen bitartez (La1 eta La2, generalista eta kulturala). Horrez gain, estatuko erregio bakoitzean lurralde-ordezkaritza bat du, eta L1 katean deskonexioak egoten dira bertako albisteen berri emateko. Euskal Autonomia Erkidegoaren albistegiaren izena “Telenorte” da, 1971an sortu eta gaztelera hutsean emititzen duen katea. Albistegia beraz, EAEko gertakarietan oinarritua dago.

sarraskia gertatu, albistegietan ez du jasoko; Euskadi Irratiak aldiz egiten du, eta Madrileko kongresuan badago albiste nagusia bertatik hasteko arazorik ere ez luke izango. Beraz, editoreak horrekin esan nahi duena da gaiak aukeratzerakoan arreta berezia eskaintzen diotela euskaraz bizi den komunitateak sortzen dituen albisteei, baina horrek ez duela esan nahi eksklusiboa denik. Gai politikoak dira nagusi gehienetan arlo politikoak Euskadi Irratiko albistegi guztietan pisu handia hartuz, batik bat Euskadi mailako polita; baina editore laguntzaileari adibidez gai sozialak gehiago lantzea gustatuko litzaiokeela aitortzen digu, eta beti ere “hurbilekoa zainduz baina perspektiba galdu gabe” (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012). Izan ere, editoreek oso ondo dakite ezin dutela une batean Espainiako Enpresen Antolakuntza Erakunde CEOE batek esaten duena baztertu, Espainiak markatzen duen ekonomian enpresariak ze bide hartzen duten euskal herrikoei ere eragingo dielako. Honekin batera, nabarmendu beharra dago editoreek entzuleriaren irudipen oso heterogeneoa dutela eta alde horretatik, Euskal Herriaz gain mundu osoan gertatzen denaren berri emate oso garrantzitsutzat jotzen dute; “gure entzulea askotan munduan gu baino gehiago dabil, gure entzulea izan daiteke Txinan barna dabilen enpresari bat edo langile bat teknikari dena eta Madrilen dagoena orain” (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012). Emisioetan nazioarteko gaiek presentzia dute beti.

Albistegietan erredaktore-esatari lanetan eta goizeko albistegi-magazin tartean produktore den kazetariak, argi zerbaitetan gailenduko badira "hemengo albistek kontatzen" izango dela. Estatu espainiarreko eta munduko berriak ere eman behar dituztela zalantzarik ez du, baina Cadena SER lehiakide handiak baino hobeto egin dezaketena Euskal Herrikoaren berri ematea da, beste horrek Estatuko edo nazioarteko albistek lehendabizi eta iturri anitzez hornitua emateko baliabide gehiago dituztelako. Hala ere, albistegietarako eskaleta diseinatu behar duzunean kanpoko eta barruko berrien oreka hori mantentzea ez dela lan erreza dio; "ni ere editorea izan naiz eta itsutzen zera besteek diotenarekin" (goizeko albiste-magazineko produktorea eta kazetaria albistegietan³, 2012), beste prestigidun komunikabideek esaten dutenarekin batik bat. Asteburuetako eguerdiko editorearentzat ere inongo baino garrantzi gehiago dute Euskal Herriko gaiek bere informatiboetan “gertutasunagatik, afektatzen digutenagatik, jendearen interesagatik” (asteburuetako

albistegietako editore-aurkezlea, 2012). Haatik, nazioarteko berri ematea ere garrantzitsua da editore honentzat, “askok esaten dute, ze inporta zaigu ez dakit non zelan dauden; bueno ba nik uste dut inporta zaigula” (asteburuetako albistegietako editore-aurkezlea, 2012). Arriskua beti izaten da eskaleta antolatzerako garaian kanpokoak Euskal Herriko gaiei aurre hartzea, eta horregatik, ikusten dugu editore honek albistegi bat kanpoko berri batekin zabaltzen duenean gai indartsua izaten dela beti ere, Siriako sarraskiak kasu. “Gertukoak” tarteko editoreak beste arazo bat du gaiak aukeratzekoan, eta da erakundeen menpekotasunean -Guggenheim-ek eman baldin badu eman behar da Guggenheim delako- ez jaustea. Hasieratik, 2009-2010 ikasturtean tokiko informaziorako proiektua hasi zenetik, argi zuen ez zela goitik behera agendapean ibiliko, erabat instituzionalizatuta; “ez nuen *folkloriko festivo* izan nahi” (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012). Orain tarte honek duen arazoa da, hasi zenetik 2012. urtera asko jaitsi dela bertarako lan egiten zuen lantaldea. Hasi zenean informatibo lokalerako Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako probintzia bakoitzerako bi pertsona zeuden, eta bat Iparraldean, gehi editorea, denak lanaldi osoan; gaur egun dituzte bat Nafarroan eta bi Gipuzkoan lanaldi osoan, eta bi Bizkaian eta bakarra Araban bost orduko lanaldiaz. Honek, jakina, gaur egun gertuko informazioko editoreak askotan instituzioak markatuta agenda jarraitzera behartzen du, beste mota bateko herrietako aldizkariak lasai begiratzeko edo erreportaje batzuk egiteko denboraren faltan.

Edukien aukeraketan “Egunak Gaur” eguerdiko albistegiko editore nagusiak, gaia Euskal Herrikoa izatea lehenesten du, argituz, erakundeekin zer ikusirik ez duen albiste bat bada -esaterako, istripu bat-. Gaia erakundeetatik badator, Eusko Jaurlaritzak preferentzia izango du bere gai-ordenan, honen ondoren Eusko Legebiltzarra eta azpitik Nafarroako Gobernua edo Nafarroako Parlamentua. Hala ere, gaien aukeraketan editore honentzat ikusten da askotan Nafarroakoek baino protagonismo gehiago dutela Foru Aldundietako kontuek (Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak) eta kasu batzuetan Udal batzuetakoak (Bilbokoak esaterako).

Guri interesatzen zitzaigun ikustea zein neurritaraino Euskadi Irratiko editore eta kazetarientzat garrantzitsua zen beste irratien albistegia desberdina osotzea, bere izaerari indar gehiago emateko asmoz edo; bai taldeko beste irratia desberdina bai

inguruan lehiakide dituztenena, baina beti ere isolatutako komunitate batentzat egindako informatiboren etiketatik ihes eginez. “Kontua da, eta ez da erreza, zuk zure agenda propioa izatea, zuk edukitzea argi ze gai sartu beharko liratekeen, eta ez besteek sartu dutelako. Baina editore zarenean horrek kezka ere sortzen dizu ze pentsatzen duzu, ni ez naiz ari hau sartzan eta beharbada apur bat martzianoa izaten ari da informatibo hau” (asteburuetako albistegietako editore-aurkezlea, 2012). Hain zuzen, batzuetan Euskadi Irratiko kazetarien artean pentsamendua izaten da, EAEko egunkaririk irakurrienak eman badu, *El Correo*-k eman badu, guk ere eman behar dugu; “kulturan igual ez hainbeste, baino beste alorretan honek hainbeste bonboa eman badio gai honi, ezin da utzi aipatu gabe. Ez dakit konplexua ote den [...] Da gehiago, hutsune hori ez dezagun izan, egin dezagun badaezpada” (kulturako kazetaria, 2012). Baina jakina, pentsatzea hutsunea dela hori ez ematea besteek ematen dutelako da.

Idea honez gain, halere, kazetarien artean ados agertzen dira badaudela Euskal Herrian gertatzen diren gauza asko euskal komunitateari eragiten diotenak beraiek aipatzen ez badituzte, irrastian aipatu gabe geratuko direla. Hor editoreek beti aukeraketa bat egin behar dute bertako inguru hurbilean gertatzen diren, atzerrian gertatzen diren gehi beste komunikabideek aipatzen dutenaren artean; denen arteko oreka lortzeak askotan eramaten ditu egun batzuetan eta besteetan oso informatibo desberdinak egitera. Alegia, Euskal Herrian, edo Espainian -segun zer-, aparteko ezer ere gertatu ez den egunetan, nazioarteko hiru edo lau kronika sartzan dituzte; aldiz, inguru hurbilean eduki asko dagoenean, nazioarteko kronika bakarra, laburra eta justu-justu sartzan dute. Edozein modutan ere, lehen Euskal Herriko gaietan gatazka politikoak informatiboaren erdia betetzen bazuen, orain hori desaktibatzen joateak eragina izango du baita beste hedabideetan lantzen den kazetaritza sentsazionalistan erortzeko, hilketak, bahiketak, produktu deigarria lortzea; Euskadi Irratiko kazetariak hasiera batean ez dute bide hori hartzen, baina lehen ere aipatutakoaren harira, “beti dago gurpil nagusi horretatik kanpo geratzeko beldurra” (kazetaria albistegietan¹, 2012).

Euskadi Irratiko idazgelan kazetari batek baino gehiagok du piztuta talde bereko gaztelaniazko orotariko gaiak lantzen dituen irrastia, Radio Euskadi, batez ere

albistegiak entzuteko -aurretik aipatutako editore laguntzaileak bezala-. Alde horretatik saiatu gara ikusten irrati horrek Euskadi Irratiaren gai-ordena erabakitzerakoan izan zezakeen eragina. Albistegi buru mailan, aurretik esana geratu denez, badago harremana Euskadi Irratiko albistegi buruaren eta Radio Euskadiko, ETBko eta Eitb.com-eko albistegi buruen artean. Erredaktore mailan, ordea, ez dago sistematizatutako bilera edo harremanik; Radio Euskadi erreferentzia bat gehiago baino ez dela ikusten da, batez ere arratsaldeko albistegiko kazetariarentzat; izan ere alde bateko eta besteko kazetariak paraleloan ari dira lanean, Radio Euskadiren informatibo nagusia 13.00etan baita ere, eta horregatik arratsaldeko editore laguntzailea normalean beren informatiboa entzuten egoten da gero editoreari komentatzeko ia beren gai-zerrendatik kanpoko zerbait esan duten. Baina eguerdikoarekin jarraituz, tarte horretako editoreak argitzen du Radio Euskadiko albistegietan egiten denak, izatekotan, informatibo buru mailan duela eragina (gogoratu beza editore honek informatibo buru kargua izan zuela iraganean), hau da, gerta liteke informatibo buruak edo zuzendaritza taldeak erabakitzea gai baten lanketa estrategikoa dela EITB Taldearentzat. “Orduan ez da guk egiten dugula Radio Euskadik egiten duelako, baizik eta Taldeak erabaki duelako hau estrategikoa dela denontzako, desberdina da oso” (eguerdiko albistegiko editore-aurkezlea, 2012). Editoreak biziki azpimarratzen eta errepikatzen ditu azkeneko hiru hitzak, eta horrekin ulertzen dugu batzuetan derrigortuta sentitu duela bere burua gai batzuen lanketa egiten baina ez da izan Euskadi Irratiko editore bezala hartutako erabakia, baizik eta goitik etorritakoa (gogora beza 2011-2012 epean Euskal Parlamentuak eta ondorioz, EITBko Administrazio Kontseiluak bizi duen koiuntura berezia).

Irratiaren lan-taldeko beste kazetari batzuekin ere mintzatu ginen Radio Euskadiren albistegien izaeraren eta Euskadi Irratikoaren artekoaz. Izan ere, Talde berean izanik, harritzekoa izango zena beren artean edukien errepikatzea ez egotea litzateke, beraz, hori ez da eztabaidagai. Kontua da zenbateraino kazetari euskaldunak bere egunerokoan sentitzen duen Radio Euskadiko entzuleak erakartzeko saiakera egin behar duela, edo ez; Radio Euskadik beste identitate eta ezaugarrietako -linguistikotik aparte jakina, baina gogoratu euskal gizartearen %28 elebiduna dela (Soziolinguistika Klusterra, 2012)- entzulea erakartzen duela eta beraz ez dela maila horretan pentsatzen jarri behar. Puntu hau zelanbait argitu eta mahai gaineratzea interesgarria

da kazetarien eguneroko eduki-sortze prozesuan izan dezakeen eraginaren ikuspegitik. Egurdiko eta arratsaldeko informatiboetan lan egiten duen kazetariarentzat fikzio bat da irrati bakoitzak bi komunitate diferente asetzen dituenaren ideia, “nik neronek asko aldatzen dut, eta gainera badakit euskal hiztun askok Radio Euskadi entzuten dutela”. Kazetari honen iritziz, zeinak Radio Euskadiko informatiboetan lan egin izan duen iraganean eta hamar urte baino gehiago daramatza irratian, gaztelaniazko entzulearen zati bat egongo da ez duena euskal munduarekin kontakturik eta hizkuntza erabat arrotza egingo zaiona; baina horrez gain, badagoela baita poltsa konpartitu bat bietan dagoena, “eta kompetentzia garela nahiz eta Ente berean egon [...] Gure entzule asko Radio Euskadin egon daitezke” (kazetaria albistegietan1, 2012). Adierazpide hau interesgarria izan daiteke hizkuntza gutxitu batean ari diren kazetarien profesionaltasuna neurtzeko, gaztelaniaz ari den irratiaren adinako kalitatea dutela ematen baitu aditzera aipuak. Lehiakide izatearen ideia, dena dela, kazetari bakar honek aipatu digu argi eta garbi, eta beste batzuek ideia hori nolabait “zokoratu” egin dute, bi irratiaren arteko elkarlanean indar eginez. Ondoren azalduko dugu elkarlana ere eguneroko ohitura dute idazgela berean ezarrita dauden bi irratiako kazetarien artean. Alabaina, komunikazio taldeetan arrunta izan arren kazetari batek bestari laguntza eskaintzea, “batak bestearen eremua zapaltzeko aukera edo beldurrak areagotu egiten du iturri multzo propioak mantentzearen nahia” (Tuchman, 1978: 73). Eta batzuetan hori ere gerta liteke soinez soin lan egiten duten komunikabide desberdinen kazetarien artean:

Albistegiko editorea: “Javier de Andrés... Radio Euskadin ez dute korte hori aurkitu, ezin dira joan, eske denetara joaten badira!”.

“Bueno, ekonomia. XXXXX-ek [Euskadi Irratiko kazetariak] lortu du Salgado [Ogasun eta Ekonomia Ministroa artean] pasillotik harrapatzea. Nik dakidala Euskadi Irratirako korteak bakarrik dira” (behaketa otsaila 2011).

Hemen agertzen da beraz “Euskadi Irratirako korteak bakarrik” direla, eta “Radio Euskadikoak denetara joaten badira!”, adieraziz bezala “guk zer eman dugu berririk!”. Euskadi Irratikoek beren autonomia gorde nahi dute lehiakidea kontsideratu dezaketen Radio Euskadiren aurrean. Horregatik, bere iturri propioak izaten saiatuko dira.

Bestetik, lehen esan bezala, hurrengo atalean azalduko dugun arren, komeni da aurreratzea Radio Euskadiko eta Euskadi Irratiko erredaktore-esatarien artean ematen diren harremanak ez direla alde aurretik ezarritakoak, beraz, noiz behinkakoa da, beharrezkoa denean -kultura bezalako arlo gutxiagotuetan beharrezkoagoa beste batzuetan baino- batez ere informazio trukaketarako; lantalde bateko kazetariak ez direnean denetara iristen eta gaiak banatuta, gero korteak trukatzen dituztenean. Horren harira, arratsaldeko informatibo editoreak gainera uste du harreman mota hori nahikoa dela, alegia, “ez dakit beharko lukeen oso koordinatuta egotea [bi irratiko albistegietako editore eta kazetariak], ze pixka bat bi mundu diferente dira” (arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea, 2012). Kazetari honek aitortzen du Euskadi Irratiaren entzule asko Radio Euskadiren entzule direla; “baina uste dut gure entzulegoaren eta Radio Euskadiren entzulegoaren interes informatiboak ez daudela pare-parean [...] entzule klasea ez dut uste igualak direnik, ez pentsamenduz, ez kezka” (arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea, 2012); azken iritzia ez da isolatua, izan ere Bilbon lan egiten duen kazetariak, Radio Euskadiko jarduna askoz ere gertuagotik bizitzen duena, zera dio:

Arduradunek ere badakite entzulegoa desberdina dela. Nik uste komunitate desberdinak asetzen dituztela. Radio Euskadi eta Euskadi Irratia bai entzun dezake Bizkaian pertsona berak, Gipuzkoan baino. Baina hala ere nik uste izaera diferentea dutela” (goizeko magazineko kazetariaria, 2012).

Beraz aurreko kazetariak esandakoari pixka bat aurre egiten diote beste komentario hauek. Albistegietan eta produkzioan lan egiten duen kazetariaren iritziz esaterako, publiko desberdinetara jotzen dute, eta alde horretatik, albistegien gai zerrenda egokitzerakoan Radio Euskadiko albistegiak bereziki ez dituztela erreferente izango aipatzen du. Nahiz eta horrek ez duen esan nahi beren edukiak erabiliko ez dituztenik -korteen trukatzea bi lantaldeen artean oso arrunta dela ikusi dugu Donostiako idazgeletan-, edo kazetariekin harreman ona izango ez dutenik.

Irratien izaera desberdintzat jotzen du baita albistegietan lan egiten duen beste kazetari batek, gaur egun Radio Euskadiko informatiboak “oso Estatuan zentratuta

daudela” dioskunak, Espainiako gobernuak dutela ardatz nagusi; bere ustez, Euskadi Irratia gizarte mugimenduetatik, sindikatu eta elkarte askotatik askoz ere gertuago dago Euskadi Irratia. “Nik uste Euskal Herriko irrati publiko bezala funtzionatzen duela Euskadi Irratiak, eta Radio Euskadik EAEko irrati publiko bezala, gehi Nafarroa” (kazetaria albistegietan¹, 2012). Erreferentziak eta unibertsoak desberdinak dira bi irratietan, eta azken batean informatiboak pertsonak egiten dituzte eta pertsona bakoitzak bere erreferentziak dauzka. Adibide moduan jarriko dugu Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegir*²⁹-ren heriotza, 2012ko urtarrilaren 14ean. Euskadi Irratian 14.00etan ordu erdiko albistegi berezia emititu zuten; Radio Euskadin 20.00etako albistegan, 20.20ak arte, ez zuten aipatu, kirolen ondoren. Dena dela kazetari honek argi utzi behar du irrati publikoak ez euskarazkoak ez gaztelerazkoak ez duela batere baztertzailerik izan behar; euskarazkoaren kasuan ez du soilik publiko abertzale batentzat izan behar ezta gutxiagorako ere, baina jarrera aktiboa izan behar du euskaltzaletasunarekiko eta euskararekiko. Izan ere, sorrerako estatutueta horrexegatik sortu zen.

Oro har albistegietako kazetarien artean dagoen pentsamendua da bi irratiak desberdinak izan behar dutela, eta gai aldetik zaila bada, azken batean errealitatearen parte handi bat elkarbanatzen dutelako, gai ordenan bai desberdinu daitezkeela; eduki edo gertaera bati jartzen zaion indarra edo jartzen ez zaiona (*Txillardegiren* adibidean bezala). “Taldea bezala izango da seguru asko zerbait identifikatzen gaituena, baina bakoitzak bere izaera izan behar duela uste dut” (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012). Kiroletan dabilzan kazetariak ere, Radio Euskadiko kiroleko jendearekin harreman ona izan arren, nabarmena da beraien linea ideologikoa desberdina dela: “beraiztat [Radio Euskadi] dena da futbola, futbola eta futbola, eta guk txirrindularitzarekin, pilotarekin edo herri kirolen inguruko albiste batekin saio bat hasteko inolako arazorik ez dugu” (kiroleko koordinatzailea, 2012). Futbolaren menpekotasuna usaintzen zaio EITBko orotariko gaztelaniazko irratiari, Espainiako

²⁹ Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardegir* euskal pentsalaria eta ekintzailea izan zen. Politikagintzan, ETArekin sortzaileetako bat izan zen, eta Altsasuko mahaiaren eta Herri Batasunaren sorreran ere parte hartu zuen. Ostean, Aralarreko kide ere izan zen. Hizkuntzalaritzan ere ekarpen garrantzitsuak oso egin zituen, euskararen soziolinguistika arloko aldarrikapenaren aitzindari bihurtuz. Federico Krutwig eta Koldo Mitxelenaekin batera euskara batuaren bultzatzaile nagusietakoa dugu. Literaturan aldiz, euskal nobelagintza modernoaren abiapuntutzat hartzen da bere nobela *Leturiaren egunkari ezkutua*.

irratietan kirol tartetean dagoen tendentzia, Euskadi Irratikoak esparru zabalagoa hartzen saiatzen diren heinean. Zentzu honetan, kazetarien lan egiteko eran albisteen helburu nagusia gizartea islatu baino, gizartea "fenomeno sozial gisa era batean partekatua izateko" (Tuchman, 1978: 184) nahia azalerazten da. Alegia, gizartea bere osotasunean anitza denez, nahiz eta gizarteak berak albistea zer den definitzeko mekanismo eta arau batzuk izan, kazetari euskaldunek beren ikuspegitik sortutako berriak eta euskaldun baten errealitatearentzat garrantzitsuak izan daitezkeenak sortzerakoan, euren arauen bitartez maneiaturako edukiak eskaintzen ari dira.

Horrez gain esan beharra dago Euskadi Irratiko albistegietako editore eta erredaktore-esatariek Radio Euskadiren agenda beraientzat erreferentzia ez dela esatean, edo ez soilik Radio Euskadi, ideia hori eskaintzen diren edukietatik oso urrun ez dagoela erakutsi du ikerketa batek. Maria Gonzalez Gorosarri-ren (2012) azterketak agertzen du Euskadi Irratia 2008an titularretako gaietan %28,22an soilik egin zuela bat Radio Euskadiren gaiekin; ETB1 eta ETB2ren bat egiteko proportzioa aldiz askoz handiagoa da, %95,87ra iritsiz (Gonzalez Gorosarri, 2012: 41). Alegia, Euskadi Irratiko kazetariak beren agenda propioa eratzeko saiakera praktikoak egiten dituztela esaten dutenean, ondoren helarazten dituzten albisteetan isla duela esan daiteke:

ETB1en ez du albistegi propioarik, eta euskal kazetarien lana ETB2rekin partekatzen du. Hortaz, Euskadi Irratiak askatasun handiagoa agertu du Radio Euskadirekiko, eta horregatik, EAEz gaindiko euskarazko hedabideekin proportzio handiagoan etortzen da bat (Gonzalez Gorosarri, 2012: 42).

8.1.3. Konbergentzia motak

Lehenago agertu bezala, konbergentzia terminoa labur adierazita komunikazio talde batean telebista kateen, irrati emisoreen eta interneteko atariaren eduki, antolaketa eta profesionalen integrazio prozesuarekin lotzen dute (Masip *et al.*, 2009). Konbergentzia maila-gorena ematen denean, hainbat izaeratako komunikabideen "erredakzioen arteko erabateko fusioa" ematen da (Díaz Noci, Larrañaga, 2010: 100), partekatutako espazio komuna eratuz (Deuze, 2007; García Avilés, Carvajal, 2008: 221-239).

8.1.3.1. *Kazetari taldeak*

Gero eta komunikabide gehiago dabilta konbergentzia izena daraman edukien, hedabideen eta kazetarien batuketan datzan prozesuan eginahalean. Digitalizazioa eta multimediarri esker, kazetariak komunikabide baterako sortzen dituzten edukiak beste hedabide baterako ere erabili daitezke, kazetariak landutako produktua euskarri gehiagotan ezagutaraziz. Beraz, multimedia terminoa edukiarekin du harremana, baina baita kazetariaren lanarekin, berau arduratu beharko baita eduki hori hedabide bakoitzaren lengoaiara egokitzen. Larrañaga-k (2008) Euskal Herriko komunikazio enpresen artean konbergentzia maila aurreratuena zuena *Goiena Komunikazio Zerbitzuak*, Koop. E. (Arrasate, Gipuzkoa) zela ondorioztatu zuen. Izan ere, bertan lan egiten duten 46 kazetariak egunkaria, telebista, irratia eta webgunea hornitzeko gaitasuna dute; kazetari polibalenteak dira, “multitarearen eta multimediarren arteko bidean daudenak” (Larrañaga, 2008: 69-81). Metodologia atalean azaldu bezala, gaur egun EITBko hedabideetan ez da bete-beteko konbergentzia sistematikorik ematen kazetari taldeen artean (Larrañaga *et al.*, 2011), alegia, telebista kateetako, irratietako eta interneten hornikuntzaz arduratzen diren kazetariak bakoitza bere hedabidera begira dago, bere hedabidearen lengoai eta lan egiteko moduetara.

EITB taldean orokorrean konbergentzi kontzeptuak ez duela konnotazio positiborik kazetarien artean argi geratu zen Larrañaga-k zuzendutako (2011) lanean, eta Euskadi Irratian afera honi buruzko kazetarien iritziak erdibidean kokatzen direla esan dezakegu. Quinn-ek (2005: 29-38) konbergentziaren inguruan ezartzen dituen bi ikuspegietara hurbiltzen dena aipatzen dute, alegia, enpresaren errentagarritasuna bilatzeko ezartzen den zerbait bada, kazetari bakarrak euskarri guztietarako eta kasu honetan bi hizkuntzetan gainera lan egin behar izatea, ez daude ados; aldiz, informazio aberatsagoa, eta kazetari-komunikatzaile osotuagoak heztea bada asmoa, onartuko lukete esaterako telebistarako ere lan egitea. Testuinguru honetan ikusten dugu *a priori* egoera konbergente hori bizi ez duen erredakzioko kazetari gehienek buruan duten figura langile “multitarea” edo zeregin aniztunarena dela, errentagarritasunaren printzipioa lehenetsiz. Izan ere, nahiz eta aitortu -belaunaldi gazteenek batez ere- ez luketela oztoporik izango esaterako telebistan lan egiteko trebetasunak eskuratzeko, gaur egunean antolatuta duten lan moduan bi hedabideentzako edukiak sortzeko denbora falta dela diote. “Konbergentzia *per se*

ondo dago. Txarra da planteatzen denean jende gutxirekin gauza igualak egiteko” (arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea, 2012); “niri probatzeko eta trebatzeko primeran irudituko litzaidake, baino gero zertarako” (albistegietako kazetaria1, 2012); “nik uste dut EITB bezalako etxe batean denen lana aprobetxatzea, hori ondo legoke” (kiroletako koordinatzailea, 2012). Baina gehienek ez dute ikusten dinamika biak batera egitea eguneroko martxan. Izan ere, askotan irratiko kazetaria prentsaurreko batetik edo batzar nagusietako edozein ekimenetik atera eta berehala, segituan, irratira bidaltzen ari dira, askotan ekimena bera bukatu aurretik. Gainera irratia etengabeari da lanean, 24 orduz, gauzez ere ez da gelditzen buletinak dituelako orduro; eta berehala, kontsumitzeko erak ere desberdinak dira horregatik irratian eta telebistan.

Kazetari batzuk korrespontsalak izan dira atzerrian, Bruselan edo Madrilen, eta badakite zer den irratia eta telebistarentzako kronikak sortzea, eta bi hizkuntza desberdinetan beti. Hala ere, korrespontsal hauek normalean arlo baten inguruan ibiltzen dira beti, eta beraz, espezializazio minimo hori lortura, informazioa ere arinago egingo dute. Baina bestela, kazetari gehienek ez dute ikusten egoki dinamika biak egitea eguneroko martxan, edo egoki izango litzateke segun zein ordutegi eta zenbat gai diren landu beharrekoak. Izan ere, Euskadi Irratian eguerdiko albistegirako lan egiten duen erredaktore-esatariak bi edo hiru gai ditu goizean egitekoak; telebistako eguerdiko albistegirako editatzeko beste hiru bideo izango balitu, ezingo litzateke emisiora garaiz iritsi. Aldiz, kazetari batek estaltzeko gai bakarra badu, prentsaurreko batera doa edo elkarriketa bat egiten du, eta gero irratirako prestatzen du albistea; ondoren denbora du egunkari baterako edo telebistarako prestatzeko, eta gainera garaiz iristen da emisio orduetara medioen ordutegiak ez doazelako pare-parean. Beraz, hori litzateke moduetako bat, pertsona asko jarri lanean eta pertsona bakoitzari, ordutegiaren arabera, gai bana jarri. Beste kazetari batekin irratia Gasteizen duen egoitzari buruz mintzatzen gara; bertan albistegietan bi kazetari aritzen dira Euskadi Irratian, bi Radio Euskadin eta hiru telebistako informatiboetan. Lantzen dituzten gaiak ere bertsuak direnez, Legebiltzarreko gertaerak, kazetari eta edukien konbergentzia errazago ematen da. Baina bestela, telebista eta irratia oso bestelako lan-ohiturak dituzte, eta gaur egunean ere albistegietako editore batzuk eta albistegi buruak eztabaidak izaten dituzte, azken honek gai baten inguruko albistea ez

egiteko eskatzen dienean “telebistak” (ETBk) egingo duelako. Baina jakina, telebistakoak prentsaurrekora joan (11.00etan izan daitekeena), erredakziora bueltatu, eta materiala datu-basean sartzen dutenerako, 12.30ak izan daitezke, eta ordu horretan beharbada eguerdiko editoreak ez du kazetaririk libre eduki hori 13.00etako informatibo nagusirako lantzeko.

Hortaz, ordutegi eta planteamenduak aldatu beharko lirateke, irratiazen bizkortasuna ez sakrifikatze aldera. Horrez gain, kazetari batzuek irratiazen “xarma” gailentzen dute, hots, “irratian lan egiteak ematen dizula zuri beste nortasun bat baino gero lan hori telebistarekin nahastuko bazenu, homogenizazioa hori [...] bere puntua galduko luke” (kazetaria albistegietan1, 2012). Kazetari batzuek entzuleentzako esatariak duen aurpegia ez ezagutzea interesgarria dela deritzote gainera -nahiz eta ikerketek azaltzen duten, entzuleek esatariaren aurpegiaren berri dutenean hark azaltzen duen informazioari adiagoa daudela ezezaguna denean baino (Larrea, 2010).

Laburbilduz, esan dezakegu kazetarien mailan konbergentzia irratian eta telebistan lan egiteko profesionalarentzat positiboa izango litzatekeela, “konbergentzien aldekoa naiz eta uste dut gainera profesionalarentzat oso aberasgarriak direla [...] zu aktibo bazaude askoz ere hobeto zaude zure buruarekin” (kazetaria albistegietan1, 2012). Azken aipu horrek Bilbon goizeko magazinerako lan egiten duen kazetari gaztearen egoera dakarkigu gogora, zeina istoriorik ez duen goizetan, aulkian aspertuta egoten den erabat. Hala ere, kazetari guztiak daude esplotatuak izatearen kontra, “motibazio ekonomikoa baldin bada, forztatua iruditzen zait. Izango balitz profesional osoak eta sortzeko, ba bai” (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012); “kontua da baldintzak ipini behar dizkizutela” (goizeko magazineko kazetaria, 2012). Enpresak baldintzak ipini beharko lituzke beraz.

8.1.3.2. Eduki trukaketa ez-sistematikoak kazetarien artean

Edukien trukaketarako, Euskadi Irratiko kazetariak Radio Euskadikoekin duten harremana era arruntagoan ematen da; hori bai, ez dira enpresak eguneroko lanean pentsatuz finkatutako hartu-emanak, “da langileen artean sortu den harreman naturalaren ondorio” (kazetaria albistegietan1, 2012) ematen diren informazio trukeak. Editore mailan ez dago erlazio handiegirik irratia bateko eta bestekoen artean,

ez bada editoreak Bilbon duen kazetariari galdetzen dionean ea Radio Euskadikoak nora doazen, beraiek beste zerbait estaltzeko. Baina langileekin, batik bat albistegiko kazetariekin, ia egunerokoa da, bi arrazoiengatik: bat, kazetari-taldea ez delako izugarritzkoa bi kasuetan eta beraz, une batzuetan baliteke bat gaixotu delako eta besteak bilera duelako jende barik geratzea Donostian eta orduan Bilboko Radio Euskadikoei galdetu norbait bidaliko duten toki horretara eta horrela bada korteak pasatzeko; edo Donostian gertatu den zerbaitekin gauza bera. Eta bi, kazetaritza espezializaziorik ematen ez denez, gai bat badago -esaterako, Frankismo garaiko ume lapurtuena- pil-pilean editoreak saiatzen dira pertsona berak jarraitzea gai hori asteetan zehar, eta beraz, une batean irrati bateko edo besteko programa batean gai hori buruz hitz egin nahi badute, kazetari horrekin kontaktatuko dute. Gero baliabide kontua ere badago, eta une batean Radio Euskadikoek nazioarteko korrespontsal bat badute, Euskadi Irratikoei gaztelerazkoak ez die balio baina gutxienez zuzeneko informazioa beren albistea osatzeko baliatu dezakete. Donostiako erredakzioan lan egiten duten bi irrati-tako kazetariak ere prentsaurrekoetara batera joan daitezke, eta kazetariak beren artean konplizitatea badute, prentsaurrekora joan baino lehenago ere saiatzen dira alde zurretik kronika bideratzen edo bakoitzak ze iritzi duen komentatzen. Horregatik, albistegietako kazetari gehienek Donostian Radio Euskadirentzako lan egiten duten langileekin “harreman handia” dutela baieztatzen dute, “prentsaurrekoetara edo gai batekin ari bagara harremanetan egoten gara” (kazetaria albistegietan², 2012). Izan ere, bertan kokatuta dauden bi medioetako kazetariak Gipuzkoako gaiak lantzen dituzte eta prentsaurreko desberdinetara joaten direnean, elkarri korteak pasatzen dizkiote.

Bilbon Euskadi Irratiarentzat lan egiten duten kazetari askoz gutxiago egonda, elkarlana ugaria da; izan ere, hiri nagusian deialdi asko daude egunero eta kazetari-lantaldeekin denetara iristerik ez dutenez, editoreak adosten dute batek kazetaria toki batera bidali besteak bestera eta gero materiala elkar trukatzeko. Lantzen den arloaren txikitasunak ere harremanak izatera bultzatzen ditu kazetariak; esaterako, Bilboko egoitzan kokatzen den Euskadi Irratiko kultura kazetariarentzat, ezinbestekoa da gaztelaniazko irratiaren kulturako gaiak lantzen dituzten kazetariekin harremanetan egotea “azkenean premia dagoelako” (kulturako kazetaria, 2012). Kulturako kazetariak gutxi dira bi medioetan eta Bilbon deialdi asko egoten direnez, Euskadi Irratiko

kazetariak ekartzen dituen korteak eta artistei egiten dizkien elkarrizketak gero Radio Euskadikoek ere antenan jartzen dute -batzuetan euskarazko korteak ere entzun daitezkeelarik gaztelaniazko irrati publikoan-. Beraz lan-taldea gero eta txikiagoa gero eta anitzagoak izango dira harreman horiek, eta asteburuetan ere hori igarri egiten da; asteburuetan irrati baterako eta besterako dagoen jende apurraren artean banaketa pentsatua egin behar da gero batak besteari korteak pasatzeko (gaztelerazkoak joaten diren prentsaurrekoetara euskarazko kortea ere eskatzen saiatu beharko dira). Gasteizko egoitzan ere trukaketa hauek oso arruntak dira. Magazinetan harremana ez da hain egunerokoa, baina adibidez Bilbon goizeko magazina egiten duen kazetariak Radio Euskadin goizetan “Boulevard” programa egiten duenari eurek landutako gai konkretuen inguruko kontaktuak eskatu diezazkioke, korteak baino kontaktuak dira. Beraz, Radio Euskadi eta Euskadi Irratiko kazetarien artean erlazioa dago, baina informazio eta eduki trukaketak ez dira ezarritako zerbait, beharren arabera sortzen diren harremanak baizik.

Horrez gain, Euskadi Irratian bertan dauden albistegietarako eta programetarako kazetariak berea ez den saioan kolaboratu dezakete. Esaterako, 2011ko otsailaren 7an “Sortu” alderdi berriaren inguruan informatzeko albistegietako kazetaria hurreratu zen Bilboko Euskalduna jauregira eta bere presentzia han aprobetxatuz, 11.30tan, “Faktoria” saioan sartu zen zuzenean gaiari buruz informatuz. Edo “Mezularia”-koak Madrilen, Bartzelonan edo New York-en irratiak dituen korresponentsalak sartzen ditu telefonoz; edo Bilbon edo Gasteizen dagoen kazetariari (lantaldekoa ez dena) goizean egin duen istorioren ingurukoak kontatzea eskatzen dio, kronika moduan edo zuzeneko elkarrizketa gisa esatariarekin. Kontrakoa ere gertatzen da, alegia “@bildua” teknologia berriei buruzko saioa egiten duen kazetariak albistegietarako piezak egin izan ditu, esaterako, interneteko erabiltzaileen eskubideak murriztu nahi dituzten legeen inguruan.

8.1.3.3. EITBko edukien erabileraren amortizazioa

Kazetari taldeen bileretan eta zuzeneko emisioetan *in situ* hauteman dugunez, Euskadi Irratiko hainbat saiotan EITBko beste hedabide batzuetan igorritako korte edo aipuak erabiltzen dira. Eduki aprobetxatze hori batik bat programen arloan ematen da, eta Euskadi Irratiko programen kasuan, beste programek emandako baita

ETB1ek -euskarazko kateak- emandakoak baliatzen dira. Adibidez, goizeko “Faktoria” magazinak telebistako korte asko sartzen dituen tarte berezia du, eta maiz artzen ditu baita aurreko eguneko arratsaldeko magazin “Mezularia”-n erabilitako audioak. Euskadi Gaztea taldeko irrati formulako audioak ere erabiltzen dituzte. “Mezularia”-n kulturako saioak igorritako korteak eta goizean “Faktoria”-k emandakoak sartzen dituzte.

Gehienetan programen artean ematen den arren, albistegietan ere erabiltzen dira beste medio edo saioen aipuak; eguerdiko albistegietan esaterako, segun “Faktoria”-koek ze gai hautatu duten, bertako korteak ateratzen dituzte, landutako gaiaren gaurkotasun eta egokitasunaren arabera. Honekin guztiarekin argi geratzen dena da digitalizazioaren ondoren Taldeko hedabide denek sortzen dituzten edukien eskuragarritasuna erreza dela, *Gestión Digital de Sonido/Soinuaren Kudeaketa Digitala* (GDS) programaren bitartez. Alegia, taldeko hedabideek sortzen duten informazio guztia sarean egongo da terminal bakoitzetik edozein datu eskuratu eta manipulatzeko -grabatu, editatu, entzun baita emititu- aukera dago. Horretarako guztirako erabiliko da GDS edukiak kudeatzeko programa, zeinak artxibo-sistema ere aldaraziko du, dokumentuak kazetari guztientzako eskuragai jarriz modu erraz eta azkarrean (produktua sortu eta segundo batzuetan artxiboaren parte izan daiteke jada).

8.1.4. Kazetarien arazo, erantzun eta erronkak: kultura eta portaera komunak

Europako telebista publikoetako kazetarien nortasuna aztertu zuten María Lamuedra eta Tiscar Lara-k (2009), BBC eta TVE ikerketa kasutzat hartuta. Sakoneko elkarrizketen bitartez ondorioztatzen zuten BBC-ko profesional denek beren hedabidearen oinarriak, erronkak eta proiektuak guztiz barneratuta zituzten heinean -zuzendari eta erredaktoreen artean ere erantzun berdintsuak lortuz-, TVE-ko (*Televisión Española*) profesional bakoitzak irizpide desberdinei ematen ziela garrantzia (Lamuedra, Lara, 2009: 33-60). BBCren kasuan talde sentimendu oso sendoa hauteman zuten: kazetaria erabat identifikatuta sentitzen hedabidearekin eta korporazioaren erronkak bere gain hartzen ditu. Nolabait esateko, BBCren arazoak bere arazoak ere badira; “hori garbi antzematen da kazetariak euren diskurtsoa artikulatzeko duten moduan, arazoak adierazterakoan bat egiten dutenean [...] baina

baita konponbideak identifikatzerakoan” (Lamuedra, Lara, 2009: 54). Ildo beretik autoreek azaltzen dutenez, TVE-en bai problemak bai konponbideak indibidualistagoak eta partikularragoak dira, jarrerak ere aldakorrak izanik kazetari batetik bestera. Bi egoera desberdin horiek erakunde bakoitzak bizi izan duen tradizio historiko eta testuinguru sozioekonomikoaren garapenari erreparatuz ulertu daitezke; baina baita hedabide bakoitzean egin den baloreen normalizazio prozesuei so eginez: BBC-n *Guidelines* edo erakundearen gida-lerroak printzipio arauemaile bezala hartzen diren neurrian, sartu berria den profesionalarentzako murgilketa ikastaro batek lagunduta gainera, TVE-n ez dago horrelako idatzizko erreferentziarik -antzekoena *Estatuto de Información de RTVE* (RTVE-ren Informazio Estatutua) da-. EITBko zuzendaritzak 2012ko urte hasieran eman zien Euskal Herriko Unibertsitateko hiru irakasleri -Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoak denak- erakunde osoko profesionalek kontsultagarri izango duten Erredakzio Estatutua idazteko zeregina. Zuzendaritzak eta EITBko profesionalek 2012ko urriaren 6an onartu zuten proiektua, eta ondoren EITBko Administrazio Kontseiluak hilaren 30ean eman zuen onespena (*Berria* egunkaria, 2012, urriaren 6a eta 31a).

Kazetarien perfila zehazten duen bereizgarrien artean, kazetaria bera indibiduo bezala bere hedabideko kazetari taldearekin baita babesten duen Erakundeko beste komunikabideetako hedabideekin ezartzen dituen harreman eta identifikazio dinamikak daude. Edukien sorrera zikloaren eguneroko lan errutinetan, erakunde beraren pean dauden gaztelaniazko eta euskarazko irratien arteko elkarlana agerian jarri dugu, lan ohiturek bere erakusten dutelarik badagoela halako talde sentimendu bat, eguneroko lanerako zenbat eduki eta ordezkatzan ari diren errealitatea partekatzen dituzten heinean.

Oraingoan Euskadi Irratiko kazetariak euren ahulgune, helburu edota erronkatan bat datozen edo desadostasunak gailentzen diren behatzea dugu asmo. BBC eta TVE-ko kazetariak hedabidearekiko duten identifikazio maila eta zerbitzu publikoa izateari buruz dituzten iritziak aztertzen dituen ikerketak (Lamuedra, Lara-k, 2009), bi hedabideetako profesionalen diskurtsoak konparatzean erreakzio desberdinak azalartzen dira euren lanbideak eta hedabideak dituzten erronken pertzepzioan. BBCko kazetariak bat datoz etorkizuneko nahiak eta proiektuak zein ahulguneak

identifikatzeko garaian, eta TVE-ko kazetarien artean, aldiz, iritzi anitzagoak ageri dira. Horrek kazetarien arteko loturak baita hedabidearekiko jarrearen homogeneotasuna ezegonkorragoak direla adieraziko ditu

8.1.4.1. Edukien produkziarako denbora: orotariko gaiak lantzen dituen nonahiko kazetariaren muga

"Gertakarien inguruan eduki beharreko ikuspegi zorrotz eta zuhurra baino, kazetaritza lana epe jakinei zuzendutako jarduera praktikoa dugu" (Tuchman, 1978: 83). Aurreko aipuarekin adierazi nahi duguna da, denbora kazetaritza lanaren ezaugarri garrantzitsua dugu, bai kazetariak beraiek beren egunerokoan etengabe daudelako denboraren inportantzia berresten -ondoren ikusiko dugunez-, baina baita "denboraren igarotzearen inguruan dugun kontzientzia masa-komunikabideen produkzio zikloek egituratua delako" (Schlesinger, 1987: 83).

Euskarazko irriaren taldeko erredaktore-esatari gehiengoaren diskurtsoan -bereziki albistetan lan egiten dutenena- arazo komun bat azaleratzen da: denbora falta, eguneroko martxan edukiak ordurako taxuz landu ahal izateko astia ez izatea alegia. Erredaktore-esatari taldeaz gain albistegi burua ere bat dator ideia horrekin, euren irriak duen zama handi bat gauza bakoitzerako lan eta emisio "denbora mugatua" dutela esatean (albistegi burua, 2011) -gogoratu irriak gauean bost orduz soilik - 00.00etatik 05.05etara- ematen dituela programa errepikatuak, baina orduroko buletinak beti dira zuzenean-:

Oztoporik edo zailtasunik nagusia gaiak denboraz landu ezin ahal izatea da. Badaude pribilegiatu batzuk, XXXX [asteroko ekologiari buruzko saioaren gidaria] adibidez, egiten du saio bat oso berezia eta hortara dago eta da niretzako zoragarria. Baina gehienok joaten gara prentsaurrekora, etortzen gara kotxez kronika, egiten dugu, eta ja beste zerbaitera zoaz, ez duzu pentsatzen esan behar duzunaren inguruan ia ezer. Oztopo nagusia euskera bainoago, hori dan nere ustez. Euskara da oztopo neurri handi baten, erderazko korteak eta holako gauzak, baina hor irizpide argi batzuk baldin badituzu ez duzu zertan oztoporik izan behar, baino beste hau... eta murrizketekin okerrera dioa (goizeko albistegi-magazineko produktore eta kazetaria albistegietan3, 2012).

Agertu berri dugun aipu honen azkeneko ideia ahotan hartuz, Euskadi Irratian jada hasi dira sortze-prozesuaren denbora estutzen duten erabakiak hartzen; esaterako, hiru urteren buruan gertuko informazioa lantzeko kazetari taldearen kopurua murriztu egin dute, gertuko albisteetako editoreak oraingo lan-talde murrizta edukiak lehen bezala lantzea ezinezkoa dela azaltzen digularik. Bete beharreko denbora tartekak berberak dira baina eduki kopuru hori estaltzeko profesional taldea urriagoa da, eta beraz ez dute astirik erakundeetako agendetan ez dauden gai berritzaileak landu edo gai bakoitzerako iturri anitzak kontrastatzeko:

Etorri gara erdira, eta orduan lehen [...] arratsaldean gelditzen zen denbora beste herrietako aldizkariak lasai begiratzeko, erreportaje batzuk egiteko, gelditzen zen denbora gauza asko egiteko [...] baita hurrengo egunerako, edo gero badaude egun tonto batzuk, Aste Santuan, Gabonak, zubi luzeak eta hogeita lau orduko programazio baten hori beti egin behar da, horretarako beti balio izaten zuten eta orain, aldiz, ez gara iristen (gertuko albisteetako editore-aurkezlea, 2012).

Kazetarien denbora faltaren ondoriozko kekek ez dira kontu berria ez irratian ez beste ikus-entzunezko zein idatzizko komunikabideetan ere; eta Schlesinger-ekin bat etorriaz esan dezakegu, "oro har kazetariak industrializatutako gizarteetako talde profesionalen artean kokatuta, denboraren kontzientzia zorrotza duten profesionalak direla, zeintzuentzako denboraren zehaztasuna beharrezkoa den" (Schlesinger, 1987: 84). Euskadi Irratia, batez ere orduz-orduko albistegiei erreparatuta, beti dago martxan; albistegietako kazetariak berauek behin eta berriro adierazten dutenez "gurpila da egun guztian eta elikatu egin behar duzu [...] hemen irratian jendea lanean dago gaueko 00.00etan, 01.00etan, 02.00etan, gau guztian" (albistegietako kazetariari elkarrizketa, 2012).

Puntu honetan jakina garrantzitsua da beraz albistegietan egunero eta programetan asteroko saio batean lan egiten duten erredaktore-esatarien lan-ohituren desberdintasuna nabarmentzea; izan ere, aurretik azaldu dugun aipuan albistegietako kazetariak adierazten zuenez, asteroko saioaz arduratu behar duen erredaktore-esatariak astero gai edo arlo konkretu bertsu batzuei buruz hitz egiteak duen abantailaz gain, saio hori prestatzeko denbora tarte zabala izatea du ere bere alde,

produktu sakona -azalean geratu barik-, ikertua, kontrastatua eta iritzi zein pentsamolde anitzez osotua eskaintzeko. Oro har, gure inkestaren arabera kazetari talde osoaren %30a bat dator erabat "egunerokoan ez dut lantzen dudana edukiaren inguruan hausnartzeko denborarik" baieztapenarekin, eta %42ak halamoduzko adostasuna erakusten du.

Asteroko programa duten kazetariak ordea ez dira nagusi Euskadi Irratiko kazetari lan-taldean; albistegietakoak dira, horregatik azpimarratzekoa da eguneroko oztopoen artean albistegietako kazetari guztiak bat datozela esatean irratia "ziztu bizian" egin behar dela eta horrek euren lana nahi bezala egitea mugatzen duela; elkarrizketatutako eguerdiko albistegirako kazetari lan-taldeak azpimarratzen du hori bereziki, editore laguntzaileak ere hitzez hitz "eguerdikoa oso frenetikoa" dela azpimarratzen duelarik (eguerdiko albistegiko editore laguntzaileari elkarrizketa, 2012); "gure lanak duen gauza okerrenetako bat da ... *pitidoak* [txistuak] Bai edo bai sartu egin behar duzu" (gertuko albisteetako editoreari elkarrizketa, 2012), txistu hitzarekin denbora tarteak markatzen dituzten soinuak metafora gisa adierazi nahian. Albistegietako lan-taldeen gain, eguneroko goiz edo arratsaldeko magazin eta programetan lan egiten duten kazetariak ere asko dira, eta eguneroko lana izanik, hauen kexa ere bada edukiak nahi beste ikertu eta lantzeko denborarik ez izatea. Aintzat hartu behar da magazinak bi (arratsaldekoa) eta hiru (goizekoa) orduko tarteak izaten direla; arratsaldeko lan-taldea 6 kazetarik osotzen dute, eta hiru ordu irauten duen goizeko "prime time"-eko magazinerako 8 kazetari daude lanean -bietan gidari nagusi edo editorea barne-. Honek esan nahi du hiru ordutako magazinaren kasuan kazetari bakoitzak 20 minutuko tarte eduki beharko lukeela prestatuta, egunero astelehenetik ostiralera, eta bi ordutako magazinaren kasuan, bakoitzak 24 minutuko tarte -praktikan behatu ahal izan dugu hori ez dela zehazki ere horretara, gidari nagusia beti dagoelako estudioan ahotsa jartzen eta kazetariak tarteak ez dituztela egun guztietan mekanikoki era berean banatzen, baina bakoitzak bete beharko lituzkeen minutuen datua egin beharreko lanaren hurbilketa dugu-.

Denbora faltak gainera edukiaren beraren lanketari -iturriak, aipu interesgarriak- baina baita hizkuntzaren erabilerari eragiten dio: "[euskaraz] akats pila bat egiten ditugu batez ere azkar egiten duzulako" (kultura edukietarako kazetariari elkarrizketa,

2012). Honek badirudi zentzu batean kazetaritza, denbora arrazionalaren menpeko bihurtu dela, eta horrek eragin kaltegarriak ekarri diezazkiola kazetaritzaren kalitateari. Izan ere, gero eta gertakari gehiagoren berri eman nahi denean kazetari talde mugatuarekin, litekeena da berehala "kazetaritza lasterraren" (Gonzalez Gorosarri, 2012: 38) edo *fast journalism* deritzonaren zantzuak agertzea. Autore batzuen aburuz kazetaritza lasterraren aroan astiro doan edozer txarra da, eta beraz, komunikazio enpresentzat baliotsuena albisteak lehiakideak baino lehenago ematea (Wachholz, 2004: 155-180). Erronka beraz, azkartasunaren aurrean gogoeta eta sakoneko informazioa eta datuak lantzeko aukera izatea edo hartzea da. Kasu honetan, arazo nagusia ez da Euskadi Irratiko kazetariak albisteak ahalik eta lehenen emateko duten obsesioa, baizik eta irrati publiko generalista euskaldun bakarra izanik, eremu askotariko gai eta jazoerak bildu nahian, kazetari taldea "murriz" geratzea. Kazetariak denborarekin duten auzia indarrean egongo da beti, baina kasu honetan indar hori kontrolatzeko gaien aukeraketan irizpide kuantitatiboari gehiago baztertzea izan daiteke gakoa; kasu honetan gainera argi dago kanpotik -albiste agentzia, komunikabide- datozkien gaienezako ere kazetariak denbora behar duela albisteak euskaratu ez ezik, euskaldundu ere nahi duelako.

8.1.4.2. Hizkuntza baldintzatzaile denean: komunikazioa lehenetsiz erabaki

"Zure egunerokoan zeintzuk dira zailtasunik edota oztoporik handienak edukiak jorratu behar dituzunean... Hizkuntza, hizkuntza" (gertuko albisteetako editore-aurkezlea, 2012).

Albistegietako eta magazinietako zein astean behingo programetako kazetariak era bertsuan ukitzen dituen gehien aipatutako bigarren oztopoa hizkuntzarena da; lehenengotan gehien aipatutakoa denbora dugu, baina 22tik bost kazetarirentzat hizkuntzarena dela diote. Beste era batera esanda, oro har euskal hiztunen kopurua gaztelaniazkoena baino baxuagoa izatea³⁰ bat, gaiak baldintzatzen ditu -batik bat programen arloari begira-, eta bi euskarazko hitzak gaztelaniazkoengatik ordezkatu behar izatea eragiten du -batik bat albistegien eremuan-. Programak elkarrizketa eta

³⁰ Euskal Herrian bizi diren 2.648.998 pertsonetatik 714.136 dira euskaldun elebidunak; kopuru hori handiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, bertan bizi den populazioaren %32 baita elebiduna (V. Inkesta Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritza, 2012: 8).

erreportaje horrituak izaten dira hein handi batean, ez minutu eta erdi irauten duten albisteez, eta beraz, nahitaezkoa da elkarrizketa edo erreportajeak iraungo duen gutxienezko bost minutu horietan entzungo den ahotsak euskara izatea mintzabide. Programen abantailetakoa bat gaurkotasunari hertsiki lotutako gaietatik ihes egin ahal dutela, ez erabat, batez ere goizeko “prime time”-eko magazinak, baina ez dute azkeneko albistearen morroi izan behar. Gaiak aukeratzeko malgutasunean hizkuntza faktore garrantzitsua dela baieztatu dezakegu; izan ere, bai magazineko taldeko bileretan baita perfil horretako kazetariekin bideratutako sakoneko elkarrizketetan edukiak aukeratzekoan euskal hiztun onargarrien presentzia egoteak duen garrantzia azalatu da. Goizeko eta arratsaldeko orotariko magazinetakoa gidari nagusiek euren kazetari taldearekin dituzten bileretan, egunero honelako komentarioak jaso ahal izan ditugu: “euskaldunik ba al dago horretarako”; “bai, hori hiztun ona da...”; “bai, eta galdetu dut eta euskaldunak ere badaude hor”; “ospitaleen gaian euskaldunik daukagu?”; “Arlo horretan hiztunak bilatzea zaila izaten ari da...”, “Bai gainera hiztun onak daude han”; euskaldunik ez egoteak batzuetan gaia alde batera uztea baino, sormena lantzerako ere bultzatu ditzake: [asteburutako goizeko magazineko bi kazetariren arteko elkarrizketa] A: “Bai baina topatuko al dugu euskal hiztunik hor!”, B: “Bestela bi sozietaterekin egingo dugu eta listo”.

Beraz, gai bat aukeratzekoan, gaiaren berri ematearekin batera beti aipatzen da euskaldunik dagoen gai horri buruz hitz egingo duenik, eta une horretan ez badakite, kazetariak erakunde, elkarte edo dena delako horretara deitu behar dute, informazio hori euskaraz zuzenean emango dien norbait baden jakiteko;

Kazetaria baldin bazara deitzen duzu edozein tokitara eta eskatzen duzu informazioa. Guk beti bi galdera egin behar ditugu: Bat, informazioa eskatu eta bi, hau dena euskaraz kontatuko al didan bakarren bat ba al duzue? Beti, beti, beti. Lehendabiziko urratsa eman aurretik inork ez du sekula galdetu behar honi buruzko azalpenik emango dizkioten pertsonarik ba al duzue erdaraz hitz egiten duena. Hori sekula ere ez da galdetzen. Washingtonera deitzen baldin baduzu bai, baina hemen ez (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012).

eta hasieratik euskalduna egon badagoela badakite, bigarren pausua hiztun horren hizkuntza maila zelakoa den jakitea dago, alegia, Euskadi Irratiak euren erredaktore-esatarien bitartez eskaintzen duen hizkuntza maila mantenduko duen:

Oztopo handiena euskarazko iturriena. Orain dela 20 urteko egoerarekin alderatuta desberdintasuna egongo da, baina gaur egun be zuk dekozu gai bat eta erabat baldintzatzen du euskal hiztuna egoteak, eta euskal hiztuna patxadazkoa izatea. Esaterako, duela gutxi kotxe elektrikoaren inguruko erreportaje bat egin nuen eta euskaraz zekien neska gazte bakarrak oso gaizki zekien. Eta hori azkenean ezin duzu bota. Gaur egun ondiño ikusten duzu erderazko hedabide batek duela askoz ere malgutasun handiagoa gai gehiago jorrazteko (goizeko magazineko kazetaria, 2012).

Hiztunak euskaldunak izateaz gain, euskaraz “txukun” berba egiteak duen garrantzia kazetarientzat uste baino garrantzitsuagoa da, Euskadi Irratiak gizarteak jarraitu dezakeen -eta elebidun hartzaileentzat jarraituzera iritsi beharko lirartekeen- moduko euskara maila eskaini behar duela oso barneratuta dutelako; beste gaztelaniazko hedabideetan gaztelera espresatzeko arazoak dituzten hiztunak onartuak izango ez lirartekeen bezala, euskarazko irrati publikoko kazetariengan gailendu egiten da euskaldun hiztun onargarriak lortzearen beharra -ez hainbeste albistegietan (ez bada pertsonaia hautatu bati egindako elkarrizketa politikoa esate batera), non ez duten aukera gehiegirik izango kontuan hartuta politika, nazioarteko edo ekonomiako albisteetan ez dagoela euskaldun hiztun aukera gehiegirik, baina bai programetan, non malguagoak izan daitezkeen gaien aldetik eta batzuetan hiztunaren karguaren aldetik edo istorioan duen presentziaren aldetik-. Hala ere, kazetarien artean ere ez dago oso argi -iritzi desberdinak nabarmentzen baitira- zein neurritaraino den beharrezko eta baldintzagarri gonbidatuek edo irratian parte hartzen duen kanpoko jendeak euskal jario bikaina izatea; izan ere, Euskal herrian dauden euskaldun elebidun denek ez dute hizkuntza maila bera, eta hori irrati publiko baten kazetarien buruan presente izan behar den faktorea dugu:

Hiztunen kalitatearekin zenbateraino irratiak zorrotzagoa izan behar lukeen eta eskatu maila bat? [...] gehienetan arazorik handienak, eta ez da guri loreak botatzearren, badira kaso batzuk gu izan gaitezkeenak akatsak egin ditugunak, baina gehienetan maila jaisten

da asko gonbidatuen arabera. Orduan hor arazoa konplikatua da ze esaten duzu euskal hiztuna da, bai, ze mailatik gora da guk onartu behar dugun gonbidatu bat. Batzuetan egiten da aniztasun politikoaren mesedetan, ematen zaio sarrera euskara maila nahiko zalantzakoa duen jendeari [...] Oso diskutigarria da, baina beno, irabazten duzuna ere hor dago. Batzuetan da aniztasun politikoa da, beste batzuetan presentzia ematea Bilbo inguruko jendeari edo ezkeraldeko jendeari edo hemen bertako euskaldun berri gipuzkoarra; bestela ez daukan arlo bati presentzia ematea, bestela presentzia ez daukan errealitate bati (kazetaria albistegietan2, 2012).

a) Erdarazko soinu-zatien erabilera: zilegitasuna eztabaidagai

Hizkuntza oztopo denean, albistegietan lan egiten duten kazetarien diskurtsoan gaztelerazko korteen “beharrezko” presentzia da iratiaren ahulgune nagusietakoa; “korteena eguneroko borroka bat da. Ikuspegi finko bat ezingo nizuke esan, ni ez nago ez erabat alde ez erabat kontra” (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012); “oso zaila da, ez da debate erraza, ze ni ere ez nago erabat ixtearen [erdarazko korteen iturria ixtearen] alde” (goizeko albiste-magazineko produktorea eta kazetaria albistegietan3, 2012); “ez dut iritzi argi bat, testuinguruaren arabera” (asteburuetako albistegietako editoreari elkarrizketa, 2012). Aipu horiek albistegietan lan egiten duten elkarrizketatutako erredaktore-esatari gehientsuenen iritzia laburbiltzen du, hau da, albisteetan gaztelerazko aipu gehiegi sartzearen gaia mahai gainean dutela egunero baina aldi berean ez dago kazetaririk argi esaten duenik gaztelerazko hitzak ez liratekeela inoiz ere era horretan, aipu zuzen gisa, sartu behar -programetan belaunaldi zaharrean sartzen diren kazetari batzuen iritzia desberdina da, aurrerago azaltzen dugunez-. Euskadi Irratiko zuzendaritzak ezarritako euskarazkoak ez diren korteak sartzeko arauetan, gehienez 12 segunduko kortea emititu daitekeela euskara ez den beste hizkuntza batean ezartzen dute; hortik gorako korte guztiak euskaraz bikoiztuta egon beharko dira (programazio burua, 2011). Hala ere, kazetari batzuen iritzi,

Erderazko korteak gaur egun sartzen ari ditugu edozer bezala. Ni lehenengoa. Nik Patxi Lopez jarraitu nuenean [eguerdiko albistegiko editore laguntzaile zenean] sartzen nituen egunero erderazko korteak. Egunero. Eta hor, erabat libre gelditu da eta ordun... euskeraz daukazun materiala da hau, erderaz daukazuna da hau, orduan hau libre uzten duzun

momentuan, agur (goizeko albiste-magazineko produktore eta kazetaria albistegietan³, 2012).

Sakonean elkarrizketatutako asteroko "Ekosfera" programaren gidari nagusiaren aburuz, zeinak 23 urte daramatza irrastian eta denbora gehiena informatiboetako kazetari legez, ez liteke inoiz ere bikoizturik gabeko aipurik sartu behar, jarrera hori errepikatuz, azkenean kazetariaren lan-ohitura bihurtzen delako, kortea bera ematea derrigorrezkoa den zalantzan jarri gabe. Ildo beretik ekiten dio albistegietan kiroletako editore den kazetariak, irrastian 28 urte daramanak; honek ikuspegi positibo bat ere ematen du, egun euskal hiztunak gero eta arlo gehiagotan egonik, errazagoa dela kiroletan ere euskarazko testigantzak lortzea:

Guk euskeraz bakarrik emititzen dugu, eta gaur egun ere esan daiteke kirol saila dela filosofia horri gehien eusten diona. Beste arlo batzuetan erderazko korteak sartzen dira edo bikoizten dira. Kirol arloan nahiko eusten diogu horri, nahiez eta beste batzuk sartu diren jada joku horretan [...] Duela 25 urte, euskal hiztunak aurkitzea kosta egiten zitzaigun. Orain oztopo hori gainditua daukagu, ikusten da euskal hiztunak esparru askoz ere zabalagoan ditugula (adibidez Errealean egongo dira 7-8, Athleticean beste hainbeste) [...] Gaur egun euskal hiztun askoz gehiago ditugu, baina ez dakit gu geu erlaxatu garen [...], uste dut errezenara jotzen dugula. [...] Irrastian gaztelerazko korte bat sartzen denetik, hortik aurrera ez dago mugarik. Eta beste baten hitzak esatariak esanda sinesgarritasuna galtzen du? Nik uste dut ez dagoela arazorik beste baten hitzak esatearekin [...], adibidez, azpitik jartzen hitz originalak (albistegietako kiroletako editore-aurkezlea, 2012).

Nik uste astakeri bat dela atzerriko gauza horiek sartzea doblajerik gabe. Ematen badiozu kazetariari erraztasuna sartzeko, gero eta errezagorik sartuko du, batzuetan behar beharrezkoa dela jakin gabe eta gainera gero eta luzeagoa sartuko du. Beraz, nolabait tasa bat pagatu arazi behar zaio kazetariari, izan dezala hori bikoizteko obligazioa bestela errexkerian erortzen gara. [...] kazetariak ere presaka lan egin nahi du, erreze egin nahi du, eta errexkeriara erortzen da. Beraz alde horretatik esperientzia eta iritzia garbia dut. [...] Nik uste hor arauak oso zorrotzak izan behar dutela eta diskriminazio positiboaren aldekoak, kasu honetan, euskararen aldekoak. Esaten badidazu Obama-ren "Yes, we can" sartu behar duzula, ondo, baina bi segundu besterik ez dira izan. Eta hurrengoa esanguratsua al da, benetan beharrezkoa al da? Niretzako askotan ez. Orduan gauza horiek

nire ustez galerazi egin behar dira (asteroko ekologia programaren editore-aurkezlea, 2012).

Ez dizut ukatzen zuri lan bat eskatzen ez baldin badizu inork, zu ere errexkerian erortzen zara (goizeko albiste-magazineko produktore eta kazetaria albistegietan³, 2012).

1957. urtea edo lehenago jaiotako azkeneko kazetari honen iritzia kultura arloko edukiak -bai albistegi zein programetarako- ekoizten dituen kazetariarekin talka egiten du. Bigarren honen aburuz, artistaren ahotsak indar gehiago ematen dio esaten ari denari. Horregatik nahiago du 12 segundoko gehienezko denbora hori agortu, hizlariak esandakoa bere hitzetan laburbiltzea baino:

Pertsonaia pertsonaia da eta artista artista da, eta nere ustez sartu behar da eta horrek ez du erran nahi egon behar duenik 40 segundo solasean [...] Nahiago dut sartu 12 segundo, nire hitzak itzuli baino, ze jendeak entzun nahi du Paul Auster etortzen bada Paul Auster entzun nahi du, edo etortzen bada Mike Jagger ba bera entzun nahi du, edo Shakira [...] egia da kazetari batzuk esaten dutena, horretan hasten baldin bazara ... [joku biziotsua izan daiteke] bai, baino beti euskarazko kortearen bila joaten zaren bezala, artistaren ahotsa ere sartzeari nire ustez mesedegarria da [...] entzuteko orduan behintzat atseginagoa (kulturarako kazetaria, 2012).

Beste batzuetan aldiz, 12 segundu horiek ez dira bikoizten denbora faltaren poderioz, batez ere, baliabide teknikoak falta zaizkizunean, Euskadi Irratiko Gasteizko egoitzan gertatzen den bezalaxe. Gaur egunean Eusko Jaurlaritza erdalduna da ehuneko handi batean, eta beraz, aipu gehienak bikoizteko denbora behar du kazetariak, baina baita baliabide teknikoak. Bertako estudioa txikia da eta audio pista bakarra dauka, eta bikoizketa egiteko erreproduzitzuz duen pista bat eta grabatuko duen beste bat behar du. Beraz horretarako kazetariak Radio Vitoria-ren estudioa libre egotera itxaron behar du eta beharbada hori baino lehenago informatiboa iritsiko zaio. Hortaz nahiz eta berez bikoizketa zaila ez izan, eguneroko erritmoan, ez da burutzen, ezinezkoa delako.

Gaur egun Euskadi Irratiko kazetari gehienek kasuan, **jatorrizko aipuak** erabiltzearen aldeko jarrerak du indarra euren arrazoiketetan; alegia, antzematen dena da Euskadi

Irratiko kazetariak badakitela zein den ordezkatzeko duen errealitatea, eta nahiz eta euskara hutsezko zerbitzua izateko jaio, hasieratik gaur egunera albistegietan lehenesten diren gaiak aldatu diren bezalaxe -albistegiak nazioarteko albisteek edota Espainian jazotakoek ireki dezakete-, istorioaren erdian kokatzen diren subjektuen esanak euskaraz ez ezik, bestelako hizkuntza batekoak izan arren, garrantzitsuak eta adierazkorrak badira, bere horretan agertuko dira. Beti ere, aurretik aipatu dugun irratiko zuzendaritzak ezarritako gehienezko erdarazko korteen segundoak errespetatuz:

Nik momentu honetan ez dut ulertzen ingelesezko korte barik bezala, gaztelarazko korte barik egitea Euskadi Irratia. Hori ez dut ulertzen ze errealitatea ez da hori. Zaila da horri neurria hartzen [...] Nire ustez kortea aberasgarria bada, erderaz ere sartu behar da, hor nire buruarekin ez daukat inolako problemarik. Baina bai gure mugak jarri behar ditugula. Nik askoz zilegiago ikusten dut Madrilgo korrespontsalak bere kronikan gaztelarazko korte bat sartzea, guk hemendikan baino, agian jantziko du, edo agian ez, agian azkenean jada ohitura da korteekin politagoa egitekoa. Eta gero askotan jabetzen zera, joe, zenbat korte erderaz, zenbat korte zapalduta, zenbat korte bikoiztuta (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012).

Garai batean, ni hasi nintzenez [90. hamarkada hasieran] hemen eta ikaslea nintzenez, euskeraz esaten ez zena ez zen existitzen, eta hori ere ez da; sortzen ari zara gauza bat ez dena. Eta hor ezin duzuna da informatibo bat egin errosarioa bezala, zuk gauzak kontatuz. Azkenean erderaz esaten denari arreta jarri behar diozu ze hori gertatu da eta gainera entzuleak jakin behar du edo jakin nahi du. Esan nahi dut hori jada aspaldi gainditutako gauza bat dela; gero beste kontu bat da horri ze forma eman behar zaio antenan. Zenbateraino azaldu behar duen erdarazko korteak eta nola *ponderatu* behar den, hau da, ze presentzia eta ze garrantzitik aurrera eman behar diren adierazpen horiek. Hori da pixka bat eztabaidatu daitekeena. Baina bestela ... erabat *prescinditu* ezin dela egin (kazetaria albistegietan1, 2012).

“Hori jada aspaldi gainditutako gauza bat da”, esaten digu albistegietako kazetariak. alegia, euskaldunak bere aparteko mundu partikularra izan behar duela, soilik bere nahi, gustu informatibo eta aisialdikoak aseko dituen, hori, gaindituta dagoela. Hori izan da euskaldun komunitatearen inguruko pentsaera bestelako komunitateen

aldetik denbora luzean, baita euskaldun komunitatearen beraren barneko kideena kasu batzuetan. Baina XXI. mendean, euskarak Espainiako bi autonomia erkidegotan (EAE eta Nafarroako eremu batean) 32 urtez ofizialtasun estatusen daraman honetan, euskalduna beste edozein komunitateren, baina gaztelaniadunaren, parekoa dela barneratuta dagoela esan daiteke, nahiz eta bere kulturaren parte diren berezitasunak -hizkuntza, musika, folklorea, historia- kontserbatzen jarraitzen duen; eta horretantxe dago azken batean Euskadi Irratiaren lorpen edota erronka nagusietakoa, euskaldunari beste edozein komunitateren pareko den heinean, errealitatea euskaldunaren perspektiba partikular horretatik kontatzea.

Ez da euskara ez den beste hizkuntzen presentzia sartzearen mentalitate aldaketa. Hain zuzen, egun kiroletako burua den kazetariak ere, nahiz eta bere saioetan oso gauza puntuala ez bada ez duten erderazko korterik erabiltzen, erabilia ere ez lioke buruhauste handirik sortuko. Aitortzen du euskaraz aritu nahiak, eta beharrak jakina, oztopatu egiten diela beste hedabideekin lehiatzea kirolariak edo entrenatzaileak elkarrizketatu nahi dituztenean -nahiz eta kazetari honentzat beren mugarik handiena aurrekontu arazoengatik beti izan da futbol partiduetara ezin joatea-. Adibide garbi bat ematearren, saskibaloian adibidez Euskal Herrian dauden hiru talde indartsuetatik, Bilbon presidente ordeak besterik ez daki euskaraz; Donostian bigarren entrenatzaileak, zuzendari teknikoak eta normalean gutxi jokatzen duen jokalaria batek; eta Gasteizen presidentea da euskaraz dakien bakarra baina ez du inoiz ere hitz egiten. Horregatik dute zaila beste hedabideekin lehiatzea, protagonisten ahotsak falta zaizkielako; hala ere, esan bezala, kiroletako buruak, baita beste lan-taldeko erredaktore-esatari edo editoreek, gai honen inguruan galdetuta argi adierazten du ez lukeela beste hizkuntza batetako korterik sartzeko inolako arazorik izango:

Adibidez duela urte batzuk Simone Morok 8.000ko mendi bat igo zuen neguan, elkarrizketatu genuen eta pasarte batzuk sartu genituen. Bera italiarra da baina erderaz ondo daki eta pasarte batzuk sartu genituen erderaz. Sartu genituen iruditu zitzaigulako zerbait aportatzen zuela. Niri orain traumatikoa iruditzen zait, Indurainek *tourra* irabazi zuenean bere ahotsik ez genuen sartu. Orduan oso talibanak ginen eta ez zegoen bere ahotsa sartzetik (kiroletako koordinatzailea, 2012).

Beste batzuek esaten dute, egin behar duguna da erabat itxi [erdarazko korteen erabilera] [...] Hemen esaten ez duen arte norbaitek *pues sí vamos a hacer un referendun sobre la independencia*, ordun hori bai, ez ! Ni ere ez nago batere horren alde eta neurri batzuk jarri behar dira [...] Eta errespetatzen ez duenari esan egin beharko zaiola ez duela errespetatzen (goizeko albiste-magazineko produktore eta kazetaria albistegietan3, 2012).

Indarra eman nahi badiozu notiziari, ez da berdina zuk kontatzea edo ginetik zapaltzea [...] Ni batzuetan horiek sartzekoaren aldekoa naiz, batzuetan *exageratu* egiten dugu, baina askotan gertatzen da, segun ze egun daukazun korte guztiak gaztelaraz daukazula. Eguneko albisteak izan direnak, pentsatu orain, Rajoy, Zapatero, punta puntan egon dira. [...] saiatzen gara ahalik eta gutxien izan daitezen, ahalik eta korterik motzenak izan daitezen (arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea, 2012).

Beraz, euskarazkoak ez diren beste aipuak sartzeko arazorik ez dago behin-behinekoan, nahiz eta horretarako oraindik egun ezarrita dauden irizpideak gehiago zehaztu beharko lirakeen eskatzen duten kazetariak, baita horren gaineko eguneroko nolabaiteko kontrolak egotea. Hain zuzen, gaztelaniazko korteak erabiltzearen alde egoteak ez du esan nahi kazetarien egunerokoan ez dagoenik erderazko aipu gehiegi erabili izanaren kezka, batez ere, albistegietako editoreen artean -lehen esan bezala, eguneroko "borroka" dute hau (gaztelaraz zer sartu eta zer laga kanpoan)-. Horretarako irizpide finkoak egotea batzuetan faltan sumatzen dituztela esan daiteke beraz; alegia, galdera erdarazko kortea sartu bai edo ez, kortea bera sartu bai edo ez izatera igaro behar dela:

Ahal balitz bikoiztu beharko litzakeela bai, baino lehenengo neurria izan beharko luke pentsatzea benetan korte horrek adierazgarri ote diran. Askotan ez dira adierazgarriak, zeozer sartzegatik sartzan duzu eta zure ahotsa bakarrik tristea geratzen delako, baino ez berak esaten duena inondik inora adierazgarria delako (goizeko albiste-magazineko produktore eta kazetaria albistegietan3, 2012).

Askotan kortea baino gehiago izaten da ba pixka bat errealismo puntu bat emateko ere bai, bizi pixka bat (kazetaria albistegietan2, 2012).

Kazetariak aitortzen dutenez albistegietan sartzen zituzten erderazko korteak zenbatu izan dituzte. Batzuetan “eta exagerazio bat” dela diote, “normalean korteak jantzi egiten” duenaren uste zabalduan.

Batzuetan sentsazioa daukat gaztelerazko korte gehiegi sartzen ditugula, behar ez diren korte gehiegi. Beste batzuetan aldiz, pentsatzen dut eta hau zergatik ez dugu sartu behar, albisteari beste gorputz bat ematen badio zergatik ez dugu sartu behar. Orduan ez dut iritzi argi bat, baina batzuetan gertatu zait informatiboa bukatu eta esan uste dut gaurkoan erdarazko korte gehitxo joan direla (asteburuetako albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Horregatik ondo begiratzen saiatzen dira testuinguruaren nondik norakoak; prentsurrekoetatik beti korteak ekartzen dituztenez probabilitate handiagoa dago euskarazkoa ez den baten bat sartzeko, baina bestelako egoeretan beste erabaki batzuk hartzen dituzte gehienezko erdararen presentzia ekiditeko -buruan dute hori beraz une oro-. Esaterako, elkarte baten ekitaldia estaltzera ezin badute joan, elkarteko arduradunari/nei telefonoz deitzen diete albistea ematean korte bat izateko; baina arduradunak euskaraz ez badu egiten, ez diote korterik kenduko. Jasotako informazioa hartu eta kazetariak kontatuko du bere hitzetan.

Momentu honetan irratian badugu irizpide bat dela gaztelerazko korteak 10-11 segundora arte bakarrik erabili daitezkeela bikoiztu gabe eta hortik aurrera bikoiztu egin behar ditugula. Ez dut argi.

Albistegietako emisio ondorengo bileretan, eguerdiko eta arratsaldeko albistegietako editoreak elkartzen direnean gaien traspasoa egiteko esaterako, ez da ezohizkoa editoreari betondoa ilunduz, haserre eta kexa artean “korte guztiak gazteleraz!” esaten entzutea; edo “gai hori aipatu dut baina korterik gabe”, gai hori lantzeko korteak ere gazteleraz zirelako. Beraz, kazetariak bai errealitatea islatu nahi dute, baina euskararekiko duten konpromisoa eta euskarazko zerbitzu bat izatearena errespetatuz;

euskal hiztuna zaren heinean baduzu halako konpromiso bat, eta bestela ez zinen izango [...] Ez zinen amorratuko Blanca Urgell entzuten ezta, ze zure eskubideak urratzen ikusten dituzu etengabe, euskal hiztuna zaren heinean, baina kazetaria izan edo ez izan (kulturarako kazetaria, 2012).

Baina arazo honetan badaude jaso ditugu bestelako iritziak ere. Pasilloan aurrez aurre topatzen dugun albistegietako kazetari batek -irratian 20 urte baino gehiago daramatzanak- esaten digu irrati honek, irrati publiko izaera ez betetzeaz gain, "gizarteko zati bat ordezkaturik ez dagoelako", Ezker Abertzalea hain zuzen ere, (era zuzenean horrelako aipamenik egiten digun kazetari bakarra da), gaztelerazko gero eta korte gehiago erabiltzen dituela. Albistegietan egindako behaketetan berak lantzen dituen albiste guztietan korteak euskarazkoak direla behatu ahal izan dugu (eta gaztelerazkoak izatekotan, denak bikoiztuak). Aipu hau azalerazi nahi izan dugu nahiz eta anekdotikoa izan, irratia ulertzeko beste ikuspegi bat azaltzen duelako. Alegia, beste kazetari batzuek batzuetan gaztelerazko korte "gehiegitxo" erabiltzen dituztela esaten badute ere, erabilera hori nolabait justifikatzeko erak dituzte, erdal hedabideekin lehiatzeko edo sinesgarritasuna eransteko bideak izan daitezkeen heinean. Kazetari horiek irratia tresna mediatiko gisa ulertzen dute, irratia era profesional batean egitea dutela helburu irratiekin lehiatzeko. Aldiz azken kazetari honek irratia gehiago ulertzen du tresna politiko gisa, eta nahiz eta nagusi ez izan, ikuspegi hori ere irratiaren baitakoa dugu eta horregatik ekarri nahi izan dugu era honetan.

Laburbilduz eta joera nagusi bezala, erdarazko aipuak behar-beharrezkoak eta erabat justifikatuta ez daudenean behintzat saiatzen direla ez sartzen diote albistegietako kazetariak. Egunero bizi duten errealitateak ordea, ez die holako korterik ez emateko bidea errazten. Hasteko, batek baino gehiago salatzen du Eusko Jaurlaritzako politikarien aldetik euskararekiko sentsibiltate eza ikaragarria dagoela; oraingo taldekoa (2009-2012), baina baita aurretiko sailburu batzuen, nahiz eta albistegietako editore batek nabarmentzen duen lehendakariaren sentsibiltatea euskararekiko handia zela. Beraz gauza asko ez dira euskaraz pentsatzen, eta honek eragiten du erredakziora deialdiak heltzen direnean ere, Euskal Herriko alderdi politikoen deialdiak esaterako, askotan soilik gazteleraz bidaltzen dituztela; edota

kazetariarentzat zailagoa eta eguneroko arazoa dena, prentsaurrekoetan gaztelera hutsean ibiltzea. Politikoei batzuetan euskaraz zerbait esateko konpromisoa hartzen dute, “korte tonto bat bada ere” -Euskal Herriko komunitate euskaldunaren aurrean ere irudi egokia saldu nahi dutelako-. Dena dela, finean alderdi politiko bakoitzak nahi duena egin dezake, baina askotan gertatzen zaie erakunde publikoetako ordezkariak ere, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailburuk esate batera, euskarazko hitz bat ere ez erabiltzea prentsaurrekoetan; zuzenean bizi izan dugun egoera horretan, kazetari bat baino gehiago amorratu egiten da:

Beste gauza bat pasa dana azkenengo urteetan: garai batean euskeraz zekitenei ez zitzairen erderaz sartzen. Hori ere airetara joan da. Orduan ia iristen gara momentu bat Urkulluk erderaz gauza on bat esan baldin badu igual ez zaigula hainbeste interesatzen euskeraz esatea erderazkoa sartu dezakegulako (goizeko albiste-magazineko produktore eta kazetaria albistegietan³, 2012).

Nik 24 urte daramazkit Euskadi Irratian euskaraz lan eginez, eta nire lankideak prentsaurrekotik bueltatzen dira esanez, "eske goitik behera erderaz egin du dena" [...] Edo du korte bat erderaz oso-oso potentea, baina gero igual euskaraz ez du berdin espresatu [prentsaurreko kideak], ez duelako pentsatu euskaraz, nahiz eta euskaraz jakin (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012).

López-ek [Patxi López Eusko Jaurlaritzako lehendakariak] euskeraz ematen du batzuetan bai baina euskeraz ematen duten kortea izaten da *para salir del paso*, eta orduan benetan mezua bota duena daukazu gaztelera (arratsaldeko albistegiko editore-aurrekoa, 2012).

“Jende batek eduki dezake kargu moduko bat, beno euskaraz ere eman behar dugu. Baina gauzak ez dira euskaraz pentsatzen eta hori igarri egiten da” bat egiten du asteburutako 25-34 urte bitarteko albistegietako editore batek aurretik azaldutako aipuekin. Gainera, prentsaurrekoetan lehenengo gaztelaniaz batek eta ondoren euskaraz beste batek egiten duenean ere, askotan batak edo besteak bizitza publikoari begira ez dute garrantzi bera; alegia, gaztelera alderdi baten arduradun nagusiak hitz egiten du eta euskaraz pertsonaia publiko hain garrantzitsua ez den alderdiko kideak. Mezuak eragin desberdina du. Errealitatezko adibide bat emateko: Aralar alderdiak prentsaurrekoa eman zuen 2012ko otsailaren 23an, une horretatik aurrera zer bide

jarraituko duten azaltzeko; Patxi Zabaleta, alderdiko buruzagia, eta Rebeka Ubera, alderdiko kidea. Lehenengoak gazteleraz egin zuen, goi mailako euskal idazlea eta euskaraz hiztun ezin hobea dena eta bigarrenak euskaraz; “egunero-eguneroko problema da” (arratsaldeko albistegietako editore-aurkezlea, 2012). Eguneroko zailtasunen artean kazetari batek baino gehiagok agertzen du beraz euskararekiko sentsibilitate eza ikaragarria dagoela, batez ere politikoen aldean jarriz zama.

“Ez dago sentsibilizazio bizarririk, batere. Esate baterako gaur gertatu zaidana, Blanca Urgell kultura sailburuak berak aurkeztu nahi izan du 9:30ean 2012 bakea eta nola da...[2012 Euskadi, Bakea eta Askatasunaren aldeko kulturen urtea] eta egin dituzte aurkezpen batzuk ezta? hitz bat bera ere ez da euskaraz izan” (kulturarako kazetaria, 2012).

“Deitzen duzu Eusko Jaurlaritzara gai baten inguruan informazioa eskatuz, eta prentsa bulegokoak esaten dizu, burla egitea dena, "y además querrás alguien que te hable en euskera", jakina baietz! Eta ez da Jaurlaritzara mugatzen. Patxi López-ek Jaurlaritzako Lehendakari moduan adierazpenak egiten dituen tarteka parrafoen bat euskaraz hala moduz irakurtzen du, baina Alderdiko ekitaldietan, bere saltsan dagoenean, ez du euskararik erabiltzen” (asteburuetakako albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Zuzenean behatu eta kazetariekin komentatu ahal izan dugunez, prentsaurrekoetan hizlarien aldetik bi fenomeno antzeman daitezke -kazetariak berretsitakoak-, bigarren fenomeno batik bat kultura edukiak ekoizten dituen Bilboko kazetariak jasaten dutelarik: lehenengoa da euskara erabiltzen ez duen politiko edo pertsona, euskaraz ez dakiena baina axola ere ez zaiona -kasu honetan kazetariak aurretik eskatu behar dute esaten duena euskaraz behar dutela, eta orduan askotan beste pertsona batek laburpen bat egiten du-; beste fenomeno euskalduna izan baina euskaraz egiten ez duen hizlariarena da, batez ere Bilbon lan egiten duen kazetariak nozitu beharreko egoera kultura arloko hainbat aurkezpenetan: Bilboko Alondegiko³¹ lehenengo zuzendariak, Maria Anjeles Egaña, ez zen erabat moldatzen euskaraz, baina bere lantalde guztia bai, eta prentsaurreko guztiak beti gazteleraz izaten ziren. Kuriosoki gainera, bertara urreratzen ziren hedabideetako kazetari ia gehienak euskaldunak ziren (Euskadi

³¹ Bilboko Alondegia hiriaren erdialdean dagoen eraikuntza historikoa da. *Alhóndiga Bilbao* du izen ofiziala. Birgaitze prozesu baten ondoren, diziplina anitzeko gunen bihurtu zen, hurrengo helburuak zituelarik: hiritar guztiei irekia egotea eta ezagutza, ongizatea eta jostaketa ahalbidetzea. Antzina aleak eta beste zenbait jangai gorde, saldu eta erosteko gunea (<http://www.alhondigabilbao.com>).

Irratikoa, *Berria*-koa, *Gara*-koa, *Bizkaia Irratia*-koa, *Bizkaie*-koa, Radio Euskadiko kultura edukietarako kazetaria, *Deia*-koa, *Nontzeberri*-koak), *El País*-ekoa euskaraz ikasten ari zen eta *El Correo*-koa ez zen euskalduna. Kazetari euskaldunek gainera dena euskaraz esan baldin bada gaztelaniazkoei laguntzen diete itzulpen lanetan, “eta bestela guk egiten duguna egiten dute: mesedez errepikatuko zeniguke hau nola esan duzun?” (kulturarako kazetaria, 2012). Honenbestez, Euskadi Irratiko kazetariak ohituak daude prentsaurrekoetan mesedez euskaraz errepikatzea eskatzera, batez ere, jakin badakitenean gaztelaniaz hitz egin duen pertsona berak euskaraz ere badakiela. Eguerdiko eta arratsaldeko albistegietako editoreen arteko bileretan ere, esandakoari aipamen egiten zaio zeharka. Esaterako 2011kako otsailaren 16ko bileran, zeinetan eguerdiko albistegiko editoreak arratsaldekoari komentatzen dion Jesús Uzkudun-en kortea (Comisiones Obreras sindikatuko lan-osasun eta ingurugiro arduraduna Euskadin, euskaraz badakiena) gazteleraz soilik dutela, “ze gu ez gara joan eta telebistatik ez dute inor ere bidali. Eta gu garenez euskaraz eskatzen dugun bakarrak... eta Uzkudun ez denez gai bere kabuz euskaraz egiteko...”.

Beraz, hizkuntzaren aldetik, nahiz eta oro har Euskal Herriko euskaldun elebidunen kopurua igo izan 1991tik -Euskal Autonomia Erkidegoan 2011an 1991an baino 181.000 euskal elebidun gehiago daude (V. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, 2012: 4)-, hala ere, Euskadi Irratiko kazetarien ustea da, euskararekiko sentsibilitatea ez dela behar beste garatu beren egunerokotasunak islatzen duenez, ez elebidun hartzaileen artean ezta euskal elebidun osoen artean ere; kokapen geografikoak, giroak edo kargu zehatz batean egoteak baldintzatzen du oraindik publikoki euskaraz egiteak, eta horrek eragin zuzena da euskara hutsezko irratiko publikoan. Alde horretatik dena dela, Euskadi Irratiko lantaldeko kazetari gehienek argi dute nahiz eta amorrazioa sentitu politikariek eta elkarte garrantzitsuetako ordezkariak gaztelaniaz besterik egiten ez dutenean, argi dute beraien komunikazioa dela. Alegia, “hizkuntza komunikatzeko tresna bat” dela, isiltasuna, forma eta erritmoarekin batera, eta “lehenago komunikazioa dago eta gero tresna” (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012).

Gaztelerazko kortea adierazgarriagoa bada euskarazkoa baino, lehenengoa sartuko dute, benetan pertinetea eta kazetaritzari begira beharrezkoa dela frogatzen bada. Hori teoriarik. Izan ere, bigarren arazo izendatu duguna lehenengoagatik baldintzatua

ere dagoela esan dezakegula, edo kazetariak edukiak sortzeko duten denborak eragin zuzena izango duela erabiliko diren korteen egokitasun, adierazgarritasun edo bikoizketan.

b) Euskararen kalitatea irratian = kazetarien komunikatzeko gaitasuna

Euskal hizkuntzaren beraren aldaketek gizartean izan duten garapena azaltzetik urrun, tarte honekin kazetariak beren eguneroko lanerako oinarritzakoa duten tresnarenganako ikuspegi eta pertzepzioak batu nahi genituen. Zentzu honetan, ikuspuntu aldaketa agerikoa da belaunaldi batetik bestera, lehenengo belaunaldiko kazetariak -irratian bi hamarkada baino gehiagoko ibilbidea dutenak, 1957 edo lehenago jaiotakoak, egun 55 urtetik gora dutenak- hasierako euskara maila denboraren poderioz gainbeherara joan dela iristen diotenaz. Alde honetatik, belaunaldi gazteenei kritika egiten datoz; gogoratu beharra dugu Euskadi Irratia sortu zenean ez zegoela euskaraz kazetaritza egindako jende askorik, eta bera, lehenengo 10 urteetan irratia baliabide humanoetara emateko euskal filologia fakultateetan zegoen jendea erakarri zuten irratira. Profesional hauek kazetaritza lana *on the ground* ikasi zuten, eta hizkuntza zaintzen zuten bereziki:

Orduan [1989an] sartu zen jendearen formazioa euskararen aldetik hobea zen. Beharbada ikastolako jende gutxi zegoen, baina jende irakurria zen, euskaraz asko irakurritakoa eta saiatutakoa. Oraingo jende gazte honek ez dakit libururik inoiz irakurri duen [...] Dena ez da Euskadi Irratiko euskararen gainbehera, baina okerrago egiten da orduan baino; eta bestetik gizartean ere euskarak beste alor batzuk hartu ditu, komunikabideetan, administrazioan eta abar, eta hor fenomeno diglosiko bat gertatu da. Beharbada arazoa ez da hiztegiaren aldetik izan, baina bai morfosintaxiaren aldetik, nik uste hor gauzak apur bat galdu egin direla [...] Orain hizkuntzan (euskaran) kreatibitatea ingelesezko esaldietatik dator. Orain arte futbolearen ez da esan "ez dakit zeinek sentsazio onak izan ditu"! [...] Baina hori fenomeno normala da hizkuntza guztietan. Eta horren antidoto bakarra da irakurtzea eta euskal filologia ezagutzea (asteroko ekologia programaren editore-aurkezlea, 2012) .

Belaunaldi bereko kazetariak morfosintaxitik harago joan eta hizkuntzarekin jolas egiteko beharra berpiztu behar dela azpimarratzen du, albistegietan hainbeste preziatzen ez bada ere, programa baten gidaritzarako oinarritzako elementua dela

iritsiaz. Izan ere, hasieratik sartu diren kazetarien diskurtsoan ulertu ahal izan dugu albistegietan eta programetara bideratutako jendeak profil desberdinak zituztela, bigarren kategoria horretan euskal filologiatik etorritako hainbat jende sartu zelarik.

[magazinetan] batez ere hizkuntzaren sena primatzen zen, biziagoa izatea, eta hor euskaldun berri bat ez zen inoiz sartzen. Informatiboetan idatziz ondo ematen bazuen, bai (asteroko unibertsitatea buruzko programaren editore-aurkezlea, 2011).

Belaunaldi gazteagoek ere aitortzen dute euskara aberasteko beharbada irizpide bateratuagoak beharko lirakeela -orain arte argi dagoena da kazetariak batueraz egin behar dutela baina gero gonbidatuen aldetik atea zabalik geratzen da-; baina ez soilik lexiko bariatua erabiltzean, hori beti izan baitute irizpide garrantzitsu, hitz berriak erabili eta euskal komunitateari bereak egin ditzala eragin. “Baino zailagoa da sintaxia, ze hitzak azkenean behin ikasten duzula badakizu, baino igual gazteleraren esaldi luze horiek kopiatzearena ...” (kulturarako kazetaria, 2012). Azken batean azkar eta presaz lan egitean, kazetariak lehenengo informazioa askotan gazteleratik jaso dutenez, gaztelerazko formak kopiatzen dituztela aitor dute, eta horrek ahal dezake nolabait pobretu hizkuntza. “Egunero egiten dugu itzulpena, azkenean guk dauzkagun informazio iturri gehienak gazteleraz dira, edo frantsesez, edo ingelesez” (arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea, 2012); “bat-batekotasunaren estualdi horri behartuta ez dugu nahi beste zaintzen hizkuntzaren kalitatea” (kiroletako koordinatzailea, 2012). Hala ere, orokorrean irratian hizkuntzaren erabileran eman diren aldaketa horiek “euskal hiztunen unibertsoarekin batera” aldatu dela iristen diote beste kazetari batzuek, eta horrexegatik, beraiek ere “zerbait estandarra” egin behar dutela: “Hizkuntzaren kalitatea litekeena galdu izana, baina hori ere doa [gizarteko] hiztunen kalitatearekin” (albistegietako kazetaria1, 2012):

“Nik uste orokorrean ez dagoela hizkuntza maila txarra [...] Baina nik uste herri mailan euskararen kalitatea okertzen ari dela, geroz eta erdarazko esamolde gehiago hartuta dauzkagula eta erdarazko formak, eta gu gizartean bizi gara orduan horrek ere eragin egiten digu. Orduan nik uste askotan jarrera aktibo bat hartu behar dela erdarazko forma batzuk saihesteko eta beste batzuk hartzeko [...] nik uste dut okertu dela [irratia] forma aldetik [...] Batzuetan nik etxetik datorkidan esamolde bat edo hitz bat erabiltzen

dudanean konturatzen naiz jende askorentzat ezezaguna dela, eta nik uste dut gauza horiek aberastu egiten dutela eta jarrera eduki behar dugula horrelako gauzak erabiltzeko [...] Denborak erakusten du erabiliaren erabiliaz gauza asko normaltzat hartzen direla. Orain dela 10 urte euskara zuzentzaileak esaten bazizun “medikuak artatu du zauritutako pertsona”, zer da artatu! Eta gaur egunean oso normal erabiltzen dugu artatu (asteburuetak albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Horrez gain, ez dugu ahaztu ez gaudela idatzizko medio batean, irratian gaude, ahotsa, entzumena, segundo batean etorri eta ondorengoan joan badoan hitz eta soinuetan. Beraz, hizkuntzaren gramatika eta sintaxi erabat zuzenekin obsesionatu gabe, elkarrizketak izandako irratiko lantaldeko kazetari gehienen ustez egin behar dena komunikatzea da, eta lehendabiziko kolpean entzule baten arreta erakartzea da xede nagusia. Hori ez bada lortzen, euskara mila zuzenena erabilita ere, kazetariak huts egin du; “Jaurlaritzatik askotan bidaltzen dituzten ohar, ediktu etab. baina nik bi aldiz irakurri behar dudana gauza bat, akabo” (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012). Irratian ezin baita bi aldiz entzun -ez bada, kasu batzuetan, webgunea kontsultatzen. Auzirik inportanteena beraz entzuleari mezua heldu araztea da, komunikatzea, ez hainbeste, editore batek azaltzen digunez (euskarara itzulpen anitz egindakoa gainera) “osasun xentimo” edo “osasunerako xentimo” esan behar den eztabaidan ibili; edo “egunen baten botu esan dut eta zuzendu didate boto esan behar dela, baina iruditzen zait irratiko testu baten egokitasuna hori baino askoz gehiago dela” (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012). Beraz, aurreko kazetariak azaldutako ideia bera da, alegia, lexiko mailan geratu gabe, esaldiak josteko moduan egin behar dela indarra, audientziak lehenengo kolpean ulertu dezan:

Legebiltzar, Diputazio, lege kontuak eta horrelakoak, hizkuntza oso teknikoarekin idatziak dira [...] baina jendeari adierazi behar diezu ahalik eta modurik samurrenean. Gero gu ahoz transmititzen dugun medio bat gara, ez da idatziz bezala [...] Gutxi gora-behera ondo ari garela esango nuke. Ez duguna asmatzen da dauden akatsak behar den bezala zuzentzen, nire ustez, direnak jada hizkuntzaren oinarritzko esaldiak osatzeko modua; gehiago geratzen gara Ministro Kontseilua esan behar da edo Ministro Batzordea (arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea, 2012).

Honekin adierazten dena beraz da kazetariarentzat beste edozeren gainetik mezua era adierazgarri eta eraginkorrean jakitera ematea dela, hots, entzuleak esatariak esan nahi zuena unean harrapatzea. Eta horretarako “euskarak” edo “euskaldunak” bere barnean dituen beste hizkuntzalaritzaren barneko konplexuei egin behar die aurre lehendabizi. Kiroletako buruak eta gertuko informazioaren editoreak adierazten dutenez:

Nik uste Euskadi Irratian egiten den hizkuntza maila ona ez, oso ona dela. Akatsak ere egongo dira, baina nik beti esaten dut gu ez gara hizkuntzalariak gurea komunikatzea da. Momenturen batek nik entzuleari zerbait komunikatzeko erderazko hitzen bat sartu behar badut, ez dit inolako arazorik suposatzen. [...] guk komunikatu egin behar dugu, informatu egin behar dugu, eta zenbat eta euskara hobea erabili hobeto. Badakigu herriaren errealitatea zein den eta gure lanetako bat ere bada gure hizkuntza normalizatzea, baina hori ez da gure betebeharr nagusia (kiroletako koordinatzailea, 2012).

Ni ez naiz filologoa. Niretzat, pixka bat gogorra izango da baina, hizkuntza da komunikatzeko tresna bat, tresna bat, lehenengo dago komunikazioa eta gero tresna [...] Ni ez naiz ari hizkuntzaren apologia egiten [...] Nik entzuten ari den pertsonaren arreta niregana ekarri behar dut lehenengo. Hortik aurrera gainerako guztia... eta orduan ba sailkapen horretan hizkuntza maila bat da (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012).

Kazetari hauen ildoak jarraitzen duten profesionalek, Jose María García irrati esatari izar espainolak behin esandakoak ekartzen dizkigute gogora, euren esanen justifikazio gisa. García-k sekulako borrokak izaten zituen Espainiako Errege Akademiarekin (*Real Academia Española*), gaztelania arautzen duen erakundearekin. Izan ere, gizon honek argi eta garbi zioen bera ez zela linguista, bera komunikatzailea zela, eta uneren baten hizkuntzari zartako bat eman behar badiot baina nire entzuleek esan nahi nuena ulertzen badute, egingo dut. Ildo honetan kazetari batzuek oraindik euskararekin batera beste hizkuntzetako -batez ere gaztelaniazko- esamoldeak nahastea ez lukeela inolako tragediarik suposatu beharko diote. Hor ere konplexu bat baino gehiago ageri da: ingelesez “happy” zerbaitetaz esaten duzu eta ez da ezer ere gertatzen, eta erderaz esaten duzu “no pasa nada” eta “Eh! hori esan du!”, arreta deituko dute.

b.1) Euskadi Irratirako euskara kontseiluko arduraduna: 2009tik indarrean

Euskararen Aholku Batzordea 1982an eratu zen eta handik hiru urtetara Lurdes Otaegi EITBko hizkuntza-aholkulari zela, ETBn zentratuz hizkuntzak hedabidean agertzen zituen gaitzen inguruko txostena egin zuen. 1986rako ETBrako hizkuntza-teknikariak kontratatzen hasi ziren: bikoizketarako, albistegietarako eta beranduago (1990) barne-produkzioko programetarako. Beranduago Euskara Saila sortu zen - hizkuntzalariz osatua- eta 1993an izendatu zuten bere lehen arduraduna (Larrinaga, 2008). Eitb.com-en 2003ko uztailean jarri ziren hizkuntza-arduradunak (bi) eta Euskadi Irratian, 2007ko irailean jarri zen hizkuntza-arduradun bakarra. Bai azken hiru horiek bai ETBn diharduten hizkuntza-arduradunek (sei) baita Euskara Zerbitzu osoaren arduraduna, EITBko Euskara Zerbitzuaren parte dira hizkuntza-irizpideei eta hizkuntza-zaintzako arloei dagokienez; hala ere, estrukturalki, bakoitza bere enpresako lantaldearen kide da (alegia, Euskal Telebista, S.A., Eusko Irratia, S.A., eta EITBNET, S.A.).

Euskadi Irratiko hizkuntza-arduradunari dagokionez, kazetaria da lizentziaturaz eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV-EHU) Leioan duen campusean burutu zituen ikasketak, kazetaritzako ikasgaiak lehenengo euskaraz eskaintzen hasi zirenean (1984an). Gaur egun betetzen duen lana baino lehenago kazetari gisa egon da lanean Euskadi Irratian 1989tik, magazin eta albistegietan arituz, baina batez ere magazinetan garatu du bere kazetari profesioa: goizeko asteroko magazinean eta ondoren asteburuetako 10.00etatik 13.00etarako magazinean, "Bide batez" izena zuena. Saio horretarako kaleko lana eta zuzeneko elkarrizketak asko landu zituela dio. Egun Miramon-eko egoitzan lan egiten du eta bi eginbehar nagusi ditu: batetik, irratian emitituko den euskarazko publizitatea itzuli, alegia, euskaratu, eta euskaraz baldin badator, irratiarako prestatuta dagoen berrikusi, "belarrirako egina". Bestetik, irratiako kazetari lankideei entzuketak egiten dizkie behin saioa emitituta; ondoren mezu elektronikoko bidez egin beharreko zuzenketak bidaltzen dizkie. Zuzenketak izan daiteke lexiko aldetik (batez ere politika, zuzenbide edo administrazioa bezalako gaiak jorratzean euskaraz onartuak dauden hitzak erabiltzea), ahoskera aldetik edota esaldien konposaketa aldetik (aditza lehenago jartzeko eta abar.). Nabarmendu beharra dago zerbitzu hau irratiako kazetari guztiei zuzentzen bazaie ere, albistegietan bereziki duela indarra; esate batera, albistegi nagusien portadak egunero begiratzen

ditu, egunero zuzentzen ditu editore-aurkezleen sarrerak. Arlo horretako kazetariekin izandako solasaldietan, esker onez agertzen dute zuzentzailearen lana: "egia esan asko eskertzen diet [zuzentzaileei] bere lana, niri bereziki XXXX-k [aipatutako euskara arduradunak] egiten didan jarraipena niretzako da primerakoa" (eguerdiko albistegiko editore-aurkezlea, 2012). Horrez gain, gertaera edo ekintza zehatz batzuk daudenean, izan daitezke esaterako Holliwoodeko Oscar-ak -geure 2011ko behaketetan egun batek Oscar sariarekin bat egin zuen-, egun horietan Oscar-en berri emateko euskarazko termino zuzenen txostena bidaltzen dizkie kazetariei; *Mejor Actor Secundario* esateko euskaraz Bigarren Mailako Aktore Onena hobesten dela esaterako. Aipatu beharra dago irratiko postu hau aurrez-aurre dagoela Miramon-en baita ere kokatuta dagoen ETB1-eko euskarazko programetako zuzentzailearekin.

Lehenago, kazetariak euren egunerokoan hizkuntzaren zuzentasunarekin duten harremana azaldu dugunean ikusi dugu oro har lexikoari baino -botu edo boto esan behar den-, sintaxiari eta erdarakada gehiago ez erabiltzeari eman nahi diotela garrantzia gehiago; baita hizkuntza komunikatzaileari eskaintzeari noski. Irratiko euskara arduraduna ados agertzen da azkeneko ideia honekin, haren ustez euskarak irratian lortu behar duena adierazkortasuna da: "Gure aitona-amonek hori bazeukaten, eta guk orain esaldi luzeak era ez-adierazkorrak egiten ditugu". EITBko euskarazko hedabideen hizkuntza erabileraren arauak dagokionez, Euskarazko Albistegietarako lehenengo eskuliburua (*Euskarazko Albistegietarako Eskuliburua I*) Asier Larrinagak egin zuen -egun Talde osoaren euskara zerbitzuaren arduraduna-. Zazpi urte ondoren bigarren eskuliburua atera zuten (*Euskarazko Albistegietarako Eskuliburua II*), eta kazetari guztiei banatu zitzaizkien; EITB osokorako eskuliburua da. Gainera, 2005ean Euskara Zerbitzuaren ekimenez Euskal Irrati Telebistak aplikazio berezi bat sortu zuen HIKEA izenekoa - hizkuntza kontsultak egiteko aplikazioa-, Taldeko kazetarien artean zertzen eta erabiltzen den terminologia kudeatzeko. Aplikazioak 20.000-29.000 sarrera inguruko fitxategia du euskaraz gauzak egoki zelan esan jakiteko. Esaterako, nola esan behar den "Tribunal de Justicia de la Haya" agertzen du (Euskal Irrati Telebistako terminologiaren kudeaketari buruz gehiago jakiteko begiratu Salaburu, Ugarteburu, 2008: 179-182).

8.1.4.3. Abagune politiko berriak sortutako ezinegonak: 2009-2012

Gizarte demokratikoetan kazetaritza lanbide independentetzat hartzen da non profesionalak, zentzu fisiko eta legezkoan bederen, ezin daitezkeen beren iritzien kontrako erabakiak hartzera derrigortu (Donsbach, 2004: 131-157). Hala ere, uka ezina da komunikabideetan eduki erabaki zehatzak bideratzeko presioak daudela zuzendarien, kudeaketaren edo jabeen aldetik.

Lehenago ere azaldu dugu ikerketa hau garatu den unean euskarazko orotariko irrati publikoak koiuntura berezia bizi zuela, gizarteko biztanleriaren joera politikoetako bat legebiltzarrean ordezkaturia ez dagoen egoera, legez kanporatua izan baitzen -eta beraz ezta EITBko Administrazio Kontseiluan-, eta giro horretan, bi partidu espainiar, erakundetzea Espainiar osoan dutenak eta ez soilik Euskal Herrian, koalizioan Euskal Parlamentuan gehiengoa eskuratu zuten. Ikerketa honek ez du tesi politiko bat izatea helburu, baina aztergai dugun kazetari taldea ez da burbuila batean errealitatetik baztertuta bizi; EITBko administrazio kontseilua Parlamentuak izendatzen du. Testuinguru politiko, ekonomiko eta soziolinguistikoa barneratuta dagoen enpresa publikoan dago Euskadi Irratiko kazetaria. Ikertzaile honek bazekien aukeratutako epea ez zela garai gozoa euskarazko hedabidearentzat. Kazetarien iritzi lerroari begiratzeko hauteskunde sindikalak ditugu adibide gisa: 2010ean ELAk (Euskal Herriko langileen sindikatoa, alderdietatik at dagoen joera sindikala soila lantzen duena) irabazi zituen hauteskunde sindikalak Euskadi Irratian, eta lau urte lehenago LAB-ek (Euskal Herriko langileen sindikatoa baina ezker abertzaleko ildoari loturik dagoen sindikatoa) irabazi zituen -gure inkestaren arabera kazetari taldearen %15,2a baino ez badago ere (50etatik 4k ez zuten erantzun) sindikatu batera afiliatua, aipatu beharra dago EITBko sisteman nahiz eta afiliatua ez izan sindikatu batek ordezkaturia izateko bozka eskubidea duzula-. Koiuntura politiko berrian deseroso sentitzen zirela nabari nuen. Espainiar esparruko alderdien nagusitza berriaren giroan eta EITBko izendapenen bidez islatzen zen ildo berri bat agertu hala, langileen aldetik kontrako adierazpenak azaldu ziren, bereziki, Euskal Telebistan egindako murrizketen aurka. Beraz gure behaketa eta azterketa egiteko unean, giro berri hau aintzat hartzea ere azpimarratu behar dugu.

Behatzaile eta ikerlari legez, erdi ustekabez jaso nuen egoera berria. Baina bai ageri zitzaidan, euskal kazetarien auto-estimuan eragindako gainbehera eta profesional bezala asetasun mailan izandako eragin negatiboa. Iruditzen zaigu labur bada ere zilegi dela arazo hau komentatzea kazetariak lanean duen asegabetasunean eragina duen heinean, perfilean ere influentzia duelako. Baina ez bakarrik perfilean, baita edukiak sortzerako unean duten erosotasunean, zeinak aldi berean eraginkortasun hobea edo kaxkarragoa izatera bultzatuko dituen. Teoria kognitibo-emozionalak frogatuta, langile talde batek ondokoengandik (izan nagusiak edo maila bereko langileak) jasotzen dituzten mezu positibo eta negatiboek eragina dute langileek ekoizten dituzten produktuetan -kalitatean eta abar- (Holmstrom, Burleson, 2011: 326-355). Egoera politiko berriak ezinegon sortu du:

Pixka bat etsipenak jota gaude, eta hori larria da, eta hori erredakzioan jasotzen dudan zerbait da [28 urte daramatza irratian]. Egoera gogorra bizitzen ari gara. Ni oso-oso kirol zalea naiz baina baita oso harreman zalea. Eta mila gauza egingo nituzke ilusio eta gogo askorekin, baina ikusten dut azken urteotan ilusioa, gogoa eta hori dena etxeak kendu didala. Eta hori gogorra da, zu etortzen zara zure lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen zara, sinesgarritasun handienarekin, Baina inguruak eragin asko dauka eta zuzendaritza honekin kentzen ari zaigu, aurretik hasita jada. Aurretik hasita [...] Eta somatzen dut kazetari maila oso ona dagoela Euskadi Irratian, eta momentuan atera zitekeela zuku gehiago jende horri. Baina etxearen momentu xelebre honetan, ze ez dakigu zer egin nahi dugun, nora goazen, zertara... eta egiten duzuna gero ez dutela baloratu ere egingo (kirol albisteen editore-aurkezlea, 2012).

Honenbestez, zuzendari berrienganako halako kritika egiten digu kazetari honek, “etsipen” hori EITBko zuzendariak oro har Euskadi Irratiko langileen lana zelan kudeatu ez dutela jakin. Eta ildo horretan doa beste kazetari honen iritzia ere:

Nik bizi izan ditut ilusio asko [28 urte irratian], jendea oso ilusionatuta. Oso ilusionatuta. Hasieran jendea zegoen edozer egiteko prest. Medio gutxiago zeuden, jende gutxiago ginen, baina imajinazio gehiago zegoen [...] Gero ez da ezer ez egin batez ere azken X urte hauetan, ez da ezerez egin, nire iritzirako, hori sustatzeko. Ez da ezerez egin ondo pasatzeko, ilusio hori suspertzeko. Nerretzat ondo pasatzea hain da inportantea lana ondo egiteko. Orduan, pixka bat gainean egon, ez dut esan nahi ama izan behar dugunik baina

guztiok eskertzen dugu “ze ondo atera zaizun” edota aizu “hau *infumablea* da”. Kosta egiten da pertsona bati prentsaurreko batera joan eta, ez du ezertako balio, esatea (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012).

MacGeorge et al.-en (2003) lanak gaitasunik gabeko eta gaitasun handiko langileak baino, motibazio desberdinak ezartzen zaizkien profesionalak daudela adierazten du (MacGeorge *et al.*, 2003: 272-303); babes instrumentalak lantalde baten errendimendua hobetzen duen eragina ere baieztatu da, eta gainera lantaldeak modu positiboan balioztatzen duela babes edo euskarri hori (Tardy, 1992: 175-192). Zentzu honetan Euskadi Irratiko kazetariak babesgabe sentitzen direla esan dezakegu, ez psikologikoki -auto-estimua eta lanaren asebetetze aldetik-, baina ezta profesionalki ere, “hauek ez daukate proiekturik” entzun behar baitugu kazetarien ahotik. Aurretik planteatutako beste dinamika batzuk ere alde batera utzi dira, 2009a baino lehenago EITBko irrati guztien koordinatzaile zen eta egun asteroko zientzia eta ezagutza programaren gidaria denak:

Oro har krisi sakona dago sektorean, eta diruak ere etxe barruan murrizketak jasan ditu, orduan ez dugu gehiegi hitz egiten gure artean [...] Guk egiten genuen [aurreko zuzendaritza taldeak] helburu batzuk jarri, jendeari transmititu, eta hori eten egin da. Lehenbiziko saiakera bat egin zen zuzendaritza zabaltzearena, etxean zeuden kargu, bitartekari horiek denak hezi zitezela filosofia batetan. Horri bere metodologia jarri genion, “Estandares de Gestion” formazio programa bat bada, jatorriz Britainiar koroak sortu zuena bere esparru akademikoaren baitan, eta orduan jendeari erakusten zaio enpresa batek nola bizi behar duen merkatuan, ze gauzak egin behar ditu, eta saiatu ginen negozio planak zehazten. Eta merkatuan egon nahi baduzu, merkatua ezagutu behar duzu. Zenbat euskaldun gara, zenbat euskaldun daude 15-20 biartekoak, non bizi da euskaldungoa; orduan, lehenbiziko mapa hori egin. Kokatu nori zuzendutako irrati den. Bigarren pausua, ze estilotako irrati egin behar dugu. Orduan, indikadoreak jarri behar dira. Nik Donostin publiko eginda nahikoa dut. Baina guk ezin dugu Goierri ahaztu, eta igual Biasteri ere ez. Eta Bilbon euskaldun asko bizi da, orduan horra ere heldu ebaiz dugu. Eta hasten zara zehazten, unitate mobila zenbatetan atera behar dugu “Faktoria”-n, 100 aldiz? Eta gauza horiek indikadore bihurtzen. Eta unitate mobilak bezala gaiak. Igual Goya sariei ez dugu hainbeste hitz egin behar. Baina hori eten egin da (asteroko unibertsitateko gaien programaren editore-aurkezlea, 2012).

Momentu politiko honek dena dela kazetari batzuen barne-giroan eragina izan badu ere, eragin negatiboa hain zuzen, esan beharra dago produkzioak ez duela halako ondorio negatiborik izan, esaterako Euskadi Irratiaren arrakastan, areago oraindik Radio Euskadiren beherakadarekin konparatuz gero. Izan ere, EGM-ren (*Estudio General de Medios* /Hedabideen Ikerketa Orokorra) azken neurketak (2012ko uztaila) Euskadi Irratiak eguneko 93.000 entzule zituela agertzen duen, aurreko neurketan baino 20.000 entzule gehiago. Horrez gain, lan errutinen moduari dagokionez, azaldutako iritziez gain, beste kazetari batzuek sentitzen dute erdi albo batera utzita daudela. Beste batzuek aldiz, edukiaren inguruko “kontrola” azpimarratzen dute. Esaterako, kulturako kazetariak. Beraiekin emandako denboran zuzendaritzak “kulturan ere” eskua sartu duela “azken urtetan” adierazten zuten, “eta orain guk Madrileko gauza gehiago sartzeari nahi du. Edo Berlinale edo horrelakoak”. Baina kazetari hauek zeregin gisa egunkarietan ikusgarri egiten ez dena azaltzea dutela ulertzen dute; herrietan eta Euskal Herri inguruan ekimen txikiak direnak, eta publizitate kanpaina handiak izan ezin dituztenei hitza eman, “hitza eta irudia, jakitera eman”.

8.1.4.4. Berrikuntzen beharra: tokian-tokiko informazioa, zabalkunde geografikoa, gidoigintza

Euskadi Irratiko erredaktore-esatarien artean aipatzen diren beste arazoetakoak hiru ardatz hartzen dituztela esan daiteke. Alde batetik, deskonexio eta tokian-tokiko informazioa ematearen beharra edo egokitasuna edo egokitasun ezari buruz gogoeta egiten dute irratan kazetari gisa 20 urte baino gehiago daramatzaten hiru kazetarik. Euskal Herriko eskualde guztietara ez iristea leporatzen diete euren buruari batzuk; EITB martxan jarri zen hasierako taldean zegoen kazetariaren aburuz:

Ez dut uste Euskadi Irratiak lortu duenik hasieran sortzaileen buruan zegoen irrati nazional izaterik [...] Erreferentzia bagara, baina ez behar bezainbat. Nik uste dut leku askotara, Bizkaiko kasua, Arabakoa, Iparraldekoa, Nafarroako zenbait lekuetara, ez garela zabaldurik [...] Hor *intento* batzuk egin ziren, jakina urte guzti hauetan *intento* asko egon dira, *intento* bat egon zen korrespontsal sare bat bailaraz bailara eduki zerbait gertatzen denean deitzeko eta bat eta beste, albiste lokalak eta tipo horretakoak zabaltzeko. Gero

horrek arazoa ekarriko luke deskonexioarena (arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea, 2012).

Iritzi bertsua agertzen duen kazetariak ildo beretik, Euskadi Irratiak munduan jazotzen diren gertakizun nagusiei buruz informatzea lortu duen bezala, Madrilen, Bruselan eta Paris-en adibidez bertatik informatzen duen jendea izanez, beste gauza batzuk alde batera utzi direla dio:

Gertuenak ditugun gauzak neurri batean galdu egin ditugu. Hori nola artikulatu behar den ez dakit [...] Ari gara ahalegin bat egiten “Gertukoak”-ekin baina motz geratzen gara horretan (kazetaria albistegietan1, 2012).

Horren konponbide posible bat, helburua tokian-tokiko informazio gehiago ematea bada, gaur eguneko Euskal Herriko egoitzetan jende gehiago jartzea litzateke; Bilbo, Iruñea, Gasteiz eta Baionako etxeetan jende gehiago jarri eta bakoitzak ere deskonexioak izatea. Kazetariak ideia hori berresten du, eta beste bide bat “jende gehiago lanean jarritz eta eduki horiek programetan sartzea”, ordubeteko informatiboetan ez litzatekeela erraza hainbeste berri sartzea. Edo “gure informatiboaren ondoren pues ordu erdiko deskonexioa edukitzea Gipuzkoan, Bizkaian, Araba, Nafarroan, eta Iparraldean” dio gertuko albisteen editoreak. Baina azkeneko kazetari honen ustetan errealista izanik, egiazko arazoa berez ez da non sartu informazio berria, arazoa -hori mantentzeko jende eta diru gehiagoren beharra alde batera utzita-, 24 orduz irratiaren gurpilari jaten ematea oso zaila dela da:

Guk dauzkagu 200.000 hitzun gutxi gorabehera. Ordun 200.000 hitzuneekin, 24 ordu egunean, hasten baldin bazara zatiketa egiten pentsa urtean zenbat aldiz errepikatu behar dituzun [albisteak]. Gipuzkoan gaur egun *por ejemplo* dagoen hizpiderik handienetakoa demagun zaborren auzia dela [...] Zer egin behar duzu? Informatibo jeneralean, lokalean eta programatan [eman]? Oso txikiak gara horri denari eusteko da. Eta informatibo jenerala kanpoko gauzeekin bete? [...] Eta Arabako deskonexioa esango didazu, Gipuzkoan urtean bi aldiz sartu baldin behar baduzu bakoitza Araban Aramaio, Araia... esan nahi dut errealistak izanda nik ez dakit zein puntutaraino... [bideragarria den] (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012).

Horrez gain, azkeneko aipu honetatik eratorri dezakeguna, deskonexio guzti horiekin batak eta besteek ez luketela elkarren berri izango da; modu horretan Euskadi Irratiaren bitartez euskaldun orok jakingo luke Grezian bigarren erreskate plan bat onartu dela, baina Bilbotarrek ez lukete jakingo Donostian atez ateko zaborra biltzeko planarekin edo udalak eraiki nahi duen autobus geltoki berri batekin sekulako iskanbilak sortu direla. Eta 100km-tara dauden hiriak dira. Deskonexio asko egiteko geografikoki hedapen laburreko nazioa izateaz gain, lan hori egitean nazio mailako euskarazko irrati publikoa ia-ia herrietako agenda egitera jaitsiko zen, eskualdeka banatzen diren egunkarien lan bertsua egitera alegia.

Berrikuntzak osatuko lituzkeen bigarren ardatza Euskal Herriko geografia zabalagoetan presente egotearen xedea litzateke, hain zuen irratiaren albistegi eta programazio buruen nahietako bat, ikusiz harrapatu ditzaketen entzuleen ia gehiengoa Gipuzkoan (gehiena) eta Araban (gutxi baina pentsatzen da gehiengora iritsi dela) hartuta dituztela, Bizkaian entzule gehiago lortzea dute beraz helburu, irratiaren entzuleriari dagokionez -eta guk beraz lan honetan ez dugu gehiegi sakonduko-. “Euskadi Irratiaren arazoetako bat Gipuzkoatik kanpo arrakasta izatea da, entzuleak izatea” (albistegi burua, 2012). Gogoratu beharra dago gaur egun irratiaren lantaldearen %80a gipuzkoarra dela jatorriz, eta irratiaren egoitza nagusia bera ere Donostialdean egon dela beti kokatua; eta “azkenean irratia pertsonak egiten dute eta pertsona bakoitzak bere unibertsoa dauka” (asteburuetako albistegietako editore-aurkezlea, 2012). Elkarrizketatutako kazetari gipuzkoarrek onartzen dute gipuzkoarregiak izatea leporatzen dietela, oro har, Gipuzkoa kanpoko biztanleek; “eta neurri batean ez dut esango arrazoirik batere ez daukatenik” (goizeko albistegimagazinaren produktore eta kazetaria albistegietan3, 2012); “nire kasuan nola Donostian lan egiten dudana, ba gehien bat nik uste Gipuzkoara bideratuta dagoela nik lantzen dudana informazioa” (kazetaria albistegietan2, 2012). Kazetariak presente dute batez ere Gipuzkoan dituztela entzuleak, eta horregatik hasiera batean “saiatzen zara mantentzen eta daukazunari eutsi behar diozu, baino *hombre*, nik uste dut euskal irratia Gipuzkoarekin lotze hori asko egin duela hizkuntzak” (gertuko albisteetako editore-aurkezlea, 2012). Izan ere, euskara batua, kazetariak erabili behar duten euskara euren emisioetan -batik bat zorroztasunez albistegietan (gaian sakontzeko ikusi Elordui, Zabala, 2000: 375-382)-, gipuzkeratik oso hurbil dago, bizkaieratik baino

askoz gehiago (berez batuak gipuzkera izan baitzuen oinarri bere sorreran). Dena dela, kazetariak argi dute Euskadi Irratiak Bizkaira heltzeko aparteko ahalegina egin duela azken urteetan, apropos bideratutako estrategiatan, Radio Euskadi-k Gipuzkoara heltzeko egindakoa baino nagusiagoa (izan ere gaztelaniazko irrati publikoari oso bizkaitarra izatea leporatzen zaio euskal gizartean):

Euskadi Irratiak Bizkaira heltzeko egin duen ahalegina Radio Euskadik Gipuzkoara heltzeko baino askoz handiagoa izan da. Egin du ahalegin berezia, ba esaten dizut, bizkaitarrak ekartzeko, bizkaieraz hitz egiteko, bizkaierari keinuak egiteko. Nik zer behargin hitza ez dut sekula erabiltzen baina informatiboetan erabili egiten dugu. Zergatik? Batuak onartuta dagon bizkaierako hitz bat delako, hitz bat delako. Keinu horiek saiatu egiten zara egiten. Guk egin ditugu 1000 keinu hogeita bost urte hauetan (gertuko albisteetako editore-aurkezlea, 2012).

Guri askotan leporatzen digutena da Euskadi Irratia Gipuzkoari oso lotutako irrati bat dela, bai euskara batuagatik, bai gaien aukeraketan. Gu esate baterako orain atez ateko zaborren bilketari [Gipuzkoan soilik ematen den egitasmoa] izugarritzko indarra ematen ari gara, eta Bizkaian ... [ez zaie interesatzen] Orduan ez da erreza. Hor asignatura bat daukagu (arratsaldeko albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Nik uste dut jarrera aktibo bat egon dela ez hain *gipuzku* zentrista izateko eta Bizkaia gehiago integratzeko, eta nik uste lortu dela, Bizkaiak gaur egun orain dela urte batzuk baino presentzia gehiago duela irratan. Baina orokorrean jendeak [kazetari taldeak] jarraitzen du Bizkaiaren inguruko oso ezagutza gutxi izaten, Gipuzkoan bizi delako [...] Inertzia egon daiteke norberak bere inguruko gaietan sakontzeko. Eta hori pasatzen da, magazinetan agian gehiago [...] Dena dela, Bizkaian presentzia handiagotu nahi horrek uste dut eraman duela irratia Bizkaian azpiegitura gehiago jartzera, orain gauden pertsona kopurua [Bilbon] duela urte batzuk baino dezente handiagoa da [...] Baina irratiak Araban eta Nafarroan, edo zer esanik ez Iparraldean duen azpiegitura askoz txikiagoa da. Segur aski euskal hiztunak ere gutxiago direlako eta entzulegoa ere txikiagoa da, baina iruditzen zait askotan gutxiegi dela. Eta irrati nazionaltzat baduzu zure burua, denei zor diezu hori (asteburuetak albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Azken aipu horretan “irradi nazionala”-ren ideia inguruko gogoeta eta zalantza agertzen da berriro, irratiak duen nazio osoa ordezkatzeko beharra gogorarazten

diotela kazetariak euren buruari; kontziente direla alegia Euskal Herri osorako irrati bakarra direla, eta rol hori betetzeko eginkizuna dutela. Nahiz eta egunerokoan, askotan ideia hori kopetan barik garondoan duten. Argi dago Nafarroan eta Iparraldean euskal elebidun gutxiago daudela -62.977 eta 51.100 hurrenez hurren, 600.058 EAEn (V. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritza, 2012: 8). Baina “hala eta guztiz ere errepresentazioa ez da beharbada behar adinakoa [...] helburua izan behar du Euskal Herri osoak” (asteroko ekologia programako editore-aurkezlea, 2012).

Hizkuntzarena ere aipatzen da aurreko aipuetan, hots, bizkaierari keinuak egitea; baina horri ere bere gipuzkoar ikuspegia ematen diote kazetariak, nahi gabe bada ere:

Zuk badakizu zein polita gelditzen den tertulia baten eduki bat bizkaieraz hitz egingo dizuna eta beste bat *hombre* Bermiotar itxi itxia ba igual batzutan... Baina... ez dakit, Markinako edo Durangoko bizkaieraz hitz egingo dizuna eta beste bat Hondarribitar bat eta bestea Nafar bat. Azken finean hori aberatsa da (gertuko albisteetako editore-aurkezlea, 2012).

Ikerlari honek ondo ezagutzen du Bermeo eta inguruko zonaldea, eta edozein entzule alfabetatu eta kultura jasodunak -Euskadi Irratiko publikoak beteko lukena hain zuzen- ez luke arazorik izango bermeotar jaso ulertzeko, edo ez behintzat Markinako herritar baten hizkera ulertzeko baino arazo handiagorik. Bilbotarren euskararen inguruan beste kazetari batek ere bere gipuzkoar ikuspegia ematen du konplexurik gabe, gaur egun irratera erdal guneeetako edonor etor litekeenaren testuinguruan, euskararen zabalkundeari esker:

Gaur egun asko konpondu dira gauzak, [...] Bilboko bat etor liteke... ez du euskera gipuzkoa sakonekoa bezain ona izango, baina tira. Eta guk ez genuen espero unibertsitatetik hainbeste euskaldun etortzea (eguerdiko musika programan editore-aurkezle, 2011).

Aipatutako iritziak kazetari gipuzkoar batzuenak ditugu, lantaldean gehiengoak direnak; Zeanuriko (Bizkaia) eta Lesakako (Nafarroa) kazetari biren iritzia jakitea ere komenigarria da, lantaldearen %10aren parte diren Gipuzkoa kanpoko kazetariena.

Bilboko egoitzak kokatuak dauden kultura eta goizeko magazineko kazetari hauen iritziz ere, Euskadi Irratia gehiegi dago biztanle kopuruarekin erlatibizatuz euskaldun elebidun gehien batzen dituen probintziara begira -gai honi buruz berba egiterakoan irratia distantsia batetik begiratuko baliote bezala hitz egiten dute-. Nafarroa jaioterri duen profesionalaren iritziz,

Euskadi Irratiaren bekatu handienetako bat da, gipuzkoarregia ez ote den kazetarien aldetik ... entzulea ere Gipuzkoakoa da baina ez bakarra. Horregatik Bilbo aldean hainbeste dago eta hori presente eduki behar dugu ... Nafarroan ere badu bere garrantzia eta handia, batez ere Nafarroan nafarrentzat hori edukitzeak zer esan nahi duen (kulturarako kazetaria, 2012).

Kazetari bizkaitarrak aitortzen du irratia duela “giputxi zentrismo bat totala, eta nik uste Euskadi Irratian ere kontziente direla”. “Gertukoak” tokiko albisteen tartearrekin bai saiatu dira Bizkaiko gaiak gehiago sartzan, eta kazetariak ahalegin horri ere balioa ematen diote. Hala ere, aipatutako Bizkaiko kazetariaren ikuspuntutik, emisioetan badaude keinu batzuk irratan jatorri gipuzkoarreko kazetariak gehienak direla adierazten duena:

Badago komentario bat oso Euskadi Irratikoa dela zuzenean daudenean eta esaten dute “Oiartzungo ez dakit nor artista ...”, eta Bizkaikoa bada “Bizkaiko artista ...”; ez da artista Gipuzkoarra, baina bai Bizkaitarra. Barneratuta dute zerbait ez-ohizkoa izango balitz bezala, eta Arabarra edo dena delakoa (goizeko magazineko kazetaria, 2012).

Magazinean lan egiten duen kazetari honek gainera Gasteizko edo Iruñeko egoitzan beraientzako edukiak landuko dituen jenderik ez dagoenez, saila dute Arabako eta Nafarroako lurraldeak aintzat hartuko dituzten istorioak lantzea. Beraz, irratiko kazetarien beraien kritika da Gipuzkoan zentratuegi daudela, eta eduki eta hizkera aldetik ahaleginak egin dituzte horren aurrean; baina baliabide humano gehiago behako lituzkete egunero irratan Euskal Herriko lurralde gehienak ordezkatuak egoteko.

Dena dela, eta "irradi nazionalaren" ideia berreskuratuz, aipatzekoa da Euskal Telebista (ETB1), Berria eta Euskadi Irratiaren albiste jariora aztertzen duen ikerketak, Euskadi Irratiaren agenda beste euskarazko hedabideetatik urrunago geratzen dela adierazten duela. Alegia, ETB1 Berria eta Euskadi Irratiko albisteekin %44,84an dator bat, eta Berria beste bi hedabideen albisteekin %43,35ean. Euskadi Irratiak zenbakirik txikiena adierazten du ETB1 eta Berriaren albisteen %35,96arekin etorri zela bat 2008an (Gonzalez Gorosarri, 2012: 41). Horrez gain, EAEz gaindiko tokiko euskarazko hedabideen -Euskalerrria Irratia, Euskal Herri Iparraldeko Euskal Irratiak elkartearekin eta France Bleu- gaiekin, %15,84 datoz bat Euskadi Irratiko gaiak; eta ETB1ean kasuan aldiz, soilik %5,81an. Hortaz, Euskadi Irratiko kazetarien "irradi nazional bat" egin nahi dutela aipatzen dutenean, azkeneko urteetan asmoa errealitate bihurtzeko saiakerak egin dituztela esan daiteke.

Hirugarrenik, irradiaren lantaldean gaur egun orotariko magazin eta programa berezituagoetan aritzen diren kazetarien gidoiaren beharra azaleratu behar dugu; kazetarietako batek, eguneroko musika saioa egiten duenak, hasieratik darama irradian, 29 urte. Hark iraganeko irradi gizon eta emakume Luís del Olmo edo Julia Otero jarraitzen ditu, edukietan eta forman ausartak ziren esatariak bezala, irradiak beharko lituzkeen perfilak bezala. Alde horretatik kritikoa da orain egiten den irratiarekin, eta belaunaldi berrietako kazetaritza lanarekin (berak belaunaldi zaharrena ordezkatzen du, 1957 edo lehenago jaiotakoena):

Nik orain ikusten dudana da gidioa pikutara joan dela, oraingo gazteek ez dute idazten, oso alperrak dira. Internetetik ateratzen dituzte gauzak baina bere ez dute testu bat lantzen, ez dakite testu bat lantzen. Nik asko estimatzen dut testu on bat lantzea, eta irradian daude pasoak: Bukatzen duzu twist batekin eta bolero bat dator, nola iritsi twist horretatik bolerora, edo mendizale bat hila dela esan behar duzu eta jarraian Springsten aurkeztu; hori girotu behar da (eguerdiko musika programan editore-aurkezle, 2011).

Kazetari honen iritziz, dokumental gehiago eskaini beharko liriateke irradian "zergatik ez da ondo kontatzen Katalina Handiaren bizitza. Baina hor gidioa dago gidoi faltaren historia, gidoiak ez dira lantzen"; eta alde horretatik irradiak gehiago "entretenu eta dibertitu" egin beharko lukeela gaineratzen du. Gehiago jostatu behar diren ardurak

bat dator, astero, unibertsitatea eta ezagutzari buruzko programa gidatzen duen kazetaria; honek ere 55 urtetik gora ditu eta esperientziaduna da irratian eta komunikabideetan, lehenago EITBko irratien koordinatzaile izan zelarik. Gidoigintzaren beharra nabarmentzen du era honetan:

Guk gehiago dibertitu beharko genuke. Gauza asko zentzu horretan doaz [...] Gidoigintzan lan gehiago egin behar da, entzulearekin jolas gehiago egin behar da. Atzo Goya sariena ikusi nuen, eta harritzen zaituena da badagoela han gionista talde bat burua asko nekatu duena gauzak ondo lotzeko, koherentzia bat emateko, umorez egiteko, eta egin, egin da. Gero norberak emango dio bere seilu pertsonala, baina gidoiak asko agindu du [...] Antzerkian eta telebistan arrakasta onak izan ditugu [euskaldunok] bide horretatik [...] Saio oso estandarizatuak ditugu orain Euskadi Irratian, baina nik beti irradi modu hau ezagutu dut, nik istorioa behar dut (asteroko unibertsitateko gaien programaren editore-aurkezlea, 2011).

Istoria behar duela diosku erredaktore-esatari honek, istorioak atzean beharrezkoa duen idatzitako gidoiarekin batera. Horrez gain, kazetari honek bere programa produzitzeko estudiotik kanpora joateko ohitura du, ahotsak *in situ* elkarrizketatuen ingurunean grabatuz. Hori bai, paperak aurrean dituela. 1958-1967 urte bitartean jaiotako eguneroko arratsaldeko magazinaren gidari nagusiarentzat, aurreko garaian (2009 baino lehenago) ETBko albistegietako zuzendaria izandakoa, 80-90. hamarkadan zituen irradi erreferenteengatik galdetuta besteak beste gidoigintzan zituen erreferenteak aipatzen ditu; Julia Otero zen irradi izarraz gain, Manolo Ferreras (Radio3) eta Javier Sardà (RNE) izendatzen ditu. Hala ere, une honetan irradiaren arazo nagusien artean bere ustez orotariko irradiaren edo irradi generalistaren entzuleria zahartu egin dela eta gero eta zailagoa dela gazteak irradi mota hauetara erakartzea dio. Une honetan irradiak berekin bizi duen beste arazoetako bat “berrikuntza gutxi daukala da. Irratia momentu honetan geratu da hedabide pobregoa modura eta ez da inbertitu berrikuntzetan” (arratsaldeko magazinaren editore-aurkezle, 2011).

a) Kazetarien helburu eta erronkak

Irratiko kazetarien nortasun profesionalean sakontzeko, kazetariak euren profesioaren ohituretan eta egitekoetan agertzen diren faktoreen inguruko jarrerak definitzen ibili gara azken puntuetan; eta aldi berean, kazetariak talde bezala euren jarrera eta ikuspegietan hurbil edo urrun kokatzen diren behatu. Irratian eman genuen denboran zehar, bai 2011an baita 2012an, kazetariekin izandako sakoneko elkarrizketez gain behaketen barruan kokatutako ezarri gabeko solasaldietan, irratia erortzeko zenbait kazetari zuten ikuspegiak berba egiteko aukera izan genuen -behin kazetariak "nor" ginen eta "zertan" ari ginen pixkat "ahantziago" edo ez hain present zutenean nolabait esateko-. Alde batetik, hitz egindako kazetari gehienak ados datoz Euskadi Irratiaren lorpen handienetakoak, eta hasieratik helburu bezala finkatu zena, euskaraz edo zeri buruz hitz egiteko gaitasuna izatea izan da. Xede hori eskuratzeko bidea ez dute samurra izan, kontuan izanik duela 30 urte irratia martxan jarri zenean ez zegoela euskara hutsezko orotariko programazioa izango zuen irratia erreferenterik -Loiolako eta Donostiako Herri Irratia hor zuden euskarazko saio batzuk bultzatuz (Euskadi Irratia sortu eta gizartean finkatu zenean saio horiek behera egin zuten, azken batean enpresa pribatuak ziren, biziraupen ekonomikoari begira ere ibili behar zutenak)- baina ez zegoen irratia jeneralistarako programazio osoa euskaraz eskainiko zuenik, komunikabideak erderaz baitziren. Euskadi Irratian bertan hasitako kazetariak esaten digutenez esaterako, duela 30 urte, irratia hasi berria zenean, nahiko irratia lokala zen, hau da tokian tokikoa bere zentzu hertsian eta oraindik nazioarteko gauzei buruz jakiteko Espainiako eta Frantziako irratietara jotzen zuten. 80-90. hamarkadatan irratia beraren produktu eta genero desberdinak apurka bultzatzen joateko zituzten erreferenteei dagokionez, irrastian hamarkada horietan ibilitako kazetari guztiek harrigarriro bat egiten dute zenbait programa eta kazetari erreferentzialetan. Ideia bat izan dezagun, asko aipatzen dute Katalunian egiten ziren irratia saioak, bai lehen zein orain jarraitzeko moduko irratigintza:

Nik asko begiratzen nuen Kataluniara, eta Katalunian Josep Cuní zegoen goiza egiten Catalunya Radio-n [...] berari ikasi nion, eta akordatu naiz oso-oso inportantea izan zela niretzat, nazioarteko prentsaren jarraipena egiten eta nazioarteko leihoa zabaltzen. Hori

Katalunian oso inportantea zen eta Euskal Herrian gutxi egiten zen (arratsaldeko magazinaren editore-aurkezlea³², 2011).

Niretzako eskolarik onena da Kataluniako irratigintza, beti izan da eta oraingo honetan ere bada. Hartzen baduzu Espainiako irrati katerik inportanteena, hau da, Cadena SER, eta bere programazioa hartzen baduzu momentu honetan beraien kazetaririk inportanteenak kataluniarrak dira [...] Niretzako Espainiako irratigintzarik modernoena han egiten da (goizeko magazinaren editore-aurkezlea, 2011).

Horrez gain, Herri Irratia, Radio 3 (RNE) -“Tiempo Modernos” eta “La Barraca”, programa kulturalak oso- edo SER kateko programak -“La Ventana” esate batera- ere erreferente garrantzitsu ziren garai hartan; batez ere, elkarrizketak egitearen aldetik, magazin eta informatiboen tarteko saioak sortuz -Iñaki Gabilondo-ren “Hoy por Hoy” esaterako-. Hortaz, irrati jeneralista baten parrilla nondik nora diseinatzeko irrati erreferentzia nagusiak erdaraz baziren ere, gaur egun esan daiteke irrati publiko euskaldunak lortu duela kanpoko behatuz eta berea sortuz, edozein jazoera euskaraz eskaintzeko helburua; “Euskadi Irratiak lortu du mundu osoari buruz euskaraz hitz egitea. Egiptoko istiluak egon direnean han egon da kazetari euskaldun bat eta horren berri eman digu handik bertatik” (goizeko magazineko kazetariari elkarrizketa, 2011). Aurreko honekin lotuta, hasiera horretan nahiz eta idatziz ez, kazetarien buruetan “trikitixa utzi eta mundura zabaltzeko nahia” edo helburua zegoela aitortzen dute gaur egun eta hasiera horretan irratian izandakoek; alegia, euskaldunei, ia 40 urteetako errepresio kulturalaren ondoren, atxikitzen zitzaion baserritar, alfabetatu bako eta landa-eremuko gizabanakoaren kirats horretaz desegitea nolabait; “bazegoen mentalitate bat: bertsoak, baserri giroa, txistua, folklorea [...] Bazirudien euskarak hori mugatzen zuela” diosku 1984tik irratian lanean eman duen kazetariak, egun gertuko albisteen editorea denak. Esan beharra dago 1979an jada gero eta euskaldun gehiago hiru gunetan bizi zirela, eta horrek beraz ere eragina izango du irrati “modernoagoa” edo “hiritarragoa” egin nahi horretan.

Euskadi Irratiaren sorreraren lehenengo urteetan zenbaitek “trikitixa³³ irratia” esaten bazioten (2009tik aurreko albistegi editorearekin izandako solasaldian jasotakoa);

³² Gogora beza lehenago Euskal Telebistako albistegi zuzendaria izandakoa dela, 2005-2009.

azkeneko 20 urteotan ideia horrek zentzua erabat galdu duela esan dezakegu, Euskal Herriko ez gain nazioarteko albisteak eta ahotsak entzun baitaitezke irrati honen bitartez, munduko edozein gai hizpide izan dezaketen magazinak daudelako, denetariko nazioarteko musika lantzen duten saioak, edota munduko teknologia berriei buruzko programak besteak beste. Hala ere Euskadi Irratiak ez ditu bere hasiera-hasierako entzuleak ahazten, edo hirietara barneratu ez direnak; “nahi dugu Donosti zentroko herritarra entzule izatea, baina ahaztu gabe Altzo puntan dagoena, ze hori ere gurea da eta oso aberatsa, beste mundu baten ikuspegia ere ekartzen dizu” dio eguerdiko albistegiko editoreak. Beste publiko batentzako keinu hori albistegietan ezik programetan ere mantendu dute, “Landaberri” nekazaritza eta ingurugiroari eskainitako saioarekin adibidez. Edo magazinetan printzipioz tradiziozko kultura euskaldunarekin erlazionatua egon daitekeen pertsonaia edo musika mota sartzen dutenean; esaterako, 2011ko otsailaren 19ko “Amarauna” saioan trikitixaren gaiari eta instrumentu honekin sortutako musikari ekin zioten denbora luzez, belaunaldi desberdinetako (17 eta 50 gutxi gora-behera) bi bikote gonbidatuz estudioa, gazteenik trikitixa zuzenean jo zutelarik. Trikitixaren gaiari ekiteko lau gonbidatuak estudioan sartzen dituzte, belaunaldi desberdinetako bi bikote ageri dira Arantxarekin batera. Beraz kazetariak presente izan nahi dute, beharbada magazinatan ibiltzen direnek dute hori gero praktikan gehiago jartzen, nahiz eta gaurko euskaldun hiritarretan jarri behar duten arreta, euskal kulturaren tradiziozko zeinuak, egun ere hainbat formatan bizi direnak, ahaztu gabe egin behar dela hori. Izan ere,

arazoa ez da trikitilaria jartzea, baizik eta trikitilariak nola aurkezten diren eta zer esaten duzun, hori da asuntua. Nik trikitixa jarri beharra daukat Jaen-eko irratiak bertako musika jarriko duen bezala. Orain, edukietan nik erakutsi behar dut oinarrizko beste kultura bat dagoela. [...] trikitixa jartzen baduzu nekazari munduarekin lotuta ez dagoen zerbaitekin, hor ere zure kultura aterako da (eguerdiko musika programaren editore-aurkezlea, 2011).

³³ Trikitixa edo eskusoinua botoidun arkodeoi diatonikoa da. Euskal Herrian eskusoinuaren hedatzea, XIX. mendeko azken hamarkadan hasi zen, eta Perez eta Berginces-ek (1990: 139-152) bere idazkian agertzen dutenez, Euskal Herrian trikitixaren zabalkuntza geografikoaren muga euskararen hizkuntz mugarekin bat dator. 1990ean zera idazten dute: "Gainera, biek batera egin dute atzera. Bizkaian, Mungialdea eta Bilbo Handia trikitilarien sehaska, harrobi eta aintzindari izan ziren, baina desplazatua izan da eta egun Gipuzkoako erdialdean sendo erroiturik dago" (1990: 143). Trikitixa beraz euskal tradizioa atxikitako instrumentua dugu eta instrumentua bera European eta Ameriketako ezaguna bada ere, "trikitixa" izena euskal kultura presente agoen zonaldeetan erabiltzen da, eta izenari euskal kultura tradizionalena atxikitzen zaio.

Arratsaldeko albistegi buruak ere, hasieratik modernoak izatearen nahia egon dela dio, baina bere ustez horrek ez du “Estatu Batuetako musika ezagunagoa izatea hemengo jendea baino” eragin behar, “eta hori gertatu egiten da zoritzarrez”. Esandakoaren adibide gisa Manuel Lasarte bertsolaria hil zenekoa (2012-02-12) dugu; kazetari honek zioen “jende pilo batek ez daki zein dan, eta hori ere ez da normala. [...] niretzako lehenengo gauza da euskal komunitatearekin harreman erabatekoa edukitzea eta gure jendeak kontzientzia eta ezagutza eduki dezan”. Kultura arloko edukiak ekoizten dituen kazetariak ere nahiz eta askotan Espainiako edo nazioarteko artisten inguruko kronikak prestatu, bai albistegi zein programetarako, argi du beti “mimatu” behar dela euskaraz kultura egiten duen hori,

horretarako ere gaudelako [...] bestela nork egingo du hori? Derrigorrez egin behar da. [...] beharrezkoa den bezala euskarazko kulturaren promozio bat egotea. [...] horrek ez du esan nahi bakarrik egin behar duzunik trikitixa [...], trikitixa ere bai, pixkat perfil heterogeneo hori bermatzeko, baino ez bakarrik hori, ze kultura ez da hori bakarrik (kulturarako kazetaria, 2012).

Arratsaldeko albistegietako beste kazetariak ere bat egiten du azkeneko ideia horrekin, esaterako, Euskal Herriko musika taldeei buruz berbetan, esanez “txarxeagoak edo hobexeagoak, lagundu egin beharko zaie. Guk laguntzen ez badiegu ez dakit nork lagunduko dituen”, obligazio hori ere badutela nabarmenduz.

Gure ikerketa taldeak 2008-2010 epealdian garatu zuen “Komunikazio taldeetako konbergentzia digitalen prozesua: Euskal Irrati Tebistaren kasua” azterketan parte hartzeko zoria izan nuen eta ikasteko ere. Epealdi horretan ikerketa taldearen ikertzaile nagusiak eta bere doktoregaiak egun osoko behaketa burutu genuen 2010eko apirilaren 25ean (igandea), proiektuaren parte gisa. Proiektuaren helburuak betetzeko galdera eta obserbazioak gauzatzen ari ginela, tesi honen proiektuari buruzkoak partekatzeko aukera hartu nuen aurreko urteetan (beste legegintzaldian), 2006-2009 urte bitartean irratiko albistegi burua izan zen kazetariarekin (aurretik korresponentsala Madrilen lau urtez). Behaketa egiten ari ginen unean asteburuetako eguerdiko albistegiko editorea zen aipatu kazetaria, eta irratia azkeneko urteetan,

albistegien izaeran batik bat jasandako oro harreko eraldaketei buruz ibili ginen solasean, ondorengo hausnarketa plazaratu zigularik:

Euskadi Irratia trikitixa irratia zen. Hori leporatzen zitzaion. Gero hartu zutenek irradi moderno batean bihurtu zuten. Euskal tradizioan finkatutako irratia izatetik irradi modernoa izatera pasatu zen. Gaur egun bere sustrai horretako alde asko galdu ditu. Lehen Abadiño-n ez dakit zer zela, ba horrekin ireki zitekeen informatiboa; eta hori Euskadi Irratiak soilik egin zezakeen, ez beste inork, ez Radio Euskadik. Betiko euskal sustrai horiek Euskadi Irratiak bakarrik mantentzen dituzte; guk beste irratiek ez duten plus hori dugu, aprobeitza dezagun (arratsaldeko magazinean kazetari³⁴, 2012).

Hortaz badago beste aldera joan izanaren kezka baita, azken urteetan hiri guneeetara heltzeko saiakeran irratienak berezkoak izan daitezkeen trazuak gehiegi lausotu izana. Planteamendu honen inguruko lantaldeko beste kazetari batzuen iritzia ildo beretik zihoazen, hots, “modernoak” izan nahi hori nahastu egin dela gauza batzuk baztertzearekin: “modernoak izan behar dugu, ordun trikitixa gutxiago jarriko dugu, bertsoak ere gehiegi ez, eta sartuko ditugu kanta ingelesak eta... hori da modernoak izatea? Trikitixa ere zergatik ez duzu sartuko, ba” albistegietako kazetari baten hitz zuzenak. Hortaz kazetari batzuk urduritu egiten dituzte euskaldungo modernoaren erreferentzia izan nahi izateak, bestelako ezaugarriak guneeetan lehenengo irradi erreferentzia izan behar diren xedea desagerraraztea: beste era batera esanda, pentsamendu honen ildokoak diren profesionalentzat lehenengo euskaldunak %60-80a diren herrietan izan behar da Euskadi Irratia lehenengo irradi entzunena, ondoren euskaldunak %25era heltzen diren guneeetan eragiteko:

Gure entzulego potentziala dago euskal guneeetan. Argi eta garbi. Hori da *de cajón* !!! [...] Bilboko euskaldun batek entzungo gaitu? Noski [...], Bilbon euskaldun asko daude eta entzungo gaituzte. Orain, Bilbon [%9a euskalduna] eragitea oso zaila da euskaldunak baino askoz gehiago diralako bestelakoak eta euskaldun askori ere errazago egingo zaiolako igual [irradi] erdaldunak entzutea. Orain, Durangon [%45a euskalduna] edo Zizurkilen [%64,5 euskalduna] lehenengo irratia izan behar dugu [...] Baina orandik hau ez dugu lortu eta abiatu egin gera bestera eta oso ondo finkatu gabe zer nahi dugun.

³⁴ Lehenago Euskadi Irratiko albistegietako burua izandakoa, 2006-2009 artean.

Modernoak izan nahi dugu? Hiritarrak izan nahi dugu? Zer nahi dugu? (goizeko magazin-albistegian produktorea eta kazetaria albistegiaren³, 2012).

Aipu hau 2012ko otsailean batu genuen, baina aipatu beharra dago, 2012ko maiatzean EGMk (*Estudio General de Medios*, Espainian komunikabideen kontsumoa neurtzeko tresna) argitaratutako datuen arabera, Gipuzkoan euskarazko orotariko irrati publikoak du entzule gehien astelehenetik igandera, orotara 57.000. Atzetik ditu SER, 53.000 entzulerekin, eta Radio Euskadi, 48.000-rekin. Euskadi Irratiaren historian aurrenekoz jazo da egoera hori, eta beraz, Gipuzkoan bederen -non biztanleriaren %49,9 den euskaldun elebiduna eta %16,4 elebidun hartzailea- entzuleria finko eta sendoa izatea lortu duela baieztatu daiteke³⁵. Euskadi Irratia bezala euskarazko hedabide batentzat merkatua oso lehiakorra da eta oso zaila da gaztelerazko irratiarekin lehiakor izatea, eta zenbakiak hor dauden arren, arrakastaren adibide hobea zenbakien baino euskal munduan izatea lortu duten influentziari begiratu beharko litzaioke. Alegia, irratiak arrakasta lortu duela adierazteko euskal jendearentzat, euskalgintzan dabilenentzat, kultura munduan, hizkuntza normalizatzen edo beste barik euskaraz bizi direnentzat erreferente izatean datza irrati honen arrakasta. Eta 2012an biztanleria eta euskaldun kopurua erlatibizatuta euskal elebidun gehien bizi den lurraldean, Gipuzkoako herrialdean, astelehenetik igandera irratiarekin entzunena izatea, arrakastaren seinale dela esan genezake. Hau da, Euskadi Irratia modernotasuna eta tradizioaren arteko eten bako tira bira horretan belaunaldi berrietan, bere bidea irabazten doa. Egia esan, euskal irrati publikoarentzat benetako frogak gertatuko da euskal irrati pribatu jeneralista eta eremu berekoa sortzen den unean. Baina hala ere ondorioztatu daiteke, gizaratean, oro har, euskaraz izan arren bere lekua eta nortasuna lortu duela. Beraz, berez hizkuntza gutxitu batek eragiten dituen ajeak gaindituz, erronka sozial berrietara murgildurik agiri da gaur egunean.

Aurreko aipura bueltatuz, lantaldeko kazetariak uste dute irratiak erdietsi beharreko lorpen nagusienetakoa jendea irratiarekin nonahi eta zernahiz euskaraz informatua eta entretenitua izatera ohitzea dela; eta hori lortuta eta horren ondorioz, jendea euskaraz

³⁵ Bizkaian, Araban eta Nafarroan datuak bestelakoak dira, Euskadi Irratiak astelehenetik igandera 11.000, 2.000 eta 9.000 entzule eskuratzen baititu hurrenez hurren. Horrez gain, aipatu beharra dugu Gipuzkoan astelehenetik ostiralera Euskadi Irratia Radio Euskadi eta SER-en atzetik dabilela audientzia kontuetan, azkeneko bi horiek paretsu dabiltzalarik lidergoan.

normal, arrunt, hitz egitera bultzatzea. Horren aurrean EITB taldeko beste euskarazko hedabide batzuek arrakasta jendea euskaraz hitz eginarazteko helburuaren gainetik geratu dela diote, Gaztea³⁶ EITBko irrati formularen adibidea emanez:

Euskadi Gazteak bai, kriston audientziak dauzka. Zuk uste duzu gero horiek Euskadi Gaztea mozten dutenean euskeraz hitz egingo dutenik? Ezer ez baino hobea da? Nik uste dut zalantzarik ez dagoela. Baina hori da helburua? Gurean ere momentu batzuetan zuzendaritza honekin, zuzendaritza honekin ez dagola oso argi..., momentu batzutan egon zen helburu hori baina uste dot baita ere norabide okerretik jota (goizeko albiste-magazineko produktorea eta kazetaria albistegietan3, 2012).

Garrantzitsua dute entzuleak hitz egitera eramatea beraz, “ezin ditugu entzule pasiboak sortu [...] Guk behar dugu jendeak erabiltzea euskara” dio asteroko unibertsitate eta ezagutzari buruzko programa gidatzen duen beste kazetari batek. Azken kazetari honek justuki hori du asmoetako bat bere saioan; unibertsitate desberdinetan plazaratzen eta gauzatzen diren ikerketa eta proiektuen zein ikasleentzako beka edo ikasketa aukeren berri ematen du, baina beti horrelako egitasmoren batean sartuta dagoen norbaiten eskutik. Alegia, protagonistak irratitik kanpoko jendea, aldi berean, irrati bera egiten ari dena bere esperientzia eta bizipenak kontatuz; “istorioa interesatzen zait niri” diosku, eta ez hainbeste beka bat lortzeko txostenek agertzen dituzten puntu guztiak aditzera ematea. Alde horretatik irratiaren helburu garrantzitsu bat eragiteko ahalmena izan behar duela, azpimarratzen du lehenago EITBko irratiaren koordinatzaile izandako kazetariak, “gu katalizatzaile izan zentzu horretan”. Eta katalizatzaile ez soilik Gipuzkoan -lehen esan dugu askotan leporatzen zaiola irratiari probintzia horretan zentratuegia egotea-, baizik eta Euskal Herriko geografia osoan. Alde horretatik irratiaren hasierako urteetatik daraman editorearen ez du uste “Euskadi Irratiak lortu duenik hasieran sortzaileen buruan zegoen irrati nazional izaterik [...] Erreferentzia bagara, baina ez behar bezainbat”. Bere ustetan “leku askotara, Bizkaiko kasua, Arabakoa, Iparraldekoa, Nafarroako zenbait lekuetara, ez gara zabaldu” (arratsaldeko albistegietako editore-

³⁶ Gaztea (lehenago Euskadi Gaztea izena zuena) EITB taldeko irrati formula musikala dugu, bigarrena EITB Musika-rekin batera. 1990ean sortu zen 15-35 urte bitarteko publikoa erakartzeko asmoarekin. Gaur egun euskara hutsean emititzen duen irratiak -abestietan erabiltzen diren hizkuntzak alde batera utzita jakina- egunero 145.000 entzule ditu (EGM, 2012). Gazteentzako zuzendutako irratiaren artean erreferentziazkoa dugu Euskal Autonomia Erkidegoan.

aurkezlea, 2012). Atentzioa deitzen digu oso hitz antzekoekin sortzen duela asteburuetakoko albistegietako editoreak bere diskurtsoa Euskal Herri osora heldu beharraren harira. Haren ustetan argi dago Araban, Nafarroan edo Iparraldean euskaldun entzulegoa txikiagoa dela, "baina irrati nazionaltzat baduzu zure burua, denei zor diezu hori" (asteburuetakoko albistegitako editore-aurkezlea, 2012).

Beraz, helburua euskaraz edozertaz informatu eta hitz egitera iristeaz gain, elebidunak edo elebidun hartzaileak diren entzule horiek euskaraz hitz egitera bultzatzea ere badute, eta hori Gipuzkoaz gaindiko beste hiriburuetan ere arrakastaz lortzea; eta horrez gain, beste kazetari batzuen ustez, irratian 23 urte daramatzen kazetaria kasu, erabiltzen duten hizkuntzan erreferente izatea. Hau da, irratiaren helburua beste komunikabideek baino informazio hobea ematea baino,

euskeraz txukun egitea eta erreferente izatea horretan. Euskera aberastea, alde guztietara eramatea, zer nahiri buruz hitz egitea, eta horretan hizkuntzaren normalizazioari laguntzea. Nik uste horixe duela ezaugarri eta horrek behar lukeela helburu, eta gainera bere izaera eta bere izatea justifikatzen duen bakarra (asteroko ekologia programaren editore-aurkezlea, 2012).

Kazetari horren diskurtsoan ulertu behar dugu informazio ona ematen saiatu behar dela, baina euskara onak izan behar duela lehentasuna. Preferentzia hori egia esan euskaren osasunarekiko ahuleria handiagoa duten profesionalena (3) dela argitu behar da. Alegia, erredakzioan gai honen inguruan aditutako iritzi gehienak bat datozela esanez, hasiera batean euskarazko irratia "hizkuntzarenganako militantziagatik entzuten bazen, orain egoera aldatu egin" dela eta "ondo informatu behar" duzula.

"Egun ez gara [bai kazetari zein entzuleak] hain euskara militanteak" diosku asteburutako goizeko magazineko editore-aurkezleak (2011). Militantzia eta euskara kazetaritza profesioaren gainetik edo azpitik jartzearen jarrera eta esanahiak "profesionaltasuna" lantzen dugun tartean jorratuko dugu. Baina helburu eta erronkez ari garen honetan garrantzitsua da azpimarratzea euskaraz ondo aritu -esapide, hiztegi eta sintaxi aberats eta zuzenaz- eta ondo informatu, hezi edo entretenitu -iturri anitzak kontsultatu, gertaera *in situ* bizi zuzeneko aipuak lortuz, informazioak kontrastatu, protagonisten jarraipenak egin, gaurkotasunari begira egon, dibertitu- "ez

dut uste bi termino kontrajarriak direnik” islatzen da kazetarien diskurtsoan. Beste kazetari batek ere, Bilbotik goizeko magazinean lan egiten duenak argi dio gainera etorkizunean ere euskarazko hedabideetan jarraituko lukeela lanean; “ez da militantzia kontua baizik eta zuk zure errealitatea islatuta ikusten duzun ala ez”. Adibide bezala dio beretzat “Euskadi Irratiak Radio Euskadiri mila buelta” ematen dizkiola, “ze niretzako Euskal Herri barruan nire errealitatea islatzen du Euskadi Irratiak ez Radio Euskadik” -beste atal batean landu dugu albisteetako editoreek Radio Euskadiko gaiez eta helburuez duten iritziz, azken batean nahiz eta errealitatearen parte handi bat gaietan gainezarri, entzuleria desberdinak asetzen dituztela ondorioztatuz-.

Euskara aberastu beharra alde batera utziz eta eskainitako edukietan zentratuz, euskarazko kazetaritzaren panoramak izan ditzakeen erronkez haratago, kazetaritzaren panoramak oro har profesionaltasun galerari aurre egiteko duen zeregina aipatzen dute: batez ere enpresak antolatzeko moduarengatik, ez zaiolako jendeari formatzeko denbora ematen, eta “txurro” bezala egiten delako lan eta ez delako kazetaritza estimatzen”. Testuinguru honetan, komunikazio enpresak enpresa ekonomikoak bihurtu direlako sentsazioa da nagusi:

Lehenago esaten zen zerbitzu bat zela gizarteari, eta gero eta gehiago argi eta garbi dira enpresa ekonomikoak, etekinak behar dituzte, eta hori izan liteke kazetaritzaren heriotza (eguerdiko albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Kazetariok oro har gaur egun daukagun problemetako bat da kazetaritza ez dela ondo pagatua, *mileurista* asko dago kazetaritzan eta horrek egiten duena da: Ez dago espiritu kritiko bat, ez da ikertzen, besteek esandakoa biltzen da. Jada hedabideetan ez du kazetariak agintzen, gerenteak agintzen du (arratsaldeko magazineko editore-aurkezlea, 2011).

Gerenteak du azken hitza, eta hauek etekinei begira egoten direnez ezin edo nahi ez berrikuntzan inbertitu, eta horixe behar du hain zuzen une honetan orotariko gaiak lantzen dituen irratiak. Kazetarion ustetan irratiak ez du, hedabide gisa, duela 30 urte zuen indarra, horregatik du “berrasmatu beharra, pixkat zein den irratiaren papera eta

zer egin nahi den irratiarekin”. Eta horrekin batera irratiares tresna nagusia dena, hizkuntza eta ahotsa, “ondo lantzea, gauzak lehen eskutik kontatzea, kontakizunean [gogor azpimarratzen du hitz hori] lan asko daukagu” (arratsaldeko magazineko editore-aurkezlea, 2011).

Prekariatateaz gain eta kazetaritza profesioa desestimatzeaz gain, Euskadi Irratiko kazetariak aurre egin beharreko beste joera zabaldua **sentsazionalismoan ez erortzearena** da. Herrialde askotan adituak albisteen erabakietan presio komertzialek duten gero eta eragin handiagoaz kexu dira. Hain zuzen, aurreikusitako audientziaren gustuetara moldatutako diren albiste arinek (*soft news*) edo *tabloide* formatudun albisteeek gora egin dute (besteak beste begiratu Esser, 1999: 291-324; Marchetti, 2009: 368-388). 2012an errusiar eta suediar kazetarien errealitateari buruz argitaratutako ikerketan, Suediako kazetariak beren adierazpen askatasunean, eta ondorioz profesionaltasunean, eragin negatibo gehien zuena "faktore komertzialak" zirela zioten (Nygren, Degtereua, 2012: 732-743). Euskadi Irratiak erakunde publikoa da, baina albisteetako kazetariak jadanik arreta jarri diote gurpil horretan jaustearren arriskuari:

Komunikabideentzako ez dira garai onenak eta gauzak oso errez saltzeko moduko produktuaren bila goaz, produktu deigarria. Hor guk hasiera batean ez dugu hartzen bide hori, baina askotan nahi gabe gurpilak eramaten zaitu. Ikusten duzu ze oihartzun duten Amaia Azkue baten hilketaren gaiak³⁷ eta horrelako gaiak eta nahi gabe sartzen zara gurpilean (kazetaria albistegietan1, 2012).

Hasiera batean berauek ez direla “gurpil” horretan sartzen dio kazetari honek, erreferentzia eginez batetik, izaera publikodun hedabide direla, eta beraz, printzipioz "saltzearen" kontzeptu horretatik at geratzen direla; eta bestetik baita hainbat egoeratan beste kazetari batzuek aipatu dutenari, alegia, albistegietan politikak tartearen denboraren gehiengoa betetzen zuela orain arte batez ere Euskal Herriak bizi zuen gatazka zehatz baten ondorioz; baina behin gizartean bestelako bakea ezarrita,

³⁷ Amaia Azkueren gorpua 2011ko martxoaren 16an agertu zen Azpeitiko Ibai Eder urtegian (Gipuzkoa) (*Berria*, 2012-03-08). Une hartan 18 urteko mutil batek hilketa berak egin zuela onartu zuen. Urtebete ondoren, 2012ko martxoan, epaiketan mutilak berak ez zuela horrelakorik egin esan zuen ordea. Era guztietako komunikabideen arreta deitu du bi urteen artean, egoera bertsuko istorio eta aurrekariak berri emanez.

“zorionez politika beste era batera jorratu dezakegu”, eta gai gehiago sartu tartean; esaterako, gai sozial gehiago. “Nire gustuz ariko banintz, gai sozialetan denbora gehiago pasa beharko genuke” dio eguerdiko albistegiko editore laguntzaileak (2012).

Kazetarien helburu partikularragoetara etorriaz bi asmo nagusi gailentzen dira: batetik, kiroltako editoreak eta gertuko albisteen editoreak, biak garai berean sartu zirenak irratan (1984) - esango dutenerako garrantzia du-, “ilusioz jarraitzea” dute nahi nagusi:

Nik gustura egiten dut egiten dudana. Ikaragarri gozaten dut. Hori ez nuke galdu nahi, ez pertsonalki eta gainera iruditzen zait profesionalki ere hori galtzea oso txarra dela (gertuko albisteen editore-aurkezlea, 2012).

Mila gauza egingo nituzke gogo askorekin diosku kirol albisteetako editorea denak, baina horretarako zuzendaritzak eragingarri jokatzea beharrezkoa dela dio; gutxienez “konfiantza izan jendearengan eta laguntzen utzi”. Eta bere diskurtsoari zera gaineratzen dio: “Zorionez, hemen lan egiten duen jendeak irratan sinisten du”. Bestetik, euren egungo lanari profesionalki buelta bat eman nahi lioketenak daude, batik bat, lan ohiturei dagokionez aldatu; erredakziotik irtetea inplikatzan dituen bi modalitateen zale agertzen dira erredakzioko bi kazetari. Albistegietan ibiliak dira biak beren karrera profesionalaren denborarik luzeenean eta irratan 10 urte baino gehiago daramatzaten profesionalak dira. Irratan hasi eta telebistan bukatu zuen kazetariak, ETBko albiste zuzendari, egun irratico arratsaldeko magazinaren editorea denak, ikerketa kazetaritzan aritzea luke desio, “baina momentu honetan hedabideetan ez dago ikerketa kazetaritzarik oso garestia delako”. Gai edo ikerketa eremu bat hartu eta horretan igaro hiru aste, ondoren sakonean aztertu eta kontrastatutako datu eta informazioz hornituta kronika eta erreportajeak eskainiz. Egun asteburuetako eguerdiko albistegietako kazetaria denak “kalera bueltatzeko” gogo duela dio. Kazetari hau bi urtez egon zen eszedentzian (2009tik 2011ko irailera arte), eta tarte horretan mundutik ibili zen bidaiari: Afrika-tik ibili zen *freelance* lana egiten eta Estatu Batuetan irrati publikoan, *National Public Radio* delakoan zelan lan egiten zen ere ikusi zuen -bertan erreportajeak egiteko kazetari batek astebeteko denbora zuela kontatze nzuen miresmenez, atzetik lan izugarria zuten 3 minututako

piezak-. Denboraldi horretan irratirako kronikak bidaltzen zituen, eta Euskadi Irratirakoa parte ETB2 (gaztelerazko katea) eta erdarazko medio batzuetarako. "Editore zarenean ez zara kalera irteten, prentsaurrekoetara, erreportajeak egitera, eta abar." eta horren igarritik dabil orain. Ondorengo profesionaltasunaren gaian aipatuko dugu zergatik komentatu ditugun bi kazetari hauen ezaugarri konkretu hauek, eta ikusi eragina dutela lantaldean topa daitekeen kazetari perfil mota batean. Horrez gain, komentatzea dugu Lara eta Lamuedra-ren lanean agertzen da (2009: 33-60) oro har TVE-ko profesionalek euren arazoak korporazio mediatikotik at hautematen dituztela, audientzia neurketa "abstraktuetan"; eta konponbideak ere kanpoan topatu behar direla barruan baino. BBCn aldiz herritarraren eskaera eta gustuak gehiago entzuteko eta gero eta heterogeneoagoa den publikoari eduki anitzagoak eskaini ahal izateko neurriei buruz hitz egiten da, arazoak barnera begira enfokaturik. Justu BBC-ko profesionalek dioten kontrakoa, aipatutako autoreen lanean esandakoa jarraituz. Euskadi Irratiko kazetarien diskurtsoan nabarmendutako arazoei dagokionez, denboraren eta hizkuntzaren sentsibilizazioz gain, gainontzeko arazoak eurek euren Taldean eta hedabideak dituzten hutsei atxikitzen dizkiete. Eta audientziaren inguruan gehiago jakiteko grina agertzen dute, inkesta gehienak zuzendaritza mailan geratzen direla kexaturik.

8.1.5. Kalitatezko edukiak: zer eta nola

Aurreko aipuarekin bat etorriaz, kazetariak kalitatezko edukiak sortzen dituztela esatean ere, gertatutakoaren errealitatera ahalik eta gehien hurbildu nahian, subjektibotasun puntu batetik hari direla aitortu behar da. Badaude albisteen kalitatea beren-beregi aztertzeraz zuzendutako ikerlanak, eta Euskadi Irratiaren inguruko azterketa sakonik egin bada, Gonzalez Gorosarri-ren tesia dugu hori (2011), zeinetan hiru hedabide euskaldunen albisteen kalitatea neurtzen duen. Horrela, Gonzalez Gorosarri-k nazioarteko kazetaritza-adierazlearen arabera neurtzen du Euskadi Irratiak 2008. urtean helarazitako albisteen kalitatea. Ikerlanaren ondorioetarako bat da, informazio bera bi hedabideetan agertzen denean aztertutako euskarazko hiru hedabideek³⁸, Euskal Herrian gehien zabaltzen diren beste gaztelerazko hedabideek³⁹

³⁸ Euskadi Irratia, ETB1 eta Berria/Euskaldunon Egunkaria.

³⁹ Radio Euskadi, Cadena SER, ETB2, Telecinco informativos, TF1, Diario de Navarra, Diario Vasco, El Correo Español, Sud Quest, Diario de Noticias, Gara, Le Journal du Pays Basque.

baino hobeto informatzen dutela, bigarrenek "informazioaren jatorri eta trataera argiago eta albiste-iturri identifikatu gehiago azaltzen" dituzten heinean (Gonzalez Gorosarri, 2012: 43-44). Horrez gain, euskarazko albisten ikuspegi-kopurua ohikoa baino altuagoa da (*ibidem*, 45). Hala ere, Euskadi Irratia EAEEz gaindiko euskarazko tokiko irratiekin alderatuta -Nafarroako Euskalerrria Irratia, Ipar Euskal Herriko Euskal Irratiak eta France Bleu-ko euskarazko emankizunak-, bigarren horiek lehenengoari nagusitu zaizkiola ondorioztatzen du Gonzalez Gorosarri-k: informazioaren jatorrian, tokiko irratiek argiago eta gehiagotan adierazten zutela emandako informazioa zer bideetatik jaso zen; eta informazioaren osotasunean, tokiko irratiek kazetaritzaren oinarrizko bost galderen erantzunak agertzen zituzten albiste gehiago eman zituztelako.

Euskadi Irratian gaur (2011-2012) albisteetan baita magazin eta programetan ere, irradi edukiak sortzen jarduten duten profesionalen sorrera zikloa behatu dugu eta beraiekin jardun gara urte tarte horietan "kalitatezko" produktuei buruz. Kuriosoki, kazetariak kalitateari atxikitzen dioten lehenengo funtsezko baldintza askatasuna da, lanean autonomia izatea; eta horixe da hain zuzen hainbat autorek beren lanetan (Nayman, 1973: 195-212; Deuze, 2008; Weaver, 2005: 45-57; Stepinska, Ossowski, 2012: 856-867) kazetari lana profesionala kontsideratzeko bete beharreko baldintzetako bat. Aldi berean, autonomia faltak iturri batzuekiko gatibutza eta beste batzuenekiko baztertzea ekarriko du, iturri anitzagoen erabilera eta kontrastatze aukerak murriztuz. Kazetariak informazio iturriekiko izan dezakeen mendekotasunak hedabidearen ahulezia erakutsiko luke (De La Torre, Téramo, 2004), eta efektuz, kazetariona. Euskadi Irratien kazetariak kalitatea bermatzeko aldarrikatzen duten alde guztietako autonomia hori, irratia unean-unean agintaldi politikotik urrunago egotearen beharrari esleitzen diote:

Guk izan beharko genduke irradi komunikabide profesionalak, ez agintaldiko politikariei ondo dihoakien komunikabideak. Orduan hor lerro nagusia beharko genuke komunikabide publikoa izan eta zerbitzu egokia eman komunitateari. Eta horrek eskatzen ditu kriterio propio batzuk, eta horrek ematen du ez jendea adoktrinatzeko, ez jendearen botoa

zuzentzea, baizik eta kriterioak ematea (asteroko unibertsitateko gaien programako editore-aurkezlea⁴⁰, 2012).

Beraz, kazetarion aburuz kalitatez edukiak eskaini ahal izateko lehenengo baldintza gobernuaren arabeko informazioa eman behar ez duen irratia izatea da; aitortzen dute publikoa izanik ulertzekoa dela gobernuak nolabaiteko esku hartzea izatea, baina horrek ez du esan nahi gobernuaren morroi izan behar dutenik, informazio ireki eta librekoa ekoizteari uko eginez. Lehenengo arazoa EITB oso lotuta dagoela momentuko aginpidera dela esan dezakegu hortaz (Espainiako RTVE-en arazo beraz [ikusi *El Confidencial* 2012-09-02]), eta 2009ko hauteskundeetatik bozketan gehiengoa eskuratu ez zuten bi alderdiak koalizioan agintzen badaude, egoera okerragotu egiten da; eta horrekin, kazetarien arteko giroa ere bai, igartzen dutenean beren gaineko nagusiak ez direla irratian bete-betean arituak; horrek kazetariak gogogabetuta laga ditu. Kazetariak beraz zuzendaritzari kritika zorrotzak, kritika guztiak gainera irratian 20 urte baino gehiago lanean dabiltzan profesionalen ahotik datoz:

Nik uste dut bat, irizpide falta ikaragarria dagoela, momentuan eta egunerokoa ateratzen da aurrera jendeak eskarmentu handia daukalako eta inertziaz ateratzen direlako gauzak, etxeko jendeari esker. Eta bi, gure egungo zuzendaritzan irratia benetan ezagutzen duena bat izango litzateke. Besteak telebistakoak dira, eta besteak oraindik kanporagokoak. Eta irratia ezagutu behar da, jakin behar da adibidez informatibo bat aurrera ateratzeak zer suposatzen duen. Eta ez badakizu, gutxienez konfiantza izan jendearengan eta utzi laguntzen [...] Nahiko desantolamendu daukagu. Gertatzen dena da zuzendaritza honek langileei erakutsi diena da ezin dela haiengan konfiantza izan. Orduan zure ahalmenetan sinisten duzu eta horrekin zoaz aurrera (kirol albisteen editore-aurkezlea⁴¹, 2012).

Nire gustatuko litzaidake dokumental gehiago egitea, baina hor gidoia dago, gidoi faltaren historia. Eta gero erru handi bat dute zuzendariak; zuzendaritzak ez dakite ezer ere irratiaz. Zuzendaritza guztiak, ez dakite zer duten esku artean. Gero ikusten dute ea saio horrek audientzia duen edo ez, eta hori da Belen Esteban⁴², ez zaigu interesatzen. Eta horrek asko desanimatzen du (eguerdiko musika programaren editore-aurkezlea, 2011).

⁴⁰ Gogoratu 23 urte daramatzala lanean Euskadi Irratian.

⁴¹ Gogora beza Euskadi Irratian 28 urte daraman profesionala dela.

⁴² Belen Esteban izenez ezagutzen den pertsonaia, Espainiako telebista pribatu ezagunenetarikoa den Telecinco kateak hainbat erkidegotan (baita Euskal Autonomia Erkidegoan) kate pribatua liderra izatea

[Konbergentziari buruz berbetan] Jendeari ere ahaztu egiten zaio irratia gauez ere ez dela gelditzen, hemen irratan jendea lanean dago gaueko 00:00etan, 01:00etan, 02:00etan, gau guztian [...] gorpila da egun guztian eta elikatu egin behar duzu. Batzuetan ematen dit hemen bueltaka dabilzan arduradun batzuk, errespetu guztiarekin, orain eta lehen, gauza horiek ez dakit oso garbi dituzten, medio bakoitzak dauzkan beharrak eta dinamikak (kazetari albistegietan¹, 2012).

Abiapuntu horrekin, zerbitzu publikoa izaki albiste bat ematerakoan iturriak kontrastatu eta ahalik eta albiste objektiboena ematen saiatu behar direla azpimarratzen dute kazetariak, “era askotariko jendearentzat” emititzen baitute (kiroletako editorea albistegietan, 2012); inportantea da, beraz, “produktuarekiko ahalik eta zintzoen jokatzeari” (kulturako albistegietarako kazetariari elkarrizketa, 2012), “egia, benetakoa izatea” (kiroletako buruari elkarrizketa, 2012). Hemen inpartzialtasuna sartzen da jokoan, eta naiz eta kazetariak argi duten inpartzialtasuna ez dela existitzen, “pentsatzeko gai den pertsona oro partziala da”, argi utzi behar dena da esaten dena zeinek esan duen. Esaterako, *Salhaketa* Presoen Aldeko Elkarteak denuntzia bat egin zuen Zaballako espetxea ez zela esan zutena. Kazetariak ezin du esan Zaballako espetxea ez zela esan zutena, baizik eta “*Salhaketak* esaten du Zaballako espetxea ez dela ...”:

Nik *pretenditzen* dudan gauza bakarra da jendeak pentsatzea nire ahotsean entzuten duna, gutxienez dignitate minimo batekin eginda dagola, ahalik eta profesionaltasun handienarekin, inor engainatzeko borondaterik gabe, inori mesede egiteko borondaterik gabe eta ahalik eta modu justu, zuzen, egoki, zehatz eta txukunean (gertuko albisteen editore-aurkezlea⁴³, 2012).

Halere, kazetari gehienek berresten duten arren zenbat eta iturri gehiago erabili eduki hobea lortuko dela, albistegietan lan egiten duten kazetariengatik segidan entzun daiteke hori eskuliburuetan dagoen ideia dela, “baina egia esan iturri anitzen hori ez da eguneroko gauza” (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012). Izan ere, gaur

ahalbidetu duen pertsona, "fenomeno sozial" gisa ere hartu izan dena (Lamuedra, 2005). Emakumeak ez du goi-mailako ikasketarik eta ezaguna bihurtu zen toreatzaile batekin alaba izatearren. Espainiako telezaborraren zabalkunderako ezinbesteko errespeturik gabeko pertsonaiatzat hartu daiteke.

⁴³ Gogora beza Euskadi Irratian 28 urte daraman profesionala dela.

egungo Euskadi Irratiko albistegien sisteman ordubeteko informatiboetan askotariko gaiak sartzen dituzte, kazetariak berak eduki bat bete-betean lantzeko astirik ez duela. Eta gutxiago, beraz, iturri anitzak kontrastatzekoa. Gehienez jota, ekonomia edo nazioarteko analisten iritzi parte bat sartuko dituzte, analisiaren punta jartzen, eta horiek bai emango dute sorburu gehiago parez pare jarri izanaren ondorioz landutako edukia. Edo kazetari bera aste oso batean gai beraren jarraipena egiten egon denean, orduan bai aukera izango du leku batera eta bestera jotzeko datu bila. Horretarako “beharbada oraingo lan egiteko posturak ez dira onenak, beharbada izan beharko luke 4 gai aukeratu eta horren bueltan egin hezurdua hori” (eguerdiko albistegiko editore laguntzailea, 2012). Asteburuetako albistegietako editoreak ere, iturrien kontrastera ezin iristea egosten dio kazetariak denbora laburrean gertaera gehiegi estali behar izatera:

Iruditzen zait informatiboak onak izan behar dutela irrati publiko batean, eta informatibo onak egiteko batetik baliabideak behar dira; jendea behar da, jendea behar da tokietara deitzeko, tokietara joateko, prentsaurreko batean ez dakit nork ha esan badizu beste batera deitu eta ha da benetan galdetzeko. Pertsona batek goizean eguerdiko 13:00etarako informatiborako hiru prentsaurreko jarraitu behar baditu, ezin dio hari deitu A edo B den galdetzeko (asteburuetako albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Edukiak behar bezala kontrastatu eta kontatzeko beraz, informatiboak orain dauden bezala birmoldatu beharko lirakeke. Batetik, betiereko denboraren kontua agertzen zaigu, kazetariak edukiak lantzeko astia izatea; “kazetariari denbora gehiago eman behar da” (kulturarako kazetariaria, 2012). Baina beste irtenbidea, kazetarien espezializaziora jotzea litzateke. Alegia, albistegiak orain antolatuta dituzten modura eta dagoen lantaldearekin, ez dira heltzen eduki guztiak behar bezala kontatzera, edo beraiek nahi izango luketen bezala sorburu bat baino gehiago bilatu, elkarriketa bat baino gehiago egin, gai bakarra estaltzeko. Gasteizen egunero-egunero Legebiltzarreko gaien inguruan informatzen dutenak edo nazioarteko gaietan berezitatutako kazetaria salbuespena izan daitezke, eta beronek beren esperientziatik kontatzen dute aberasgarria dela oso maila horretan espezializatzea –“nik eduki dudana esperientziarik aberasgarriena laboralki” (goizeko magazineko elkarriketa, baina

Gasteizko egoitzan lan egindakoa)-, baina egun albistegietan dagoen gurpilean, ez dute posible:

Egia da ezin duzula pretenditu oraingo eskemetan informatu behar duzunik gauza guztietaz xehetasun osoz. Orduan niretzako kalitateko edukiak eta kalitateko produktuak egitea izango litzateke era hortara, notizia baten tripak, notizia baten jarraipena egiteko modua edukitzea; ez daukagu. Gaur hemen edozein lankide ari da ministro kontseilua segitzen, bihar ari da beste istorio baten, ez daukana zer ikusirik, eta batzuetan goizean eta arratsaldean egingo dutenak ere ez dute zer ikusirik (arratsaldeko albistegiko editore-aurkezlea, 2012).

Bestetik, hedabide bat gizartearen edo gizartearen parte baten isla den heinean, gizartearekin batera aldatu behar da, eta horrek kalitatea erantsiko dio bere produktuei, jendearen interesak asetzetik hurbilago egongo delako. Eta gizartearekin batera eboluzionatze horrek, aldaketetarako malgua izatea esan nahi du, besteak beste, albistegietako editore batzuek aipatzen dituzten formatuen lanketa zaindu beharra. Alegia, formatuak egokitu eta edukia modu erakargarrian eskaintzea:

Formatuak aldatzen joan behar dira segun jendeari zer interesatzen zaion eta zer ez. Lehen albisterik luzeenak 2 minututakoak izaten ziren, orain ez, orain albisterik luzeena daukagu 1'25 minututakoa, bizkorrago joaten gara. Hobe edo okerragoa den? Ez dakit, da gizarteak orain eskatzen dizuna edo guk hori antzematen duguna (eguerdiko albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Iruditzen zait grabazioak ondo egin behar direla, ez dugu ahaztu behar irratia garela eta irrati dela soinua. Manifestazio batean bagaude esanez jende pilo dagoela, hori entzun egin behar da, ekarri egin behar da [...] Beraz jendea kanpora doanean ahalik eta audio gehien erabiltzea bere ahotsa girotu dezan. Eduki aldetik ondo egon behar du baina forma aldetik ere txukun egon behar da (asteburuetako albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Gaur egun gainera, Euskadi Irratiko kazetariak sarbidea dute telebistara, ETBra, iristen diren agentzien, bidez heltzen diren irudietara: Reuters eta APTN (Associated Press Television News) kasu. Beraz, kazetariak irudi horietako audioak ere erabili ditzakete.

Gertatzen dena da, horrek lan bikoitza eskatzen duela -audioa entzun, moztu, bikoiztu- eta batzuetan ikusi dugu nahiz eta editorearentzat atzeko soinua entzuteak ikaragarri jantzi zezakeen kronika, esate batera, Greziako istiluak eman zirenean (2012ko otsailean, Greziar Parlamentuak troikak inposatutako erreskate plana onartu eta Atenasen istilu larriak jazo zirenean), kazetari horrentzat hori “zarata” besterik ez zen -bigarren kazetaria kasu horretan kazetaria 45 urtetik gorakoa zen). Beraz, tokietara joan ahal izatea informazio anitzak bilduz, eta soinuz girotzea, hots, ahalik eta detaile gehien ematea da editore batzuentzako kalitatezko edukiak sortzea. Eta osagai horiekin batera hizkuntzaren osagaia dago noski, adierazpide aberatsak sartu beharra -lehenagoko azpiatal batean jorratutako gaia-, baina hizkuntza akademiko edo ulergaitzetik alde eginez, irratia ahozkoa baita.

Hortaz, informazio askea, anitza, landua, eta mota guztietako jendearentzat, eta guzti horrekin, “jendea entretenitu ere noski”; eta euskarak horretarako bidea ere ematen du:

Niretzako irratia izan behar da entretenitua eta bestetik kultura jaso duen zerbait [...] jendea aspertu dugu euskerarekiko boluntarismo horrekin eta zaletasun edo abertzaletasun horrekin . Euskerak ez dauka ideologiarik, egin behar dena da entretenitu eta dibertitu, eta listo. Eta bidenabar formazio apur bat baldin badoa hobe, baina ez dadila nabaritu” (eguerdiko musika programaren editore-aurkezlea⁴⁴, 2011).

Beraz, orain arte kalitatezko edukiak zer diren definitzean kazetari euskaldunen diskurtsoan hiru kontzeptua garrantzitsu gailendu direla esan dezakegu: askatasuna (gobernuaren erabateko menpekotasunetik libreago), informazio landua (iturri desberdinetatik sortutako datuekin kontrastatua) eta eduki entretenituak (aspertu barik erakarri).

Horrez gain, irratiko beste pare bat kazetarien ahotan aditzera ematen den kalitatezko beste irizpide bat, eta autore honen ustetan behin iturrien kontrastatzea igarota garrantzizkoenetarikoa, entzuleen intereseko edukiak eskaintzearena da, alegia, zure audientziarentzat interesgarriak izango diren produktuak; “[kalitatezko edukiak]

⁴⁴ Gogora beza Euskadi Irratian 29 urte daramtzan profesionala dela.

landuak eta kontrastatuak zalantzarik gabe, eta entzulegoaren interesekoak direnak” (albistegietako kazetariari elkarrizketa, 2012). Dena dela, kazetariak kontziente dira ezin daitezkeela entzule gehienek kontsumitu nahi dutena eskaintzera mugatu hedabide publiko diren aldetik, eta beraz, iturrietan bezala, hor ere oreka lortu behar da eskatzen dena eta kodigo moral batzuk jarraituz eman beharko litzatekeenaren artean:

Zure komunitateari interesatzen zaizkion albisteak eman behar dira. Baina hor askotan guk ere heziketa lan bat egin behar dugu, eta kiroletan betikora noa futbola, futbola eta futbola, baina futbolaz aparte gauza gehiago ere badago [...] Eta hor nik uste oso desberdina dela medio publikoan lan egitea edo pribatuan, pribatuan aizu saldu egin behar da. Gurea desberdina da (kiroletako koordinatzailea, 2012).

Beste askotan, iturrien kontua baino interes kontua da, alegia, puntu batean kalitatezko edukienak subjektibotasuna ukitu dezake. Hori gainditzeko, ez dago entzulea ezagutu beste biderik.

Euskadi Irratiko erredaktore-esatari lantaldean, lehenago adierazi bezala, arlo bereko gaiak lantzen dituzten kazetariak ere badaude; horietako batzuk albistegietan zein programetan ibiltzen dira, esaterako, kultura eta kiroletako kazetariak. Kulturak badu bere tarte berezitua albistegietan, baina badaude baita kulturaren bete-betean oinarritutako programak; kiroletan gauza bera ematen da, albistegietako tartean bere lekua dutelako kirolek baina gero kirol magazin garrantzitsuek ere betetzen dute irratiko programazioa. Bi arlo hauetako kazetariak aipatzen ditugu geure behaketa eta sakoneko elkarrizketetan antzekotasunak topatu ditugulako, besteak beste, eduki onak edo kalitatezko edukiak sortzeari ekin behar zaionean. Izan ere, kazetari hauen hitzetan bere biziko garrantzia du gai propioak bilatzea, alegia, emititzen ari zaren gizartearen testuingurura begiratu, hura ondo ezagutu eta bertara egokituko diren edukiak lantzea. Horretarako beren iritziz protagonistak zaindu egin behar dira:

Produktua asko mimatzea [...] uste dut produktuaren kalitateak izan behar dituela gai propioak, geroago eta gutxiago atenditzen direlako, nola landu, alegia, bertan egonez aurretik ere... zuk zure kontestua begiratu, landu, ezagutu eta ondolik joan ze gaur

egunean ere kazetariok zenbat liburu aurkezpenetara joaten gara liburuak irakurri gabe... Kristoren mina da hori kazetariarentzat [...] produzitu behar duzu edonola ere eta hori azkenean kalitatearen kontrakoa da (kulturarako kazetaria, 2012).

Kiroletatik, gure esparrutik, erakutsi behar dugu baloratzen kirolari batek ze lan egiten duen eta gauzak nola lortzen diren. Kirolari horren jarraipena egiten. Eta ez marka batek egiten duena, egun batean triatleta batek marka hautsi duelako portada eman aldizkarian eta gero urte osoan ez da agertzen. Nik zerbitzu publiko bezala hor ikusten dut (kiroletako koordinatzailea, 2012).

Azkenik, aipatutako irizpideak jarraituz kalitatea mantentzeko oro har zuzendaritzaren aldetik hartu beharko liratekeen erabakien artean, "azterketa ebaluatzaile" gehiago egitearena aipatzen dute, "urtean behin, bakoitzaren lana zein den, zelan egiten den, zergatik egiten den" neurtuko dutena (eguerdiko musika saioaren editore-aurkezlea, 2011). Albisteetan kiroletako editorea ere esaterako ados agertzen da EITB aholkatuko lukeen EITBtik kanpoko eta euskal parlamentuko indarren ordezkapena jarraituko ez lukeen taldea sortzea, komunikazioko eta beste adar anitzetako akademiko zein profesionalez osatua.

8.1.6. Irratiaren webgunea elikatzea

Eitb.com/irratia/euskadi-irratia/ webgunea lan horretara zuzendutako bi kazetarik kudeatzen dute goiz eta arratsalde, txandaka, batak Bilbotik eta besteak Donostiako egoitzaatik -bi pertsona aste barrurako, asteburuetan ez baitago inor ere Euskadi Irratirako bereziki baina Eitb.com-eko kazetariak arduratzen dira atariaz-. Lehen aipatutako programen eduki-dokumentua, programazio buruak Eitb.com-ekoei ere pasatzen die, aldez aurretik emitituko denaren jakitun egon daitezten. Irrati honek interneterako lanean dituen bi pertsonak Euskadi Irratiaren aurrekontutik ordainduak dira, ez Eitb.com-etik. Lehenago irratia webgunea Eitb.com-eko langileen esku zegoen, arlo desberdinak kudeatzera dedikatzen direnak. Baina irratia webgunea indartu nahi izatearekin batera, 2009an bi pertsona ezarri ziren espresuki lan horretara, alegia, Euskadi Irratiko eduki guztiek webgunean isla izatera. Aurretik esan bezala Donostiako erredakzio multimedien kokatzen dira Eitb.com-eko langileetako batzuk, eta bertan baina kazetari artean dagoen Euskadi Irratiko sareko langilearekin

egon ginen irratian igorritako edukiak webgunera zelan igotzen diren ulertzeko, zein sistema tekniko eta humanoren bitartez. Donostian dagoen kazetari hau programetan kazetari gisa lanean sartu zen irratian eta gaur egun, webguneaz gain larunbatero teknologia berriei buruzko saioa aurkezten du -orotara hiru urte erdi daramatza irratian giza zientzia komunikazioan lizentziatua den kazetari honek-. Edukiak web-era era desberdinean igotzen dira saioaren arabera, eta lehendabizi esan beharra dago irratian ematen diren albistegi nagusiak ez dituztela igotzen, sarearen bidez zuzenean entzun badaitezke ere. Egunero igotzen dena da “Gertukoak” saila da. Izan ere, Eitb.com-en badago “Albistek” izeneko gunea eta horra igotzen dituzte berri guztiak, beraz, Euskadi Irratiaren zuzendaritzaren hausnarketa izan zen beraiek zerbait berezia ipini behar zutela, zerbait ipintzekotan, eta gertuko informazioari Eitb.com guztian ez zaionez hainbesterako garrantzia ematen, “Gertukoak” saioa igotzea erabaki zen. Buletinak aldiz, bai, orduz ordu igotzen dira.

Programa luzeak direnak, goizeko eta arratsaldeko magazina esaterako, martxan dauden bitartean igotzen dira webgunera; alegia, behaketa egiten ari ginen unean (9.55am) goizeko “Faktoria” magazina zuzenean zegoen emititzen eta bertako kazetarietako bat, multimedia idazgelan kokatutako langile honi ari zitzaizkion edukiak bidaltzen honek web era igotzeko. Kazetariak lanean dauden bitartean pixkanaka edukiak bidaltzen dituzte web orrialdea elikatu eta berritzeko. Beste programa batzuek, esaterako gizarte gaiak lantzen dituen gaueko magazin “Ilargipean”-ek, goizean bidaltzen du audioa eta goizean igotzen dute. Edukien bidalketa eta eskegitzea kudeatzeko, GDS programa erabiltzen da: GDS-tik kodigoek audioa moldatzen dute eta izen espezifiko bat jarri; izen hori webguneaz arduratzen diren kazetariei bidaltzen zaio eta beraiek beren programaren bitartez audio hori bidaltzen dute. Esaterako, “Faktoria”-ko kazetariak *Alzheimer* izena duen 5 minutuko audioa bidaltzen dio webgunera edukiak igotzeaz arduratzen den kazetariari; azken horrek, hitz klabe hori kopiatu eta sistematik ateratzen du, eta GDS karpeta konpartitutik ateratzean egin behar duena da mp2-tik (audioa formatu horretan dagoelako) mp3-ra pasatu, webgunera modu estandar batean igotzeko. Behin hori eginda, kazetari-tekniko honek webguneak kudeatzeko CMS izena nuen programa irekitzen du, eta CMSa irekita Eitb.com-eko atal desberdinak agertzen dira antolatuta aukera desberdinekin: *home* edo hasierako atalak, aktualitatekoak, *Betizu*-ren

orrialdekoak, *Gaztea*-renak, eta abar. Eta beste atal bat dago “Irratia” izeneko, bertan daude Radio Vitoria, Radio Euskadi eta Euskadi Irratia. Edukia webgunean sortzeko, hortik sortzen dute. Beraz, audioa mp3-ra bihurtzen dute, audio horri kazetariak bidalitako titular bat jartzen diote, irudi bat erantsi eta CMS-an programaren arabera klasifikatzen dute, gero automatikoki podcast-etara bideratzeko. Podcast-a aurretik sortua izan behar da, programa desberdinetarako harpidetzak sortuz, eta audioa banaka igotzen den legez, audio hori gero podcast-era gehitu egiten da.

Webgunean ez dira hiru ordutako programak bloke oso batean igotzen. Produktu tematikoak, adibidez “@bildua” teknologia berriei buruzko programa, osoa igotzen da, baita “Ilargipean”, egunero gai bat lantzen duenez, interesgarriagoa delako osoa igotzea. Aldiz, magazine batean gai osoak lantzen dira baina oso zatika, horregatik ez dute dena igotzen. Hortaz, magazineen kasuan kontu desberdinak lantzen dituzten audio laburrak igotzen dituzte, bere titular eta argazkiarekin. Titularra edukia landutako kazetariak bidaltzen du baina argazkiaz edukiak webgunera igotzen dituzten langileak arduratzen dira; argazki askoz osatutako data-basea dute prestatua horretarako, agentzietatik eta internetetik eratorritako irudiez elikatua. Adibidez, “Portobello” musika saiorako The Kings of the Limbs izeneko argazki bat igotzen ari dira; horretarako CMS barruan “Portobello” non dagoen topatzen du eta argazkia nondik hartu duen esaten du -kasu honetan Thekingsofthelimbs.com-etik -copyrightarekin arazoak ez izateko. Garrantzitsuena da datu guztiak ondo artxibatzea, gero CMS-ak leku batetara dena batera bidaltzeko.

Bideoak kudeatzeko *Sarbidea* izena duen sistema dago, ETBekin funtzionatzen duena; irratan bideoak editatzeko ordenagailu gutxi dituzte eta beraz bideoak editatzeko multimedia idazgelako ordenagailu batetik egiten dute. Behin bideoa editatuta, audioa bezala karpeta konpartitura bidali eta webgunera igo egiten dute. Dena dela, irratan bideoekin oso gutxi funtzionatzen dute. Beraz bideoan zerbait behar dutenean irudiak sistema bertatik jaisten dituzte. Izan ere, bideoak jarri dituztenean gehienbat elkarriketa politikoak izan dira, ETBko kamerak estudiora grabatzera joan direnean eta haien kronikak jarri dituztenean, batera lan eginez. Gainera, Eitb.com-eko edozein gunetara igotzen den bideoak *Eitb.com* marka izaten du idatzia, “denak batzen

gaituen logoa delako; logo hori, ETBkoa, normalean igotzen denean automatikoki aldatzen da” (interneteko edukien arduraduna, 2011).

Behatu dugunaren arabera azpimarratzekoa da baita, Euskadi Irratiak ez duela web orrialderako berariaz sortutako edukirik; alegia, “irratiko edukirik gabe gu ez gara ezerrez” (Euskadi Irratiko edukiak webgunean kudeatzen dituen kazetariari elkarrizketa, 2011). Irrati honetan zuzendaritzak nahiago du lehenengo irratian emititu eta gero, entzuleak zerbait bilatu nahi badu, internetera bideratu; beraz, web orrialdeak “aurre ez hartzea”. Bilbotik Eitb.com-koek, espresuki Eitb.com-erako edukiak sortzen dituzte; Euskadi Irratirako ez da hori gertatzen. Euskadi Irratiko web orrialdea Eitb.com-eko hornitzaileetako bat da baina bertako kudeatzaileek Taldeko beste hedabideetatik atera dituzten gauzekin; hori da bakoitzaren papera.

Webgunea audioz hornitzerako garaian beraz, irratia baino pausu bat atzetik doaz; baina prentsa oharrak programen aurretik igotzen dituzte. Esate batera, “Ilargipean” saioak gauean emango duena web orrialdean iragartzen dute, saioak prentsara, egunkarietan-eta agertzeko, bidali duena interneteko kazetari-tekniko hauei ere bidaltzen diotelako; testu hori webgunera igotzen dute. Horrekin programaren aurretik informazioa zabaltzea lortzen dute.

8.1.6.1. Webgunearen antolaketa eta espazio berrien sorrera

Eitb.com barruan Euskadi Irratiaren webguneak duen antolaketaren ikuspuntutik, edukiak igotzeaz arduratzen den kazetariaren iritziz, nahiz eta lan asko egin irratia bertan islatua egoteko,

webgunea Eitb.com barruan oso galdua dago. Nahiz eta lan asko egin, galdua dago. Eitb.com barruan gu orri bat besterik ez gara, eta hona ailegatzeko jakin egin behar duzu nola ailegatu. Ez da batere erakargarria. Orduan hori izan beharko litzateke landu beharreko bidea [...] Askotan pasatzen zaigu gure lana ez dela ikusten eitb.com-en handitasunean (interneteko edukien arduraduna, 2011).

Interes desberdinak sortzen dira hor: zuzendaritzaren aburuz, Eitb.com-en estrategia orriz orri joan behar izatea zen, gune guztietatik igaroaz, eskaintza guztiak ikusteko; Euskadi Irratikoek aldiz, webgunea irratiko produktuak kontsumitzeko modu bezala

ikusten dute. Horregatik, Eitb.com eta programaren izena jarrita -*Eitb.com/Faktoria* esaterako-, automatikoki programan sartu ahal izateko sistema eskatu zuten, baina gaur egunean ez da horrelakorik egiten -Espainiako irratien artean RNE edo SER-ek dute sistema hori-.

Halere, duela bi urte hobekuntza garrantzitsu bat gauzatu den. Lehenago Euskadi Irratiaren webgunean edukien antolaketa gaurkotasunaren arabera egiten zuten, hau da, zerbait berria sortzen zenean goialdean jartzen zuten. Egun aldiz, tarte bakoitzak bere gunea du, lehen programa handiek izugarrizko espazioa zutelako beraiantzako eta programa txikiek ez zuten aukerarik web orrian egoteko; "ez zuten lekurik ez prentsa oharrentzako ez audioarentzako" (interneteko edukien arduraduna, 2011). Gaur egun antolaketa desberdina da, programa nagusiek goian jarraitzen dute baina asterokoak direnei, edo erreportajeei, leku egiten zaie. Honekin, programa txikien audientziak gora egitea lortu dute. Izan ere, aukera dute jakiteko audio bakoitzak zenbat entzunaldi izan dituen; astean behin gutxi gora behera saio bakoitzeko kazetari gidariei esaten zaie beren programak zenbat "klik" izan dituen aste horretan, "kazetarien arteko pike sanoa" bultzatzen delarik programazio buruak dioen bezala. Ikerlan honetan gu ez gara kazetariak interneteko erabiltzaileen informazioa izateak euren lanean izango duen eragina aztertzen ari, baina ildo horretan aipatzekoa da 2011an argitaratutako ikerketa batek, web orrialdearen bitartez egiten diren audientzia neurketek eduki mediatikoen ebaluazio prozesura dimentsio berri bat ekartzen dutela diola; alegia, produktuek web orrialdean jasotzen dituzten "klik" kopuruak kazetarien balio eta errutinetan eragina izan dezaketela (Karlsson, 2011: 279-295).

Horrez gain, webguneari emandako erabilera horren bitartez Euskadi Irratiko buruz eta kazetariarentzat internet euren audientziaren eskaeretara hurbiltzeko eta eskaerok asetzeko espazio ezin hobea dela agertzen dute. Irratiko tarte desberdinek webgunean izandako "klik"ak neurtzean, Hermes-en (2006: 295-309) hiritargo digitalaren eraikuntzaren ideia ekartzen digu gogora; izan ere, gunea digitalean irratiko entzuleek espazio partikular bat sortu dezakete euren gustuak eta joerak plazaratu eta elkarbanatuz, eta irratiko tarte berriak sortuz. Erabilera honen adibide dugu "klik"en zenbaketa egiterakoan 2011an ateratako ondorio bat, erabiltzaileak irratien

webgunera magazinak eta humorezko saioen audioak errekuaratzera sartzen zirela nagusiki, informazioa kontsultatzen baino.

8.1.6.2. Kazetarien jarrera interneteko edukiekiko: Konbergentziarik eza

Esan bezala, ez daude Euskadi Irratiaren webgunerako bereziki sortutako edukiak, eta hortaz, kazetariak webgunerekin duten harremana minimoa dela esan daiteke; “mugatzen zara irratiko kontuetara eta puntu” (kulturarako kazetaria, 2012). Beraz euren lana sortutako edukiak GDS sisteman izen espezifiko batekin jartzea eta horretarako titularra sortzea izango da; hala ere, lan horrek bere heziketa behar izan du. GDS sistema sartu zutenean, Donostian kokatzen den Euskadi Irratiko sareko edukiak kudeatzen dituen profesional honi egokitu zitzaion programa txikietako jendea konbentzitzea beraien edukiak sarean islatuta egoteak garrantzia zuela eta beraz, audioak bidali behar zizkiotela. Kazetarietako edukiak bidali behar izateak lan bat gehiago suposatzen du, eta horregatik, azken urteetan interneteko edukiak kudeatzeaz arduratzen den kazetariak gehien landu behar izan duena kazetariarekin harreman hori izatea izan da, jakiteko zer lortu nahi den eta batera lan egiteko. “Badaude programa batzuk oso eszeptikoak zirenak interneten gauzak jartzeko, ez zuten nahi. Baina pixkanaka-pixkanaka konbentzitu ditugu, lan egin dugu beraien, beraien edukia beste era batera lantzeko aukera eman diegu eta pixkanaka sartu dira. Eta hori bai da, gure ikuspuntutik behintzat, lortu den arrakastetako bat” (interneteko edukien arduraduna, 2011); “lortu dugu denek bidaltzea beraien audioak internetekoei” (programazio burua, 2011), eta denek horrekin, internetekiko mesfidatienak ere esan nahi du programazio buruak; alegia, idazgelan dauden 1957an edo lehenago jaiotako belaunaldia, egun 55 urtetik gora dituzten kazetariak.

Halere, lehen esan bezala, kazetariak egiten duten gauza bakarra audioak bidaltzea da, ez dute sarerako testu edo material bereziki sortzen; salbuespenak salbuespen, esaterako, “Ekosfera” asteroko saioaren gidariak berak prestatutako testuak bidaltzen dizkio webguneko edukien kudeatzaileari. Edo “Ilargipean” programaren kasuan ere, bertako gidariak hasiera hasieratik argi zuten beren webguneko edukiei garrantzia eman nahi ziotela. Euren kasuan, interneteko edukien kudeatzailearekin ikusten dugunez, argazkiak beraien bidaltzen dituzte eta beraien eskatzen diote kazetari-teknikoari zelan kolokatu; beraien irudia landu nahi dute. Gero buletinaren kasuan,

kontrolean egoten den teknikoak moldatzen du audioa bera eta izen zehatz bat jartzen dio, “Bolweb” Euskadi Irratiari dagokionez; sistema automatikoaren bitartez, izen zehatz horrekin zuzenean berak orduz-orduko albistegira igotzen du. Beraz, kasu horretan webguneko edukien kudeatzaileek ez dute ezer egin behar, buletinek ez dutenez ez titulaziorik ez argazkirik, modu automatikoan igotzen ditu buletina grabatu duen teknikoak.

Halere, nahiz eta ez egon *bi-media* kazetaririk internet eta irratirako aldi berean lan egiten duenik, edo irratia web orrialderako edukiak sortzen dituenik, kazetari batzuk sareak izango duen indarraren jakitun dira; alde horretatik, EITB osoak sortzen dituen produktuak ahalik eta gehien ustiatzean ikusten dute arrakastarako bidea:

Euskadi Irratia, Gaztea, EITB Irratia; eduki batzuk fabrikatzen dira eta eduki horiek islada handiagoa behar dute sarean ere. [...] Alegia, gu oso eduki sortzaileak gara eta urte hauetan marka bat sortu badugu, eta marka hori da Euskadi Irratia, eta marka horrek fama ona baldin badauka eta guzti hori, marka horren pean sortu behar ditugula orain beste hedabide batzuk. Baina bueno, hau lan hipotesi bat izango litzateke etorkizunera begira [...] Nik sentrazioa daukat gaur egun, eta hori telebistan nengoenean ere [ETBko albistegien zuzendari izandakoa] esaten nien bertako erredaktoreei, interneteko erredakzioak inportanteagoak direla gureak baino, eta gu ez gara oso kontziente hortaz (arratsaldeko magazineko editore-aurkezlea, 2011).

8.1.7. Produksioaren kontrola: istorio arazotsuak eta presio taldeak

Orain arte kazetarien edukien sorrera zikloan bat egiten duten zenbait dinamika (bilerak, informazio trukaketak, gaien erabakitzea, etab.) eta horien inguruko jarrerak (erdal korteen erabilera, komunitate erdaldunen baitako gaien emisioa, iturrien erabilera anitza, etab.) ezagutu ahal izan ditugu. Dinamika eta portaerak eman diren testuinguruak batzuetan azaldu egin dira, eta oraingoan testuingurua bereziki tentsioduna izan deneko egoera batzuk azalduko ditugu. Finean, nahiz eta egunerokoak ez izan kazetarien lanaren parte ere badiren egoerak direlako eta euren arteko bestelako hartu-eman puntual eta jokaerak erakusten dituztelako. Problema eragiten dituzten edukien artean, kazetariak EITB taldean bizi duten abagune politiko berriari atxikitzen zaizkio batzuk. Horren adibide dugu 2011ko otsailaren 18an

ostirala, asteburuetakoko goizeko magazineko 09.30etako lantaldearen bilera azaleratutako istorioa. Aste hartan Sortu ezker abertzalea ordezkatu zuen alderdi politikoa legeztatze manifestaldia egingo zen, larunbatean hain justu -programak larunbata goizez zuen hiru ordutako tarte bete beharra-. Saioko bilera hiru kazetarik osotzen zuten, editore nagusiak eta beste bi erredaktore-esatariak; lehenengo gaia elkarte gastronomikoek erretzearen inguruan hartutako erabakia zuen ardatz, eta segituan editoreak "bestalde, Sortu-rena dugu, biharko manifestaldia". Une horretan Euskal Parlamentuan eta hortaz, EITBren agintaritzan bizi den egoeraren berri ez duen behatzaileak, ez luke kazetarien erreakzio eta erabakietan arreta gehiegirik jarriko; aitzitik, komentario horiek ematen diren kasua berezia da 2008ra arte gutxi asko ezker abertzalea ordezkatu zuen taldea Parlamentuan baita EITBko administrazio kontseiluan ordeztua zegoelako, baina 2009tik aurrera ez. Une horretan gizarte politikoa erabat ez zegoen ordezkatu beraz eta Espainiako lehenengo bi partiduak ari ziren gobernatzen Euskal Parlamentuan; horrexegatik, bilera hartan kazetari batak besteari begirada bota eta baiezkota egin ondoren, editoreak "beno, lehendabizi xxxxxrekin [irratiko programazio buruaren abizena] galdetu beharko diogu", eta programazio buruaren abizena apuntatzen du aurrean duen programaren pautan. Ekintza horren ondoren, erredaktore-esatarietakoko bat tematu egiten da, gai horrek hurrengo eguneko goizeko saiorako berebiziko garrantzia duelako, kontuan izanda gaurkotasunezko magazina ere badela eta manifestaldia arratsaldean dela; horregatik, gai bera kultura ikuspegitik ere joratu dezaketela proposatzen du -magazin honek ez baititu politika eta sexua gaiak ukitzen (asteburuetakoko goizeko magazineko kazetaria, 2011). Hain zuzen, ez ziren gutxi izan Sortu legeztatzearen alde izena eman zuten euskal kantari, aktore, idazle, bertsolari; horietako bat magazineko ohizko kolaboratzaile izanik, berau deitzea proposatzen zuen kazetari honek. Editoreak zer transmititu nahi duten ondo pentsatu behar dela dio, eta "lehenengo xxxxxri [programazio buruari] galdetuko diogu eta gero lista [alderdiari euren atxikimendua eman diotenen izenen zerrenda] begiratuko dugu". Hurrengo eguneko saioan ez zen gaiari buruzkorik prestatu tarte honetan. Beraz programazio buruak ez zion, programako kazetarien iritzia kontra, protagonismo eman nahi izan goizeko magazinean horrelako gai bati, "eremu politikoan" kokatuta dagoenari eta albistegietan "egokiagoa" denari.

Bestelako adibidea 2011ko otsailaren 16ko bilera dugu, egunero aste barruan goizeko 10.00etan EITBko hedabideetako albistegi eta aktualitate buruek osatutako bilera. Egun hartan, erredakzio nagusiko barruko gelatxoan (kristalezko horma transparenteak dituen), mahai borobilaren inguruan fisikoki Euskadi Irratiko albistegi burua eta Eitb.com-eko aktualitate arduraduna daude. Radio Euskadiko albistegietako burua mahaiaren erdian dagoen interfonotik sartzen da, Bilboko egoitza nagusitik lan egiten baitu. ETBko albistegi buruak ere egon behar zuen baina ez dago, "ETBkoak ez zeuden" komentatzen da. Bileran gazteleraz gauzatzen da, Radio Euskadikoaren gabeziak markatua -aipatzekoa da bilera hasi aurretik interfonoaren bestaldean dagoen pertsonari nire presentziaren berri ematen diotela-. Radio Euskadiko albistegi buruak ematen dio hasiera bilerari Eitb.com-ekoari hasteko esanez. Honek Espainiako alderdi sozialistaren buruetako batek esandako komentatu ondoren, Euskadi Irratikoaren sartzen da beste gai bat proposatuz baina Radio Euskadikoak moztu du, Eitb.com-ekoari ekonomia sailburuaren hitzak jartzeko esanez, eta Eitb.com-ekoak baietz esanda beste biei "nondik joko duten" galdetzen die. Radio Euskadikoak "tema cajas" erantzuten du, alegia, garai hartan ematen ari ziren euskal banku kutxen fusioari buruz; eta Euskadi Irratikoak jarraian bere ustez Metapostaren⁴⁵ gaia garrantzitsua dela dio. Baina Radio Euskadikoak dudaz "... no se..." (ez dakit) erantzuten dio, eta hobe gertuko albisteen kazetariak lantzeko proposatzen du. Gaiez aldatzen da. Beste lau gai komentatzen dira eta bilera amaitzen da, 25 minutu-ordu erdi beraz. Bileran oro har hauteman daiteke erdaraz dabilen Radio Euskadiko informatibo buruak esaten duena pisu handia duela. Hala ere, nahiz eta Radio Euskadiko albistegi buruak une batzuetan horrelako influentzia izan, gogoratu beharra dugu Euskadi Irratian ETB1en baino saiakera gehiago egiten dituztela euren agenda propioa izateko. Gonzalez Gorosarri-ren (2012) ikerketaren emaitzak gogoratzearen, Euskadi Irratiko titularretako gaiek %28,22an soilik egin dute bat Radio Euskadikoekin (ETB1 eta ETB2k aldiz, %95,87an).

⁴⁵ METAPOSTA legezko froga-balioa duen interneteko dokumentu-gordailua da, interes pertsonaleko dokumentuak gordetzeko ahalmena duena eta postontzi elektronikoko eginkizuna betetzen duena. Eusko Jaurlaritzaren informatika-sistemen barruan dago. Akziodunen artean, Euskadiko Arrisku Kapitalerako Kudeaketa, SA (% 30arekin), Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte Publikoa (% 17,5arekin) eta Bilboko Merkataritza Ganbera (% 15,10arekin) ditugu besteak beste (<<https://www.metaposta.com>>).

Egun hartako Euskadi Irratiko 13.00etako albistegi nagusian ez da Metapostaren gaia sartzen, baina bai 14.00etako buletinean. Esatekoa da baita nahiz eta hasiera batean albistegi nagusiko editorearen eskaletan ARCO-ren gaia egon ez, gaur eguneko arteari buruzko Madrilen ospatzen den azoka internazionalarena, azkenean eman egiten dutela, jakin ondoren Radio Euskadin ere sartu dutela. Aipatzekoa da baita Metapostarena gertatu eta hurrengo egunean, erredakzio multimedien irratia webguneko edukiak lantzen dituen kazetariari elkarrizketa egiten ari genbiltzala, Euskadi Irratiko albistegi burua agertu zela bat-batean, niri "barkatu" esan eta internetekoari Metapostaren inguruan galdetu zion. Berak zerbitzu berri horren berri emateak merezi zuen ala ez galdetu zion interneteko kazetariari, Radio Euskadikoak ez zuelako hori uste. Internetekoak arin eta apal erantzun zion, garrantzitsua bazela baina deklarazioetan sailburua soilik zutela eta zerbitzuaren aurkezpena ez zela informatiko bat ere joan funtzionamenduaren azalpenak ematera; beraz, ez zela oso aurkezpen eraginkorra izan. Eszena horretan batetik albistegi buruaren "kexa" agertzen zaigu Radio Euskadiko albistegi buruaren erabakiarekiko -behaketan antzemanda, erredakzioko iturri batzuen arabera gaur egungo Radio Euskadiko eta euskarazko irrati publikoko albistegi buruak ez dute harreman onik-, eta baita bere segurtasun eza buru bezala; eta bestetik kazetariarekin duen harreman ona. Kazetaria informatikan da aditua eta beraz horregatik jo du berarengana modu horretan, baina bera albistegi burua izanik, ez zaio inporta izan bere burua kazetari horren maila berean edo beheagoko mailan lagatzea. Horrez gain, komunikabide talde bereko kazetarien harreman estua geratzen da agerian hemen ere; eta ondokoaren balioztapena behar izatearen osagai psikologikoa. Donsbach-ek agertzen duenez, publikoak bihurtuko diren albisteen inguruko erabakiak egitearen egoera arriskutsuek eskatzen dute, "egia (gertaerak/*facts*), pertinentea (agenda) eta onargarria (iritziak/*opinions*) denaren pertzepzioa" (2004: 139) beste kazetarien laguntzaz balioztatua izatea. Jakina, beste kazetari horiek ere aldi berean beste informazio talde askorekin egongo dira kontaktuan, eta horiek ere eragina izango dute balioztapen prozesuan.

Goizeko "Albiste Faktoria" saioan, non albisteak tertulia eta hainbat arlotako pertsonaiei egindako elkarrizketekin osatzen diren, elkarrizketetarako produktore bat dago -aldi berean eguerdiko albistegietan erredaktore-esatari lanetan ibiltzen dena-.

Produktore honek elkarrizketatuak aukeratu eta aurkezleak planteatu ditzakeen galderen gidoia egiten du; hori bai, albistegi buruak elkarrizketatu horren oniritzia eman behar du beti. Produktoreak proposatu dezake baina albistegi buruak erabakitzen du, beste edozein enpresatan egongo litzatekeen iragazki lana eginez. "Gaur egunean dana albistegi buruarekin adostuta dago, elkarrizketaren edukia izan ezik", esaten digu produktore honek, eduki hori berak prestatzen du eta saioko editoreari bidaltzen dio. Produktore honekin izandako elkarrizketa baten, 2012ko otsailaren 24ean, Iñaki Goirizelaia Euskal Herriko Unibertsitate publikoko errektorea proposatu zuela elkarrizketatu gisa zioen; antza albistegi buruari ez zaio asko gustatu eta ez da aterako -nahiz eta beranduago, martxoaren 21ean eroan zuten-. Jarrera editorial garrantzitsuak agertzen direnean, arrazoi bategatik da; presio horiek agertzen ez direnean, jarraitu beharreko erabaki edo jokamoldeak aintzat emanda hartzen direlako da.

Atal honekin bukatzeko azpimarratu nahi dugu, Nikki Usher-ek (2012: 1-16) Estatu Batuetako irratiko publikoko *business news show* baten inguruan egindako ikerketa etnografikoan, behaketen bitartez ezartzen duen ondoriorik interesgarrienetako bat da kazetariak ardura hartzen dutela euren egunerokoan eragina duten mugak identifikatzen (nahiz eta ondoren zehazten duen ez dutela aparteko erabakirik hartzen horiei aurre egiteko); atal hauetan behatu eta kazetariengandik jasotako esan dezakegu profesional hauek erritmo bizian mugitzen den inguruan "are more purposive and reflexive than past ethnographies have elucidated" (Usher, 2012: 13).

8.2. Entzuleak eta munduaren ikuskera kazetarien irudipenean

Irratiko buru eta zuzendariak urtero adierazten dutenez, ez da erraza izaten irratiek "objektiboki" zer nolako entzulea duten jakitea. Euskadi Irratiaren kasuan, EGM (*Estudio General de Medios/Hedabideen Azterketa Orokorrak*) eta CIES (*Centro de Investigación de Economía y Sociedad/Ekonomia eta Gizarteko Azterketa Zentroa*) enpresek egiten dizkieten ikerketetan errepikatzen den perfil bat dagoela esan daiteke: 25-45 urte bitarteko gizon eta emakumeak (irradi generalistek izaten duten perfilen aurrean gaztea beraz), azken hauek nahiko parekatua agertzen dira; goi-mailako ikasketak dituzte gehienek eta klase sozial ertain edo ertain altudunak dira; multzo nagusia tamaina ertaineko herrietan bizi da (20.000 biztanle inguruan), ez oso herri

txikietan, ez hiriburuan (Kruzeta, 2008). Hala ere, audientziari ematen zaion etengabeko garrantzia, kazetaritzaren kalitatearen galeraren kausetako bat bezala identifikatu dute kazetari profesional eta adituek (Costera-Meijer, 2012: 1-17), eta gu beste aspektu batzuetan zentratuko gara. Izan ere, neurketa horiez gain, kazetariak entzule horrekin duen harremana zein den planteatzea ere datorkigu burura. McQuail-en (1969) ustetan komunikatzaileak bere audientziarekin harremana ezartzeko, paternalismoan, espezializazioan, profesionaltasunean eta erritualismoan oinarritutako doiketa (*organizational adjustment*) eman behar da antolakuntzan. Schlesinger-en (1987) BBCren inguruko lan sakonean ageri da, ikertzaileak garai hartan (1968) egindako ikerketan behintzat, audientziarekin ezarri beharreko harremana ez dela presazkoa auzia kazetariarentzat.

Ildo horretan, Tunstall-ek (1971) bere lanean argudiatzen duena da kazetariak beste kazetari batzuentzat helarazten dituela berriak, bere nagusi, iturri, lehiakide edo albiste horiek ulertzeko "gai" izango diren pertsona jantzi gutxi horientzat; aitzitik audientzia bere osotasunean erabat ezezaguna zaie idazgelan. Schlesinger-ek ere bere BBC-ko profesionalen behaketan albisteetako pertsona baten (*newsmen*) hitzak batzen ditu zeinek argi eta garbi esaten dion buruan beste kazetariak zer pentsatuko duten dela buruan dutena, eta gaineratzen du "and anyway, you write stories for the Editor, not the audience" (Schlesinger, 1987: 107). Ikus-entzuleek hedabidera deitzen dutenen iritzia kazetarien artean aldarte aldakordun jende "ipurterre" ("*cranks*") eta "histerikoak" ("*hysterical*") direla da (*ibidem*). Euskadi Irratia, eta BBC Radio nan Gàidheal-en, aldiz, beharbada kultura gutxitu baten testuinguruaren parte izanagatik, ez da horrelako sentimendurik azaleratzen kazetarien artean. Kazetarietako sortzearen ideia bai presente dago egoera batzuetan, Euskadi Irratian esaten direnak euskarazko hedabideentzako erreferente den heinean. Baina entzulea, komunitatearen parte bati mugatua, oso kontutan hartzen da bileretan gaiak aukeratzeko garaian, batez ere, magazineta non gaien aldetik libreago senti daitezkeen. Baina gaia bera baino, ikuspegi berri bat erakustiaz arduratzen dira. Horren adibide dugu, 2011ko otsailaren 17an asteburutako "Amaraura" goizeko magazinaren bileran behatutako elkarrizketa. Bileraren programaren editoreak Bildu alderdi politikoaren legezkatzearen aldeko manifestazioaren afera jarri zuen mahai-gaiean; argi zuten gaia landu behar zela, baina gidari nagusiaren kezka gaian baino lanketan zegoen: "dena

den, kontuan izan behar dugu zer aportatuko diogun entzuleari, zer berri esango diogun entzuleari gai hau landuz” (erredakzioa 2011). Horrez gain, arratsaldeko magazin “Mezularia”-n urteetan editorea izandako kazetariak, "sorpresaz askotan tertulia-kideek ere ez zekizkiten datuak ematen zituzten". Beraz, entzulea ez dute hutsaren hurrengotzat hartzen.

Dena dela, guk atal honetan kazetariak entzuleriaz duten irudipenean sakondu nahi dugu, modu horretan kazetariak euren edukiak prestatzerakoan eta edukien inguruan hartu beharreko erabakietan zer nolako elementuek parte hartzen duten jakingo dugulako. Entzulearekiko pertzepzio horiek eragina izango dute perfilean, kazetarien irratiarekiko ikuspegia eraikitzerakoan, eta lan-ohituretan, jarrera batzuk edo besteak lehenesterakoan -produktu homogeneotatik heterogeneora esaterako-.

Irrati publiko euskaldun honek orotariko irrati izaera betetzen du, eta beraz, ez du inolaz ere entzuleria espezializatua izango; ondorioz kazetariak beti saiatuko dira jende edo entzule potentzial gehienak interesekoa topatu dezakeen gaiak bilatzen. Honek entzuleari buruzko solasaldietan kazetariaren lehenengo komentarioa "denetarikoa entzuleak" dituztela, edo "oso audientzia heterogeneoa" erakartzen dutela da. Guk perfila eta ohiturak zehazteko ordea harago joan beharra genuen, eta irrati generalista izanik perfil anitzeko entzuleak dituztela jakin arren, euren buruetan mikrofono aurrean agertzen zen entzulearen irudia jakitera iristea genuen xede. Goizeko magazineko kazetari gazteak (30 urtetik beherakoak) esaterako, eguneroko edukiak sortzerakoan bere lagunak dituela erreferente dio, "nire lagunetako askok Euskadi Irratia entzuten dute eta nik nire etxean ere beti entzun dut". Dena dela, berak parte hartzen duen eguneroko hiru ordutako saioari begiratuta errepikatzen du audientzia perfil anitzak izan behar dituztela buruan, goizeko tarte horretan badagoelako sukaldaritza tarte bat eta hor "atso zaharrek baino ez dute deitzen". Arratsaldeko magazineko editoreak kotxean irudikatzen du entzulea, "denbora gutxi dauka eta denbora gutxian jaso behar ditu input asko"; horregatik saiatzen dira saioa zati askotan banatzen, segmentu labur eta dinamikoetan.

Albisteei begiratuta, albistegi nagusietako editoreetako batek ordena honetan elementu hauek dituela kontuan entzulea irudikatzerakoan zehazten du: Euskal

Herrian bizi den jendea, Euskal Herrian bizi den jendeari -"zuri edo niri"- zerk eragiten dion, eta hirugarrenik, "kontuan izanik gure entzuleria euskaraz bizi dela edo euskaraz entzuten duela sikiera irratia", euskararekiko sentsibilitatea duen jendea irudikatzen du entzule gisa -nahiz eta argitzen duen, lehenago esan bezala, horrek ez duela albistegien edukien morrontza bilakatu behar-. Beste albistegi nagusiko editoreak (gogora beza egunean bi albistegi nagusi daudela, eguerdikoa eta arratsaldekoa, gauean 10 minutuko lapurpena eskaintzen da) ezaugarri hauekin deskribatzen du bere buruan dagoen entzule tipoa: hurbileko bere inguruko albisteak nahi dituen pertsona; euskalduna; informatuta dagoena -kultura jasoduna beraz-; berari zuzenean eragingo dizkion gaiak interesatzen zaizkiona; eta euskaltzalea dena, alegia, "sigletatik aparte euskal kulturarekiko nolabaiteko kezka bat duena". Aurreko beste editore nagusiarekin nahiko bat dator honen deskribapena beraz-

Albistegi arloko beste kazetari batek dio aditzera ematen duen gaiaren arabera entzule perfil bat edo beste agertzen zaiola buruan -nahiz eta bide batez aitortzen duen gutxitan egiten dutela entzuleari aurpegia jartzearen ariketa-;

baina ez da berdina, adibidez, hitz egiten baldin banago Europak onartu behar duela 100 milioi euroko erreskatea Greziari emateko [...] edo kontatzen baldin bada albiste bat ba bi pertsona atxilotu dituela Guardia Zibilak ETArekin lotura daukatelako. Horretan zure inguruko erreferentziengatik jartzen duzu aurpegia [...] edo hitz egiten baldin baduzu futbolaz ba agian etortzen zaizu burura futbola gustatzen zaion zure inguruko norbait (kazetaria albistegietan2, 2012).

"Ez daukat entzulea bisualizatzeko ohitura handirik [...] baina inguruko jendea edo gertukoa" dio behaketan jasotako albistegietan lan egiten duen beste kazetari batek, aurrekoaren gisara, gaiak ere baldintzatzen diola adierazten duen bitartean. Goizeko "Albiste Faktoria"-n (goizeko albistegia elkarrizketa eta tertuliekin osotua) produktore den kazetariak ere, eta eguerdiko albistegian esatari-erredaktore, ezagutzen duen jendea imajinatzen du mikrofonoa ikusi ezin daitekeen irratia beste aldean; "nik imajinatzen det ni". Halere argi uzten du horrek ez duela esan nahi soilik publiko horrentzako albisteak emango dituenik. Hain zuzen, 2012ko otsailaren 22ko programa aitatu, Angel Maria Unzueta Bilboko Eliza katolikoko Bikario Nagusia

gonbidatu zuten "Albiste Faktoria"-ra elkarrizketatu gisa elizaren gorabeherak eta otoitzaldi berezi baten berri emateko. Behin elkarrizketa bukatuta, bost entzulek deitu zuten irratora otoitzaldia zein egunetan zen jakiteko. Horrek adierazten du entzule mota hori ere oraindik hor daudela Euskadi irratan, "eta dauzkagu, adibidez erabat baztertuta", diosku 25-34 urte bitarteko saioaren produktoreak; eta gaineratzen du, "ni ez naiz elizkoa izango, baina publiko hori ere hor dago eta kontuan hartu behar duzu". Entzulearen irudi heterogeneoa beraz. Eta gertuko albisteen editoreak, 45-54 urte bitartekoak, bere ama du irudimenean eta gaineratzen du "nik behin baino gehiagotan bota dut atzera notizi bat prentsaurreko horretara joan den pertsona ez delako gai izan ulergarri egiteko". Hortaz, nahiz eta baieztatzen duen kalean badagoela irratia entzungo duen kultura maila jasodun jendea, "ez duzu betiere adituentzat hitz egin behar". Bekadunek albiste bat egunkarian edo albiste agentziak igorritako orrialdean azaltzen den bezala kontatzen diotenean, bere ustez, gutxi ulertu gabe, ideia nagusietan sakontzea eta etxera joan eta ingurukoei kontatzea gomendatzen die. Kazetari honen kasuan hortaz entzuleria ezagutza edo jakituria maila bati doa lotuago.

Bestelako albisteetan lan egiten duten figurek, esaterako, eguerdiko editore laguntzaileak, bere inguruaren intereserako gaiak izango direla entzulearen interesekoak uste du; "berdin zait amonaxo bat izan edo kotxean doan 30 urteko tipo bat; nire ingurua uste du nahiko adierazgarria dela bai adinaren aldetik, profesionalki, sozialki". Entzuleria anitz bat du buruan beraz *a priori*, bere euskal ingurua izan daitekeen anitzena jakina. Gainera kazetari honekin beste une batean gai desberdin baten inguruko solasaldian aditzera ematen du, bere berriak entzuten dituen entzulea munduan zehar dabilen hori ere izan daitekeela; izan erre eguneroko gaien aukeraketa egiten ari denean, nazioarteko gaiak ere sartzeak duen garrantzia azpimarratzen du, "gure entzulea izan daitekeelako Txinan barna dabilen enpresari bat edo langile bat teknikaria dena eta Madrilen dago orain". Asteburuetako albistegietako editorearen iritziz halaber "oso-oso entzulego heterogeneoa" dute irratan, eta horiek denak buruan izateko ariketa egitea garrantzitsutzat jotzen du; "badago jende bat ingurune *rural*/batean bizi dena, baserritar mundukoa eta entzuten gaituena, eta jende bat askoz ere *urbanitagoa* dena, ikasketa maila altuagoa duena". Hori buruan izateak, gai bakoitzarekin zelán jokatu behar duzun erakutsi ahal dizula ulertzen dugu bere azalpenarekin:

Sirian zer gertatzen ari den kontatu behar baldin badugu, segur aki gure albiste horretan ez dugu jokatu behar BBC izango bagina bezala, hau da, Siria-ko probintzia bakoitzaren izena ez dakit zelako ahoskapenarekin esanez, baina bai lortu behar dugu era ulergarri batean eta era entzungarri batean informatzea zer gertatzen den han. Beharbada jende bati sinpleegia geratuko zaio [...] baina eske irrati generalista bat gara [...] Edo nekazal azoka bati buruz hitz egiten badugu ideia general batekin nahikoa daukagu, eta hartara baserri mundua usaindu ere egiten ez duenari kontua gerturatuko diogu aspertu gabe (asteburuetakoa albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Azkeneko ideia hori plazaratu genion nazioarteko albisteen berri eman behar duen kazetari bati, eta hor ere entzulearen interesa ezagutzearen beharra ageri zen elementu nagusi gisa; alegia, Estatu Batuetako errepublikanoen hauteskunde primarioetan irrati batzuetan jarraitu egiten dute, estatuz estatu zeinek irabazi duen eta non. Euskadi Irratian zein eratan jarraitu beharrak pentsarazi egiten dio kazetariari:

Niri iruditzen zait gure entzuleei Obamaren aurkaria nor izan litekeen ba bai, baina Obaman aurkari izateko bide horretan daudenak estatus estatu nola ari diren lehian, iruditzen zait kasu horretan adibidez pixka bat...beste medio handiagoek pixka bat solapatu edo pixka bat ukitu egiten gaituztela batzuetan eta ez garelako konturatzen esateko, *ostras*, entzuleari hau interesatuko zaio? (asteroko ekologia programaren editore-aurkezlea, 2012).

Beraz, batzuetan hasiera batean kazetariak buruan duten entzule tipoa ere ukitua geratzen da beste irrati batzuek agendako lehen postuetan dituzten gaien ondorioz; buruan dagoen entzule hori eraldatu edo desitxuratu egiten dela. Kirol saileko burua eta kirol magazinaren gidaria denaren entzulearen irudipenean ere eragina dute kanpoko bestelako faktoreek, sare sozialek zehazki, Facebook-en ere gazte jarraitzaile asko dituztela ikusita (20-30 urte inguruan, berak 45 ditu gutxi gora-behera), adi tarte horiei erantzuten ere saiatzen direla. Horrez gain, bere ingurukoak "herrikoak" (Azpeitiarra da, Gipuzkoa) ditu buruan, eta horrez gain, Kultur motako albistek sortzen dituen kazetaria, nafarra dena, Euskadi Irratia gipuzkoarregia dela iritzita berak Bizkaia eta Nafarroa aldeko entzuleriaren irudipena presente izaten saiatzen

dela dio -esfortzua egin behar dela horretan-, 30 urtetik gorakoa entzuleena bereziki. Izan ere, kontuan izan behar dugu orain arte aipatu ditugun beste kazetari guztien iritziak, lehenengoarenak izan ezik, denak gipuzkoarrak zirela; eta denek aipatu dute bere inguruko jendea irudikatzen dutela, honenbestez, gipuzkoarra. Era honetan ikusten dugu kazetariekin "gipuzkoarregiak" direnaren gaia ateratzen denean gehienak ados daudela Bizkaia, Nafarroa edo Iparraldera gehiago zabaldu behar horrekin. baina beste une batean, kontzientzia hori azalerazten den gaia jada baztertua dagoenean, kazetariei barrutik ateratzen zaie aditzera ematea irratia beste aldean imajinatzen duten hori gipuzkoarra dela nagusiki.

Albistegietan edota magazinetan irudikatzen den entzuleriaren perfilak ñabardura batzuk dituela esan dezakegu, baina halere erantzunak berdintsuak dira inguruko jendea -batez ere gipuzkoarra, 35-45 urte ingurukoa (urte horiek baitituzte "nire ingurukoak" zehazten zuten kazetari gehienek)-, euskaltzalea eta munduan zehar dabilena. Azken ezaugarri hori azpimarratzea garrantzitsua da, duela 20 urte entzuleriaren gehiengo euskaltzalea beste barik izango zelako, Euskal Herrian bizi eta hiltzen den entzulea; horrek ere eragiten zuen nazioarteko berri ia ez ematera eta gaztelerazko korteeekin hain zorrotza izatea, lehenago aipatu legez, zuzendariek buruan argi zutelako hobe zela eduki urrunegi geratzen zitzaaien eduki bat hurbileko batengatik ordezkatzeko. Azken batean entzulea hemen dugu eta bere kilometrajean gertatzen dena baino ez zaio interesatzen. Gaur egunean horrek bestelako biraketa hartu du, entzuleen irudipenean gain errutinetan eta jarretan agertutako erabakiengatik.

8.2.1. Lan-ingurunearekiko pertzepzioa: irratia eta lanbidea

Masa-hedabideen inguruko zenbait ikerlanek (Patterson, Donsbach, 1996: 455-468; Weaver, 1998), kazetariak albistea beren rol profesionalaren inguruan dituzten pertzepzioez eta ikuspegi politikoez zelan moldatzen duten aztertzean jarri dute arreta. Guk albistek berak moldatzeko eran bai baina batez ere euren profila eraikitzerakoan dugu interesa, eta horregatik kazetariak irratiko langile moduan euren lan-ingurua eta ogibidea zelan hautematen duten zehaztu nahi dugu. Pertzepzioa berez, ingurunearen baita barneko sistema kognitibo eta fisikoaren informazio lorpen prozesua da, prozesu emozionalak ere tartean sartzen direlarik. Pertzepzio prozesuak

"estimuluen arteko, batik bat ingurunean kausitzen direnak, eta epe luzerako memorian gordetako esperientzien arteko koprodukzioak ditugu" (Donsbach, 2004: 147). Hortaz, gizabanako multzo batek objektu berbera hainbat era diferentetan antzeman dezake, eta norbanakoaren pertzepzio horrek eragina izango du kanpora begira sortuko duen, edozein motako informazio jarioan. Atal honetan, burututako sakoneko elkarrizketa, behaketa eta inkesten bitartez, alde batetik euskal eta gaeliko irratiko publikoetako kazetariak lan egiten duten irratia inguruan duten ikuskera ezarri nahi dugu. Euskadi Irratiko kazetariak hasiz, bertan irratia profesional eta lehiakor batean ari direnaren pertzepzioa dute, denek bat datozelarik iritzi horrekin. Bere ezaugarri bereziak jarraitzen dituen irratia bakarra dela irizten diote -publikoa izateaz gain, euskarazkoa ehuneko ehunean, Euskal Herriko probintzia orotan entzungaia⁴⁶ eta orotariko edukiak lantzen dituenak-. Eduki aldetik, albistegietatik programetara kazetariak bere programazio anitza balioztatzen dute: "Nik uste eduki aldetik eta hizkuntza aldetik oso gauza duinak egiten direla, nik uste irratian oso jende ona dagoela lanean" (asteburuetakako albistegietako editore-aurkezlea, 2012); "Euskadi Irratiak gauza interesanteak ditu eta kalitatezkoak, bai informatiboak, entretenimendua, elkarrizketak" (goizeko magazineko kazetaria, 2012). Kazetari talde bezala gainera behin baino gehiagotan "kazetari talde oso ona" dutela edo "nortasuna duten komunikadoreak" (programen arloan), edota abagune politiko tirabiratsuen testuinguruan "etxeko jendeari esker, egunerokoa ateratzen da aurrera jendeak eskarmentu handia daukalako" bezala komentarioak entzutea, kazetariak irratia inguruan duten pertzepzioa positiboa adierazten du -baita lehenago behaketen bitartez azaldutako kazetarien arteko elkarlanak-.

Kazetariak Euskadi Irratia gaztelerazko beste irratia bezain kalitate onekoa dela diote bestalde, eta honek, kazetariak euskarazko hedabide publikoan egonda gaztelerazkoetara salto egiteko "tentaziorik" ez edukitzea eragiten die. Alegia, Euskadi Irratian edo euskarazko hedabideen industrian geratzeko gogoak; "garai batean erdarazko hedabide batera joatea zerbait gehiagotara joatea bezala izan zitekeen, baina

⁴⁶ Egia da bestetik egun sarearen bitartez Euskadi Irratia edonon entzun daitekeela. Baina oraindik Espainiako estatuan, Euskal Herriko datuak ez ditugu, uhinen bitartezko irratia entzuleak sarean entzuten dutenena baino %45,9 gehiago dira (EGM, 2012: 12). Beraz, Euskal Herri osora era analogikoan oraindik iristen den irratia garrantzia handia du entzuleak erakartzeko garaian.

nik uste momentu honetan ez dagoela konplexu hori Euskadi irratan geratzeko" zioen asteburuetakoko albistegietako editoreak euskarazko hedabideetan lan egiteko gaztelerazkoetara joateko ideiarengatik. Izan ere, 1990ean oraindik, irrata sortu eta 7 urtera, ez zegoen oso argi nondik joko zuen egitasmo horrek -1982an irratan sartzeko oposizioak gainditu zituen kazetariak uko egin zion postuari eta Donostiako Herri Irratia hedabide elebidun pribatuan geratu zen, ez zen "kontrol politikoaz fidatzen". 1989ko oposizioen bitartez sartu zen eta ordutik bertan darama, batez ere albistegietan garatu duela bere ibilbidea. Honek erakusten du baita zenbateraino aginte publikoek irratiarengatik izan duten edo izango duten eragina kazetaritza lan eta erabakiekin egon den nahasita-. Honez gain, irrati kazetariak bertan lan egiteagatik sentitutakoak sentituta ere, alegia gizartearen parte baten baita Taldearen alde batzuen zokoratzea, lanerako gogotsuago izatea:

jendeak hizkuntza gutxitu batean eta EITB talde komunikatibo guztitik errekurtso gutxien daukan hedabidean lan egiten egoteak, jende askorik haserrea sortzen dio, baina aldi berean jendea oso aktibo mantentzen du edo alferkerian erortzea ez du utzi (asteburuetakoko albistegietako editore-aurkezlea, 2012).

Beren lanbidearen inguruan aztertutako kazetari euskaldunek duten irudipenari dagokionez, kazetariak gizartearen eragiteko duten ahalmenaren eta beste hedabideetako kazetariak beren lana balioesten dutenaren inguruan dituzten ikuskerak neurtu ditugu.

Hortaz, inkestaren emaitzen arabera, beste hedabideetako kazetariak beren lana zenbateraino estimatzen duten proposatzean erantzunen batzuetan bestekoak 5etik 2,9ko balioztapena erakusten digu; hau da, "hala moduko" adostasunetik hurbil.

Gizartearen eragiteko ahalmenari dagokionez, batzuetan beste kazetariak 3,7ko iritzia eman diote, 4tik hurbil baita. Irrati publiko euskalduneko kazetariak beraz gizartearen eragiteko ahalmena badutela irizten diote. Ikasketen arabera ez dago alde esanguratsurik: kazetaritza edo ikus-entzunezko goi-mailako ikasketak betetakoak 3,3ko balioa ematen diote batzuetan beste eta bestelako ikasketak dituztenek 3,7.

Zertxobait altuagoa da beraz bestelako ikasketak dituztenen gizartean eragiteko ahalmenaren pertzepzioa, ahalmen gehiago dutela iritzita.

Aipatutako bi galderen artekoa korrelazio maila esanguratsuena ($R=0,64$, $P<0,001$) izan zen: "beste hedabideetako kazetariak biziki estimatzen dute nire lana" eta "lanbide honek gizartean eragiteko ahalmena ematen dit"-en artekoa alegia. Beraz, kazetariak gero eta gehiago uste dutenean beste hedabideetako kazetariak beren lana estimatzen edo balioztatzen dutela, egun betetzen duten lanak gizartean eragin ahal izateko ahalmen gehiago duela uste dute. Beste era batera ikusita, eragiteko ahalmena nagusiagoa dela pentsatzean, bere lanaren estimazioak ere gora egingo duela uste dute. Honekin esan nahi duguna da bi adierazle hauek pertinenteak direla kazetariak bere lanbideaz duen ikuspegia adierazteko.

Euskadi Irratiko kazetariak irratiaz duten ikuspegia, nazio ikuspegia da gainera. Irratia euskal nazioaren ikuspuntutik egiten dela baieztatu dezakegu, modu naturalean -kazetarien *background* edo aurrekariarekin bat eginez-; eta nazio ikuspegi hori kazetarien aukera bat da, Estatutuetan ez baita horrelakorik agertzen ez bada "euskal hizkuntza eta kulturaren sustapena" (5/1982 Legea, 3. Artikulua) modu orokorrean. Euskadi Irratiko kazetarien ikuspegia *pre-politiko*a, hau da, euskal komunitatea bere osotasunean hartzen du eta euskal nazio moduan tratatzen edo ikusten du. Nazio horren baitako hiru errealitate juridiko-politiko desberdinak halere modu zorrotzean hartzen dituzte kontuan, baina kulturalki euskal komunitatea batasun moduan aztertzen dute -nahiz eta, ondoren gertutako dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den gizartearen alde batek, baita 2009-2012 epealdian gobernuan izandako bi alderdiek ere, hori ikuspegi politikotzat salatu-. Hori da irratia txertatua dagoen euskal inguruneaz duten ikuskera, baina gainera badute sentiberatasun globala baita, euren entzulea Txinan edo Madrilen egon daitekeela adierazten duten uneetan aditzera emana.

Kazetarien testigantzek eta istorio konkretu batzuen behaketek gainera berresten dute azkeneko hiru urteetan zuzendaritzak murriztu egin nahi izan du nazio ikuspegia, komunikazio taldean oro har eta hedabide batzuetan espresuki. Horren adibide

argigarria Euskal Telebistan (ETB) eguraldiaren mapa aldatu izana da; Euskal Herriko nazio ikuspegitik Espainiako administrazio politiko ikuspegira.

9. BBC RADIO NAN GÀIDHEAL-GO KAZETARIEN PROFIL, ZEREGIN ETA JARRERAK

BBCren Gaeliko Saila (BBC Gàidhlig) edo Gaelikoen Zerbitzu Digitala (Gaelic Digital Service) deritzona BBC Eskozia (BBC Scotland) barruan irratirako, telebistarako eta sarerako edukia eskoziar gaelikoz sortzen duen departamentua dugu. Irratiak Radio nan Gàidheal (RNG, 1985) izena hartzen du, “gaelikoen irratia” esan nahi du, eta telebista katearen izena BBC Alba (2008) dugu –“Alba”-ren itzulpena “Eskozia” delarik gaelikoz. Telebista sortu aurretik, Gaelikoen Hedabide Zerbitzuaren (GMS, Seirbheis nam Meadhanan Gàidhlig) izena zuen sail honek, 2003ko Komunikazioen Legearen onartzearekin batera sortua, eta 1990. sortutako Gaelikoen Hedabideen Batzordea ordezkaturako duena. BBC Eskozia barruan kokatzen den Gaeliko Sailerako lan egiten duten kazetariak BBCk Eskozian dituen hainbat egoitzatan kokatzen dira, Glasgow-tik hasi eta Aberdeen, Inverness, Dumfries, Dundee, Edinburgh, Orkney, Portree, Selkirk, Shetland eta Stornoway arte. Hala ere, albistegietarako edukiak gaelikoz lantzen dituzten kazetari gehienak Inverness-en kokatzen dira, hain dagoelarik baita Albiste eta Gaurkotasunezko Editore nagusia News and Current Affairs Editor); Glasgow-n legoke ondorengo gaelikoen talde handiena, telebistaren seinalea handik aireratzen baita, eta ondoren Stornoway-n, programetarako lan egiten duten profesionalak.

BBCren 2011/2012 ikasturteko finantza-memorian agertzen denez, epe horretan Radio nan Gàidheal irrastian 6£ milioitako gastua egi zen, 3.6£ milioi edukien produkziarako bideratua, 1.4£ milioi banaketarako eta 1£ milioi azpiegiturarako . Gaelikoen Zerbitzu Digitalaren (irratia, telebista eta sarerako edukiak) zerbitzuak MG Alba kudeaketa talde pribatuarekin batera finantzatzen dira. BBC eta MG Albaren artean sortutako lankidetzak, 2008ko abuztuaren 5ean indarrean sartutakoa, gaelikozko kalitatezko telebista, irratia eta sareko zerbitzuak eskaintzeko egin zen. BBC Albak eskaintzen dituen edukiak jakina Gaeliko Sailak babestuen dira, eta azpimarratzekoa da aipatutakoa cross-media edo hedabide-arteakoa Saila dugula, alegia,

BBC Alba telebista katerako, Radio nan Gàidheal irratirako eta gaelikoen web orrialdeetarako edukiak sortzen dituen. Beraz, zuzendaritza mailan alde batetik BBC Gaeliko Saileko erredakzio burua dugu, zeinek Sailaren eguneroko eginbeharrak kudeatzen dituen, eta bestalde, BBC Albako zerbitzu burua dugu: katerako subentzio estrak lortzeko korporazio independenteekin lehiatzen direnez, zerbitzu burua departamentuaren eguneroko eginbeharretatik aparte kokatzen da.

Radio nan Gàidheal-ek orotariko programazioa jarraitzen du bere eskaintzan, hau da, albistegi eta orduroko buletinez gain, hainbat gairen inguruan eztabaidatzen duten magazinak, debateetarako tarteak, kirolak, dokumentalak eta musikan berezitutako saioak (ez gaita eskoziar herrikoiak bakarrik, baita bestelako rock eta pop estilodun doinuak ere) barne-hartzen ditu. Irratiaren lan-taldean albistegietarako eta programetarako lan egiten duten taldeak bereizi ditzakegu beraz, osotasunean edukiak sortzen dituzten 63 profesionalen osatutako idazgela dutelarik: albistegietarako editoreak, aurkezleak, produktoreak, idazgelako erreportariak eta erreportari freelance-ak, kirol kazetariak, magazinatarako aurkezle eta produktoreak, eta programa batzuetarako esleitutako ikerlariak. Eduki sortzaileen %57ak albistegietan lan egiten du, Inverness-eko BBCren egoitzan. Horrexegatik, gaelikoen irratia kasuan behaketa trinko gehienak Inverness-eko idazgeletan burutu ziren, nahiz eta Glasgow-ko giroa ere jasotzeko aukera izan.

Inverness-eko egoitzak bi solairu ditu. Lehenengoan irratia bi estudioak ditugu, estudio nagusia (irudia 12) saioak zuzenean behatzeko aukera izan genuen bertan, eta bestea, alde aurretik grabatutako saioan produzitzeko. Azken honen ondoan dago BBC Alba telebista kateko albistegi nagusia –“An Lá” gaelikoz “eguna” esan nahi duena-grabatzen den platoa. Alde teknikoan lan egiten duten profesionalak ere lehenengo solairu honetan daude kokatuak, eta beste gela batean BBC Eskoziarako ingelesez programak prestatzen dituzten kazetari gutxi batzuk daude, sei inguru. Solairu honetan bilera gela nagusia ere topa dezakegu (irudia 13). Goizeko 9.30tan egiten da eguneko bilerarik garrantzitsuena, bertan albistegien editore nagusiak, etorkizunean landuko diren gaiak prestatzen dituen kazetariak, egun horretako albistegiak (bai irratirako baita telebistarako ere) ekoiztuko dituzten kazetari, aurkezle eta produktoreak, eta irratiko web orrialdearen arduradun nagusiak parte hartzen dute.


Bigarren solairuan, albistegietako kazetarien idazgela dugu, bi gelatan banatua. Horietako batean web orrialderako edukiak eguneratzeaz arduratzen den kazetaria eta erreportariak ditugu, eta bestean, handiagoa dena, albistegietarako editore nagusiaren eta etorkizuneko gaiak prestatzeaz arduratzen den kazetariaren mahaik ditugu, aurrez aurre kokatuak, baita albistegietarako aurkezle eta produktore gehienak batzen dituen mahai luzexkak. Gela horretako ertzetako batean BBC Eskoziako Highlands eta Islands-etarako albistegien editorea dugu, ingelesezko edukiak kudeatzen dituen bertan alboan dituen beste zazpi ingeles kazetari elebakarrekin batera (irudia 14).



Irudia 12: BBC Radio nan Gàidheal-ek Inverness-eko egoitzan duen estudio nagusia. Albistegi guztiak zuzenean emititzen dira bertatik. Iturria: Autoreak egina.



Irudia 13: BBCn gaelikoz lan egiten duten kazetarien bilera gela nagusia Inverness-eko egoitzan. The main meeting room for Gaelic journalists located at the first floor of the Inverness office. It holds the necessary technical equipment to connect the rest of the offices within BBC Scotland. Iturria: Autoreak egina.



Irudia 14: BBCn gaelikoz lan egiten duten kazetaerien idazgela nagusiak Inverness-eko egoitzan. Lehenengo goiko argazkiak, inguru geografiko berean albisteak ingelesez ekoizten dituzten zazpi kazetarien kokalekua agertzen du. Iturria: Autoreak egina.

9.1. Albistegi eta programen sorrera

Radio nan Gàidheal-go kazetarien lan-errutina eta ikuskerak azaldu baino lehenago, ezagutu ditzagun datu soziologiko batzuk –lehenago aipatutako inkestaren bitartez lortutakoak (kazetari talde osoaren %51ak erantzundakoa), izan ere, ez dago horrelako informaziorik adierazten duen dokumentu zehatzik argitaraturik. Generoari dagokionez, erredakzioak oreka biribila mantentzen du eta gehienak 1978 eta 1987 urte bitarteetan jaiotako kazetariak ditugu. Beraz, gaur egun 36 eta 27 urte bitartekoek idazgela osoaren %44a ordezkatzan dute, eta 1968 eta 1977 bitartean (37-46 urte bitartekoak) jaiotakoek %28a. Beste %25a 1958-1967 urte bitarteetan jaiotakoak dira (47-57 urte) eta %3a 1988-1994 (20-26 urte). Gaeliko irratiko kazetarien %55a jatorriz mendebaldeko irletakoa (Western Isles) dugu, eta %29a Eskoziako Lur Garaietakoa edo Highlands-etakoa. %10ak Glasgow-n eta Clyde bailaran dute jatorria eta gainontzeko %6ak Edinburgo, Stirling eta Argyll zonaldeetatik datoz. Hortaz, gehienek Eskoziako Mendebaldeko Irletan eta Lur Garaietan dute sorterrria, hizkuntzaren zabalkunde geografikoaren lotuta: gaeliko hiztunen %60-%40 bitartean Mendebaldeko Irletan bizi dira eta %20-%2 bitartekoak Lur Garaietan (Scotland Census, 2001). Hala ere, iturri beraren arabera Glasgow eta Inverclyde deritzon behealdeko zonaldeko %11.2ak gaelikoz hitz egin, idatzi edo irakurtzeko trebetasuna du.

Kazetarien heziketari dagokionez, %94ak unibertsitate mailako ikasketak ditu (gainerako %6ak Sabhal Mòr Ostaig-en (Skye irlan) eskuratutako Ikus-entzunezko Diploma dute). %51.6a Ikasketa Zeltikoetan da lizentziatua, eta hortik aurrera ikasketa aldaera anitz topa ditzakegu: %9.7ak Ingeles Hizkuntza eta Literatura ikasketak ditu, %3.2ak Gaeliko Hizkuntza eta Kultura, eta beste %29.5a lizentziatura desberdinetatik datoz, historia, geografia, kazetaritza, soziologia eta zuzenbidetik hain zuzen. Horrez gain, kazetari talde honetako %16.2ak master eta gradu-ondoko ikasketak bete ditu, esaterako, multimedia eta kazetaritza masterrak eta Hizkuntza

Gutxituetarako Politikak eta Plangintzak izena daraman gradu-ondokoa. %78.1ak ingelesez burutu ditu unibertsitate mailako ikasketak eta %18.7ak besterik ez gaelikoz. Hedabideetan izandako ibilbide profesionalari dagokionez, %75ak beti lan egin izan du gaelikozko irrati publikoan, eta horietatik %65 BBC Alba telebista katean baita. %12.5a ingelesezko egunkarietan, ingelesezko irrati publikoetan (batez ere albistegietan) eta ingelesezko irrati pribatuetan (batez ere albistegietan baita) ere jardun izan da. Kazetarietako %1ek gaelikozko irrati pribatuetarako ere lan egiten zuen, izan ere izan ere, ipar-mendebaldeko kostaldean kokatutako irrati kate batzuek gaelikozko saio solteak ekoizten dituzte, hala nola, Two Lochs Irratia, Isles FM eta Cuillin FM-k. Moray Firth Radio delakoak ere astero ingelesa eta gaelikoa erabiltzen duen musika saioa lantzen du, Argyll FM eta Nevis Radio izeneko irratietan ere aireratzen den saioa (<http://radiotoday.co.uk>).

Gaur egun gaelikozko irrati publikoan lan egiten duten kazetarien %57.1ak albistegietan dihardu, eta %42.9ak programetan (denetariko gaiak lantzen dituztenak zein espezializatuak). Albistegietan lan egiten duten kazetarien gehiengoak mota guztietako gertaeren inguruan lan egiten dute, gai politiko, sozial eta internazionalatik, finantza, kultura eta kirol arloetako istorioak ere landuz. Programetakoei dagokionez, gure inkestaren arabera %33.3ak goizeko edota arratsaldeko magazinean lan egiten du (aurkezle, ekoizle edota ikerlari gisara). %27.2a musika saioak ekoizteaz arduratzen da eta beste %27k musika, umeen-saioak, goiz/arratsaldeko magazin edota umore saioak aurkezten ditu (programazioaren adibidea 3. Taulan).

Inkestarekin batutako datuek Radio nan Gàidheal-en lan egiten duten eduki-sortzaile profesionalen %71.9ak kontratu finkoa dutela BBCn agertzen dute –horietatik gehiengoak, %65.2ak, albistegietan lan egiten du. %21.9ak kontratu ez-finkoa du eta %6.3ak freelance gisara dihardu; horietatik gehienagok programetan lan egiten du.

Early		Afternoon		17:00	Aithris an Fheasgair
5:00	Mar Radio Alba ¹	12:00	Naidheachdan	17:30	Siubhal gu Seachd
Morning		12:03	Feasgar	Evening	
7:30	Aithris Na Maidne ²	13:30	Tormod a'Bhocsair	19:00	Rapal/An Litir Bheag

9:00	Naidheachdan	14:00	Naidheachdan	21:00	Coinneach Maclomhair
9:03	Coinneach Maclomhair	14:03	Caithream Ciuil	22:00	Tormod a'Bhocsaìr
10:00	Naidheachdan	16:00	Naidheachdan	22:30	Crunluath
10:03	A'Mire ri Mòir	16:03	Crunluath	23:30	Mar Radio Alba

Taula 3: Radio nan Gàidheal-go programak agertzen dituen programazio teorikoa, alegia, gure ikerketan kontuan izan diren kazetariak lan egiten duten programen batuketara azaltzen duena. Iturria: Autoreak egina.

9.1.1. Askotariko hedabideetarako ekoizpena

Gaelikoen irrati publikoak goizeko 7.30etatik gaueko 00.30etarako emankizunak eskaintzen ditu, gau paretan BBC Radio Scotland-ekin eginez konexioa. Egunean zehar albistegietarako kazetari taldeak “Aithris Na Maidne” (goizeko 7.30etan, irratian), “Aithris an Fheasgair” (arratsaldeko 17.00etan, irratian) eta “An Là” (gaueko 20.00etan, telebistan) albistegietarako edukiak ekoizten dituzte, tokiko berriez, Eskozia mailakoez, Erresuma Batuko mailakoez eta nazioartekoez hornituak. Beraz, telebistako berriak irratian lehenago emandakoak izango dituzte hizpide, baina irudiekin istorioaren beste ertz batzuk eskainiz. Horrexegatik irratiarako albistek lortzeko kalera irteten diren kazetariak irudiak lortzeko ideia euren buruen atzealdean izango dute. Beraz, nahiz eta Inverness-en bi kamera-operadore dauden lan horretarako berezituak, albistegietarako gaelikoz lan egiten duten kazetari guztiak kamerak erabiltzeko, irudiak selekzionatu, grabatu eta editatzeko garai dira. Izan ere, BBC Alba telebista katearen proiektua aurkeztu zenean, 2007an, Radio nan Gàidheal-go kazetari guztiak hilabeteetan prestakuntza berezia jaso zuten kameran eta edizio programen erabilera euren eguneko jardueretan txertatzeko. Horrela, gaur egun idazgelan irratiarako kazetaria izateaz gain bideo-kazetaria edo VJ (Video Journalist) ere baden profesionalaren profila ohikoa da. Kazetariarentzat “lan gogorra” izan zen ber-ikasketa prozesua, telebistako lengoia ikasteko barneratu behar izaten zituzten ezagutza berriengatik (edukia aukeratzeko eta teknika ezartzearen aldetik). Hala ere, egindako elkarrizketetan eta behaketetan azaleratu zitzaigunez, gaur egunean zalantzarik ere ez dute profesionalki garatzea lortu dutela telebistarako edukiak ere sortuz. Gaur egunean Inverness-en lan egiten duten kazetari guztiak bideo ediziorako programak txertatuak dituzte euren ordenagailu indibidualetan eta teklatuak ere era berezian daude bertan jarduteko egokituak.

Beraz, gaelikozko irrati eta telebistaren albistegietarako kazetari talde bakarra dugu, konbergentzia hori giza baliabide urriak bultzatuak eman da, batez ere, eskoziar gaeliko hutsezko telebista katea era arrakastatsuan sortzeko bide bakarra zelako; “eskura genuen finantzazioarekin horixe genuen telebista katea sortzeko modu bakarra” (BBC Gaelic Saileko editore burua, 2011). Hortaz, gaur egun gaelikoz albistegiak ekoizten dituen kazetari taldeak txandakatzean edo errotazioan (rota) oinarritzen dituzte euren lan-ohiturak; hau da, batzuetan, txandaren arabera, kazetariak aurkezle eta erreportari lanak egingo ditu, eta besteetan produkzioan lan egingo du. Azken honen eginbeharrak batez ere kolaboratzaileak topatzea, egunean estali beharreko gaiak aukeratzea eta zuzeneko elkarrizketak lortu eta lotzea izango dira.

Errotazio edo txandakatzean funtsatutako lan egiteko eran, kazetariak goizeko edo lehen txandan, egunekoan eta azkeneko txandan zehar lan egiten dute, eta aurkezle, produktore eta erreportari eginbeharrak txandakatzen dituzte euren artean (hori dena, jakina, aldez aurretik planeatutako ordutegiaren bitartez). Goizeko edo lehen txandan, kazetariak “Aithris Na Maidne” albistegiko berriak aurkezten dituzte eta arratsaldeko “Aithris an Fheasgair”-erako erreportajek prestatu. Txanda berean beste kazetari bat irratiko orduz orduko buletinaz emateaz arduratuko da. Egun batzuetan orduz orduko albistegiak aurkezten dituen kazetari berak telebistako “An Là” saioa aurkeztu dezake, lan egiten ari den txandaren arabera –“An Là” aurkezteko eguneko txanda izan beharko da. Azkeneko txandan lan egingo duen produktorea hurrengo goizeko “Aithris Na Maidne” irrati albistegirako gaiak prestatzeaz arduratuko da; horiek “Aithris an Fheasgair”-erako taldearekin batera lan egingo dute egunean zehar. Halaber, lehen txandan lan egiten dutenek goizeko irratiko albistegia bukatuta, arratsaldekorako ere piezaren bat edo beste utzi dezakete prestatua. Beraz, goizeko txandarako kazetari taldea 04.30tan iritsiko da erredakziora eta aurreko egunean azkeneko txandan beste taldeak utzitako gaiak lantzeari ekingo diote, 07.30tatik 09.00etarako lehenengo albistegi tartea aireratuz. 09.00etan eguneko txandako taldea iristen da eta 10.00etan, behin 09.30tan eguneko bilerarik garrantzitsuena egin ondoren (bilera horretan beraz bi txandetako taldeek parte hartuko dute, goizekoak eta egunekoak), egun horretako “Aithris an Fheasgair” eta hurrengo eguneko “Aithris


Na Maidne” prestatzeari ekingo diote kazetariak (aurkezle, produktore edota erreportari txandan egon). Beraz, 09.00etan iristen erreportari batek, zuzeneko bi-noranzkodun elkarrizketa –kalean dagoen erreportariak alde aurretik prestatutako elkarrizketa izaten du saioaren aurkezlearekin– prestatu dezake 17.00etako “Aithris an Fheasgair” albistegirako, eta horrez gain pieza bat “An Là” programarako, beti ere nazioarteko istorio bat denean (esaterako, Libiako gatazka) eta kazetariak bulegotik bertatik iturri desberdinak bateratuz egin dezakeen pieza denean.

Ondoren 13.00etan azkeneko txandako taldea iritsi eta “Aithris Na Maidne” prestatzeko edo prestatzen bukatzeko ardura hartzen du, baina txanda honetako taldea egun berean 20.00etan zuzenean emango den “An Là” saioari begira egin beharko da batez ere. Horrela, 14.00etan beste bilera nagusi bat egingo da, eguneko bigarrena, eta albistegietako editore nagusiarekin eta etorkizuneko gaiak prestatzen dituen editoreak ere beste behin bertan egongo dira; bilera honetan “An Là” BBC Albako albistegia izango dute ardatz . Ondoren 18.00etan, bilera gela nagusi berean, albistegietarako editorea “An Là” saioa Glasgow-etik transmititzeaz arduratzen den taldearekin komunikatuko da; izan ere, nahiz eta saioa zuzenean ematen den eta platoa Inverness-en dagoen, bertan duten kontrol mahaiak ez duenez hainbesterako potentziarik seinalea Glasgow-tik jaurtitzen da. Albistegietarako editore nagusiaren laguntzailea izango da “An Là” saioa jarraitzeaz arduratzen dena eta 18.30tan Glasgow-eko taldeari bideratuko diona saioa. Glasgow-eko taldearekin duten dei honetaz gain, bilera gelatik egiten dena batzuetan baita bideokonferentzia gisara ere, egunean zehar Inverness-eko eta Glasgow-eko gaelikoen kazetari taldeak gutxienez egunean birritan dei egiten diote elkarri eguneko albisteei buruz hitz egiteko (telefono bitarteko barne-konexioaren bitartez).

9.1.2. Erreferentziazko informazio iturriak kazetari gaelikoentzat

Gaur egunean BBCn eskoziar gaelikoz eskaintzen diren albistegi guztiek, bai irratan bai telebistan baita web orrialdean ere, nazioarteko, nazio-mailako eta tokiko berriak bateratzen dituzte. Aipatu albisteen jatorrien nahasketa nabarmentzekoa da batez ere telebistan, "An Là" albistegian, izan ere BBC Scotland-eko ingelesezko beste bi kateetan ezin ditzakete Erresuma Batua mailako edota nazioarteko berriak landu, eskumen hori Londresen dagoen korporazio britainiarraren egoitzaren eskutan


baitago (beraz beste nazioetarako zerbitzuek ere, Ipar Irlandako (BBC Northern Ireland) eta Gales-eko (BBC Wales) BBC-k eredu bera jarraitzen dutelarik). Horrela, Inverness-en dauden editoreak, erreportariak eta produktoreak lehen eskuko -kalean edo landa-lanean lortutakoak- iturriak, agentzia, egunkari eta BBCko web orrialdearekin batera konbinatzen dituzte. Iturri baten edo besteen erabilera unean-unean landu beharreko istorioaren arabera izango da, alegia, tokiko, Eskozia mailako edo bestelako eremu geografikoari dagokiona. Bigarren eskuko iturriak dagokienez, euren eguneroko lanean bai albistegietan baita bestelako edukiak ekoizten dituzten profesionalentzat ere hedabideak eta erakunde publikoak argitaratutakoak dira erabilienak (irudia 15).



Irudia 15: Radio nan Gàidheal-go kazetariak gehien erabiltzen dituzten iturriak beren eguneroko lanean 1etik 8rako eskalan (8=gehieneko lehentasuna, 1=gutxieneko lehentasuna). Grafikoan bataz besteko balioak adierazten dira. Iturria: Egilearen neurketa.

Hedabideen artean, ingelesezko egunkari, BBC Radio Scotland eta BBC-ko telebista katez baliatzen dira gehien kazetariak (irudia 16). Ingelesezko tokiko egunkarien adibide ditugu Stornoway Gazette, West Highland Free Press, the Oban Times eta the Shetland Times, eta nazio mailakoak berriz the Herald, the Scotsman, the Daily Record. Inverness Moray Firth Radio-n (MFR) airerutzen direnak ere badituzte iturri, irrati horrek Inverness eta inguruko eremuaren informazio espezializatua eskaintzen

baitu. STV edo Telebista Eskoziarra (Scottish Television) ere badute iturri euren istorioak elikatzeko, eta oro har, hedabideei dagokienez kazetari gehienek BBC news albisteen web orrialdea erabiltzen dute bertatik lortutakoarekin sortzen dutelarik berriaren bizkarrezurra; horien ondoren, agentzia erabiliena Press Association dute eta Albiste Elektronikoak Ekoizteko Sistema (ENPS Electronic News Production System) delakoan gordetako albistek, lehenago BBCko beste kateetan emanak (ENPS Associated Press Broadcast Technology-k albiste emankizunak editatzeko, antolatzeke, eta gordetzeko garatutako softwarea dugu).



Irudia 16: Radio nan Gàidheal-go kazetariiek gehien erabiltzen dituzten hedabideak bigarren eskuko iturri gisa 1etik 8rako eskalan (8=gehienezko lehentasuna, 1=gutxieneko lehentasuna). Grafikoan batz besteko balioak adierazten dira. Iturria: Egilearen neurketa.

Jorratuko dituzten berrien izaerari dagokionez, editore nagusiak tokiko albistegi eta buletinetan tokiko berrien lanketari ematen dio garrantzia, baina batzuetan, tokiko albistean faltan dituztelako nazioarteko istorioak ere helarazten dituzte, editorearen beraren hitzetan “gaeliko komunitateak gai horien inguruan ere, Libiako gatazkak, Bin Laden, informatua egon nahi duelako” (Gaelikoen albistegi eta gaurkotasunezko editorea, 2011). Nazioarteko albistek lantzerakoan, BBC Radio Scotland-ek gai konkretu bati emandako jarraipena, Inverness-en dauden ingelesez lan egiten duten beste kazetariekin izandako elkarrizketa informalak, edota BBCren sareko web orrialdeetan argitaratutakoak izando dituzte euren sortzeko inspirazio iturri. Horrez

gain, kazetari batzuek azpimarratu legez, atzerriko herrialdeetan bizi diren gaeliko hiztunen kontaktu zerrenda dute eta batzuetan, kontaktu horietatik abiatuz osatzen dituzte euren nazioarteko albiseen emankizunak –esaterako, 2011ko New York-eko atentatuan gaeliko hiztun bat bertan zegoen eta beraz ikusi eta sentitutakoren bitartez sortutako kronika osatu zuten berarekin telefono bitartez.

Oro har, lehenago azpimarratu bezala, albistegietako editorearen kezkarik nagusienetakoa albistegiak “etxean egindakoak” izatea da, eta alde horretatik, kazetariak gaeliko komunitatearen baitan dituzten kontaktu indibidualetatik baliatzen dira, honek aldi berean ingelesezko hedabideen gai-zerrendetatik desberdintzea ahalbidetzen dielarik. Behaketetatik baieztatu dezakegunez, produktore eta erreportariak askotan istorioa lantzen hasi baino lehenago denbora dezente igaroko dute telefonoan bata eta bestea deituz; batzuetan produktoreak hainbat hiri eta herritan kokatzen diren eta gaeliko hiztunak diren zinegotzi, poitikari eta bestelako izaeradun kontaktuen zerrenda emango dio erreportariari, “deitu eta ikertu zer ari den gertatzen” esanez. Zerrendan agertzen diren izen gehienak Eskoziako Lur Garaietako eta Mendebaldeko Irletako udaletxeetako kideak dira. Kontaktu horiek BBCren datu-basean izaten dituzte, beraz, kazetari guztiek dute sarbidea eta gai konkretu baten inguruan lan egin nahi dutenean, nahikoa dute gaiaren hitz gakoa sisteman jartzea korporazioaren barne-bilatzaileak izenak topa ditzan. Horrez gain, iturri alternatiboak topatzeko, Glasgow, Stornoway eta Portree-n kokatzen diren beste gaeliko saileko jendea deitzea ere badute.

Gaeliko komunitatearen baitako edozein kontaktu preziatua da kazetari hauentzat, kirolelan lan egiten duen kazetari gazteak (25-34) azpimarratzen duenez, “gaelikoen artean ditugun kontaktuak aparteko eta konkretutik, izugarri handia izatera iritsi daiteke” (telebista eta irratiko albistegietarako aurkezle eta erreportaria, 2011). Zentzu horretan, kazetari hauen abantaila gehienak Mendebaldeko Irletatik datozela da, gaeliko hiztun komunitate osoaren gehiengo bezalaxe, eta 100.000 bat gaeliko hiztun familia daude bertan. “Berezko partzialtasun” horrek, istorioak tokikoak eta komunitateari estuki lotutakoak direnean, lehen eskuko iturriak beren-beregi erabiltzera bideratuko ditu, gaiak era esklusibo eta mamitsuagoan landuz eta eskainiz.

Honekin batera gaineratzekoa dugu, telebistaren sorrerak irratiko albisteetan lehen eskuko iturrien erabileraren ugaritzea ekarri duela. Izan ere, irratirako elkarrizketa bat telefono bitartez egin daiteke edota istorioa sarean dauden datuekin osatu, baina telebistarako irudiak beharrezkoak dira, alegia, kokaleku zehatzetara mugitzeko beharra. Radio nan Gàidheal-en 1985etik lanean diharduen aurkezle eta erreportariak nabarmentzen duenez, hasi zirenetik urteak aurrera joan ahala eta teknologia berrien abantailak aprobetxatuz, “garai batean jada irratirako elkarrizketa bat edo iturrien aipu zuzena lortzeko, autoa hartu eta Eskozian barrena bidaiatzeari utzi genion” (“Aithris Na Maidne”-ko aurkezlea eta “An Là” albistegiko erreportaria, 2011). Bi komunikabideetarako lan egiten duten beste kazetari batzuen iritziz, inoiz baino atxikiagoak daude gaelikoen komunitateari “kanpoan” egoteko behar horrek bultzatuak. Telebistak ekarritako lan egiteko eraldaketen artean beraz, bulegotik sarriago irteteko joera nabarmendu daiteke, eta honekin batera, barneratutako ezagutza berrien bitartez, kazetariak euren lanaren gainerako kontrol zuzenagoa izatea:

Malgutasunean irabazi dugu, errezagoa baita pertsona batentzat ideia izan, kalera irten eta bideoa zein irratirako kronika egitea, erreportaje bat egiteko lauzpabost pertsonatako taldea antolatzea baino (irradi eta telebistarako albistegietara aurkezle eta erreportaria, 2011).

9.2. Ingeleseko aipuen erabilera eta hizkuntza mailaren bilakaera

Gaur egunean ingelesezko hitzak entzungai dira noizbehinka gaelikoen hedabideetan, batik bat, lehen eskuko iturri zuzenen erabileran. Hala eta guztiz ere, arau zehatzak ezarri dituzte nazioko hizkuntza menderatzailearen erabilpena mugatzeko: irradian eguneko edukiaren %95ak gaelikoz izan behar du eta gehienez %5a izango da beste hizkuntza batean, 20 segundu baino luzeagoak ez diren aipu gisara erabilia; telebistan, %25era igotzen da beste hizkuntza batean edukiak helarazi ahal izateko aukera, aipuek 30 segundurainoko iraupena izan dezaketelarik eta inoz ere ezin direlarik bi aipu jarraian igorri –dena dela, albistegietarako editoreak dionez, gaurdaino telebistan ez dute gehienezko aukera hori erabili. Halaz ere, albisteetarakako editoreak dionez, gaelikoen, eskoziarren eta nazioarteko gaien agenda estaltzen saiatzen zarenean, eta kontuan izanda Eskoziako populazioaren %1.9k hitz egiten duela gaelikoz, ezinezkoa zaie ingelesa euren emanaldietatik erabat kanpo lagatzea.

Testuinguru honetan, gaelikoz lan egiten duten kazetari guztiak ez badira ia guztiek, bai albistegietan baita programetan ere, ez dute konplexurik euren emisioetan ingelesa sartzeko, beti ere alde aurretik ezagutarazi ditugun mugen artean. Pentsaera hori babesteko bi argudio nagusi dituzte: alde batetik, jatorrizko pertsonaia protagonistaren ingelesezko hitzek istorio bati kolorea eta sinesgarritasuna erantsi diezaiokeenaren ustea, eta bestetik, audientzia taldea zabaltzearen ideia, une batean ingelesez mintzatzen den ikus-entzunlearentzat ere erakargarria izan daitekeen edukia eskainiz. Izan ere, telebistaren kasuan ingelesezko azpтитulu laburtuak erabiliko dituzte "An Là" gaueko zuzeneko albistegian -eurek "story straps" deitutakoak. Ondorioz, Eskoziako populazioaren %5ak BBC Alba katea egunero bataz-beste 30 minutuz kontsumitzea lortu dute (BBC Albaren 2009ko txostena, 2009: 1-8), gaeliko hiztun komunitatea %1.9koa denean. Eskozian gaelikoz ikasten ari den eta mintatzen den biztanleriarentzat BBC Alba babes eta laguntza indartsua izango denaren iritzia dago zabaldua (Milligan et al., 2011: 349-361).

Beraz, ingelesa edo beste hizkuntza arrotz bat aipuetan erabiltzean, kazetariak euren albistegiei sinesgarritasuna eta egiazkotasuna ematen diotela azpimarratuko dute; "albistegietan gure eginbearra ez baita gaeliko hizkuntzari buruz hitz egitea -berriak ez badu horrekni zer ikusirik-, gure eginbearra jendea albistez hornitzea da" (irradi eta telebistarako aurkezle eta produktorea², 2011). Era berean, kazetari batzuen iritziz, ukazina da gaeliko hiztuna elebiduna dela eta mundu elebidunean bizi dela, beraz, noiz behinka ingelesa erabiltzea gaeliko hiztun horrek bizi duen errealitatea islatzea da. Sinesgarritasunaren elementua hertsiki lotua dago gogoeta horri, esaldiak edo ideiak itzultzean, pertsona batek zehazki esandakoa beste era batera agertzeko arriskua dagoelako.

pertsona batek esandakoa parafresatzeak baino, nire ustez jatorrizko aipua igortzean gaineratzen diozu sinesgarritasuna esku artean duzun pieza, idatzi, programa edo dena delakoari, eta elementu hori izan behar da hain zuzen egiten ari zaren horren gako garrantzitsuenetarikoa (irradi eta telebistarako albistegietako aurkezle eta erreportaria, 2011).

9.2.1. Kazetarien ikuskerak gaelikoaren erabileraz irrati eta telebistan

Gaelikoen erredakzioko kazetari beterano gehienak bat datoz azken urteetan hizkuntzaren kalitateak behera egin duela esatean, batez ere, gramatikaren ikuspegitik; are gehiago, kazetari multzo horren iritsiz, zorrotzagoak izan beharko lirateke gaelikozko komunikabideetan lan egiteko eskatzen den hizkuntza-mailarekin. Horrez gain, BBC Albaren baitan ez dago Gaeliko Hizkuntzaren Plan edo antzekorik hizkuntzaren eredu linguistikoa eta lexikoa arautuko duenik (Gaelic Language Plan, Eskoziako hainbat udaletzek (Glasgow-k barne) sortutako planak hizkuntza arautzeko asmoz); BBC Scotland-eko Arau Editorialen Buruaren arabera, horren arrazoi nagusia BBC Erresuma Batuko erakundea dugula da, ez Eskoziarra. Aipatutako gaiak garrantzia du hedabideek hizkuntzak arautzen eta estandarizatzen bere biziko eragina dutela frogatua izan baita (Barandiaran, 2010: 53). Hizkuntza nagusiek (ingelesak zein espainierak esaterako) lortua dute estandarizazio maila hori dagoeneko, testuinguru desberdinetan erabilgarri dituzten euren baitako bestelako aldagai propioak (edo dialektoak) mantentuz jakina. Eskarmentudun kazetari horien iritziz, hiztegi faltak, kazetari batzuek zuzenekoak egiterakoan gidoiaren gainean inprobisatzeko zailtasunak izatea dakar, edo elkarrizketa batean alde aurretik ezarritakora estuki lortu behar izateak.

10. KAZETARI EUSKALDUN ETA GAELIKOEN PERTZEPZIOAK: LAN-AUTONOMIA, ERAGITEKO AHALMENA, BESTE KAZETARIEN BALIOZTAPENA, GOGOETARAKO DENBORA, BALIABIDE TEKNIKOAK ETA ASETASUN MAILA


Edukiak ekoizterakoan mantendu beharreko autonomia profesionala kazetaritzan jarduteko baldintza nagusienetzat hartzen da (McQuail, 1992; Singer, 2007). Are gehiago, kazetaritza rolaren izaera bereizgarria, oro har publikoaren erantzukizuna azpimarratzen duen baina gizabanakoaren autonomiaren baitako ideia existenzialak txertatzen dituen definizio arauemailean topa dezakegu, non bereziki inguruko joeretatik aske mantentzeko lanaren garrantzia iradokitzen den (Singer, 2006: 2-18). Hainbat herrialdeetako kazetariak alderatu dituzten ikerketetan, nahiz eta bereizketak agertu kazetarien arau eta balioetan (Weaver, 2005: 45-47), kasu guztietan autonomia eta independentzia kazetaritza kultura profesionalaren zutabe gisa agertzen dira

(Nygren, Degtereva, 2012: 732-743). Ildo horretan, Schudson eta Anderson-ek (2009: 88-102) esandakoarekin bat egiten dugu, alegia, objektibitatea per se ez dela zertan profesionaltasunaren erdigunean kokatu behar, eta herrialde bakoitzean kazetariak objektibitateaz harago doazen arau profesionalekin lan egin dezaketela. Era berean, Hallin eta Mancini-k (2004) profesionaltasunak bere gain dakarrela lanean autonomia izatea argudiatzen dute, eta autonomia hori, estatuak ezarritako arautzearen edo objektibotasunaren idealizazioaren bitartez baino, zerbitzu publikoa izateko joeraren, idazgeletan arau profesional desberdinen presentzia izatearen, eta norberaren lan prozesua hobeto kontrolatzeko tresnak eskuratzearren bitartez sustengatu daitekeela.

Eskoziar gaelikoz lan egiten duten kazetariak, errotazioan oinarritutako lan-hiturak dituzte, hau da, txanda eta eginbeharren aldaketak dakartzatenak. Lan egiteko modu horrek malgutasuna eskaintzen dio kazetariari eguneroko zeregin praktikoetan, Tuchman-ek (1978) aipatu izan duen malgutasuna kazetarien lanean duten berei biziko garrantzia agerian utziz. Lanbideak eta erakundeetan ezartzen diren lan-ereduak aztertu dituzten soziologoek, lehenagaien (iturri, informazio kasu honetan) aldakortasun maila, erakunde malgua izatea eta profesionaltasuna elkarrekin erlazionatuta daudela seinalatu dute; beste era batera esanda, lehenagaien aldagarritasuna gero eta handiagoa izan, are eta malguagoa erakundea bera eta are eta handiagoa bertako langileen profesionaltasun maila.


Horrekin batera, zalantzarik gabe arrazoizkoa da kazetariak ekoizten duen produktuaren gaineko kontrol hertsia duenenean, produktuaren edukia inguruan erabakitze askatasun handiagoa izango duela. Ildo horretan, bi irratietako kazetariak betetako inkestaren arabera, Radio nan Gàidheal-go kazetarien artean adostasun maila handiagoa dago euren edukia erabakitze askatasuna dutela baieztatzearen ideian, Euskadi Irratiko kazetarien artean baino (irudia 17). Hala ere, azken kasu honetan, gaelikoen artean ez bezala, desberdintasunak ageri dira mota guztietako gaiak landu behar dituzten -bai albistegi arloan baita tematika asko lantzen dituzten magazinetaoan ere- eta eduki jakin batzuetan espezializatuak dauden kazetarien artean -gai politikoak, nazioartekoak, kultura arlokoak, kiroltakoak, ekologia eta zientzia gaiak lantzen dituztenak, gizarte arazoak, musika, humorea, eta abar). Azken kazetari horiek 5.0etik 3.8 puntu eskaini diete batz bestea

"erabateko autonomia dut nire edukiak lantzeko" baieztapenari, eta mota guztietako gaien lanketan ibiltzen diren kazetariak berriz 2.7ko puntuaketa, autonomia gutxiago dutela hautematen adieraziz. Euskadi Irratian beraz, beste alderdi batzuetatik haratago, gai orokorretarako kazetaria edo tematika batean edo gutxi batzuetan espezializatua izateak, eragin handia du automiaren pertzepzioan.



Irudia 17: "Erabateko autonomia dut nire edukiak lantzeko" baieztapenaren inguruan Euskadi Irratiko (EITB) eta Radio nan Gàidheal-go (BBC) kazetariak duten iritzia (1= erabat desados, 5= erabat ados). Iturria: Autorearen inkestan oinarritua.

Hala ere, bideratutako behaketa eta inkestetan adierazten denez, badira parametroak zeintzuenganako kazetariak jarrera bera adierazi duten. Horien artean ditugu beste hedabideetako kazetariak euren lana estimatzen dutenaren ustea eta lanbide honek gizartean eragiteko ahalmena ematen dienarena (irudia 18). Euskadi Irratian kazetarien %47ak uste du beste komunikabideetako kazetariak hala moduz estimatzen dutela euren lana, eta %21ak zalantzarik gabe estimatzen dutela uste dute. Radio nan Gàidheal-en %43ak erantzuten dio hala moduz "beste hedabideetako kazetariak biziki estimatzen dute neure lana" baieztapenari, eta %22a berriz ados dator. Bestalde, kazetari euskaldunen %38a eta gaelikoen %28a ados dago esatean lanbide horrek gizartean egiteko ahalmena eskaintzen diela; gehienek (euskaldunen %42ak eta gaelikoen %40ak), "hala moduz" erantzuna aukeratu dute "lanbide honek gizartean eragiteko ahalmena ematen dit" esaldiari erantzuteko, eta gutxiengo batek besterik ez (euskaldunen %2ak eta gaelikoen %8ak) ezezkoarekin.




Irudia 18: "Beste hedabideetako kazetariak biziki estimatzen dute neure lana" eta "Lanbide honek gizartean eragiteko ahalmena ematen dit" baieztapenen inguruan Euskadi Irratiko (EITB) eta Radio nan Gàidheal-go (BBC) kazetariak duten iritzia (1= erabat desados, 5= erabat ados). Iturria: Autorearen inkestan oinarritua.


Oro har, Euskadi Irratiko kazetari guztien %30ak uste du euren eguneroko lanean ez dutela ekoizten duten edukiaren inguruan hausnartzeko denborarik, eta gaelikoen artean %12.9a besterik ez dator bat baieztapen horrekin (irudia 19). Aurretik azaldu ditugun kazetari euskaldunen eta gaelikoen lanaren egituraketan eta errutinetan topa dezakegu horren arrazoi eta erantzuna, eta datu horiek beste batzuekin erkatuz gero Spearman-en korrelazioetarako adierazlea erabiliz, bi kazetari taldeetan korrelazio negatiboa ageri da edukien inguruan hausnartzeko denborarik ez izatea eta beste hedabideetako kazetariak euren lana balioztatzearen artean. Honek esan nahi du, denbora eta kanpokoen balioztapena estuki lotutako bi adirazle direla, eta beraz, hausnartzeko denbora gehiago dutela sentituko balute, beste kazetariak euren lanarekiko izango luketen balioztapena ere hobea izango zela iritziko lukete. Horrez gain, Radio nan Gàidheal Euskadi Irratian ematen ez den korrelazioa gertzen da edukiak ekoizteko autonomiaren eta gizartean eragiteko ahalmenaren pertzepzioen artean.

Oso jarrera desberdinak ageri dira ordea eskura dituzten baliabide teknikoaren beharrei dagokienez. Euskadi Irratian %8a baino ez datorrenean ados "baliabide tekniko gehiago beharko nituzke nire lana hobeto burutzeko" baieztapenarekin, Radio nan

Gàidheal-en %27ra iristen da akzetarien arteko adostasuna baiezkoa erantzutean (irudia 19). Testuinguru honetan, kontuan izan beharrekoa da aurreko ataletan azaldutakoa, alegia, BBCko Gaeliko Sailean albistegietan lan egiten duen kazetari orok irratia eta telebistarako lan egiten duela, eta beraz, honek baliabide teknologikoak ere puntakoak izatea eskatzen du euren lana ahalik eta modu eraginkorrenean bideratu ahal izateko. Gaelikoen kasuan, gainera, nabarmentzeko moduko korrelazio positiboa ageri da baliabide tekniko gehiago behar izan eta beste komunikabideetako kazetariak euren lana balioztatzearen artean . Beraz, baliabideekiko pertzepzioak gora egiten badu, beste kazetariak euren lana estimatzen dutenaren iritzia ere positiboagoa izango da.


Haatik, gaur egun euren hedabideen baitan sortzen dituzten edukiei dagokienez, kazetari gaelikoak aseagoak ageri dira euskaldunekin alderatuta. Euskadi Irratian kazetarien %30a ados dator "alde handia dago egiten dudana lanaren eta egin nahi nukeenaren artean" baieztapenarekin; Radio nan Gàidheal-en kazetarien %14ak besterik ez du modu berean erantzuten (irudia 19). Alderantziz, esaldi horrekiko desadostasuna erakusteak asetasun maila handiagoa adierazten du, eta Euskadi Irratian desadostasuna %34koa denean, gaelikoen irratia publikoan lan egiten duten kazetarien artean ia erdira iristen da, %47ak erantzuten baitu desadostasunez. Honek esan nahi du, Euskadi Irratian %30ak bestelako eredu jarraituko luketen edukiak sortu nahi izango lituzketela, baina aldi berean %34a gustura dago eskaintzen dituzten produktuekin.





Irudia 19: "Egunerokoan ez dut lantzen dudan edukiaren inguruan hausnartzeko denborarik", "Baliabide tekniko gehiago beharko nituzke nire lana hobeto burutzeko" eta "Alde handia dago egiten dudan lanaren eta egin nahi nukeenaren artean" baieztapenen inguruan Euskadi Irratiko (EITB) eta Radio nan Gàidheal-go (BBC) kazetariak duten iritzia (1= erabat desados, 5= erabat ados). Iturria: Autorearen inkestan oinarritua.

Azkenik, aurretik metodologia arloan azaldutako erredundantzia-analisiaren arabera kazetarien jokabidean jazo daitezkeen aldaketarako joerak aztertuko dira (20 eta 21. irudiak). Analisi honek zera bilatzen ditu: barne-egiturak, zer banaketa latente dauden aldagaien artean (adina, beste kazetariengandik ustez jasotako estimua, gizarteari eragiteko gaitasuna, eguneroko lanetarako astirik eza, baliabide teknikoen premia, soldata, edukia sortzeko autonomia, nagusiengandik jasotako iruzkinak eta laneko poztasunik eza), eta behaketak (kazetariak). Funtsean, erredundantzia-analisiak integratu eta sinplifikatu egiten ditu kazetarien pertzepzio-aldagaiak eta kazetarien ezaugarriak. Kazetariak agertzen dira beren saioan egiten ari diren lanaren arabera; izan ere, ezaugarri hori, arestian aipatutako moduan, gainerakoak baino lotuago dago aldagaiekin. Analisi honek ikuspegi desberdin batetik begiratzen die ikuspuntu kualitatiboak.




20. irudia: Erredundantzia-analisiaren biplota, Euskadi Irratiko kazetarien pertzepzio-aldagaien eta kazetarien ezaugarrien artean. Aldagai baten geziaren luzerak eta posizioak adierazten du zer garrantzi duen ardatzetan. Iturria: Egilearen neurketa.

Euskadi Irratiko aldagaien eta kasuen banaketa espazialari begira, kazetarien jokabideko bariazio-joera nagusia poztasunarekin lotutako aldagaietan dago. Honako hauek dira lehen ardatzean pisu gehien duten aldagaiak: beste kazetariengandik ustez jasotako estimua, gizarteari eragiteko gaitasuna, eta edukia erabakitzeko autonomia (eskuinean). Bestalde, lehen ardatzarekiko korrelazio negatiboa dute aldagai hauek: edukien produkzioan hausnartzeko astirik eza eta laneko poztasunik eza (egiten dutenaren eta egin nahiko luketenaren arteko aldea). Beraz, bariazio-joera nagusia

honako hau dela esan liteke: lankideengandik eta gizartearengandik jasotako estimua. Beste kazetarien ustezko estimuak eta gizarteari eragiteko gaitasunak aldatu egiten dute euskal kazetarien jarrera, eta hausnartzeko astirik ezak eragin txarra du eragile horietan. Bi munduren ikuspegia agertzen da grafikoan: eskuineko adierazpenek eragin positiboa dute kazetarien laneko poztasunean eta profesionaltasunean; ezkerreko aldagaietan, berriz, desilusioa ikusten da kazetariak sortzen ari diren edukiagatik eta edukiaz hausnartzeko astirik ez edukitzeagatik.

Bigarren ardatza kazetarien adinarekin dago loturik, eta bestaldean ditu nagusien iruzkinak eta laneko poztasunik eza. Hala, kazetari zaharragoak pozikago daude kazetari gazteak baino. Baliabideen premia oso aldagai laburra da eta ez da joera indartsua. Grafikoan agertzen da, era berean, kazetari bakoitzak zer jokabide duen bere saioari eragiten dioten aldagaiekiko. Eduki espezializatuetan ari direnak (ekologia, musika, gai sozialei buruzko gaueko saioak, kultura, teknologia, politika) grafikoaren eskuinean daude, estimuarekin eta laneko poztasunarekin loturik. Aldiz, grafikoaren ezkerreko eduki orokorreko saioetan ari diren kazetariak poztasun edo asetasun ezarekin daude loturik.



21. irudia: Erredundantzia-analisiaren biplota, Radio nan Gàidheal-eko kazetarien pertzepzio-aldagaien eta kazetarien ezaugarrien artean. Aldagai baten geziaren luzerak eta posizioak adierazten du zer garrantzi duen ardatzetan. Iturria: Egilearen neurketa.

Radio nan Gàidheal-en kasuan, lehen ardatzak korrelazio positiboa du baliabide teknikoaren premiarekin eta laneko poztasunarekin, eta korrelazio negatiboa du nahikoa diru irabaztearen pertzepzioarekin. Beraz, baliabideen premia da lehen bariazio-joera.

Bigarren ardatzean eragin zuzena du beste kazetariengandik ustez jasotako estimuak eta gizarteari eragiteko gaitasunak. Alegia, Radio nan Gàidheal-eko kazetarien bigarren bariazio-joera bat dator Euskadi Irratiko profesionalen lehenarekin. Hala, baliabiderik eza ez da aldagai garrantzitsua Euskadi Irratian, baina Radio nan Gàidheal-en bai.

Beste kazetariengandik ustez jasotako estimua eta gizarteari eragiteko gaitasuna berdinak dira bi irratiengan: kanpoko aitortpenarekiko jarrerak norabide bera du bi

taldeetako kazetarien artean. Kazetari gaelikoen kasuan, ordea, lotura bera dago poztasunik ezaren eta baliabide premiaren artean; Euskadi Irratian, baina, ez dago horrelakorik.

Kazetarien banaketari dagokionez, Radio nan Gàidheal-en ez dago harremanik aldagaien eta saio motaren artean. Modu irregularrean daude banaturik, eta ez da eredurik agertzen. Hori izan daiteke ez dagoelako alde handirik albisteetan, artikuluetan edo eduki espezializatuak sortzen ari diren kazetarien artean. Esate baterako, lehen azaldu dugunez, euskal kazetariak hainbat poztasun maila sentitzen dute egiten ari diren lanarekiko, baina ez dago halakorik gaelikoen artean.

Faktoreen analisisa aplikatu da hedabideetako profesionalei buruzko beste zenbait azterlanetan ere. Australiako kazetarien balio etikoei eta profesionalei buruz Henningham-ek egindako lanean (1996: 206-218) eta kazetari estatubatuarrari buruz Weaver-ek eta Wilhoit-ek egindako azterlanean (1991) hiru balio dira garrantzitsuenak kazetariarentzat: soldata, laneko autonomia eta garapen pertsonala (besteak beste, gora egitea eta lanaren segurtasuna).

Ikerketa honetan, Henningham-ek garapen pertsonala esaten ziona izan liteke kazetariak aitortzen sozialari emandako garrantzia, hau da, beste hedabideetako kazetarien estimua jasotzea eta gizartean eragina izatea. Areago, bai kazetari euskaldunek bai gaelikoek garrantzia ematen diote edukia sortzeko askatasunari; dena dela, Radio nan Gàidheal-eko langileentzat baliabide premia garrantzitsuagoa da, eta Euskadi Irratikoentzat, berriz, eguneroko edukiei buruz hausnartzeko astia.

Euskadi Irratiko (EITB) eta Radio nan Gàidheal-go (BBC ALBA) kazetarien profil eta jarren alderaketa

V. ONDORIOAK

V. ONDORIOAK

Tesi honetan Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go profesionalen lehen eskuko iturriak sortu eta ezagutarazi dira, irration kazetariei buruzko jatorrizko lehenengo ikerketa sortuz. Horretarako metodo kualitatiboak eta kuantitatiboak erabili ditugu eta horrez gainera triangelatzea erantsi dugu eta honek gainbalioa erantsi dio gure ikerlanari. Euskadi Irratia hartzen dugu azterketa gune nagusitzat eta atzerriko erreferentzi loturak egiteko Radio nan Gàidheal-go kasua eta esperientzia hartzen dugu. Euskadi Irratiaren sorrerarako ezinbestekoa izan zen Loiolako Herri Irratiko profesionalak urratutako bidea, irrati publikoa profesional horiekin hornitu baitzen hein handi batean. Alde horretatik ezinbesteko erreferentzia dugu Loiolako irratico ekimena eta "24 ordu euskaraz" egitasmoa (1976). Hala ere, egungo Euskadi Irratiko kazetari euskaldunen kezka eta lan-ohiturak frankismo garaikoen desberdinak dira, baita profil sozial eta profesionala.

11. PROFIL SOZIALA ETA IBILBIDE PROFESIONALA

11.1. Euskara edo gaeliko hiztun gehien dauden eskualdeetan dute jatorria bi irrati-tako kazetariak, eta etxeko girotik bereganatu dute hizkuntza. Hizkuntzaren alfabetatzea gainera irakaskuntza arautuan jaso dute biek. Aldiz, egungo Euskadi Irratiko kazetaria helduagoa dugu adinez irrati-a heldu aurretik kazetaritza jarduna maila teorikoan barneratua duena; Radio nan Gàidheal-goak ordea hizkuntzalari profila du garatuago eta hedabidean jasoko ditu kazetaritza dagozkion ezagutzak. Azken irrati honetako kazetaria egun adinez gazteagoa izatearen arrazoia, 2008an sortutako BBC Alba gaeliko hutsezko telebista dugu; BBCren eskutik irrati eta telebistarako formazioa jasoko duen jende gaztea bildu zen idazgela gaelikora.

Euskadi Irratiko kazetariak 39 urte ditu batez beste; gipuzkoarra da (euskaldun kopuru gehien kontzentratzen den lurraldea erlatiboki), Loiolako Herri Irratiko kazetari oro gipuzkoarra zen bezalaxe, irrati horretatik euskara hutsezkoa egon zen trasbasea agertuz; euskaraz lehendabizi etxean ikasitako da, euskaldun zaharra; unibertsitate mailako ikasketak ditu euskara hutsean eginak; funtsean kazetaritzan eta ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatu da. Radio nan Gàidheal-go profesionalak 31 urte ditu batz bestea; The Outer Hebrides deritzon eskualdean du jatorria, alegia mendebaldeko irlak (Western Isles) eta Long Island; etxean eta eskolan ikasi zuten

gaelikoz Radio nan Gàidheal-go kazetari gehienek, nahiz eta laurden batek helduentzako eskola batean bereganatu hizkuntza ezagutzak; unibertsitate ikasketak ditu kazetari honek ingelesez beteak; erdia ikasketa zeltikoetan dira lizentziatuak eta beste erdiaren artean Ingeles Filologia eta Literatura eta Hizkuntza eta Kultura Gaelikoa dira nagusi; halere kazetarien laurden batek Master mailako ikasketak ditu kazetaritza eta multimedian.

11.2. Euskadi Irratiko kazetariak ibilbide profesional anitzagoa dute, baina Radio nan Gàidheal-go kazetariak malgutasun handiagoa dute eguneroko lanetan. Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go batz besteko kazetariak, egun dagoen irrati publikoan garatu du karrera profesional osoa. Alabaina, Euskadi Irratian aniztasun gehiago ematen da, 10etik 2k ETB1 euskarazko telebistan ere lan egin dutelako (albistegi eta programetan), eta 10etik 1ek idatzizko hedabideetan eta euskarazko irrati pribatuetan. Gaelikoen kasuan, nabarmenagoa da lantaldearen parte diren albistegietako kazetariak Radio nan Gàidheal-en eskuratutako esperientzia besterik ez dutela; halere azkeneko lau urteetan gaelikozko telebista katearekin esperientzia profesionala aberastu dute.

12. KAZETARIEN LAN-FUNTZIONAMENDUA ALBISTEGIETAN ETA PROGRAMETAN

12.1. Eguneroko lanean Euskadi Irratiko kazetariak Radio nan Gàidheal-goak baino lotura handiago du bere nagusiekin, alegia, bere editore eta arlo buruekin. Euskarazko irratian albistegi nagusiko eta orotariko gaiak lantzen dituzten magazinetao kazetarien lan-errutinak, bilera editorialen inguruan eraikitzen dira. Radio nan Gàidheal-en albistegietako kazetarien errutinak gaelikozko irrati eta telebistaren albiste ekoizpen beharren arabera ezartzen dira: albistegietako kazetariak txandakatzean oinarritutako lan-ordu eta eginbeharrak dituzte, errotaziozko [*a router*] egiteko eta ordutegietan antolatutako. Alde horretatik sistematizatutako bilera nagusi bi dituzte eta albistegietarako editore bakarra. Programa gaelikoetakoek ez dute eguneroko harreman sistematikorik euren editoreekin. Euskadi Irratian beraz, gehiengo kazetarien lan-ohiturak hierarkia zurrunago batean daude txertatuak. Hala ere, bi kasuetan beren nagusiekin, arlo buruz eta editoreekin, kontaktu zuzena dutela

adierazten dute kazetariak inkestan; joera bera jaso dugu sakoneko elkarrizketetan eta behaketetan ere, beti ere proportzio handiagoan albistegitako kazetarien kasuan.

12.2. Kazetarien egunerokoan iturri erabilienak komunikabideetatik eratorritako zeharkako iturriak dira: Euskadi Irratian gaztelerazko prentsa eta Radio nan Gàidheal-en ingelesezko prentsa dira erabilienak. Horien ondoren, komunikabide Taldeko hedabideak: Radio Euskadi, ETB, Radio Scotland eta BBC telebistak. Bi kasuetan komunikabideen ondoren erakunde publikoak eta berri-agentziak dira informazio-erreferentzia baliatuenak. Euskadi Irratian gaztelerazko prentsa esatean, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) salmenta handiena duten egunkariak (*El Correo*, *Diario Vasco*) kokatzen dira. Interesgarria da ondorioztatzea hala ere, kazetariak gizarteak azkeneko prentsa horrengana duen dependentziaren kontziente direla eta bileretan horiei jarraipen hertsia (“*segidismoa*”) ez egiteko beharra izaten dutela aipagai.

Iturriak zuzenekoak direnean, Euskadi Irratian erakunde publiko, alderdi politiko eta herritarren elkarretetako adierazpenak ageri dira gehien; Radio nan Gàidheal-en, aldiz, komunitate gaelikoaren baitako herritarren elkarreak. Euskadi Irratiko albistegietan politikak Radio nan Gàidheal-en baino presentzia handiagoa bereganatzen du, kazetarien %63arentzat iturririk garrantzitsuenak izanik alderdi politikoen prentsaurrekoetatik eratorritakoak. Hala ere, albistegien esparruan Radio nan Gàidheal-en zuzeneko iturriak ugariagoak dira euskarazko irradian baino. Honek eragin zuzena du kazetarien idazgelatik kanpoko mugikortasunean. Euskadi Irratian eskura dituzten zeharkako iturri oldeak, kazetarien mugikortasun maila murrizta izatea eragin du, Europa mailan zabalduko bulegoko kazetaritzaren joera jarraituz. Radio nan Gàidheal-go albistegietako kazetarien mugikortasuna, ordea, handiagoa da, komunitate gaelikoaren errealitateaz arituko diren hedabideen eskasia eta telebistako albistegia hornitzeko beharrak bultzatuak. Egiteko eta ordutegien errotazio [router] ereduaren ondorioz, albistegietako lantaldean irrati zein telebistan aurkezle eta erreportari lanak egiteko gai diren profesionalak daude; albistegietako pertsonalaren %44,4 “reporter” gisa klasifikatuak daude -eta %47,2a hilean bi asteetan VJ Video Journalism lana egiten duten aurkezleak barneratuta-. Zuzeneko iturriak, beraz, komunitate gaelikoak osatutakoak dira.

12.3. Euskadi Irratiaren albistegietan kazetariak EAE mailako gaiak lehenesteko jarrera du, eta Radio nan Gàidheal-go albistegietakoek, gaeliko hiztunen lur-muineko (*Gaelic-speaking heartland*) gaiak lehenetsiko dituzte. Magazinetan ikuspegi berdintsua aplikatzen da, nahiz eta Radio nan Gàidheal-en komunitate barrura begiratzeko tendentzia gehiago dago Euskadi Irratiko ikuspegi zabalagoarekin alderatuz. Horrez gain, Euskadi Irratiko kazetariak nazio ikuspegia oso txertatua du bere irudipenean, EAEn ondoren, Nafarroa eta Iparraldeko informazioa lehenesteko jarrera hartuz; Radio nan Gàidheal-go kazetariak egitura administratiboa baino gaeliko hiztun komunitatearen erreferentzia du buruan, komunitate hori Eskozian edo Kanadan izan.

Euskadi Irratiaren kasuan, horrez gain, Espainia, Europa eta albiste internazionalak gaur egun irratan presentzia nabarmena dute, kazetariak entzule euskalduna mundu osoko errealitatearen jabe izatea nahi dutenez gero. Kazetarien ikuspegia da hurbilekoa zaintzea baina perspektiba orokorragoa galdu gabe. Ez dute baldintza euskal hiztunen inguruetako berriak lehenestea. Editoreek irratiak bere agenda propioa izan dezan lan egiten dute, Radio Euskadi edo EITBko beste hedabideetatik aparte. Halere, azpimarratzekoa da kazetariok ez dutela nahi beren albistegiak beste hedabideenetatik guztiz bereiztea. Gainera, albistegi buruak/zuzendaritza taldeak erabakitzen badu gai baten lanketa estrategikoa dela EITB Taldearentzat, Euskadi Irratia ere dinamika horretan sartuko da.

Radio nan Gàidheal-go kazetariak eta albisteetako editoreak batik bat, Mendebaldeko Irlak eta Highlands eta Islands-etako eskualdeetako istorioak izango dituzte lehentasunezko eskaleta zehazterakoan (*running orders*). Radio nan Gàidheal-go editoreek beste edozein hedabidek landuko ez lituzkeen istorioetan jarriko dute arreta, baina ez dute albistegi agenda erabat independentea sortu nahi. Hortaz, Euskadi Irratiko eta gaelikoen irrati publikoko editoreak bat datoz gainontzeko hedabideen agendetatik gertu mantentzearen jarrerarekin. Dena dela, gaelikoen irratan Eskozia, Erresuma Batua eta nazioarteko berriek ere lekua izango dute eguneroko albisteetan, entzuleek beste inora jo ez dezaten izanik helburu.

12.4. Kazetarien arteko konbergentzia prozesurik ez da ematen Euskadi Irratian, baina bai aldiz Radio nan Gàidhel-go albistegietako kazetarietan. Euskadi Irratiko kazetariak irratirako egiten dute lan beren-beregi, ez da gurutzaketa sistematikorik ematen kazetari horien eta EITBko beste hedabide batzuen artean. Radio nan Gàidheal-en albistegietarako *bi-media* kazetaria dugu, irratirako eta BBC Alba gaelikozko telebista kateko edukia ekoizten dituenak. Euskadi Irratian gaur egun kazetariak konbergentzia prozesuekiko ikuspegi pasibo espektatiboa dute. Ez dira agente aktiboak eta EITB korporazioaren erabakien zain daude. Nolanahi ere, eduki mailako konbergentzia edo bateratasun ez-sistematikoak (ez-arautuak) ematen dira, kazetariak euren saioetan Radio Euskadi eta EITBko edukia erabiltzearekin batera.

Irrati euskaldunean ez da kazetarien konbergentziarako beharrik ikusi, komunikabide bakoitzak hasieratik izan baitu bere lantalde propioa eta gaur egunean Euskadi Irratian albisteak antolatuta dauden eran, ezingo litzateke horrelakorik eman: Euskadi Irratian bi albistegi nagusiez gain orduz orduko buletinak dituzte 24 orduz eta gauean albistegi luzeagoa bat; eta EITB1en ordubeteko bi albistegi.

Radio nan Gàidheal-en aldiz, albistegietarako kazetari guztiak telebistan aurkezpen lanak egiteko eta bideo kamerak erabiltzeko heziak daude. Irratia eta telebista gaelikoaren arteko albistegietako kazetarien arteko konbergentzia egoerak behartuta eman zen, 2008an gaelikozko telebista sortu zenean. Alegia, BBC Alba-ren albistegi lantaldea Radio nan Gàidheal-go pertsonalak hornitu du. Irratiko albistegietako kazetari guztiak telebistarako ere trebatu dira, eta orduetik Gaeliko Saileko albistegietara heldutako kazetari berriak bi hedabideetarako trebatu dituzte. **Konbergentziak** gaelikoen irratan izan duen eragina: 1) irratiko edukien zuzeneko iturriak aberastea, telebistan beharrezkoagoak zaizkielako zuzeneko adierazpenak eta lehen eskuko istorioen irudiak; 2) profesionalak mugikortasun eta ondorioz malgutasun handiagoa du bere lanean, bulegoko kazetaritzatik eta erredakzioko lanera mugatutako errutinetatik ihes eginez; 3) kazetaria gaeliko hitzunen artean gain ingeles komunitatean ere ezagunagoa da, telebistako albistegiek ingelesezko azpigituluak izatean, irratia entzuten ez duen audientzia ingelesak kontsumitzen duela agertu delako. Ezaguna izatearen pertzepzioak areagotu egiten du kazetariak bere lanaren inguruan duen estima eta lan motibazioa.

Inkestaren emaitzetan, Radio nan Gàidheal-go albistegietako *bi-media* kazetariak Euskadi Irratiko albistegietakoak baino gusturago ageri dira egun egiten duten lanarekin. Behaketen bitartez baieztatu dezakegu asetasun hori lanean duten malgutasunari eta konbergentzia ezartzeko lan-erritmo egokiei zor zaiela.

Testuinguru honetan hala ere esan beharra dago, ez irrati bateko ez besteko kazetariak ez dutela irrati web-gunerako edukien produkzioan parte hartzen. Egun gainera ez dute horretarako abagunerik ikusten. Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go web-guneak irrati lantaldeko kazetari batek kudeatzen ditu, kazetari horrek bi kasuetan irratiarako edukiak ere ekoizten dituelarik. Web-gunea irratiak eskainitako edukietatik elikatuko da, programen aurreikuspenak bai baina sarerako espresuki ekoiztutako edukirik agertu gabe.

12.5. Aurreko egileek proposatutako kazetari rolen artean, hizkuntza gutxituetan lan egiten duten kazetariak, baliabide urriak direla eta, informazioa azkar emateaz baino arduratuagoak daude arazo konplexuak azaltzeko giltzarri eta informazio iturri anitzak eskaintzearekin. Alegia, euren audientziarentzat korapilatsuak baina baita interesguneak izan daitezkeen gaiak aukeratu eta azaltzearekin.

12.6. Kazetaritzaren ideologia profesionala aztertzen duten autoreek, kazetarien balio nagusiak, zerbitzu publikoa eskaintzea, eta autonomia, objektiboa eta etika izatea dira. Hizkuntza gutxituen inguruko azterketa honetan, balio berri bat agertzen zaigu. Elkartasunaren balioa dugu hau, autonomia, gizarte erantzukizuna eta etikarekin batera agertzen dena. Hau da, gure kasuetan irrati kazetarien komunitatearen luzapena da.

12.7. Radio nan Gàidheal-go kazetariak bi hedabideetan lan egiteko gaitasuna garatu dute, aro berri batera egokitutako editore eta komunikabideetako zuzendariek eskatutako ahalmena. Euren eguneroko lanean, kazetari gaelikoek lan pentsamolde malguetara eta errutina aldakorretara egokitzeko gaitasuna garatu dute.

13. HAUTEMANDAKO OZTOPOAK ETA EMANDAKO ERANTZUNAK

13.1. Gaztelerazko edo ingelesezko jatorrizko adierazpenak bere horretan erabiltzea dute egokien bi irratietako kazetarien gehiengoak, beti ere aipu zuzen horiek nahitaezkoak badira helarazitako diskurtsoan. Alegia, euskaraz edo gaelikoz ez diren aipuek istorioari adierazgarritasuna erantsi diezaioketenean. Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go kazetarien helburua errealitatea islatzea denez, beste hizkuntza horiek ere ezinbestean agertu behar direla iristen diote.

Albistegietan erdarazko aipuak sarriago erabiltzen dituzte, eta egoera horretan jatorrizko aipua hasieran eta bukaeran entzutea eta erdikoa kazetariak gainetik bikoiztea da, kazetariak batez beste hobetutako jarrera. Kazetarien ikuspegia da hizkuntzaren normalizazioa bai, baina horren gainetik komunikatzaileak eta kazetariak direla. Azken ondorio horrek, arlo honetan egin diren beste ikerketen emaitza desberdina agertzen du.

13.2. Radio nan Gàidheal-go albistegi taldeak eta Radio Scotland-ekoak (ingelesez) ez dute araututako harreman sistematikorik egunerokoan. Euskadi Irratia eta Radio Euskadiko (gazteleraz) albistegietako buruek berriz, araututako bilera editorialak dituzte egunero. Lan-ohitura horien atzean egituraketa jakin bat ageri dela ondorioztatzen dugu: Euskadi Irratia eta Radio Euskadi (gazteleraz) sozietate anonimo berearen azpian daude eta egitura bera dute: albistegi, programazio eta kirol buruak eta horien gainetik dagoen beren irratiko zuzendaria. Radio nan Gàidheal eta BBC Alba kateak ordea, egitura propioa duen Gaeliko Sailaren barnean kokatzen dira. Radio Scotland eta BBC Scotland (One, Two) kateetako edukiak, Albiste Sailaren eta Programen Sailaren barnean ekoizten dira; aitzitik Gaelikoen albiste eta programak, Gaeliko Sailean.

Radio nan Gàidheal-go albisteetako editoreak eta kazetariak askatasun gehiagoz osotuko dute beren agenda propioa, Radio Scotland eta BBC Scotland-etik at. Tokiko edo berri nazionalak (Eskozia eta U.K.) estaltzearen agenda euren esku dago betebetan. Haatik, albiste gaelikoen editorearentzat banaketa horrek baditu bere hutsuneak, Radio Scotland-eko albisteen saila pertsonal aldetik profesionalagoa. Hala

ere, Estandar Editorial berak ezartzen zaizkie BBC Scotland hedabideei, gaelikoenak barne.

Euskadi Irratiko eta Radio Euskadiko agendak bere kabuz eratzen dira, baina arlo buruen eguneroko bilerek, bi irratietako kazetariak maiz gai bera lantzerantz bideratzen dute.

13.3. Irratian oro har hizkera-mailak behera egin duela iristen diote Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go kazetariak. Hala ere, bi irratietako kazetariarentzat helburu nagusia ideiak komunikatzea da, hizkuntzaren erabilera arautua normalizatzearen gainetik. Euskadi Irratian gipuzkeran oinarritutako euskara batua erabiltzen dute kazetariak. Loiolako Herri Irratiaren esperientziak irratirako euskara asmatu zuen gipuzkeran oinarriturik, Euskadi Irratiari bidea eginez. Euskaraz jolasteko gaitasuna eta sintaxiaren erabilera zuzenak egin du behera, nahiz eta gure behaketek baieztatu dezaketen hizkuntza-maila oso ona eskaintzen dutela. Radio nan Gàidheal-en oraindik bakoitzak bere eskualdeko gaelikoa erabiltzearen alde daude, baina hizkeraren erabilerak gramatika eta hiztegiaren behera egin dutela azpimarratzen dute kazetariak. Bi irratietan kazetari helduenak (40 urtetik gora) dira hizkera mailan kritikoenak ageri direnak.

14. PROFESIONALITASUNAREN ADIERAZLEAK

14.1. Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go kazetariak, euskal/gaeliko hizkuntza defendatzen eta bultzatzen duten kazetari profesionaltzat dute euren burua. Eta ezarri ditugun indikadoreen bidez profesional direla frogatzen dugu. Kazetarion ikuspegitik kazetaritza jarrera profesionalak hizkuntzarenganako apologiaren maila berean edo gainetik egon behar du, eta hizkuntzaren garbitasunaren gainetik beti ere. Era berean, Euskadi Irratiko kazetariak euskarazko hedabidean geratuko dira, ez euskararen aldeko militantzia hutsagatik, baizik eta beren errealitatea islatzen duen hedabidea delako. Radio nan Gàidheal-en kasuan argiagoa da hizkuntzarekiko atxikimendu sentimendua: irratirako *freelance* gisa lan egiten dutenen arrazoia, komunitate gaelikoak kazetariak behar dituen da. Hala ere, Radio nan Gàidheal-go lantaldeko kazetarien ikuspegitik gaelikozko hedabideetan jarraitu nahi dute, lan desafiatsuak

dela deritzotelako eta beste hedabideek eskainiko ez lieketen malgutasun profesionala eskaintzen dielako.

14.2. Ez da kazetaritza espezializatu hazteko ekimen sistematikorik garatu aztertutako irratietan. Hala ere kasu bietan badira bere kontura arlo jakinetan espezializatu diren kazetariak edota eduki jakin batzuen inguruko programak ekoizten dituztenak

14.3. Euskadi Irratiko eta Radio nan Gàidheal-go kazetarien ikuspegitik, hala moduzko autonomia dute nahi dituzten edukiak lantzeko. Hala ere, Euskadi Irratian desberdintasunak daude kazetarien eginbeharren eta edukiak erabakitzeko sumatutako askatasunaren artean: autonomia gehien antzematen duten kazetariak arlo espezializatuetoakoak dira (kultura, kirolak, gaueko programan gai sozialak, ekologia, umorea, unibertsitate ezagutza). Radio nan Gàidheal-en aldiz, ez dago alde nabarmenik hautemandako autonomia eta egun kazetariak betetzen duten lanaren artean. Bi irratietan ematen diren egoera desberdinen azalpenak, bestelako ikerketaren beharra dute.

14.4. Euskadi Irratiko kazetariak edukiak lantzeko denbora gehiago duenean, bere autonomia pertzepzioa ere altuagoa da. Radio nan Gàidheal-go kazetariak autonomia maila altuagoa sentituko dute, gizartean eragiteko ahalmena ere handiagoa dela uste dutenean. Hala ere, bi irratietako kazetarien pertzepzioak osagarriak dira. Autonomiak inplikatzeko du alde batetik denbora gehiago izatea hausnartzeko, euskarazko kazetarien kasuan bezala. Hasierako usteen kontra, goi-mailako ikasketen esparruak baino, irratian dituzten eguneroko eginbeharrek baldintzatzen dute edukiak erabakitzeko askatasuna.

14.5. Radio nan Gàidheal-go albistegietako kazetariak, kontrol zuzenagoa du ekoizten duen edukiarekiko Euskadi Irratikoak baino. Profesionaltasuna eransten dion faktore horrek, albistegietako kazetariak albisteen ekoizpenean duten parte-hartze eta mugikortasun mailagatik jazotzen da.

14.6. Albistegietako kazetari gaelikoak jarrera aktiboagoa du lehen eskuko istorioen berri emateko eta portaera horretan oinarritzen du bere irratiares sinesgarritasuna. Euskadi Irratiko kazetariarentzat sinesgarritasuna lortzen da zeharkako iturri anitzak erabiltzen.

14.7. Euskadi Irratiko kazetariens aldaketarako joera garrantzitsuena [trend of variation], kazetariens balioztatzea eta gizarteans eragiteko ahalmena faktoreak eragiten dute. Alegia, errekonozimendu sozialak, bai euren lankideens bai gizarteans aldetik. Aldagai horiek hausnartzeko denborarekin daude erlazioatuak. Hortaz, sakoneko elkarriketek eta inkestek berretsia, Euskadi Irratian kazetariak jarrera bat edo beste izateans faktore nabarmena, edukiak ekoizteko denbora da. Arlo zehatzetan espezializatutako kazetariak denbora eta erritmo malguagoa izango dute. Radio nan Gàidheal-en baliabide teknikoens beharra da kazetariens jarrerans aldaketans eragin gehien duena. Lanerako errekurtsuens aldagai horrek korrelazio estua du beste hedabideetako kazetariens balioztatze pertzepzioarekin era berens. Beraz fineans bi kazetari kolektiboetan joerans eragiten dutens faktoreak berdina dira, baina gaelikoensetan pertzepzioa baliabide gehiago behar dutela da. Albistegietako kazetari gaelikoens eguneroko lana irratirako eta telebistarako edukiak era eraginkorreans sortzeans datza, eta berehalakotasunans printzipio profesionalari men egiteko, lan horretans garrantzi nagusia du piezens filmatze eta edizio lanetarako eskuratutako materialak.

14.8. Ikerketa kasu hau aurreko beste autore batzuek esandakoa konfirmatzerans dator: ikuspegi transnasional batetik, herrialde bakoitza laborategi desberdin bat bezala hartu behar da kazetariens jarduna aztertzerakoans. Euskadi Irratian autonomia profesionala indartzen laguntzen duena edukien espezializazioa da. Gainera, gaikako espezializazioak autonomiaz gain, eguneroko denbora falta arazoak leuntzen lagunduko lieke. Radio nan Gàidheal-go kazetariens ustez, BBC Scotland-en barneans egoteans abantailak hobeto aprobetxatu ahal izango balituzte -baliabide tekniko eta kazetaritza profesionalari begiratus-, euren kazetaritza indar handiagoa hartuko luke.

14.9. Ikerketa honek erakusten du ez dela egokia norberaren asebetetze pertsonalerako atributuak profesionaltasunaren balioetatik at uztea. Autore batzuek ilusioa izatea eta aniztasuna eskaintzen duen lanaz gozatzea profesionaltasun ezaren adierazle bezala klasifikatu badituzte ere, gaur egun ezaugarri horiek irradi kazetariaren lana bultzatu eta sormenez janzten dutela esan dezakegu. Gainera, azken ezaugarri horrek audientzia bera asegoa egotea ahalbidetu du, eta era horretan, gizarte erantzukizunaren beharra hobeto beteko da.

14.10. Beraz, ikerlan honek konfirmatzen du aurretik egin diren adierazle profesionalak eta ez profesionalak bereiztea gaituta dagoela. Maila altuko profesionala izateko, lanean autonomia izatea eta, era berean, lanaz gozatzea eta lankideen laguntza jaso nahi izatea ez dira bateraezinak.

14.11. Nahiz eta Euskadi Irratiaren kazetarien kasuan desberdintasun nabarmenak ageri diren kazetarien adinaren eta lanean duten asetasunaren artean, Radio nan Gàidheal ez da horrelakorik ageri. Honek berresten du adinaren adierazlea batzuetan determinantea izan daitekeela lanaren asebetetzean eta beste batzuetan ez, kazetari taldeen ezaugarri propioak bereizita. Kazetari euskaldun adinduenak asebetetze maila altuagoa izatea, edukiak erabakitzeko autonomiarekin du zerikusia.

15. ENTZULEAK ETA IRUDIKATUTAKO UNIBERTSOA

